

2022
(2)

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

EUSKERA

Lan eta agiriak / Trabajos y actas / Travaux et actes / Work and Proceedings



EUSKALTZAINDIAREN BULETINA



2022
2
BILBO
ISSN 2952-3036



EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • [webgunea: www.euskaltzaindia.eus](http://webgunea:www.euskaltzaindia.eus)

Buletin hau beste agerkariekin trukutzen da
Este boletín admite el intercambio con otras publicaciones
Ce bulletin s' échange avec d' autres publications
This bulletin can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN: 2952-3036

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

Euskaltzaindiaren buletina Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. 1920an *Euskera* agerkaria sortu zen eta 100 urtean Euskaltzaindiaren bitzitza akademikoa eta bere lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak argitaratu ditu. 2021etik aurrera, Euskaltzaindiaren bitzitza akademikoaren berri emateko asmoz, *Euskaltzaindiaren buletina* sortu zen. Aldiz, *Euskera* ikerketa aldizkarian artikulu akademiko eta bestelako eduki zientifikoak argitaratzen jarraitu dira.

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindia. Bilbo

Kideak

ADOLFO AREJITA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS

Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA

Euskaltzaindia

PATXI SALABERRI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea

ANA TOLEDO

Euskaltzaindia

MIKEL ZALBIDE

Euskaltzaindia

Idazkaritza lanak:

Euskaltzaindiaren Argitalpen teknikaria

Euskaltzaindiaren Egistasmoen bateragilea

Aholkulariak:

Euskaltzaindiaren idazkariordea

Euskaltzaindiaren kudeatzailea

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

AURKIBIDEA

[9-114] **EKITALDIAK**

[10-56] **Paskual Rekalde Euskaltzaindian sartzea**

[10-43] *Amaiurren gaindi ibilki (Sarrera-hitzaldia)*

REKALDE, Paskual

[44-56] *Paskual Rekalde euskaltzainaren Sarrera-hitzaldiari erantzuna*

URKIA, Miriam

[57-114] **Alfontso Mujika Euskaltzaindian sartzea**

[57-106] *Eta Euskaltzaindia kanpora begira ere jarri zen (Sarrera-hitzaldia)*

MUJIKA, Alfontso

[107-114] *Alfontso Mujika euskaltzainaren Sarrera-hitzaldiari erantzuna*

AZKARATE, Miren

[115-155] **HILBERRI-TXOSTENAK**

[116-124] *Pello Zabalaren hilberri-txostena (1943-2022)*

AGIRREBALTZATEGI, Paulo

[125-130] *Pello Apezetxearen hilberri-txostena (1932-2022)*

IÑIGO, Patxi

[131-140] *Iñaki Seguro-laren hilberri-txostena (1962-2022)*

LAKARRA, Joseba

[141-146] *Miren Jone Azurzaren hilberri-txostena (1929-2022)*

AZURMENDI, Nerea

[147-150] *Eustasio Etxezarretaren hilberri-txostena (1938-2022)*

ZUGAZAGA, Lontzo

[151-152] *Txomin Peillenen hilberri-txostena (1932-2022)*

COYOS, Jean-Baptiste

[153-155] *Txomin Peillenen hilberri-txostena (1932-2022)*

DAVANT, Jean-Louis

[156-234] **AGIRIAK**

- **Euskaltzaindia. Batzar-agiriak**

[158-163] *Osoko Bilkura*

Bilbon, egoitzan. 2022ko urtarrilaren 28an.

[164-168] *Osoko Bilkura*

Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian. 2022ko otsailaren 25ean.

[169-171] *Ageriko Bilkura*

Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian. 2022ko otsailaren 25ean.

- [172-175] *Osoko Bilkura*
Bilbon, egoitzan. 2022ko martxoaren 25ean.
- [176-178] *Ageriko Bilkura*
Bilbon, egoitzan. 2022ko martxoaren 25ean.
- [179-186] *Osoko Bilkura*
Baionan, Herriko Etxean. 2022ko apirilaren 29an.
- [187-189] *Ageriko Bilkura*
Baionan, Herriko Etxeko areto nagusian. 2022ko apirilaren 29an.
- [190-192] *Osoko Bilkura*
Elizondon, udaletxean. 2022ko maiatzaren 21ean.
- [193-196] *Ageriko Bilkura*
Amaiurren, herriko plazan. 2022ko maiatzaren 21ean.
- [197-201] *Osoko Bilkura*
Eibarren, udaletxean. 2022ko ekainaren 22an.
- [202-204] *Ageriko Bilkura*
Eibarren, udaletxean. 2022ko ekainaren 22an.
- [205-210] *Osoko Bilkura*
Alkizako eskolan. 2022ko uztailaren 22an.
- [211-218] *Osoko Bilkura*
Iruñean, Nafarroako Parlamentuan. 2022ko irailaren 30ean.
- [219-227] *Osoko Bilkura*
Gasteizen, Etxezarra eraikinean. 2022ko urriaren 28an.

[228-231] *Osoko Bilkura*

Donostian, udaletxean. 2022ko azaroaren 26an.

[232-234] *Ageriko Bilkura*

Donostian, udaletxean, Osoko bilkuren aretoan. 2022ko azaroaren 26an.

[235-241] **ADIERAZPENAK**

[236-238] **Euskaltzaindiak Frantziako agintariei eskatzen die ‘brebeta’ eta ‘baxoa’ azterketak euskaraz egitea**

[239-241] **Euskaltzaindiak bat egin du Euskararen Nafar Kontseiluaren 2022ko irailaren 16ko Adierazpenarekin**

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

[242-243] *2022ko Araugintza*

BERRIAK ETA OMENALDIAK

[245-272] *2022ko albisteen kronika*

[273-273] *2022an omenduak izan diren Euskaltzaindikoko kideak*

JARDUNALDIAK

[275-292] *2022an Euskaltzaindiak antolatu dituen edo parte hartu duen jardunaldien kronikak*

Ekitaldiak

Paskual Rekalde Euskaltzaindian sartzea

Amaiurren, 2022-V-21ean

REKALDE, Paskual
Euskaltzain osoa

Amaiurren gaindi ibilki

Agurra

Euskaltzainburu jauna,
Baztango Udaleko alkate jauna,
Amaiurko herriko alkate andrea,
Nafarroako Parlamentuko lehendakari jauna,
Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilari andrea,
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu jauna,
Baztango Udaleko zinegotzi andre eta jaunak,
Amaiurko Herriko kargudun andre eta jaunak,
Euskaltzainak,
Familiakoak,
Lagunak eta adiskideak,
Lankideak,
Euskaltzaindiko langileak,
Amaiurko eskolako zuzendaria,
Musikariak (Mikel *Dutari* bertsolaria, «Amaiurren kantuz» abesbatza, Amaiurko eskolako dantzariak, Arizkungo txistulariak, Baztango gaitariak),
Amaiurko Arkeologia Museoaren arduraduna,
Herritarrak eta, bereziki, Gaztelu Elkarteko kideak (bazkariaren prestatzaileak eta zerbitzariak, eta zintzur-bustitzearen arduradunak).

Ongi etorri Amaiurra, Nafarroako Erresumaren aldeko hondar-borroka gertatu zen herrira.

Azkenean ailegatu da eguna. Urrunxko gelditu da 2020ko uztailaren 17 hura; egun hartan euskaltzain oso izendatu ninduten Bilbon. Euskaltzainek batzarraren akabailan abegiz hartu ninduten. Aski ongi gogoan dut euskaltzainburuak zer erran zidan: «Euskaltzaina izatea ohorea da, baina ohoreak lana ere badakar berekin». Hala, Euskaltzaindian eta euskararen eta euskal kulturaren inguruan ari diren tokietan, erraterako, Amaiurren, gaztelu zaharraren inguruan ari den jende suflea edo indartsua behar da, enantzukoa, hots, trebetasun handikoa, eta bizitorea edo bizkorra.

Hasi nintzen, bada, burua berotzen; ordukotzat hasiak zitzaizkidan herritar batzuk gaiaz galdezka eta baten batek ere errana zidan predikua ez egiteko luzea; halaxe egitera entseatuko nintzela erantzun nion. 2020ko buruil partean erabaki eta adostu genuen 2021eko ereiaroan egitea, ahal zela, zuen aitzinean, argia ikusi nuen herrian. Baina ongi aski dakizuenez, gainerik ezin kenduz gabiltzan COVID-19 gaitz madarikatu honen abia ikusita, urtebete gibelatzea deliberatu genuen 2020ko abenduan. Eta gaur hemengo aldi dugu. Baita zuek ere.

1. Oroitza

Euskaltzain osoak hiruretan hogeita hamabortz urte betetzen dituelarik, euskaltzain emeritu bilakatzen da eta haren tokian bertze euskaltzain oso bat sartzeko deia egiten da.

Jende bagara bederen, jendetasunezkoa da gogora ekartzea, tokia egiazki utzi gabe noren tokia hartu dudan nik, nor den orain arte Osoko bilkurako 13. aulkia bete duena. Andres da, Andres Iñigo Ariztegi iturendarra.

Iturenen sortu zen Andres, 1945ean, Mariestebanbaitan. Filosofian eta Letretan doktorea da. Herriko eskola utzi eta, gaxte-gaxte, Iruñeko Seminariora abiatu zen

ikasterat.¹ Zenbait urtez han egon eta gero, unibertsitateko aldia eginik, urte batzuetara, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasle izateko oposizioa gainditu zuen lehenik, eta gero, katedradun izatekoa. Bere balioak ikusirik, eskola horretako zuzendari izendatu zuten eta langintza horretan eman zituen hamazazpi urte segidan, 1980tik 1997ra bitartean. Eskola 2007. urtean utzi zuen.

Euskaltzaindian ere ez da atzo goizean sartutakoa. 1987ko uztailean euskaltzain urgazle ('laguntzaile') izendatu zuten eta, hamabi urteren buruan, 1999ko otsailean euskaltzain oso. Federiko Krutwigek utzitako 13. aulkia beretako hartu zuen, gaur den egunean elkarrekin dugun horixe. Hondarrekoz, 75 urte bete zituelarik, 2020ko otsailean euskaltzain emeritu izatera iragan zen. Bien bitartean, hogeita lau urtez izan da Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkari Sagrario Aleman euskaltzain osoak bere tokia iaz hartu arte. Fite erraten da hori, gero!

Euskaltzain oso izendatzeko ekitaldian, «Onomastika euskararen normalizazioan» izeneko sarrera-hitzaldia leitu zuen Iturenen, 2000ko maiatzaren 27an. Hantxe izan ginen eta hantxe ezagutu nituen orain euskaltzainkide ditudanak, ez denak, baten bat artean Gasteizen irakasle izana bainuen Euskal Filologian.

Hiru izan dira Andresek Euskaltzaindian landu dituen gai nagusiak: onomastika, hiztegia eta euskararen sustapena. Onomastika eta Sustapen batzordeetako kide izateari utzi bazion ere, arlo horretan erreferentzia ukaezina da Nafarroan. Hiztegi kontuetan segitzen du, Euskaltzaindiaren Hiztegia batzorde ahaldunduko kide baita, eta berari esker gero eta gehiago dira *Naf.* marka duten euskarazko hitzak *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

Azalpen prosaiko eta hotz horiek bazter utzi gabe, nahi nuke hemen aipatu nolakoa den eta izan den Andres. Nahasten ez banaiz bederen, 1989an suertatu ginen lehenbizikoz elkarrekin, non eta Nafarroako Gobernuko euskara itzultzaile izateko oposizioetan, bera epaimahaian eta ni bertaldean, luma eta paperak aitzinean nituela. Ordukotzat Iruñeko Hizkuntza Eskolako euskara irakasle zen. Urte luzeetako harreman hori berrindartu da azken urteotan, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkartzan elkarrekin eman ditugun orduetan eta, bereziki, elkarrekin argitaratu ditugun lanei esker, erran nahi baita, Baztan-Bidasoko etxe- eta toki-izen zenbaiten gainean egindako lanekin.

¹ Hantxe suertatu zen amaiurtar batekin, Jabier Arretxeokarekin (Jabier Artxerekin). Herrian Jabier izenarekin ezagutu genuena, Patxi bilakatu zen kapitalean.

Andresen gaineko ele hauei akabaila emateko, ekar dezadan gogora Patxi Ondarra kaputxino eta euskaltzain zena. Patxi Lekarozko Komentuan egon zen fraide. Hari zor diogu Andresek eta biok Patxi Ondarraren Funtsa izenarekin ezagutzen dugun materiala, Baztango Udaleko artxibotik² eta Borda-Ubillos arrazakoek³ Lekarozko Komentuko artxiboan utzi zituzten agiri baliotsuetatik erauzi zuena: etxe-izenak, jende-izenak, toki-izenak...; eta haietako batzuk gaur den egunean ezezagunak direnak. Non den ere Patxi, beharbada guri beha egonen gaur antiojo berina lodi haiekin.

2. Kurri batetik bertzerat

Pasa gaitezen, bada, gaur hunat ekarri nauen lana aipatzera. *Lanari lotu*: halaxe erakutsi digute etxean. Ez gara geldirik egonen, batetik bertzera ibiliko baikara, *kurri*, gure euskaraz erranik.

Euskara batuan, Baztango *eskuaraz*, Baztango mintzoaren hitzez eta erramoldeez, eta Amaiurko eta inguruko etxe-izen eta toki-izen batzuen gainean eginen dugu solas edo mintzatu edo solastuko gara (ez **solastuko dugu*, gaur egun nagusitzen ari den erramolde txar hori!).

Bizkar-zorroa soinera bota eta abia gaitezen maldan goiti, hurrirtz-makila eskuan dugula. Hatsa laburtzen zaigunean geldituko gara, eta zama arinduko dugu arindu ere, han eta hemen.

2.1. Euskara batuaren eta mintzamoldeen artean

Bi mila eta hemezortzian (2018) bi urtemuga nagusi bete genituen Akademian. Lehena, mendeurrena. Izan ere, Euskaltzaindia 1918an sortu zen Arabako, Bizkaiako, Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioen sostenguz. Eta, bigarrena, euskara batuaren berrogeita hamargarren urtemuga (1968). Erraten ahal da, urte horretan hasi zela Arantzazun erabakitzen gaur den egunean *euskara batu* izenarekin ezagutzen

² Amaiurren segurik bereizketa hau egiten dugu: Baztango *Balleko* Etxea (udaletxea zein udala) eta Herriko Etxea.

³ Bertzeak bertze, Amaiurko Bordakotxea, Azpilkuetako Urrasungo Arraztoa eta Elizondoko Arotzarena jauregien eta haien bazterren jabe izan ziren denboraz.

dugun euskara etorkizunean nolakoa izanen zen. Eta hemen segitzen dugu, lana ez baita inondik inora ere akitu. Ez, alafede!

Euskara batua sortzeak ez zuen berekin ekarri eguneroko euskarazko mintzamolde arrunten desagertzea, ez zuen ekarri entzuten ari zareten zuen gehien euskara suntsitzea. Urteak joan urteak etorri, euskara batu hori sendotzen joan da, eta administrazioan, hezkuntzan eta komunikabide nagusietan sartzen eta finkatzen.

Hasmenta hartan euskara batua, erran dugun bezala, administrazioa, hezkuntza eta komunikabide nagusietako hizkuntza bilakatuz joan zen eta haren ondoan euskalkiek, herri-hizkerak eta abarrek bizirik segitzen zuten, zein bere eskualdean, eta batzuk bertze batzuk baino indartsuago.

Panorama zabal horretan, Koldo Zuazo euskaltzain urgazle eta hizkuntzalaria aipatu nahi dut. Luis Luziano Bonapartek nagusiki egin lana oinarri harturik, Zuazok euskararen dialektoak (euskalkiak) eta hizkerak sailkatu eta bakoitzaren ezaugarriak zedarritu ditu. Euskalkien mapa berritua aurkezteaz gainera, euskalkien eta herri-hizkeren ezaugarriak zein diren adierazi digu, alde batera utzi gabe erdialdeko euskalkian nagusiki oinarritutako euskara batua eta euskara batu horren emaitza. Bere iritziz, euskara batuak onurak ekarri dizkio gizarteari eta, haien artean, bereziki honako hauek:

1. Euskaldun guziok bata bertzearekin euskaraz aritzeko aukera izatea, albo-erdaretara jo behar izan gabe.
2. Euskarari normalizatzeko bideak irekitzea, irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan eta idatzizko zereginetan baliatzeko.
3. Euskara batuari esker, erdaldunek euskara ikasteko aukera izan dute. Izan ere, 1964tik hona, «euskaldun berriak» ugaritu dira.
4. Administrazioak ezarritako mugak gainditu, eta Iparraldea eta Hegoaldea gerturatu dira.
5. Euskarak ospea irabazi du. Euskara ez da jada «euskalki-sorta» bat, euskara *benetako hizkuntza* da.⁴

Hori hala izanik ere, Zuazoren ustez, euskara batua zabaltzeko moduan ez da dena ongi egin. Batetik, euskara batua modu berean zabaltzeko erabili da, erraterako, Tuteran eta Lekeition edo Santurtzin eta Gasteizen eta, orobat, leku euskaldune-

⁴ www.euskalkiak.eus

tan ez dira tokiko euskalkiak aintzat hartu. Bertzetik, batzuek erran digute euskara batua *ona* eta *jasoa* dela eta euskalkiak *txarrak* eta *basatiak*. Eta, azkenik, euskara batua ikasliburuetarako, literaturarako... baino ez da egokitu. Ez hori bakarrik, euskalkirik ez dagoen eremu erdaldunetan ez dago lagunarteko erregistrorik.

Euskararen Akademia euskalkien kontra zegoela eta euskara batua inposatu nahi zuela ziotenei erantzunez, Euskaltzaindiak 2004. urtean adierazpen bat onartu zuen euskalkiek irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan izan beharreko erabileraz.⁵ Jada 1979an Akademiak errana zuen: «Euskalkiak baino lehen, hor da euskara» (Euskaltzaindia 1979: 103-106). Baita bertze esaldi hau ere (Euskaltzaindia 1979: 103-106):

Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa, zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena.

Akademiak ez zuen, hartara, trabarik paratzen euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta lantzeko, baina ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zaindu behar ziren nahitaez.⁶

Hala ere, euskalkia eta euskara batua uztartu beharrak zenbait problema sortu ohi zituen eta konponbideak ere anitz eta diferenteak izan behar, betiere batasunari eutsiz eta euskal hiztunen bazterketa gutietsiz.⁷

Euskalkien erabilera eguneratu eta sistematizatzeko beharra ikusi zuen 1994an,⁸ urte batzuk lehenagotik euskararen estatusa garatua baitzen, baita, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala bilakatu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitateko zati batean ere. Erabilera horren eguneratze eta sistematizazioa, honako irizpide hauetan oinarritu zen:

5 137. araua: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf

Adierazpen horren oinarrian daude Jagon saileko Euskalkien lantaldeak 2001ean egin zituen bi galdeketa: bata, Bizkaiko Administrazioan bizkaierak zuen erabileraz eta, bertzea, Nafarroan euskalkiek irakaskuntzan, administrazioan, herri-aldizkarietan... zuten lekuaz. (Iñigo eta Rekalde 2004: 115-200)

6 Auzi honetan kaltegarri ziren bi jokaera salatu zituen: batetik, euskarazko hizkuntza-agerpen guziak baztertzeari, euskalkiak erabiliz egin direlako, eta, bertzetik, euskalkia erabiltzeko aitzakiaz badeazpadako euskara erabiltzea.

7 Oinarritzko abiaburutzat hartu ziren: (1) Begirunea izatea euskaraz mintzo diren hiztunen egoera ezberdinei. (2) Euskara batua eta euskalkia osagarri izatea. (3) Forma egokiak erabiltzea eremu zabalera euskara batutik hurbilen dauden formak eta eremu mugatuagoetan tokioak ere bai. Eta (4) Arauak eta gomendioak betetzea euskalkietan ere. (Euskaltzaindia 2004)

8 Euskaltzaindia (1994). «Euskalkien erabilera Administrazio 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan».

1. Ahozkoan eta lagunarteko hizkeran ohikoak diren laburtzapenak gaitzestea.
2. Tokian tokiko fonetismoak gaitzestea.
3. Euskalkian bi forma edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobestea.
4. Batasunerako deklinabidea nahitaezkozat jotzea, salbuespen batzuekin.
5. Batasunerako aditz-jokoa nahitaezkozat jotzea, salbuespen batzuekin.
6. Sintaxi bera izatea euskara batuak eta euskalkiek.
7. Morfologian, hitzen forma dialektal tradiziodun batzuk ontzat ematea.

Azpiatal honi akitzen joateko, ekar ditzadan hona, lehenik, Mikel Zalbide euskaltzain osoak euskara batua eta euskararen batasuna adiera aldetik zedarritzeko, aditzera eman dituen zenbait ezaugarri (Zalbide 2020: 16-19):

1. Euskara batua eredu egonkorra da grafiaren, hiztegiaren, morfologiaren eta sintaxiaren aldetik.
2. Euskara batua eratu da, batez ere euskaldunek leitzeko eta eskribitzeko lanak errazago egin ditzaten.
3. Euskalkien eta eguneroko mintzamolde arrunten gainetik, aparteko lekua du euskara batuak hiztun-elkartearen harreman-sare zabaletan.
4. Euskara batua eskolan ikasten da lehenik, idatzizko formari dagokionez bereziki.
5. Euskara batua eskola bidez ikasia, gero eta gazte gehiagok unibertsitatean eta zenbait lanbidetan landua (prestigiosko eremuetan lehenetsia da). Hartan murgiltzen diren hiztunek modu uniforme samarrean bateratua dute eta egoki samar aplikatzen dute.
6. Euskara batua erregistro jaso-formaletarako landu eta garatu da, batez ere.
7. Euskara batua idatzizko planotik ahozkoa hedatzen ari da, partez.
8. Inpaktu hori ez da nonahi eta nolana gertatzen ari: erdarak ditu ezker-eskuin eta gain-azpitan, eta erdialdeko euskara dugu indartsuen.

2. 2. Gure aitzindariari ohore

Euskara batuaz eta mintzamoldeez elekatu ondoren, eta euskara batua eta Baztango mintzoaren egoera zein den adierazi baino lehenago, gogora ekarri nahi ditut, XVIII. mendetik XX. mendera bitartean gure artean izan ziren baztandar zenbait (Bidador 2000).⁹ Eta baztandar horien artetik Amaiurrekin zerikusi berezia izan zuten hiru apez aipatuko ditut: Juan Kruz Goienetxe, Bitorio Apeztegia eta Jazinto Santsiñena.

a. Juan Kruz Goienetxe

Elbeten (Baztan) sortu zen 1857an, Errotazaineneko bordan. Iruñeko Seminarioan apeztu zen 1891n eta Luzaide izan zuen lehen lantoki. Handik urte batzuetara Amaiurra ekarri zuten eta Amaiurko erretore izan zen zendu arte, 1925ean. Amaiurko gaxtoendako latineko klaseak antolatu zituen apezaren etxean eta Nafarroako Monumentu Historikoen Batzordeko kide izan zen Baztanen izenean (batzorde horrek 1920 aldera Amaiurko monumentuaren kariaz antolatu zuen ekitaldian buru-belarri ari izan zen). Euskararen alde Nafarroan egin ziren bertze ekitaldi batzuetan ere nabarmendu zen Goienetxe, erraterako, 1908an Auzan (Ultzama) eta Elizondon eta 1910ean Lekunberrin (Larraun) egin ziren lore-jokoetan: predikuak eta hitzaldiak euskaraz ematen zituen. Urte batzuk geroago, 1923an, hitzaldia egin zuen Euskaltzaindiak Donezteben antolatu zituen Bigarren Euskalegunetan Martin Azpilkuetari buruz. Bederatzi ipuin idatzi zituen Goienetxek: *Artzain lapurra*, *Doministikun-doministiku*, *Errege zorria*, *Euna ta ongarria*, *Ikazkina eta erioa*, *Txerri usaina*, *Urtsuko ermitan*, *Zeruko berriak* eta *Landaberroko afaltiarra*.

b. Bitorio Apeztegia

Amaiurren sortu bazen ere, Iruritan hazi zen. Apezkarrera Zaragozan ikasi ondoren, Erratzun izan zen luze erretore. Gero Orreagako bidea hartu zuen eta hantxe

⁹ Zaharretik berrienera aipatuz, hauexek ditugu: Nikolas Etxeberria berroetarra, Anastasio Etxeberri elizondarra, Frantzisko Laphitz irisartarra (ama arizkundarra zuenez, Arizkunen sortu zen), Martin Goienetxe elizondarra, Damaso Etxeberria elizondarra, Damaso Legaz arizkundarra, Juan Kruz Goienetxe elbetarra, Bitorio Apeztegia amaiurtarra, Paskual Bernardino Biguria elizondarra, Jose Tadeo Biela elizondarra, Jabier Lazkoz elizondarra, Paulo Arozena arraioztarra, Blas Fagoaga erratzuarra eta Jazinto Santsiñena arizkundarra.

eman zituen urteak (erraten da, Aingeru Irigarairekin batera Iruritan gizondu eta Norbert Tauerrekin posta-trukea izan ondotik, erdietsi zuela kolegiatako bere gela euskal liburutegi ederra izaten). Nolanahi ere, Bitorio ezaguna da Donezteben, 1923ko buruilararen 7an, Bigarren Euskalegunetan eman zuen hitzaldiagatik. Eta horixe da gugana iritsi den euskarazko lan bakarra. Hitzaldi sutsu batean, sorterrria, Amaiur, aipatzeaz gainera euskararen eta euskararen egoeraz mintzatu zen (Euskaltzaindia 1923: 45-46):

Amayur'ko eri zorionekoan sortua, nere begiak len ikusi dutena, izan dira, euskal-mendien aunditasuna, zeru zolaren baztergabetasuna, eguzkiaren argia, ilargiaren amets gaia; Jaungoikoari euskaraz egiña nere lenbiziko otoitza, eskuararen eztitasunaz betea esatean lenbiziko itza zeruan aurkitzen den nere iotzeko eta ezin antzitako amatxo maiteari ¿nola bada ez dut nabaituko nik nere bafen bafenean eskuararen alderako sukara?

Xexu agertu zen erakustunekin, gaztelaniara errazegi lerratzen baitziren (Euskaltzaindia 1923: 49):

Erakusleak edo Maixuak naiago du geienean eskuararik ez itz egitea aurak, berak erderaz erakutsi bear dien ezkeroz. Baño nola aditu lezaiokete gure aur gaixoak, erderaren beria eskuaraz ematen eypadaki Erakusleak? Argatik bear-bearekoa da Erakusleak eta Maixuak eskual-erietan, eskualdunak izatea eta oraiñik ez da aski eskuara jakitea, baita ere bear da maitatzea, denok dakigun bezala, maitatzen ez den gauza aixe uzten baida baztefera.

Apezak ere gogoan izan zituen Bitorio (Euskaltzaindia 1923: 50):

Baia oiendako ere badaukat zerbait eran beara, bada ¿zer eran, ez berorik eta ez otxik, eskuararen alde nabaitzen eztuten oietaz? batzuek axolarik ez dutelakotz beren amagandik ikasitako izkuntzaz eta bertzealde aisenai gaindutzen zaielakotz, batak eta bertzeak mintzatzen direla beren Eliz-itzaldietan erdi eskuaraz eta erdi erdaraz, bi izkuntzak nagasten dituztela “porru” salda bat balitz bezala!

¡O, zein ederki bizi diren oiek, epel, epel!

c. Jazinto Santsiñena

Arizkungo Landaberroan sortu zen 1910ean.¹⁰ Apez-ikasketak egin ondotik, Amaiurren eman zuen apez-bizitzarik gehiena. Erretiroa hartu ondoren, Iruñeko Artzai Ona Erretiro etxera joan zen eta hantxe zendu zen, 1984an.

Artikulugile oparoa izan zen eta Nafarroako Foru Diputazioak argitaratzen zuen *Príncipe de Viana* aldizkariko euskarazko gehigarrian ikusi zuten argia bere lanek; erraten ahal da, idazle joria izan zela. Bertze batzuen artean, ezagunak dira «Solas ta solas» (Mariren eta Engraziren arteko solasaldiak), «Zuretzat, neretzat, biontzat» eta «Elizaren itza» erlijio-sailak, maiz aski *Ibarrondo* izengoitiaz sinatuak. Bertsoak ere ez ziren falta izan. Herritik hurbil eta herriarendako eskribitzen zuen don Jazintok.

Istantean aipatu dut *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria. Nafarroako Foru Diputazioko Euskara Sustatzeko Atalak (Sección para el Fomento del Vascuence) 1966tik 1983ra bitartean argitaratu zuen.¹¹ Atal horrek bi xede izan zituen: batetik, euskaldunak euskaraz leitzera bultzatzea (Nafarroako familia euskaldunek debalde hartzen zuten aldizkaria etxean), eta, bertzetik, eskolaz eskola joanez, etxetik euskaraz zekiten haurrei sariak banatzen hasi ziren, ondotik euskararen irakaskuntza eskoletan sartzeko (Iñigo 2006: 515).

2.3. Eta gurean zer?

Ikus dezagun, bada, zer erraten diguten Pello Salaburuk eta Maite Lakarrek *Baztango Mintzoa* liburuan:

Hizkuntzari dagokionez, euskarak, batez ere herri ttipienetan, bizirik iraun du. Elizondon ere biztanle gehienak euskaldunak izan dira beti, nahiz karriketan guttiago aditzen den hizkera hau. Jakina: azken berrogei urteetan gertatu den bizimoduaren aldaketak berarekin ekarri du, Euskal Herriko

¹⁰ Joxemiel Bidador zenaren arabera, 1918an sortu zen. Datu hori okerra dateke. Iruñeko Apezgaitegiko Liburutegian aurkitutako datuen arabera, Jazintok 1926-1927 ikasturtean Filosofiako 1. maila egin zuen. Hamabi urterekin sartuko zen seminarioan eta han hamabi urtez egon apez egin arte. (Datu hauek Andres Iñigori zor dizkiot. Esker mila aunitz.)

¹¹ Gehigarrian eskribitu zutenen artean zeuden: Antzanarri (Mariano Izeta), Ibarrondo (Jazinto Santsiñena), Gortari, Plaza, Agerre, Aleman eta Inbuluzketa (Bidador 2004: 275).

bertze aunitz tokitan bezala, erdara indartzea, alde batetik. Bertzetik, euskarak berak ere belaunaldi berrietan goiti egin badu, eta inoiz ere ibilia izan ez den tokietan aurpegia erakusteko gai izan bada (hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan...), batasunera jo du, berdintze aldera, hola, bertze tokietan egiten den mintzoarekin. (Salaburu eta Lakar 2005: 3)

Erraten ahal da aunitz aldatu dela hizkera azken urteotan. Baztanen kasuan, aldatzeko joera horrek indar handiagoa erakutsi du, batetik, Baztanen Euskal Herriko hainbertze tokitan bezala, aldaketa sozial gaitza gertatu delako azken urteetan. Hartara, jendearen harremanak arrunt aldatu dira (lehen Iparraldeko herrieekin eta herritarrekin izaten ziren harremanak pittaka hautsiz joan dira, eta baztandarrak, eskuarki, gaur ez gaude Iparraldera begira).¹² Eta horrek guziak eragin du hizkeran ere: gure euskara ez da egun baztanera-lapurtera, baztanera-nafarrera da; gero eta *nafarragoak* gara alderdi horretatik begiratuta.¹³ Eta, bertzetik, bigarren arrazoiak hezkuntzarekin eta hedabide berriekin du zerikusia. Gaur egungo umeak eskolan euskaraz hazten dira, telebista ikusten dute, Internet erabiltzen dute, liburuak leitzen dituzte... Eta horrek eragiten du hizkuntzan, bereziki tokiko euskararen. Erraten ahal da Baztango euskara *nafartzen* ari dela, gero eta *batuagoa* dela: ‘torko’, ‘errain (< erranen)’, ‘lauretan hoge!’... erran beharrean, *etorriko*, *errango*¹⁴, *laurogei*... erraten dute bereziki eskolatik pasatu diren haurrek eta, mimetismoz-edo, baita haien guraso batzuek ere.

Aldi berean, euskalkia edo *ustezko euskalkia* presente da, erraterako, herrietako bestetako karteletan, eskuorrietan..., non ageri baitira ‘asteartia’, ‘launbeta’, ‘ortzileria’, ‘mus zimizte’..., *astearte*, *larunbata*, *ortzirala*, *mus zimizta*... eskribitu beharrean. Ematen du, euskara batu *arrotz* (letra etzanez nabarmenduta) horretatik ihes egin behar dela eta modurik hoberena euskalkia edo tokian tokiko hizkera ahozko laburdurez josia erabiltzea dela, konturatu gabe erabilera horrek gainerako euskaldunen mintzotik urruntzen gaituela eta haiekiko euskarazko harremanak zaildu egiten dituela.

12 Gaur den egunean, baztandar zenbait *mugaz* bertzaldean ari da lanean zerbitzuetan eta nekazaritza-produktuak egiten dituzten fabriketan. Aldiz, Iparraldeko gazteek baztandarrekin batera, Danxarinako botiga handietan egiten dute lan.

13 Egoera horrek Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskararen ez du eragin handia izan.

14 Ahoz entzuten den ‘errango’ hori bi izen desberdin izaten ahal dira: batetik, *erran gogoren* ahozko laburdura, eta, bertzetik, *esangoren* kalkoz sortutako **errango*, *erranen* zuzen eta tokikoa erabili beharrean.

Hala ere, joera zentzudunagoa uzten dute agerian han eta hemen antolatzen diren ikastaroek, programek... (nagusiki udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuek), euskara batua baztertu gabe gure euskararen ezaugarri bereziak zein diren erakutsi eta praktikan jartzeko eta eskolan edo etxean erakutsi ez direnak ikasteko.

2. 4. Baztango solasak

Geldialdi ttikia egin dugu bidean eta mokadua (gurean *pokadua*) hartu ondoren, bideari lotu gatzazkio berriz ere.

Edozein hizkuntza edo mintzoren baitezpadako zatia da hiztegia eta hiztegi horren inguruan bildu diren hitzak, lokuzioak, erramoldeak... Erraten ahal dugu, gezurrik erran edo handiustetan ibili gabe (ez gara *panparrotuko*), Baztango hiztegiaren inguruan egin diren lanek uzta ekarri diotela Euskaltzaindiko Orotariko Euskal Hiztegiari eta Euskaltzaindiaren Hiztegiari.¹⁵

Aipa ditzadan, beraz, hemen uzta hori biltzen eta ontzen ahalegindu diren baztandar zenbait.

Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskaltzaindiaren Hiztegia egin arte, nork ez du eskuian izan Resurrección María Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegia? Hantxe ageri dira, kolaboratzaileen artean, Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923) eta Juan Kruz Goienetxe (1857-1925)¹⁶ amaiurtar apezak.

«Apuntes del sacerdote J. B. Gorosurreta, hijo y coadjutor de Maya (AN-b)» izeneko eskuizkribua aurkitu zuen Alfontso Irigoienek Akademiaren Bibliotekan.¹⁷ Juan Bautista Amaiurren sortu zen 1845ean, 1871n apeztu eta 1923an hil. Apezlaguntzailea zenez, «dirurik ematen ez zuten lanak beretzat izaten omen ziren; konfesio, kristau ikasbide, erietara yoate; eta aunitz aldiz, argi ezkilli yo berzuena eatzartzea ere bai». Argibide horiek zor dizkiogu Don Jazintori.

Hitz-parrasta bildu zuen Juan Bautistak, baita haien erranahia gaztelaniaz eman

¹⁵ Hiztegi-kontuez mintzatu zen Miriam Urkia euskaltzain osoa bere sorterrian, Aretxabaletan, leitu zuen «Hiztegitik Kofradiara» izeneko sarrera-hitzaldian.

¹⁶ Argibide gehiago, hemen: https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Kruz_Goienetxe_Elorga

¹⁷ J. B. Gorosurreta R. M.^a Azkueri igorri gutunetako batean, Kruz Goienetxe errektoreak hala eskatuta, Azkue gonbidatu zuen Amaiurra hitz hauekin: «Ez lizateke erokeria, onekin zenzatzen bagintuzu zure gogoaren arabera» (Irigoien 1962: 137)

ere.¹⁸ Hitz horiek bildu zituen gero Azkuek bere Hiztegian, batez ere *AN-b* markarekin.¹⁹ Alfontso Irigoienek aipatu zuen (ikusi 25. oin-oharra), erraterako, Mariano Izetak osatzen ahal zuela Gorosurretak egin lana.

Eta halaxe egin zuen. 1985ean «Baztango hiztegi ttipia» argitaratu zuen Euskaltzaindiaren *Eusker*a agerkarian. Halaxe erran zigun Marianok (Izeta 1985: 553):

Nere “Baztango Hiztegi Ttipi” huntan, baztandar euskaran bizirik dauden hitzak eta solasak agertzen ditut: Ez da hitz bat ere erraten ez denik. Baztandar guziek beren solasetan egunero erabiltzen dituzten hitzak. Baztanek hamabortz herri ditu eta dermio zabalak, baserri eta auzo aunitzekin. Herri batean eta famili batean zenbait hitz erabiltzen ez badira, bertze herri eta familietan erraten dituzte. Baztan haundia da eta eskualde batetik bertzera badira aldakuntzak.

Baztanen erabiltzen diren solasak erran dut, baina horrek ez du erran nahi bertze herrialdetan erabiltzen ez direnik. Hitz gehienak edo aunitz behintzat Baztan inguruko lurraldetan erabiltzen dira.

Izetaren lana ez zen horretan gelditu, eta segitu zuen Baztango hitzak, hango eta hemengo emazteki eta gizonkiek erranak, paperean biltzen (bere hitzetan, edozein *paper buxtan*²⁰ erabiltzen zuen horretarako). Hitz- eta erranairu-multzo polita bildu zuelarik, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusian aurkeztu zuen. Eskaera horren fruitu izan zen 1997an argia ikusi zuen *Baztango Hiztegia*²¹. Erran dezadan, hitz arruntez gainera, akabailan erranairuen zerrenda gehitu ziola egileak.

Hiztegiaren egiturari dagokionez, abiapuntua Baztango hitza izan zen, Marianok berak bildu bezala, hau da, ia-ia ahoskatzen zen bezala emana. Segidan, hitz horren euskara batuko ordaina eman zen, baita gaztelaniazkoa ere, eta, orobat, adibideak

18 Hitz-zerrenda horren aitzinsolasean halaxe diosku A. Irigoienek: «(...) Blas Fagoaga, Mariano Iceta, u otros, en calidad de baztaneses, podrán hacer observaciones a este vocabulario, verificando los vocablos y sus valores semánticos e incluyendo otros que no lo están» (Irigoien 1962: 138)

19 *AN-b*: goi-nafarrera euskalkiaren Baztango azpieuskalkia.

20 *Paper-muturra* errateko bertze modu bat.

21 José Luis Rodríguez Ochoa zuzendari nagusiak neroni eman zidan liburuaren edizioa prestatzeko ardura.

Baztango euskaraz zein euskara batuan. Izetaren hiztegiak arrakasta gaitza izan zuen, eta egun gutitan agortu zen lehen argitaraldia. Bigarrenez ere berrinprimatu behar izan zen.

Zortzi urte geroago, 2005ean, Euskaltzaindiak *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia* izeneko liburua argitaratu zuen Mendaur bilduman, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean.

Liburuaren bigarren zatian biltzen da hiztegia, eta hiztegiaren aitzinetik, «Sarrera» izeneko kapitulua (Salaburu eta Lakar 2005: 259-264). Sarrera horretan xehakatzen da hiztegiaren egitura, baita hauxe adierazten ere: «... neurri handi batean, Mariano Izetak argitaratu zuen Baztango hiztegi ederrean oinarritzen [dela]». Hala, egileek erraten dute «aldaketa aunitz egin [dituztela]»: batetik, sarrera berriak sartu, aurkezteko modua aldatu, eta, bertzetik, Mariano Izetaren hiztegian ageri diren sarrerak (...) *Izeta* izenarekin eman.

Era berean, lanaren egileen erabakiz, Izetaren hiztegian ageri den zernahi sarrera ez zituzten hiztegitatu eta, orobat, bertze euskalkietako hitz arruntak ez zituzten, printzipioz, hiztegian sartu, «non eta ez [zuten] zerbaitengatik adieraztea merezi».

Eta gaur den egunean, zer? Gorosurretak, Izetak eta Salaburuk eta Lakarrek bildu hitzetatik zenbat eta zer maiztasunez erabiltzen diren egiaztatzeko datu zehatzik ez dugu. Hala ere, erraten ahal dugu, salbuespenak salbuespen, Gorosurretak jaso hitz horietako batzuk galdu bide direla: *artobigi* ('arto pikorra'); *atsaldekogosari* ('merendua'); *bururdi* ('burukoa'); *estalkitze* ('kontrako zintzurra'); *olzadar* (koltxarako maindire bikoitza)... Berdintsu gertatzen da Izetak bildutako batzuekin, eta zertxobait gutiago Salaburuk eta Lakarrek jasotakoekin.

Ez dut, hartara, gauza berririk erranen adierazten badut, edozein hizkuntzatako hiztegiak aldatzen joan direla, denboraren poderioz. Aski da horretarako behako bat ematea *Hiztegi Batuaren* paperezko edizio haiei (1991-2015) eta gaur egun sarean dugun *Euskaltzaindiaren Hiztegiari*.²² Gure hiztegia aldatzen ari da auzo-hizkuntzetan aldatzen ari den bezala. Tradizioari muzin egin gabe, hiztegi modernoagoak ditugu gaur, burrunban eta bolo-bolo ditugun hitzak biltzen dituztenak. Aldi berean, gure inguru honi dagokionez, gero eta gehiago dira *Ipar. eta Naf., Batez ere Ipar., Naf...* markak dituzten hitzak.²³ Horiek oro dira aprobetxagarriak gure eguneroko

²² 2022ko urtarrileko eguneratzearen arabera, sarrerak 40.002 dira, azpisarrerak 9.594 eta adierak 68.695. (Iturria: www.euskaltzaindia.eus)

²³ *Ipar. eta Naf.* (Iparraldea eta Nafarroa), *Batez ere Ipar.* (Batez ere Iparraldea), *Naf.* (Nafarrera).

mintzoan ibiltzeko, gure idazkietan eskribitzeko, egoera formaletan zein egoera informaletan, maiz ahozkoaren kalko hutsa den saseuskalki moduko batera jo gabe. Hala ere, dena ez dago bildua, ez Baztanen, ez inguruan; ezta hurrik eman ere! Orain artean gehienbatean idatzizko iturriak erabili izan dira eta iturri horietatik ez den-dena ere. Beraz, gure inguruko hedabideetan (*Xorroxin* irratia, *Tttipi-Ttapa* aldizkaria...) eskribitutakoak eta gure eguneroko ahozko mintzoaren lekukotasunak bildu eta landu beharko ditugu, bereziki adin batetik gora daudenen mintzoa zitzu bizian desagertzen ari baita.

Hona hemen horren erakusgarri hiztegieta erraz aurkituko ez ditugunetako batzuk:

- *autoa ERUKA BATEAN gidatu* ('arrunt motel gidatu')
- *BURUTIK BEHEITIKOA IZAN* ('burutik beherakoa izan')
- *DELIKATU IPURDIA paratua izan* ('jale-milixka izan')
- *denbora ERI IZAN* ('denbora kaxkarra egin')
- *lana IN NOMINE PATRIS batean egin* ('lana aitaren batean egin')
- *medikuak eman pastillak* (edo *pastilleria*) *LERRO-LERRO hartu* ('medikuak manatu pilulak bata bertzearen gibeletik hartu')
- *estomakan MIN ZIRRIZTA batzuk izan* ('min modukoak izan urdailean')
- *sua AGONIAN IZAN* ('sua itzaltzeko puntuan egon')
- *TILIN-TILIN ibili* (halaxe ibiltzen omen dira turistak azken aldirian, 'han eta hemen')
- *ZAKURREK BEZALA jaten hasi* ('mahaiko gainerakoei esperatu gabe jaten hasi')
- *zintzurra LAPASTU* ('zintzurra hartuta egon norbait')

...

Guri dagokigu halako lokuzioak, erranairuak eta iduritsuak biltzea eta gure ondokoei helaraztea. Eta horretan hasia da, euskara bere osotasunean hartuta, *Akademia, Ahozko Euskararen Thesaurus / Euskararen Herri Hizkeren Atlas* egitasmoarekin.²⁴

²⁴ <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/organigrama-oso/iker-saila/178-dialektologia/821-euskararen-herri-hizkeren-atlasa-egitasmoa>

2. 5. Izenekin itzuli-mitzuli

‘Onomastika’ izen bereziak aztertzen dituen jakintza dela erraten digu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*. Erraten ahal dugu, eskuarki, onomastikak hiru atal nagusi dituela: *antroponimia* (jende-izenak), *toponimia* (leku-izenak) eta *bionimia* (izaki bizidunen izenak).²⁵

Antroponimiako eta toponimiako izenen adibideak ikusiko ditugu Amaiurren eta inguruan egiten ari garen itzulitxo honetan. Jende-izenak (arruntak zein ttikiak) etxe izenetan ageri direla ikusiko dugu, izen arruntak leku izenetan eta, orobat, ezagutuko dugu etxe batzuen jabeak nola deitzen diren...

Has gaitezen gure herriaren izenarekin, AMAIUR izenarekin. Herriaren sarrean dago AMAIUR / MAYA izendapen-panela, 1996tik halaxe ofizialdua. Bi izen horiek (eta *Amaya*, *Amaia*, *Amayer*, *Ameyer*, *Amaiurr*²⁶, *Amayur*, *Amayr*, *Maia*) aspaldixkotik ageri dira artxiboetan dauden izkribu zaharretan (horietako batzuk XII. eta XIII. mendetik). Berriagoa da, 1916koa, Real Sociedad Geográfica onartu zuen izena: *Maya del Baztán*.²⁷

Ez diozue zeron buruari inoiz galdetu zer erran nahi duen *Amaiur* izenak? Zein ote da gure herriaren izenaren etimologia? Erran behar da euskaldunok maite dugula gure herrien, tokien, deituren... erranahia zein den jakitea eta maiz ezjakintasun horrek ondorio makurrak izaten ditu. Denetarik erran izan da: ‘uraren ama’, ‘bukaera’, ‘amaierako urrea’, ‘urrearen ama’...²⁸. Ez genieke halakoei kasu handirik egin behar. Nolanahi ere, argi samar dagoena da herriaren izenaren lehen zatian *amai* izena dugula, hau da, ‘akabaila’, ‘bukaera’... (*Amaya* eta *Amaia* ageri dira dokumentatutako izenen artean), Baztango ibarrarena. Hortik aitzina deus guti. Akabailako *ur* hori urrearekin lotu izan dute batzuek, baina ez da horren lekukotasun linguistiko ziurrik.²⁹ Eta urrerik ez dut ikusi nik segurik Amaiurren...

²⁵ <https://eu.wikipedia.org/wiki/Onomastika>

²⁶ Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain osoak berriki emandako erreferentzia: *Johan Amaiurr escudero* (1441).

²⁷ 1916. urtearen aitzineko izen ofiziala *Maya* zen eta 1916ko Dekretuaren ondoren *Maya del Baztán* izan zen (tartean *Maya de Osondo* izena proposatu zen 1906an).

²⁸ www.amaiur.eus

²⁹ «Según refiere Idoate en *Rincones...* [t. III, págs. 599 y 600] a principios del siglo XVI se descubrió en el Baztán, cerca de la fortaleza de Maya, un pozo aurífero. Muchos encontraron oro en sus arenas, pero la presencia del codiciado metal dio lugar a tales problemas, que los del valle del Baztán y los de Maya acabaron por cegar el pozo. En el año 1518 el alcaide de la fortaleza de Pamplona, Miguel de Herrera, obtuvo la oposición de los responsables del valle. Más tarde, un tal Bernal Cruzat de Pamplona intentó también buscar el oro e hizo un convenio con los baztaneses, pero se opuso te-

Amaiurrek ez du auzorik. *Karrikak* eta *bordak* ditu (eta karrikan bizi direnak *karrikakoak* dira eta bordetan bizi direnak *bordatarrak*³⁰ edo *bordetakoak*). Eta karrikak, hiru: *Karrika Nagusia*, *Mertxede karrika* (karrika Nagusitik *Mertxede* aldera doana)³¹ eta *Kisuko arteka* (eliza ondoko Gurutzetik *Kristianoetan* barna Arizkungo *Kisua* etxe aldera eta Bozatera doana).

a. Etxez etxe, bordaz borda

Amaiurko etxe eta borda guziek edo gehienek dituzte izenak; baita berriki goititutakoek ere. Etxea eta izena hertsiki loturik daude gurean; ez da oraingo kontua. Nafarroako Foru Berriaren 48. legean honelaxe dio:³²

Etxea ez da pertsona juridikoa, baina *izen berezia du*, eta eskubide eta betebeharren subjektu da auzotartasun-harremanetan, zerbitzu-egiteetan, herri-aprobetxamenduetan, finken identifikazio eta mugaketetan, eta tokiko ohitura eta usadioek ezarritako bestelako harremanetan ere. *Etxeko jaun-andreei dagozkie etxea gobernatzea, horren batasunari eustea, eta etxearen ondarea eta izena iraunarazi eta defendatzea.*

Etxeko jabeari edo jabeei, bertzeak bertze, manamendu hau ematen die: «etxearen izena iraunarazi eta defendatzea». Etxe horren «izen berezi» hori ondarea da eta, beraz, izen hori zuzen eskribitu behar da edozein izanik ere hizkuntza. Gurean euskarazkoak dira eta, hartara, euskara zuzenean eskribitu behar dira. Nolanahi ere, adierazi beharra dago batzuetan ez dela lan erraza etxearen izen zuzena zein den zehaztea, bereziki jatorrizko izenetik gaur egungora aldea badago. Baitezpadakoa da, hortaz, etxe-izenak ageri diren katastro, jabetza-erregistro, eskritura eta abarretako datuak aztertzea eta, horiek guziak berrikusi ondoren, izen idatzi egokia ematea etxeari da komeni dena (batzuetan ez da bat etorriko gaurko izenarekin,

nazmente el señor de Zozaya, por lo que tampoco pudo llevar a cabo sus proyectos». Auñamendi Enziklopediatik hartua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/amaiurmaya/ar-21432-70877/>.

30 *Bordari* bildu zuen M. Izetak (Izeta 1997).

31 Dokumentazio zaharrean «calle de la Merced» ageri bada ere, «Mertxede karrika / Calle Mercedes» ageri da eskolako maistraren etxean dagoen kartelean; kartel hori Baztango Balleko Etxeak paratu zuen XX. mendeko 80ko hamarkadan.

32 Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria. 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 57. zk., martxoaren 7koa.

maiz izen hori ahozko hutsa delakoz). Erraterako: 'Artxea' < *Arretxea*, 'Bastornea' < *Basteronea*, 'Gontxea' edo 'Goontxea' < *Goienetxea*, 'Iruin' < *Irigoién*, 'Datxipia' < *Jauregitxipia*, 'Maiturnea' < *Maritorenea*...³³.

Gurera itzuliz, gure aitzinekoengandik, katastro zaharretatik eta etxeetako eskriretatik ikasi dugu karrikan denboraz orain baino etxe gehiago zegoela (etxeen arteko hutsuneek hori erakusten dute) edo, erraterako, gaur den egunean herriko eskola (lehenago «Escuela de niñas» izan zena) eta *Goizargi* etxea (lehenago «Escuela de niños» izan zena) gaur dauden tokian denboraz bertze etxe batzuk izan zirela.

Karrikan ere etxe batzuk berritik egin dituzte denboraz bertze etxe batzuek utzitako orubeetan (*Ttipitonea*, *Xurigainenea*...), edo baratze edo lurretan (*Amalur*, *Gaztelualde*...). Karrikatik ez urrun ere egin dira zenbait etxe, batzuk *pisuak* deitutakoak (*Errotondo*, *Mertxene*) eta bertze batzuk, berriz, *txaletak* edo *etxe berriak* (*Otaxko*, *Narbaro*...).

Eta zer erran nahi dute Amaiurko etxeek eta bordek? Etxeak sailkatuko ditugu horretarako:

- a) *-enea* edo *-ena* jabetza-atzizkia dutenak. Erraterako: *Alemanttonea* (gaur desagertua), *Bollonenea*, *Delgadonea* (ahoz 'Delgañea'), *Doñanea* (gaur 'Joanikoteneko garajea'), *Gartzitonea* (ahoz 'Gazitonea'), *Joanikotenea*, *Kallonea* ('Gallegoren etxea'), *Komainea*, *Mariarrastonea* (ahoz 'Maxtonea' eta dokumentazio zaharrea *Mariarrastorena* modura ageri dena), *Marikitea* (ahoz 'Makitenea'), *Maritorenea* (ahoz 'Maiturnea', gaur belaia eta dokumentazioan *Maria Iturriarena* moduan ageri dena, ondoan *Ugaldeneko iturria* baitu), *Martineña*, *Migelenea*, *Santxonea*, *Ugaldenea*...
- b) *-e* eta *-iz* bukatutako izenak + *-a*: *Agerrea*, *Arluzea* (gaur egun desagertua), *Arretxea* (ahoz 'Artxea'), *Bidartea* (bi bideren artean dago), *Bezonarrea*, *Dorrea* (gaur egun desagertua), *Etxetarrea* (gaur egun desagertua), *Etxeparea*, *Gortaria*, *Jauregia*...

³³ Euskaltzaindiko Onomastika zerbitzuko, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko edo Baztango Udaleko Euskara zerbitzuko teknikariek aholkua ematea baitezpadakoa da hala eskatzen duten herritarrei.

- c) Izena + *alde* + *-a*: *Errekaldea*.
- d) Izena + *bertze* + *-a*: *Etxebertzea*.
- e) Izena + *etxe* + *-a*: *Apezaren etxea*, *Bordakotxea*, *Goienetxea*.
- f) Izena + *bere* (< *behere*) + *-a*: *Alemanberea* (gaur desagertua), *Bidabere*³⁴, *Bordaberea*³⁵.
- g) Izena + *berri* + *-a*: *Bordaberria*, *Etxeberria*, *Irigoi* *Etxeberria*, *Salaberria*.³⁶
- h) Izena + *tegi* (> *degi*) + *-a*: *Litzundegia* (gaur desagertua).
- i) Izena + *garai* + *-a*: *Alemangaraia* (gaur desagertua).
- j) Izena + *goien*: *Irigoi*³⁷.
- k) Izena + *leku* + *-a*: *Etxelekua*.
- l) Izena + *mendi* + *-a*: *Gezamendia*.
- m) Izena + *txipi* + *-a*: *Jauregitxipia*³⁸ (ahoz 'Datxipia').
- n) Izena + *zar* (< *zahar*) + *-a*: *Eskolazarra*³⁹ (gaur *Eguzkialde*).
- o) Izena + *zuri* + *-a*: *Etxezuria* (gaur egun desagertua), *Arretxezuria* (gaur desagertua).

34 Elizondotik Dantxarinera doan errepede nagusiaren ondoan dagoen *Benta* (edo *Amaiurko Benta*) etxea deitzeko bertze izen bat. Kontuan izan behar da Otsondo inguruan, bide-bazterrean bazirela bertze bi benta.

35 *Bordakotxearen* behean.

36 Hemen *sala* ez da 'etxeko sala', baizik eta *etxe*. Bi etxe horiek bata bertzetik aski hurbil daude.

37 Herriaren gainaldean dago.

38 *Jauregia* etxearen behean; gaur egun tamainaz bederen ez da *Jauregia* etxea baino txikiagoa.

39 Garai bateko eskola-XX. mendeko 50eko hamarkadan neskendako eta mutilendako goititu ziren eskolak ireki arte.

- p) Lanbideak: ‘hargina’ (*Arginenea*) eta ‘kanteroa’ (*Kanteronea*); ‘arotza edo errementaria, ez zurgina’ (*Arotzenea*); ‘bastagilea’ —edo ‘basteroa’— (*Basteronea*); ‘barbera’ —hau da, odol-ateratzak eta ebakuntzak egiten zituen mediku kontukoa— (*Barberenea*)...
- q) Etxe-izen berriak: *Amalur*, *Eguzkialde*, *Gaulan*, *Gaztelualde*, *Goiene-txe* (deitura etxe-izen bilakatua), *Goizargi*, *Kooperatiba*⁴⁰, *Mertxene*, *Narbaro*, *Otaxko*...
- r) Bertze batzuk: *Errota*, *Eskola*, *Herriko Etxea* (edo *Ostatua*), *Inda*, *Ospitalea*, *Xixiliren borda*...

Nolanahi ere, guk ezagutu ez bide ditugun izenak ere ageri dira paper zaharretan: *Arrosarena*, *Elizaldea*, *Estilartea*, *Gobernuerena*, *Jaimerenea*, *Kattorena*, *Kilimiesenea*, *Kuidadorena* edo *Kuidenea*, *Lazkanen etxea*, *Maisterenea*...

Karrikako etxeek zer izen duten ikusi dugu. Bordek izen desberdinak ote dituzte? Bordarik gehien-gehienak karrikako etxeen jabetzapekoak izan ohi ziren eta hortik ditugu, adibidez, *Alemanea* (etxea), *Alemaneko borda*, *Alemaneko erdiko borda* eta *Alemaneko mendiko borda*. Ardi-bordak eta etxolak ere ez atzen!

Etxeen katastro-orrietan ohikoak dira karrikako etxeek ondoan edo inguruan baratzeak, landak... izatea eta urrunago gaztelaniaz «*bordas habitadas*» edo «*bordas para acubillar ganado*» deitutakoak (azken horiek bizitegi bihurtutakoak batzuetan), eta haien inguruan belaiak, larreak, irazelaiak, sagardiak...⁴¹. Nolanahi ere, izan bada karrikan etxerik ez duten borda guti batzuk (*Bordazuriko borda*⁴², *Erdiko borda*, *Ermandade*, *Itzalosko borda*, *Oianzelaiko borda*, *Punpuluseta*, *Suxko borda*, *Unatxipiko borda* —unai txipia biziko zen beharbada noizbait borda horretan—, *Urriztiko borda*...) edo, guk dakigula, bordarik (izan) ez duten karrikako etxeak (*Joanikotenea*, *Josematiasenea*⁴³, *Ospitalea*...).

40 Berriki kendaria eta gaur herriko aparkalekua dena

41 Karrikako etxe-errotik bota zituzten eta ateratako materialarekin (harria, zura...) etxe horien jabeek karrikatik kanpo zituzten bordak konpondu zituzten, lurra lantzeko etaazienda errazago bazkatzeko aukera zutelakoz. Bertze batzuetan, etxeetan segida hurbilik ez zenean edo herederoak putzuaren bertaldera joaten zirenean, etxea bota eta harrobi bezala ibiltzen zen.

42 Beharbada noizbait *Bordakotxearena*, *Arretxezuria* *Arretxea* etxearena izan zatekeen bezala.

43 Gaur egun orubea eta jendearen ahotan ‘Nikolasaren etxea’, Nikolasa izeneko emakume bat izan baitzen etxe horretan bizi izan zen hondarra.

b. Tokiz toki

Etxeak eta bordak ikusi ondoren, tokien edo lekuen txanda dugu orain. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* argitalpenean jaso ziren 1998. urtean Baztango, Urdazubiko eta Zugarramurdiko toki-izenak. Hiru liburuki behar izan ziren horretarako (LII, 1,2,3).⁴⁴

Amaiurko 200 toki-izen edo toponimo inguru bildu ziren; ez denak, halere.⁴⁵ Nagusi dira bordak, ardi-bordak, parajeak, mendiak, errekek... Toki-izenak aztertu ondoren, ondorioztatzen ahal da, zenbait toki-izen ez zela bildu herrigunetik edo karrikatik hurbil samar zeudelako (erraterako, errota ondoko *Askanburu* edo bidegurutze batean dagoen *Gurutze*) eta bertze batzuetan, ez zirela behar bezala bildu eta inoiz ezta mapetara pasatu ere. Landa-lan eskasa egin zen arlo batzuetan, ondikotz. Badugu non jokatu, beraz.

Errepara diezaiogun zenbait toki-izeni.⁴⁶

Bolo

Errepide nagusia utzi eta herrira buruz goazela, *Ibarrondo* iraganik, *Bizintxako* zubiaren ondo-ondoan *Bolo* —edo *Bolondo*— dugu (*bolua* mendebaldeko euskaraz ‘errota’ da)⁴⁷.

Gaztelu

Gaztelua, *Castillo viejo*, *Gazteluzar*, *Gaztelualdea*, *Gazteluondo*... Gazteak ginelarik misterioz betetako tokia zen, zerbait aditzen baitzen edo kontatzen baitziguten, kaskoan izanak zirela guduak eta monolitoa gau batez zapartatu zutela eta... Dena argitzen hasi zen monolitoa 1982an berriz goititu zenean eta handik urte batzuetara Aranzadi Zientzia Elkarteak kideak, amaiurtarren laguntzarekin, indusketak egiten hasi zirenean. Hanka erroraino sartzeko beldurrik izan gabe, gaur den egu-

44 Amaiurko datuak 1. liburukian daude, 58. orrialdetik 75. orrialdera bitartean. Forma arautuak letra arruntean eman dira, eta testuetan ageri diren jatorrizko izenak letra etzanean.

45 Edozein bilketak segida eskatzen du eta, guk dakigula, ez da halakorik egin, ez behinik behin Amaiurko toki-izenetan. Gaur errazagoa da, baliabide tekniko gehiago dugulako, ez mapa eta grabagailua bakarrik.

46 Kontuan izan behar da *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* egitasmoaren xede nagusia toponimia bizia jasotzea izan zela.

47 *Bolon* denboraz kapusaia egiteko fabrikatxo bat omen zegoen, eta fabrikatxo horrek errotako kanaletik sobran etorritako ura aprobetxatzen zuen. Haren azken arduraduna zuberotarra omen zen (halaxe adierazi zion gure aita zenari Sagrario Aleman euskaltzainaren aita zenak).

nean Amaiur ez zen gaur dena izanen, urteak joan urteak etorri, auzolanean egin diren lanak egin izan ez balira. Eta horretan segitzen du herriak.

Kristianoeta

Guiristineta, Guiristinoeta, Guiristinoeta, Cristianota, Cristinota. Kristau tokia erran nahi du.⁴⁸

Maasti

Denboraz *mahastia* izaten ahal zen toki horretan. Gaur egun ez dugu horren arrastorik.

Minetako erreka

Meatze-ustiategiak zeudela erakusten digu toponimo honek.⁴⁹ *Meatzetako bizkarraren* azpian sortzen da, Amaiurko iparraldean.

Napoleonbidea edo Inglesbidea

Erdi Aroaz geroztik eta 1841. urtera arte Baiona izan zen Iruñearen itsasportua; 1841 arte Iruñetik Baionarako bidea Amaiurtik eta Amaiurko mendatetik iragaten zen, “Mondarrain-Gorospil-Otsondo-Amaiur” bidetik. Tradizioaren arabera, Napoleonen armadak bide hori erabili zuen Frantzia aldera erretiratzeko. (Nafarroako Gobernu 1998, NTM, LII, 71)

Washington

Otsondoko lepotik *Goramendi* aldera doan bidean dago Washington; Itzulegiko lepora ailegatu aitzineko kaxkoa da. Gainean denboraz kantina bat egon zen, amerikarren base militarra eraikitzen zirenean espainiarren gozagarri⁵⁰.

1.1. Zenbait lekukotasun berri

Sarrera-hitzaldi honi akabaila ematen hasteko, Amaiurrekin zerikusia duten bi arlo ttipi bezain garrantzitsu erakutsi nahi dizkizuet.

a. Meatzeak (minak)

48 Lapurdin eta Nafarroa Beherean, *kristau* hitzaren aldaera da *girstino*.

49 F. Idoateren arabera, 1735eko errege zedula batek Lorenzo Benguierre de Latour suitzarrari Amaiurko *Azaldegi* aldeko hamabortz kobre-meatze ustiatzeko baimena eman zion. (Idoate 2009)

50 Hala deitzen zuten aritzakundarrek, 1954tik 1974ra bitartean han egon zen Ameriketako Estatu Batuetako base militarra gogoan.

Nafarroako Gobernuak Navarra Archivos webguneko Artxibo Irekian daude, bertzeak bertze, 5.874 dokumentu, 1840tik 1940ra bitartekoak.⁵¹ Meatze-espedienteak tramitatzeke agiriak dira: espedienteen historia-liburuak; demarkazio-planoak; lanen planoak; ustiategiak egiteko eta emateko baimenen erregistroa; eta meatze-katastroa. Espediente horietatik 81 Amaiurko lurretan egin ziren.⁵²

Dokumentu horietan guzietan Amaiurko toki-izenak ageri dira. Euskaraz idatzita daude gehienak, trakets samar bada ere. Espediente horietako izenen artean honako hauek azpimarratu nahi nituzke:⁵³

- Arretxezuriko bizkarra (*Archezurico-Bizcarra*)
- Arluzeke (*Arluceco, Artuceco*)
- Arluzeke peña (*Arlueco Peña*)
- Antsestegi (*Ansostegui*)
- Antsestegizearra (*Ausastegui-Ciarra*)
- Bagoi (*Bagoi, Bagoy*)
- Berroko oihana (*Beroco-oljama*)
- Etxelekuko mendia (*Echelecucomendia, Echelacucomendia*)
- Etxelekuko mendiko erreka (*Echelacucomendicoerreca, Echelacucomendia Erreca, Echelecucomendicoerreca, Echelacomendiz Erreca*)
- Indamendiko erreka (*Indamendico Erreca*)

51 http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/FondosAA/DocumentacionMinas.htm

52 Baztanen, guzira, 828 izan ziren. Kopuruz, nagusi dira Elizondo (125), Almandoz (117), Arizkun (90) eta Amaiur (81). Honek guziak erakusten du, ez dela gaur egungo afera Baztanen meatzeak egin nahi izatea.

53 Forma arautuak letra arruntean eman dira, eta testuetan ageri diren jatorrizko izenak parentesiz artean eta letra etzanean.

- Lapitzeta (*Lapiceta, La Piceta*⁵⁴)
- Lepoko erreka (*Lepoco Erreca*)
- Ontxilota (*Onchilota*)
- Txiskaneko erreka (*Sisaneco Erreca*)
- Txiskaneko borda (*Siskañeco-Borda*)

Espediente bakoitzean toki-izenak ageri dira eta batzuetan izenburuetan azaltzen diren toki-izenak desberdin idatzita eman dira. Erraterako: *Onchilota* (izenburuan) eta *Unchirota* edo *Onchilota* espedientearen barneko orrietan.

Bertzalde, izen berri batzuk ageri dira eta horien artean ezezagun eta bitxia egiten zaigun *Mayaco-ciarra*.⁵⁵

b. Amaiurren eta Baztanen arteko mugak

Gaur den egunean, Amaiur Baztango hamabortz herrietako bat da.⁵⁶ Ez da beti hala izan, 1665ean jurisdikzio zibila berreskuratu baitzuen; Baztandik bereizi zen 5.000 erreal altxor publikoari ordaindu ondotik. Herribildu beregaina izan zen 1969. urtera arte; urte horretan Baztango *toki* (gaztelaniaz «*lugar*») bilakatu zen eta herribildu izaera eta armarría galdu zituen. Orduan gazte eta orain ez hain gazte diren amaiurtar batzuk ongi aski oroituko dira lehen urte haietan nolakoak izan ziren amaiurtarren eta Balleko Etxeko agintari eskuindarren arteko harremanak⁵⁷...

Ematen du, menderen mende bi udalen arteko lurra ongi samar bereizita izan direla, mugarriak nonahi ageri baitira. Aldian-aldian, Baztango eta Amaiurko ordezkariak tokiaren gainean egiaztatzen zuten mugarrien egoera, erraterako, zutik, hondatuak, 'lekuz aldatuak', desagertuak... zeuden eta halakorik gertatzen zenean mugarri berriak paratzea erabakitzen zuten. Honen guziaren berri ematen digute Patxi Ondarrak esku artean izan zituen zazpi agirik.

54 Ez da lehen aldía halakoak ageri direla toponimian. Ezagunak dira Iruñerriko «Los Gorris» (< Lurgorri), «Los Belzetas» (< Lurbeltzeta)...

55 Izen hori eman edo bildu zuena ez bide zen amaiurtarra edo ingurukoa.

56 Baztangoiza eskualdean dago, Azpilkuetarekin, Arizkunekin eta Erratzarekin batera.

57 Garai hartako Baztango Udaleko agintari batek manatu zuen Baztango armarría herriaren sarre-rako arkuan paratzeko. Pararazi zuen, baina ez zuen luze iraun errotik atera baitzuten.

1654ko agirian erraten zaigu 21 mugarri paratu zituztela Alkurruntz beheretik hasi eta Itzulegiraino, eta horretarako elkartu zirela Baztango eta Amaiurko alkatteak eta diputatuak.

1710ean berriz elkartu ziren, oraingoan mugarrien egoera zein zen ikusteko. Kristianoetan (*Guiristiñoeta*) hasi ziren eta hortik Itzulegi aldera jo zuten eta Itzulegitik Alkurruntza eta Alkurrundzik Kristianoetara, zirkulu osoa osatuz. Honako honetan 38 mugarri berrikusi zituzten.

1784koa izan zen hirugarrena. Horrako horretan ere Kristianoetan (*Guiristinoeta*) elkartu ziren baztandar eta amaiurtar agintariak. Bi egunez ibili ziren, goiti eta beheiti, eta zenbait mugarri aldatu zituzten, txikiak baitziren, mugarri gehiago paratu zituzten (harrizko mugarriak egin bitartean hesolak ezarri ohi zituzten). Pedro Josef de Yriarte maisu harginak egin zituen eta buruetan «B» (Baztan) eta «M» (Maya) inizialak paratu eta mugaren norabidea markatzen zuen marra behar zenetan. Urte horretan hasmenta Arraztoa jauregiaren aitzinean⁵⁸ zegoen estratan eman zioten. Oraingo honetan Arraztoa aldetik mendebaldera jo zuten, Alkurruntz aldera, eta handik Itzulegiko bidea hartu zuten, hau da, hego-mendebaldetik ekialdera, eta handik hasi lekura itzuli ziren. Guzira, 88 mugarri berrikusi zituzten.

Ia ehun urte geroago, 1845ean, elkartu ziren berriz Amaiurko eta Baztango agintariak eta lekukoak. Mugarri batzuk falta zirela konturatu ziren, gehienbatean Independentziaren gerran eta bertze gerra batzuetan kanpatuta egon ziren soldaduek hondatutakoak. Honako honetan mugarriak Amaiurko Juan Julian Mortalena harginak egin zituen.

Azken-aitzineko elkarretaratzea 1879an egin zuten eta urte hartan, 1845ean gertatu zen bezala, konturatu ziren zenbait mugarri errotik aterata zeudela («*rancadas*») muga-lerroaren inguruan kanpatuta egon baitziren soldaduak.⁵⁹

Eta, azkena, 1882koa izan zen. Hemen ere egiaztatu zuten zenbait mugarri falta zirela, baten bat mugituta zegoela eta, bitxikeria moduan, Arizkungo Ezpondako eta Latariko jabeek Amaiurko lurretan edo Amaiurko Etxebertzeoek Arizkungoetan arbolak landatuak zituztela. Mugarriak lekuz mugitzea edo kentzea kontu arrunta omen zen, ez bakarrik soldaduek kanpatzeko egindako lanak.

⁵⁸ Arraztoa jauregiak, Arraztoa etxeak eta Katea etxeak osatzen duten etxe-multzoa Azpilkuetako Urrasun auzokoak dira. Urrasun alkatez Azpilkuetakoa da, eta elizaz eta eskolaz Amaiurkoa.

⁵⁹ Ohar argigarri hau ageri da agirian: «aviso de falta de piedras mojoneas, perdidas o “rancadas” durante la última guerra civil, que las tropas estuvieron en parte de la línea acampadas».

Hala, esku artean izan ditugun zazpi dokumentuen azterketak izen berriak (eta haien aldaerak) erakutsi ditu. Izan ere, izen horiek ez ziren *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean jaso, lan horien egileek ez baitzituzten esku artean izan Baztango Udaleko artxiboetako agiri batzuk.

Erakuts ditzadan hemen izen berri edo ezezagun horietako batzuk:

AIZALEGI | Aizalegiko lepoa, Aizalegiko jarlekua, Aizalegiko gaina, Aizalegiko larraka; Aizalegiko meatzeko gaina.

Dokumentazioa: «*aycalegui* (1654); monte de *Aizalegui* (1710); *Aizalegui*, cima de (1784); otro (mojón) en *Aizalegui* o Meacea (1784); *Aizaleguicogaña* (1845); *Aizaleguicomeacecogaña* (1845); *aycalegui yarlecua* (1654); *Aizaleguicoyarlecua* (1784); paraje de *Aizaleguico Yarlecua* (1710); *aycaleguicolepoa* (1654); *Aizaleguicolepoa*, cerca de la borda de Jarola (1710); *aycaleguico larraca* (1654)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*n bildu gabea. Toki bera deitzeko *Azaldegi* (eta ingurukoak) bildu ziren 1784an.

ALKURRUNTZ | Alkurruntz beherea.

Dokumentazioa: «alto o cumbre de *Alcurrez* (1784); en la parte y endrecera de *Alcurrez beherea* (1654); *Alzurrez beherea* (1654, 2. kopia); *Alcurrenzbeherea*, peña natural grande (1710); paraje llamado *Alcurrenzbeherea* (1784); peña natural grande en el paraje de *Alcurrenzbera* (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*n bildu gabea.

ARRAZTOBURUA

Dokumentazioa: «*Arraztoburua*, en el paraje de Arraztoa (1784); *Arraztoburua* (1845); *Arraztoco-burua* (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*n bildu gabea. Amaiurko muga-muga dagoen jauregia da.

ARTXUTXETA

Dokumentazioa: «loma o rellano de Archucheta (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan bildu gabea.* Alkurruntz inguruko tokia, ezezaguna gaur egun.

AZALDEGI | Azaldegiko jarlekua; Azaldegiko lepoa; Azaldegiko meaka.

Dokumentazioa: «hacia el norte de Azaldegui, en el sitio que llaman Azaldegui-co-meaca (1784); monte de Azaldegui (1784); alto de Azaldegui (1784); Azaldegui-co-iarlecuca (1784); collado de Vidaley hasta el paraje denominado Azaldegui-coyarlecuca (1784)⁶⁰; Azaldegui-co-lepoa, mirando a la borda de Jarola de Elvetea (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan bildu gabea.* Toki bera adierazteko Aizalegi ageri da dokumentu zaharragoetan.

BIDAZLEGI | Bidazlegiko lepoa.

Dokumentazioa: «parte que mira a Anzola y Vidasley (1784); collado llamado de Vidasley, junto al camino Real de este Reyno de Navarra la ciudad de Bayona y otras partes de Francia (1784); falda del monte llamado Goizamendi, que mira recto al collado de Vidasley (1784); lado que mira a vidasley, el lado que mira a Baztan (1784); vidazlegui (1654); vitezlegui (1654); paraje de Vidasleguicolepoa (1710); vidasleguicolepoa (1784); Vidaley (1845); Vidaley, en el collado de, junto al camino real antiguo (1845), Vidaley, siguiendo de dicho a Goizamendi, al punto de Vidaley (1845)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan bildu gabea.* Gaur Otsondo eta Otsondoko lepoa litzateke, kokapenaren arabera.

LARRAKAGAÑA

Dokumentazioa: «mojon en el paraje Larracagaña (1710); Larracagaña (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan bildu gabea.* Meatzetako bizkarra izenarekin ezagutua gaur.

⁶⁰ «En cuyo intermedio había 8 mojones y 5 nombrados en 1784 arrancados sin duda “cuando el campamento de tropas de la guerra de la Asamblea”».

LURU | Lurukogaña, Luruko atekak, Luruko zokoa.

Dokumentazioa: «sel de *luru* (1654); *Luruco gaña* (1710); *luruco laroa* (1654); *Lurucoco zocoa* (1710); *Luruco zocoa*, juntto (sic) a un círculo de piedra que antiguamente parece a sirbido de sepultura (1784)⁶¹; *lurucoatecac* (1710); *Lurucoatecac* (1784); parte superior de la rinconada llamada *Luruco atecac* y por otro nombre *Ohoinchuloeta* (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan* bildu gabea. Gaur egun *Ontxilota* moduan ezaguna. Ikus *Ohointxuloeta*.

MEATZEA

Dokumentazioa: «otro (mojón) en Aizalegui o *Meacea* (1784)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan* bildu gabea. Bi izeneko aurkintza.

OHOINTXULOETA (Ontxilota)

Dokumentazioa: «parte superior de la rinconada llamada *Luruco atecac* y por otro nombre *Ohoinchuloeta* (1784); *Oinchilueta*, en dirección a *Urlegui* (1845)».

Oharra: *Beharbada Ohointxuloeta* beharko luke, ez *Ontxilota*.

PEÑA DE AGUILA DE MAYA edo ARLUZE

Dokumentazioa: «paraje llamado *Aguila de Maya* (1710); *Aguila de Maya* (1784); bajando hacia *Alcurrunzberea* o *Arluce*, peña llamada *Arluz* (1845)».

Oharra: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintzan* bildu gabea.

61 *Mairuarriak* gisa ezagutua.

3. Azken hitza

Euskara batuaren eta euskalkien gainean mintzatu gara, gure inguruko hitzak izan ditugu hizpide, etxe-izen eta toki-izen batzuk erakutsi ditugu. Amaiurtar batzuk ere aipatu ditugu, zeharka bada ere. Nolanahi ere, jendea hondarreko utzi dut. Erran dut istantean jende-izenak etxe-izenetan ageri direla, baina ez dut erran etxe horien jabeak nola deitzen ditugun edo, hobeki erran, nola deitu izan ditugun, gaur den egunean maizago ibiltzen baita izena eta deitura, ezen ez etxearen izena, lehenago egiten zen bezala.

Etxe-izenak eta jende-izenak errepikatu izan dira, orain arte bederen, herrietan eta inguruko auzoetan. Izen horiek bereizteko sistema hau erabiltzen dugu. Lehenik herria edo auzoa erraten dugu eta haren segidan etxearen izena. Erraterako, *Agerrea* etxea (egunen batean Amaiurko gazteluko hondarrak-eta bilduko dituen museo-etxea) dugu karrikan, zuengandik aski hurbil. Azpilkuetako Urrasunen eta Zuaztoin ere badira *Agerrea* deitzen diren etxeak. Bereizi behar direnean, honela egiten dugu: Amaiurkoa *Amaiur Agerrea* da eta Azpilkuetakoak *Urrasun Agerrea* eta *Zuaztoi Agerrea*, ez **Agerrea Amaiur*, **Agerrea Urrasun* eta **Agerrea Zuaztoi*.⁶²

Eta nola deitzen ditugu etxe-jabeak edo etxeetan bizi direnak? Lehenik jabearen izen ttipia erraten da eta, gero, etxearen izen laburtua. Halakoak genituen *Joxe Argintto*, *Arginenekoa*; *Jexux Barbain*, *Barberenekoa*; *Gil Bordabere*, *Bordaberekoa*; *Joxema-nuel Delgado*, *Delgadoneko bordakoa*; *Antonio Errekalde*, *Errekaldekoa*; *Prudentzio Etxe-bertze*, *Etxebertzekoa*; *Antonio Etxepare*, *Etxeparekoa*; *Ramon Iputz*, *Iputzenekoa*; *Nikolas Kallo*, *Kallonekoa* (< ‘Gallegoren etxekoa’); *Patziko Iruin*, *Irigoienekoa*; *Ramon Komain*, *Komaineko bordakoa*; *Gerardo Makit*, *Marikiteneko bordakoa*; *Karlos Mañan*, *Mañaneko bordakoa*; *Migel Maxto*, *Maiarrastonekoa*; *Jabier Salaberri*, *Salaberrikoa*... Eta halakoak ditugu gaur den egunean ere jende gazteagoak: *Mikel Bexonart*, *Bezonartekoa*; *Beñar-do Ddorre*, *Dorreko bordakoa*; *Asier Etxepare*, *Etxeparekoa*; *Mikel Eskortz*, *Eskoskoa*; *Juan Migel Etxebertze*, *Etxebertzekoa*; *Gabi Komain*, *Komaineko bordakoa*; *Xanti Salaberri*, *Salaberrikoa*, *Juan Xixke*, *Txiskanekoa* (orain *Gezamendikoa*)...⁶³. Nolanahi ere, izen-

62 Nafarroan zenbait herri- edo auzo-izen errepikatzen dira, toki batean baino gehiagotan ageri dira, alegia. Herri horiek elkarretatik bereizteko, sistema desberdina ibiltzen da: lehenik herria edo auzoa eta, segidan, udala. Erraterako Uharte. Hortxe *Uharte Arakil*, *Uharte Baztan*...

63 Etxe batean jende bat baino gehiago bizi denean ezin, erraterako, *Etxepare* bakarrik deitu; *Anton*, *Asier*, *Jabier*, *Unai Etxepare* deitu behar. Bai, ordea, *Etxebertze*, etxe horretan bertze anaiarik ez

datzeko modu horren ordez bertze bi modu hauek nagusitzen ari dira: izen ttipia eta etxearen edo bordaren izen osoa ematen da (*Mikel Bexonarteko bordakoa; Asier Etxeparekoa; Mikel Eskortzekoa; Gabi Komaineko bordakoa; Xanti Salaberrikoa...*); edo izen-deiturak ematen dira (*Mikel Maisterrena, Asier Jauregi, Mikel Jauregi, Gabi Garmendia, Xanti Urrutia...*). Deituren erabilerak etxe-izenak atzentzera garamatza, ez izenak bakarrik, baita izen horien erabilera zuzena ere.⁶⁴

Paratu ditugun guziak gizonaekoa dira, guk dakigula ez baita 'izen ttipia + etxea' sistema erabili emakumezkoak deitzeko, ez da bederen arrunta izan emakumezkoak hala deitzea. Ohikoagoak dira *Emili Bollonenekoa, Mañoli Joanikotenekoa, Mila Marikitenekoa, Mari Kallonekoa, Junkal Migelenekoa* (lehenago *Urrasun Dolarekoa*)... Gizonaekoen nagusitasuna orain arte agerian utzi duen hizkuntza erabilera, guk uste.

Eman diezaiodan akabaila *prediku* honi zuek ahozabalka hasi baino lehenago. Horretarako baitezpadakoa da, lehenik, gibelat begiratzea, iragan hurbil zein urrunagora begiratu eta ja gurekin ez ditugunak gogora ekartzea. Bereziki, zu, Elorditik⁶⁵ beha egonen zaren aita, zuri etxean adituak baliatu baitituz hemengo zernahi agertzeko, beti erakutsi baitiguzu zer inportantea den lehenagokoek erranak aditu, gogoan izan eta haiek barneratzea bizian indarrez segitu nahi bada, etorkizunari begira eta iragana atzendu gabe. Ez ditut aipatu gabe utzi nahi sortetxearen, Joanikotenearen, barride edo auzoko hurbilak izan ziren amaren aldeko aitaxi Paulo eta amatxi Maria Pilar aritzakundarrak, Arroseneko Gaineko borda utzi eta Bollonenera etorriak; Julia eta Kurutx Ospitalekoak (Juliari ikasi nizkion, bertzeak bertze, *zorripiztu* eta *antapaxu* (< *aparaxu*) hitzak); Adela, Hipolito, Migel, Paula, Pedro, Segunda Mariarrastonekoak; Migel, Juana, Pilar eta Fernanda Komainekoak (Urrasungo Tellaxarretik etorriak ziren); Juana Belvis Basteronekoa, Juana Barberenekoa...; errotazainak (haiekin ikasi nuen zer ziren *erregua, errotarria, gaitzerua,*

baita bizi gaur den egunean.

64 Ondikotz, barra-barra entzun eta eskribituta ikusten dira **Aroztegiako golf proiektua, *Antxitoneako trinketea, *Jauregiako gorapea, *Kisuako sagardia...*; *Aroztegiako golf proiektua, Antxitoneko trinketea, Jauregiako gorapea, Kisuko sagardia...* erabili beharrean.

65 Elordin dago egun kanposantua; berria da, denbora luzez, Ipar Euskal Herrian bezala, elizaren gaineko aldean ezagutu baitugu.

laka...; haiek bai miserian bizi!) edo Delgadoneko bordako Joxe Manuel Alemanek paper zahar batzuetan eskribitu eta ematen zizkidan euskarazko hitz haiek eta...⁶⁶. Denak joanak. Eta gure artean daudenen artean, zu, ama, hiruretan hogeitun honetan Amaiurren izanik ere aritzakundarren bizitasun eta mintzo berezia duzun hori. Esker mila aunitz.

Hala, iraganari uko egin gabe, arrunt pozgarria da gaur ikustea Amaiurrek, Baztanek, Urdazubik, Zugarramurdik... eta inguru zabalak bizirik eta euskaldun segitzen dutela, beren nortasun propioaz harro direla eta, eskuarki, euskaldun mantendu direla eta seme-alabei eta ondorengoei euskara eta euskal kultura transmititzen dietela. Nolanahi ere, ez dago dena egina, gure kultura eta hizkuntzak ez daude salbu, izan baita oraino lana ausarki.

Horren erakusgarri dugu herrian gazteluaren inguruan egin diren eta, bereziki, aurten egin nahi diren ekitaldiak. Auzolanean, ermandadean⁶⁷ eta kofradian⁶⁸ egin beharrekoak denak ere, eta, zer erranik ez, gure Akademiakoak. Ongi etorriko litzaiguke gure eta denon Akademia honetan amaiurtarrak bezala arituko bagina.

Egin dezagun, bada, erran zahar honek dioena:

«Pitsetik zuntza,
zuntzetik haria,
haritik oihala, eta
oihaletik soinekoa».

Halabiz!

66 Bere seme Prudentziok *horreka* (berorika) egiten zidan Gasteizen Euskal Filologia ikasten ari nintzen garaian; ni eskolatua izaki.

67 *Ermandade* izeneko baserria bada Amaiurren.

68 Kofradian aritzea defendatu zuen Miriam Urkiak Aretxabaletan (Gipuzkoa) egin zuen sarre-hitzaldian. (Urkia 2019)

Bibliografia

1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa. Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 57. zk., martxoaren 7koa.

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA. «Amaiur/Maya». <https://aunamendi.eusko-ikas-kuntza.eus/es/amaiurmaya/ar-21432/> (2022ko maiatzaren 21ean kontsultatua).

AZKUE, R. M. (1984) [1905]. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo: Euskaltzaindia.

BIDADOR, J. M. (2000). «Baztango euskal idazleen berri laburra». In *Euskaldunon Egunkaria* (2000-01-21; 2000-01-28; 2000-02-04; 2000-02-11; 2002-02-18; 2000-02-25).

— (2006). *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*. Iruñea: Pamiela.

EUSKALTZAINDIA (1923). *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n*. Bermeo: Gaubeka inprimategia.

— (1979). «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak». In *Euskera*, 24 (1979-1): 103-106.

— (1994). «Euskalkien erabilera Administrazioiko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan». In *Euskera*, 40 (1995, 2-3): 1019-1024.

— (2004). «Adierazpena, euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan». 137. araua.

EUSKO JAURLARITZA (2005). *Onomastika*. Gasteiz: EIMA.

GORROTXATEGI, M. (2017). «Decreto de 1916: antecedentes, consecuencias y presente en Euskal Herria». In *Boletín de la Real Sociedad Geográfica*, CLII: 145-178.

IDOATE, F. (2009). *Rincones de la historia de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

IÑIGO, A. (1998). «1923. urteko II. Euskalegunen oroimenez». In *Euskera*, 43 (1998-2): 365-369.

— (2006). «Jose Maria Satrustegi: ereile eta lekuko. Mendaur». In *Euskera*, 51 (2006-1): 515-521.

IÑIGO, P. eta REKALDE, P. (2004). «Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako administrazioan eta hezkuntzan». In *Euskera*, 49 (2004-1): 115-200.

IRIGOIEN, A. (1962). «Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923)». In *Euskera*, 7 (1962): 135-193.

IZETA, M. (1985). «Baztango Hiztegi Ttipia». In *Euskera*, (1985-2): 553-618.

—— (1997). *Baztango Hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

NAFARROAKO GOBERNUA (1998). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* (NTM), LII-1. (Zuz. J. M. Jimeno Jurío).

—— (2022). *Nafarroako Toponimiaren bisore geografikoa* (<https://administracionelectronica.navarra.es/toponimia>).

REKALDE, P. (2001). «Mariano Izeta Elizalde (1915-2001)». In *Euskera*, 46 (2001-1): 497-506.

SALABURU, P. eta LAKAR, M. (lag.) (2005). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernu. MENDAU bilduma, 2.

URKIA, M. (2019). «Hiztegitik kofradiara». In *Euskera*, 64 (2019-1): 12-39. (Euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia).

ZALBIDE, M. (2020). «Euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak: zer dira eta zertarako? Nola uztartu». In Euskaltzaindia (2020). *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak*. Jagon, 20: 11-90.

ZUAZO, K. (2022). www.euskalkiak.eus

Paskual Rekalde euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

URKIA, Miriam

Euskaltzain osoa

Agintariak, euskaltzainak, amaiurtarrak, lagunak, Paskualen etxeakoak, Paskual, egun on guztioi.

1. Paskual Rekalde Irigoien

Iritsi da egun handia! Azkenean, kostata, etorri gara gu ere Amaiurra, herriarentzat hain garrantzitsua den urte honetan, gainera. Eta pozik gatoz, gaur Amaiurko herriak egin digun harrera bero bera egiten baitiogu herriko seme bati Euskaltzaindian.

Ezer baino lehen, Paskual, eskerrak eman behar dizkizut ekitaldi honetarako zure amabitxi hautatu nauzulako. Horrek eragin didan kezka eta ardura alde batera utzita, ohorea eta plazera da gaur zure alboan izatea, eta zure sarrera-hitzaldi ezin ederragoari erantzutea.

Izenak aipatu ditu Paskualek, herrikoak, etxeak, bordak, jende-izenak... eta berea isildu. Juan izatekoa zen, bataioko aitatxi Juan bezala. Baina horiek alde batera utzi eta aita zenak bere aitaren izena, Paxkal, jartzea erabaki zuen: Paxkal Ttiki. *Joanikoteneko Paxkal Ttiki*. Sumatu zuen zerbait bat-batean semearen izena izan behar zuena aldatzeko! Aitaxi Paxkalek, Uruguain sortua, gurasoak Irisarrikoak bazituen ere, xx. mende-hasieran Estatu Batuetan artzain ibili ondoren, etxerako bidea egin zuen itsasontzia hartuta, New Yorketik Portora eta handik Urdazubira. Urdazubin ezagutu zuen Extefani, eta handik etorri ziren Amaiurra. Ibiltaria izan zen aitaxi

Paxkal, nonbait. Eta Paxkal Ttiki ere ez da etxean geldi egotekoa! Bere hitzaldian bertan, bizkar-zorroa soinera bota eta, hurriz-makila eskuan hartuta, maldan goiti abiatzea proposatu berri digu.

Aspaldiko lankidea eta laguna dut Paskual. 2003an, duela 19 urte, batera izendatu gintuzten euskaltzain urgazle eta, memoriak huts egiten ez badit, berak jaso zuen nire diploma, ni kanpoan nintzen eta. Konfiantza pixka bat izango genuen! Ordurako bageneraman denboratxo bat elkarrekin Euskaltzaindiaren Hiztegia lantaldean.

Zeinek esan behar zigun 2003ko hartan, gaur gu biok hemen izango ginela!

Ez dizuet Paskualen curriculum osoa azalduko, luzeegia izateaz gain, gehienok ezaguna duzuelako, eta edonon aurki dezakezuelako gainera. Baina zertzelada batzuk eman nahi nituzke: Amaiurren sortua, oinarritzko ikasketak Amaiurren bertan, Lekarozen eta Oronozen egin ondoren, Gasteiza abiatu zen Euskal Filologia ikasketak egitera, eta titulua besapean hartuta itzuli zen Nafarroara, bidean Gipuzkoan bi geldialdi eginda, irakasle, Azpeitian eta Hondarribian. Eta handik bai, etxera, Nafarroara. Ordutik dihardu Nafarroako Gobernuan, hainbat lan eta arduratan aritu ondoren, azken urteotan itzultzaile Euskarabidean. Horrez gain, hainbat erakundetan eta proiektutan parte hartu izan du, eta parte hartzen du, aitatxi Paxkal bezala, etxean lasai egon ezinda.

Baztango euskararen inguruan egin ditu lanak, Mariano Izeta zenaren *Baztango Hiztegia* (1996) eta *Dirua galgarri* (2015) lanen edizioak prestatzen, besteak beste. Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako agiri zaharretako zenbait toponimo eta oikonimoren inguruko lanak ere prestatu ditu Andres Iñigo euskaltzainarekin batera.

Egindako ikasketek barruan zuen harra agerian utzi zuten, eta halakoa da bere bizitza, euskara baitu erdigunean. Hortik datorkio Euskaltzaindiarekiko harremana ere, aspaldikoa. Hainbat batzorde eta lantaldetan dihardu, Iker zein Jagon sailetan: Gramatika batzordean, Onomastika batzordean, Euskaltzaindiaren Hiztegia lantaldean, Euskalkien lantaldean, Euskara Batuaren Eskuliburuan, Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokian, Jagoneten, eta berriki abian jarri den Morfosintaxiaren Estandarizazioa batzorde ahaldunduan. Ez hori bakarrik: Nafarroako ordezkariorde ere bada 2018tik. Egia esanda, lehenago bukatuko nukeen zein batzordetan ez dagoen aipatu izan banu.

Errenazimentuko gizona da euskaltzain berri nafarra, orotarikoa.

Baina Paskualen curriculumik aipagarriena idatzia ez dagoena da, isilekoa. Horixe baita bera definitzen duen ezaugarrietako bat: isileko langilea. Badu curriculum sendoa, baina merituak ez dira agiritan bakarrik agertzen. Hiztegia erabili ohi dugun irizpidea hona ekarrita, «dokumentatua ez dagoena ez da existitzen». Bada, Paskualek dokumentatu gabeko hamaika lan egina du bere bizkarrean, baina berak eta ingurukoek soilik dakite zenbat ordu, zenbat asteburu eta opor-egun kentzen dion bere bizitzari isileko lanean aritzeko. Esker gabeko lana, existitzen ez dena... Baina hortxe dago, eta dakienak badaki. Nik gaurkoa lan horren garrantzia aldarrikatzeko aprobetxatu nahi dut, agerikoaren ezinbesteko sostengu baita isilekoa ere.

Andres Iñigo euskaltzain iturendarrak ekarri zidan gogora Patxi Ondarra eta hark egindako lana, Paskualek hitzaldian aipatu duena. Ondarra, kaputxinoa eta euskaltzaina, Lekarozko komentuan izan zen zenbait urtez, eta milaka isileko ordu (hark ere isilekoak!) egin zituen Baztango Udaleko artxiboan¹ eta Lekarozko komentuko artxiboan. Informazio ugari bildu zuen Ondarra maisuak, gerora Rekaldek eta Iñigok baliatu ahal izan dutena.

Eta maisu batetik bestera. Ispilurik onena du Paskualek Andres Iñigorengan. Andres Iñigo, 13. aulkia, emeritu izatera pasatzearekin batera izendatu zuen Akademiak Paskual euskaltzain oso, naturalki gertatu behar zuen moduan, hain luzea eta oparoa baita elkarrekin egin duten —eta egiteko duten— bidea! Andresi ikasi dio isileko lana dotoreziaz egiten. Bi-biona da orain aulkia; Paskualena ohorea.

2. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*² eta beste

Hiztegia ezagutu nuen nik Paskual, eta hori da gertuko dudana gaia. Beraz, *Euskaltzaindiaren Hiztegitik* abiatuta, goi-nafarreran zehar ibilalditxo egitera gonbidatu nahi zaituztet, etxean bertan bukatzeko.

¹ Baztan-Bidasoko etxe-, toki- eta jende-izenak, XVI. mendetik XIX. mendera bitartekoak, aztertzen urteak egin zituen Baztango Udaleko artxiboan, eta Lekarozko komentuko artxiboan xehatu zituen Amaiurko Bordakotxea leinu-jauregiak utzitako paperetatik ateratakoak.

² Aurrerantzean, EH.

2.1. Goi-nafarrera *Euskaltzaindiaren Hiztegia*

Zenbakiekin hasiko naiz! Ia 50.000 forma³ eta 70.000 adiera dituen gure hiztegiaren % 8,7k dauka euskalki-markaren bat. Gehiago: gure hiztegiaren adieren % 0,8 *goi-nafarrera* da. Alegia, ez da % 1era iristen *goi-nafarrerak* hiztegia duen lekua.

Horixe da datu gordina; baina handia ala txikia da hiztegia duen leku hori, hiztegi estandarra eta arauemailea osatzen ari garela kontuan hartuta?

Konparaziorako, *lapurtera* eta *behe-nafarrera* % 0,1 da bakoitza, *gipuzkera* % 0,3, *zuberera* % 0,7 eta % 2 *bizkaiera*. Hala ere, hau ez da egia osoa, multzo zabalagoak diren *Hegoaldea* eta *Iparraldea* markek leku handia hartzen baitute hiztegia (% 2 *Hegoaldeak* eta % 5,7 *Iparraldeak*). Azken horretan bildu ditugu ekialdeko forma asko, *goi-nafarrera* sarri ageri baita *Iparraldearekin* batera, inoiz ez *Hegoaldearekin*.

Izan ere, hiztegi euskalki-markak biltegi zabalak dira, etiketa nagusi batean biltzen dira, halabeharrez, azpieuskalkietako erabilera hedatuenak. *Goi-nafarreraren* kasuan, batzuetan *Iparraldetik* gertuago izango dira, *gipuzkeratik* hurbilago beste batzuetan. Gainera, euskalkiak ez dira isolatuak bizi, beste euskalki batzuekin batera ageri zaizkigu maiz, eta zaila da mugak zehaztea.

Goi-nafarrera, EHn dituen ia 600 adieretatik⁴, hirutik bitan (402 adiera, guztia-
ren % 69) *Iparraldearekin* batera ageri da (*Ipar. eta Naf.*); alegia, *lapurtera*, *behe-nafarrera*, *zuberera* eta *goi-nafarrera* multzo berean bildu ditugu hiztegia: *ainar* ('txilarra'), *altxatu* ('gorde, ezkutatu' adiera), *arotz* ('errementaria' adiera), *beharrik* ('zorionez; eskerrak (lasaituaren edo pozaren adierazle gisa)'), *bortz* ('bost'), *emazte* ('emakumea'), *gisu* ('karea'), *ohatze* ('ohea'), *tripot* ('odolkia') edo *zanpako* ('kolpea') modukoetan. Horietako batzuk hedatzen hasiak dira eremu horietatik kanpo, eta euskalki-marka galtzen joango dira gehiago hedatu ahala.

28 kasutan bat datoz *lapurtera* soila eta *goi-nafarrera* (*Lap. eta Naf.*): *adiskidego* ('adiskidetasuna, adiskidantza'), *beratz* ('bera, biguna'), *bertze*, *bertzela*, *hainbertze*, *kalainka* ('idiei bizkarrean jartzen zaien tapakia'), *lekuak hustu* ('alde egin') edo *ulitxa* ('eltxo'), besteak beste.

Aldiz, bostetik bat dira EHn *goi-nafarrera* marka hutsa dutenak (*Naf.*), 124 adie-

³ EH hiztegi arauemailea da, 49.595 forma (40.002 sarrera eta 9.594 azpisarrera) eta 68.695 adiera dituen. Horietatik 6.025 euskalki-markadunak dira (2022ko urtarreleko eguneratzeko datuak dira hauek).

⁴ 583 adieratan ageri da *Naf.* marka, 444 sarreratan bilduta.

ratan⁵ (% 21,2): **adrendu** ('trebetasuna'), **aialdeko** ('laguna, albokoa'), **amiña** eta **atautxi** ('amona' eta 'aitona'), **banabar** ('babarruna'), **batzarre** ('herriak edo udalak egiten duen bilera berezia'), **berritik** ('hasieratik'), **enkomendatu 1** (*osasuna enkomendatzeko* doluzko esapidean), **erranairu** ('esaera') edo **zizerkor** ('kazkabarra, txingorra'), besteak beste. Horietako asko arruntak izango dira amaiurtarrentzat.

Urriagoa da gipuzkerarekin duen bat-etortzea (23 kasu): **artesi** ('pitzatua, arrakala'), **behatz** ('hatza', oro har, esateko, ez soilik hankakoa, ez eta lapurterako 'azazkala' adierakoa ere), **iaio** ('trebea'), **ilbeltz** ('urtarrila') edo **sesio** ('liskarra, istilua', lagunarteko forma) modukoetan.

Eta hutsaren hurrengoa gainerako euskalkiekiko lotura zuzena: bakarra da behenafarrerarekin partekatzen duena (**beltzatu** 'belztu'), eta bi zubererarekin (**osatu** 'zikiratu, irendu' eta **xenda** 'xendra, bidezidorra') zein bizkaierarekin (**bigarren lehengusina** 'lehengusina txikia, gurasoen lehengusu edo lehengusina baten alaba' eta **gabiko** 'azaoa, sorta').

Hori guztia hiztegiaren % 1era ere iritsi gabe, ia 600 adieratan!

Euskalki barruko adierari erreparatzen badiogu, badira forma batzuk hedadura handia dutenak. Adibidez, **arotz**,⁶ 'errementaria' adierakoa, Axularrengandik hasi eta gure egunetaraino ageri da Orotariko Euskal Hiztegi⁷, Euskararen Herri Hizkeren Atlas lanean⁸ Nafarroa eta Iparralde osoa hartzen du, Lexikoaren Behatokia corpusean ere ageri da. Eta jauzi handi bat egingo dut gure hiztegiko irizpideetatik harago, corpusetako erabilera-datuak alde batera utzita, baina argigarria da Nafa-

⁵ Horietatik 12, *Batez ere Naf.* markadunak dira: **ahoztegi** 'lastategia', **atxon** 'urrina', **barre murriz** 'irribarrea', **eltze burdina** edo **eltze-burdina**, **eltzeondoko**, **enantz** 'trebetasuna', **erakustun** 'erakusle' eta 'irakasle', **ilupa** 'ganoragabea', **kana** 'kanabera', **lurreko su** 'beheko sua', **nerabe** 'mirabea, zerbitzaria'.

Eta g. er. marka (*gutxi erabilia*) duten goi-nafarrerako batzuk ere jasoak ditu hiztegiak: **akordu** (4. adieran, 'konortea'), **akorritu** ('norbait bere senera edo onera etorri'), **angabetu** (1 'indarrak ahiturik, konortea galtzeko zorian gertatu', eta 2 'gogogabetu') edo **ezaba** ('gorderik') modukoak.

⁶ EHN: «**arotz 1** iz. *Heg.* Zura lantzen duen pertsona. Ik. **zurgin**. Arotzaz gainera zen errementaria, *hargina, kanpaigilea eta dendaria*. Arotzaren etxea zotzez, zotzez ere gaitzez (esr. zah.). 2 iz. *Ipar.* eta *Naf.* Metalak, batez ere burdina, lantzen dituen pertsona. Ik. **errementari**. Arotzaren sutegian. Arotzaz burdina moldatu nahi duenean, ez du behin ere osoki hoztera uzten.

errementari iz. Metalak, batez ere burdina, lantzen dituen pertsona. Ik. **arotz 2**. Olagizonak eta errementariak. Errementariaren sutegian. *Altzainu onarekin normahi da errementari*. Errementariaren etxean zotza burruntzi (esr. zah.).».

⁷ Aurreantzean, OEH.

⁸ Aurrerantzean, EHHA.

roako Gobernuko *NafarHitz*⁹ bilatzaileak itzultzen diguna, azpieuskalki guztiak, zoritxarrez, jaso gabe baditu ere: *Luzaideko Euskararen Hiztegian*, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegian*, *Baztango Mintzoan*¹⁰, *Izarbeibarko Hiztegian* eta *Sakanako Hiztegi Dialektologikoan* ageri da, **arotz** ‘errementaria’. Hegoaldearen zati handi batean **arotza** ‘zurgina’ da. Eta, hain zuzen, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegiak*, *Baztango Mintzoak*, *Lizarraga Ergoieneko euskarak* eta *Luzaideko Euskararen Hiztegiak* **zurgin**¹¹ jaso dute, ‘zura lantzen duen pertsona’ izendatzeko (hiztegian inongo markarik gabea den forma bakarra, bide batez esanda).

esporta¹² (‘otzara, saskia’ adierakoa) *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegian*, *Lizarraga Ergoieneko euskararen*, eta *Sakanako Hiztegi Dialektologikoan* behintzat ageri da. OEHN Lizarraga Elkanokoak, Samper jaurrietarrak, Moso otsagabiarrak eta Azpiroz berastegiarrak erabili dute testuetan, eta *Lexikoaren Behatokia* corpusean behin ageri da, Patxi Salaberri¹³ euskaltzainaren testu batean. Baina ez da jaso Baztanen.

Halakoak eta beste hainbat hedadura eta erabilera (esaterako, hemen aipatu ez ditugun *Iparaldeko* marka hutsa (*Ipar.*) edo *lapurtera* marka hutsa (*Lap.*) *goi-nafarrean* zenbateraino hedatuak diren) berrikusi beharko dugu noizbait, baina, oker ez banabil, horretan ere badihardu Euskalkien lantaldeak.

2.2. Goi-nafarreratik baztanerara

Eta horiek guztiak esanda, zenbat dira EHn *goi-nafarrera* marka (*Naf.* soila edo beste euskalki-marka batekin batera) dutenak, eta Baztanen (Amaiurren esatera ez

9 *NafarHitz*, Nafarroako euskalki eta azpieuskalkien hiztegien bilatzaile lexikoa da:

<https://www.euskarabidea.es/euskara/nafar-hitz>.

Sei hiztegi biltzen ditu: *Baztango Mintzoa* (Pello Salaburu eta Maite Lakar), *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia* (Orreaga Ibarra), *Lizarraga Ergoieneko euskara* (Javi Navarro, Jose Navarro eta Mari Lurdes Andueza), *Luzaideko Euskararen Hiztegia* (Peio Kamino Kaminondo eta Patxi Salaberri Zaratiegi), *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa* (Jose Luis Erdozia Mauleon) eta *Izarbeibarko Hiztegia* (Aitor Arana).

10 Baita *NafarHitz*en ez dagoen Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia* ere.

11 EHn: «**zurgin** iz. Ogibidez altzariak, zurajeak eta kidekoak egiten dituen pertsona. Ik. **arotz**. *Zurginak zura lantzen eta apaintzen duenean. Zurginaren lanabesak. Zurginaren etxea zotzez, zotzez ere motzez (esr. zah.)*».

12 EHn: «**esporta** iz. *Naf. Saskia*».

13 *Lexikoaren Behatokia* corpusean, Patxi Salaberri: *Altxoraren bila: Lizarraga Elkanokoaren aberastunak kaustu nahiz* (Euskaltzaindia, 2008).

naiz ausartuko) jaso direnak? Mariano Izetaren *Baztango Hiztegi*ko formen herena (% 33,3), esaterako, ageri da gure hiztegian. Salaburu eta Lakarren *Baztango mintzoa* hartzen badugu, aldiz, erdira (% 53,2) igotzen da. Hemen kontuan izatekoa da *Baztango mintzoak* Izetaren hiztegia ere biltzen duela, bere osotasunean ez bada ere.

EHren eta Izetaren hiztegiaren arteko lotura nagusia *goi-nafarrera* soilari dago-kiona da, hamarretik lautan (*Naf.* soila duten 115etatik 67 ageri dira Izetarenean); aldiz, hirutik bat da *Iparraldearekin* bat egiten duena (328tik 222), eta beste horrenbeste *lapurtera* hutsarekin (23tik 15). Oso urria da beste euskalkiekin duen bat-etortzea.

Baztango mintzoan, aldiz, *goi-nafarrera* soilarekiko lotura erdia pasatxo da (115etik 61), bai eta *Iparraldearekiko* ere (328tik 172), baina hirutik bi pasa da *lapurtera* eta *goi-nafarrera* batzen dituen (23tik 16).

Bere hitzaldian aipatu du Paskualek: «Gure euskara ez da egun baztanera-lapurtera, baztanera-nafarrera da; gero eta *nafarragoak* gara alderdi horretatik begiratuta». Alegia, lehen lapurteratik gertuago zegoena, egun goi-nafarreratik hurbilago dago. Baztango hiztegien datuok ikusita, badirudi Salaburu eta Lakarrenak oraindik ere eusten diola lapurterarekiko gertutasun horri, betiere EHren datuekin, hau da, idatziarekin erkatuta. Izetarena, aldiz, goi-nafarrera soilera mugatzen da gehiago. Nolanahi ere, urriak dira *lapurtera* eta *goi-nafarrera* marka duten formak (23) EHn, (23) Iparralde osoarekin (328) erkatzen baditugu.

EHn *goi-nafarrera* marka soila duten adieren ia erdiak, beraz, Baztangoak dira (% 41,7 Izeta, % 53, *Baztango mintzoa*), Baztangoak behintzat bai. Bi liburuetan ageri direnak: *akitu* ('ahitu, bukatu'), *banabar* ('babarruna'), *bibiro* ('bikia'), *Emakunde* ('Nafarroako zenbait herritan ospatzen den Ostegun Gizen aurreko osteguna, emakumeek inauteetan parte hartzen dutena'), *enantz* ('trebetasuna'), *erranairu* ('esaera'), *hasmenta* ('hasiera'), *komekatu* ('Jauna hartu'), *oinaztura* ('tximista'), *ugalde* ('ibaia'), edo *zitu* (1 'fruitua, 2 'uzta'), esaterako.¹⁴

Eta Baztanen jaso ez diren beste erdiak, EHk *goi-nafarrera* markarekin jaso dituenak, alegia? Gogoratu goraxeago aipatu dugun *esporta* ('otzara, saskia'), *Nafarroan hedatua baina Baztanen erabiltzen ez dena*; edo *amiña* ('amona') eta *angabetu*

¹⁴ Aldeak ere badira: Izetak *ereizio* (erizio aldaeran, 'uzta') jaso du, adibidez, *Baztango mintzoan* ageri ez dena. Eta alderantziz, *akordu* ('konortea') ez da Izetarenean bildu. Eta aipatzekoa da, EHk jaso duen *osasuna enkomendatzekoren* lekuan, *osasuna gomendatzeko* agertzea *Baztango Mintzoan* (eta Izetak ez jasotzea). Paskual Rekalderi beti *osasuna enkomendatzeko* entzun izan diot nik.

(‘konortea galdu’) modukoak, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegian ageri direnak, edo Sakanako Hiztegi Dialektologikoan bildu den sesio* (‘liskarra’) lagunartekoa, gipuzkeratik¹⁵ gertuago dagoena.

EHn *Iparraldea* eta *goi-nafarrera* marka (*Ipar. eta Naf.*) dutenen artetik, herena (% 32,3) ageri da Izetarenean, erdia *Baztango mintzoan* (% 52,4). Bietan, *altxatu* (‘gorde, ezkutatu’ adiera), *arkel* (‘txerri emea’), *bonet* (‘txapela’), *enoatu* (‘aspertu, nardatu, unatu’), *ezongi* (‘ondoeza’), *fite* (‘berehala, laster’), *kario* (‘garesti’), *kokin* (‘barrabasa’), *manatu* (‘agindu’), *ximiko berri* (‘jantzi edo oinetako berri bat lehenengo aldiz erabiltzen duenari, zimiko bat egitearekin batera, esaten zaizkion hitzak’). Egun proposa dugu gaur azken esaera hau erabiltzeko¹⁶...

Aldiz, *arranguran egon* (‘kezkaturia egon’), *bakantza* (‘oporrak’) edo *dendari* (‘jostuna’) modukoak, *Luzaideko Euskararen Hiztegian* jaso dituzte Peio Kaminok eta Patxi Salaberriek. Eta *jo aitzina* (‘aurrera’ interjekzioa) eta *zola* (adiera guztiak) Baztan-Bidasoa ingurukoak dira (Andres Iñigo euskaltzainak jakinaraziak dira hauek, Baztan-Malerreka-Bortziriak inguruko beste hainbat eta hainbat forma bezala).

Interes berezia du *lapurtera eta goi-nafarrera* (*Lap. eta Naf.*) bikoteak Baztanen, kopurua urria bada ere; herena da Izetaren hiztegiaren kasuan, bi heren *Baztango mintzoan*.¹⁷ Kasu guztietan bat datozenak: *beratz* (‘bera, biguna’), *bertze*, *hainbertze*, *jautsi* (‘jaitsi’), *ortzegun*, *ortzirale*, *ulitxa* (‘eltxoia’). Eta *lapurtera* eta *goi-nafarrera* bai, baina Baztanen jaso ez direnak? Adibidez, *dute* (‘tea’), *lekuak hustu* (‘alde egin’) eta *pietun* (peatun aldaeran, ‘postaria’), *Luzaideko Euskararen Hiztegian* aurkitu ditugu.

Askoz ere urriagoak dira baztanerak beste euskalkiekin dituen loturak.¹⁸

Laburbilduz, beraz, hiztegi arauemailetik Baztan ingurura etorrira, euskara batuak bertako hitzak ere biltzen ditu, eta ez kopuru txikian, *Baztango mintzoak* Izetaren hiztegiak baino gehiago jaso baditu ere. Baztanerak badu bere lekutxoia EHn.

15 EH: «sesio iz. Gip. eta Naf. Lgart. Liskarra, istilua».

16 Eta *Baztango Mintzoak* jaso dituenak eta Izetak ez: *abantzu* (‘ia, kasik’), *joan* (‘eraman’ adiera). Aldiz, *herbal* eta *herbaldu* (‘elbarri, elbarritu’) batu ditu Izetak, eta *Baztango Mintzoak* EHn markarik ez duten forma estandarrik jaso ditu horien lekuan: *elbarri* eta *elbarritu*.

17 EHKo 23 kasuetatik 8 bildu ditu Izetak (% 34,8) eta 16 *Baztango Mintzoak* (% 69,5).

18 Gipuzkerarekin, esaterako, *borobil* eta *harrapazka* (arrapaxka forman, bi hiztegiek jaso dute). *Baztango Mintzoak* gehixeago jaso du (*ailegatu* ‘iritsi, heldu’, *ilbeltz* ‘urtarrilla’ edo *garagarritil* ‘ekaina’), baina testuetan bildu ditu batez ere (*artesi* ‘pitzatua, arrakala’ edo *petxu* ‘bularra, bularraldea’, esaterako). Beste eremu batzuetako formak dira lotura hori dutenak. Esaterako, *sesio* (‘istilua’) *Sakanako Hiztegi Dialektologikoan* aurki dezakegu, edo *txokon/zokon* Lizarraga Ergoieneko Euskaran.

Eta Paskualek aipatu duen baztanera nafartzen ari dela eta, zer esan dezakegu? Badirudi, oraingoz behintzat, Baztango hizkera Iparraldeko euskalkiekin, eta bereziki lapurterarekin, aski lotua dagoela, betiere idatzian oinarrituta. Ahozkoa joko bagenu, datuak aldatu egingo lirateke, eta hori sumatua du Paskualek, bere hitzaldian adierazi digun moduan. Ikusi egin behar datozen urteek zer ematen duten. Geroak erranen du.

2.3. Baztaneratik *Euskaltzaindiaren Hiztegia*

Orain arte EHtik abiatu gara bat-etortzeak bilatzeko, baina zer erakusten digu kontrako bideak? Printzipioz, EHn lekuri ez duten Baztango hitz gehientsuenak oso tokikoak izango direla pentsa dezakegu, baina horrela al da? Ea datuek zer dioten. Bi hiztegiak A eta J letrak hartu ditut lagin gisa, ausaz, 340 hitz Izetaren hiztegian, 433 *Baztango mintzoan*¹⁹, jolaserako. Eta hau jolasa besterik ez da, lagin mugatu batekin egindakoa, baina nire goiko baieztapena hankaz gora jartzeko balio dezakeena.

Bi laginetako formen hirutik bi²⁰ EHn ageri dira. Esanguratsua da datua.

Aldea erabilera-markan dago: EHk jaso dituen Izetaren lagineko formen erdia inongo euskalki-markarik gabea da, hau da, euskara batu estandartzat hartzen du Akademiak: *ahaidego* ('ahaidetasuna; ahaideen multzoa'), *aldagarri* ('aldatzeko arropa, batez ere azpiko arropa.'). *Baztango mintzoan* % 79 da inongo erabilera-markarik gabea: hamarretik zortzi.

Harrigarria da datua, hiztegi dialektologikoetan lekuan lekuko berezitasunak eta, ondorioz, "batuarekiko aldeak", nolabait esatearren, markatzea izaten baita ezaugarri nagusietako bat. Honek esan nahi du euskalkiak hedatzen ari direla eta euskara batuari kolorea ematen? Ala euskalkiak galtzen ari dira? Beharbada orain errazago ulertuko dugu hiztegi osoaren % 0,8 besterik ez izatea *goi-nafarrera* marka-

¹⁹ Izetaren hiztegian 294 hitz A letrakoak dira eta 46 J letrakoak (Y gisa ageri dira hiztegian). *Baztango mintzoan*, aldiz, A letrakoak 365 dira, eta J letrakoak, 68.

²⁰ Bat datoz, oso, biak: *Baztango hiztegian* A eta J letraketako 340 horietatik 232 (% 68,2) ageri da EHn. 126 kasutan, EHko adierak ez du inongo euskalki-markarik gainera (% 54,3). *Baztango mintzoan*, 433 formetatik 296 (% 68,3) jasoak ditu dagoeneko EHk. 137 (% 31,7), ez. Eta jasotakoan 233 (% 78,8), euskalki-markarik gabeak dira.

duna, bestea markarik gabe jaso dago eta. Paskualek aipatu berri duen «erraten ahal da Baztango euskara *nafartzen* ari dela, gero eta *batuagoa* dela» hori frogatuko luke honek? Posible da. Nolanahi ere, argi dago euskara batua aberasten eta osatzen, behintzat, ari garela.

Laginera itzulita, bada aipatu nahi dudan beste kontu bat. Baztango bi hiztegiotan ageri diren 14 forma daude EHn *Iparraldea* marka hutsa dutenak, *goi-nafarrerari* erreferentziarik egiten ez diotenak, alegia. Hauek badute interesa, beharbada *Iparraldea* markari *goi-nafarrerakoa* gehitu beharko litzaiokeelako. Adibidez: **adareta** (*arabeta* aldaera, ‘golde mota, Euskal Herrian XIX. mendearen erdialdean erabiltzen zirenen artean hoberena’), **ahalketi** (‘lotsatia), **akort** (‘ados’), **arrobatu** (‘ebatsi, lapurtu’) edo **janiza** (‘jangale bizia’ adiera).

Euskalkiek eta azpieuskalkiek, lokalismo hutsak ez direnean, ekarpen handia dute hiztegi orokor arauemaileari egiteko. Eta gaur, hemen, EHk jaso ez duen heren horri erreparatu nahi diot bereziki. Baztango bi hiztegiok bai, eta EHk jasotzen ez dituenak, A eta J letretan, 84 forma dira guztira (% 28,5). Batzuk aipatzearren: **abroka** (‘festa eta mozorkeria’), **akal** (1 ‘barnetik hutsa den gaztaina’, 2 ‘mehea, argala’), **altzai** (‘ahariak zaintzen dituenen’), **arruli** (‘arrabioa’, *salamandra*), **jainko-xakur** (*yinko-xakur* aldaeran, ‘ipurtargia’) edo **joiki** (*yoiki* aldaera, ‘bazka-mota, arbia eta lastoa nahasita ateratzen dena’).

Baina benetan aipatzekoak dira hiztegian forma ageri bai, eta Baztango adiera jaso ez dutenak. 14²¹ kasu daude hautatu dugun laginean, baina horietako hirutan geratu nahiko nuke:

- a) **aiuta** *Iparraldea* markarekin ageri da EHn, bi adieratan; 1. ‘laguntza’, 2. ‘enema, hesteak libratzeko uzkitik sartzen den isurkaria’. Baina Baztanen hiru adiera omen ditu: 1. ‘presaka ibiltzearen ekintza’ (*zer aiute daman gizon horrek!*), 2. ‘joaldia’ (*ze aiute man dion!*), eta 3. hitz peioratibo gisa (*urde aiute!*). Azken adiera hau ez zuen Mariano Izetak bildu *Baztango Hiztegian*. Bestalde, ‘kolpea, eraso’ adieran Luzaideko hiztegiak ere jaso du. Heda-

21 14 kasu daude hautatu dugun laginean: **aiuta**, **aixkol**, **altxatu** (‘erreserba egin’ adieran), **amaraun** (‘animalia artropodoa, intsektuak harrapatzeko sare bat egiten duena’; armiarma eta amarauna bereizi egiten dira: armiarma amaraun mota bat da hemen), **ante** (1 ‘itxura, tankera’, 2 ‘trebetasuna, abilezia’), **arba** (2. adieran: ‘ongarria landetan xehatu eta partitzeko egiten zen tresna’), **ardangela** (‘ardoa eskailerapean altxatzeko ibiltzen den tokia’; EHn *ardandegia*), **arrain** (‘amurraina’), **asanblea** (adjektiboa, ‘harroputza’), **azkar** (‘anitz’ adieran), **jendaki** (‘arrazta’), **joale** (‘eramale’), **jokatu** (3. adiera, ‘zerbait bere errotik mugitu’) eta **jori** (‘iraunkorra, gogorra, erraza’).

tua da adiera hori? Orotariko Euskal Hiztegiak eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasak ez dute jaso.

- b) **aixkol** ‘belar-landare lekaduna’ da EHn²², baina badu bigarren adiera bat Baztanen: ‘ziri’ (‘ziria sartu’ adierakoa). Sakanako hiztegian ‘gezurra’ adiera du, bai eta *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegi*an ere: «gezurra edo ziria sartu dela adierazteko erabiltzen da (‘mentira, trola, fantasmada’): *Ze axkola bota duen orrek!*». Orotariko Euskal Hiztegiak ere jaso du **aizkol** sarreran²³, baina Izetarengandik hartua, ‘mentira, trola’ adieran eta testuetan dokumentatu gabea. Atlasak ez du jaso. Baina Baztanen baino hedadura zabalagoa du adiera honek, bistan denez.
- c) **asamblea** ‘biltzar legegilea’ da EHn²⁴, baina Baztanen beste zerbait ere ba omen da: ‘harroputza’ (*hau duk gizon asanblia*). Izetak ere halaxe jaso du bere hiztegian. Ez dugu beste inon aurkitu.

Argi dago ezin garela forman geratu, adierek aberasten dute dagoeneko heldu samar dugun hiztegia, eta horiek lantzea izango da aurrera begira zaindu beharreko egitekoetako bat.

Dena den, EHk ez du dialektologia-lanik egiten, *euskalkietan dabilena* jaso bai, baina ez da bere helburu lehena, euskararen estandarizazioa baizik. Eta, hala ere, tarteka forma markadun horiek findu behar izaten ditugu, leku batean bai baina bestean ez esaten digutenean, idatzian agertzeak eguneroko erabilera ez baitu ziurtatzen, ez eta alderantziz ere.

Baina ez dagokigu hiztegikooi horretan jardutea, ni gaur ausardia handiarekin eta lotsa gutxiarekin harea mugikorretan sartu banaiz ere. Egiteko horietarako, Euskararen Herri Hizkeren Atlas a lantaldea eta Euskalkien lantaldea ditugu. Eta azken horretan zein izango koordinatzaile, eta amaiurtarra!

22 iz. EHn: «**aixkol** iz. Belar landare lekaduna, gezi itxurako hostoak, lore zuri edo ubelak eta zurtoin adarkatua dituen eta bazka gisa erabiltzeko edo aleagatik ereiten dena (*Lathyrus sativus*)».

23 OEHn: «**aizkol** 3. «Axkol, askol. Se emplea para decir que algo es mentira o trola. *Zer axkola bota dakun*» Izeta BHizt2. Cf. VocNav s. v. *aicol*».

24 EHn: «**asamblea** iz. iz. Zenbait herrialdetan, herriak hautatutako ordezkariak osaturiko biltzar legegilea; biltzar hori elkartzen den tokia».

3. Bukatzeko

Has nadin bukatzen, dagoeneko aspertuxe izango zarete eta.

Hiztegiaren inguruan aritu naiz, batuarekin eta euskalkiekin jolasean, baina Euskaltzaindiaren egitekoen ertz bat besterik ez da hau, beste guztiakin lotua dagoena. Datuak eta erabilera, Iker eta Jagon, betiere normalizazioaren hari finez josiak, azken batean euskara bere osotasunean baita gure helburua. XXI. mendean gaude, aspaldi ditugu adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiak ate-joka, guztia saretu eta ehundu behar dugu, eta horretan ere hasiak gara, baina, lanok bideratzen ditugun bitartean, Paskualen giza adimena baliatu beharko dugu, buruz sare ditzan Akademiako gure itsasargiak.

Herriko armarrian *Amaiur zintzo eta leiala* ageri da. Gure artean dugun euskaltzain berri amaiurtarra ere halakoxea da Akademiaren zereginetan. Hortaz, bada, amaiurtar zintzo eta leial hau bere baitan hartzen du Euskaltzaindiak, hemen, sorterrian.

Eskerrik asko.

Bibliografia

EUSKALTZAINDIA. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabildatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu

—. *Orotariko Euskal Hiztegia*: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=e

—. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage

—. *Lexikoaren Behatokia* corpusa: <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/>

EUSKARABIDEA – NAFARROAKO GOBERNUA. *Nafarroako euskalkien hiztegien bilatzaile lexikoa (NafarHitz)*: <https://www.euskarabidea.es/euskara/nafar-hitz>

IZETA, M. (1997). *Baztango Hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

SALABURU, P. eta LAKAR, M. (lag.) (2005). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia – Nafarroako Gobernu. (Mendaur bilduma, 2).

Alfontso Mujika

Euskaltzaindian sartzea

Donostiako udaletxean, 2022-XI-26an

MUJIKA, Alfontso
Euskaltzain osoa

Eta Euskaltzaindia kanpora begira ere jarri zen

Atarikoa

Alkateordea, euskaltzainburua, agintariak, euskaltzainak, senideak, lankide eta lagunak, herritarrak, egun on guztioi eta mila esker.

Trantzea, hala definituko nuke nire egoera orain, zuen aurrean nagoela. Trantzea da niretzat, bi arrazoigatik.

Lehenik, ekitaldi hau, euskaltzain baten sarrera-hitzaldia, pertsona baten inguruan ardaztutako ekitaldi bat delako eta ni naizelako pertsona hori. Eta horrek pixka bat deseroso jartzen nau, nire lan-ibilbide osoan beti taldekide gisa aritu naizelako, beti komunitate bateko partaide gisa, beti “gu” eta ez “ni”. Hala, AEKn hasi nuen ibilbide profesionala, lehenago AEKn bertan ikasle izan ondoren. Euskal Herria euskalduntzeko proiektu behar-beharrezko baten partaide izan nintzen, eta euskarari buruz euskaraz gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko gune bat eman zidan AEKk. Gero, UEUk, Udako Euskal Unibertsitateak, euskara unibertsitateko hizkuntza izan zitekeela ez baizik eta bazela, egiten ari ginela, erakutsi zidan, eta proiektu ezinago interesgarri horretan murgiltzeko eta arlo askotako jende prestu eta fina ezagutzeko parada eman.

Eta, azkenik, Elhuyar. Era askotako proiektu kolektibo liluragarrietan parte hartzeko aukera eman dit Elhuyarrek, eta lankide fin, zorrotz eta lagunkoiz inguratuta egonda, haiengandik eta haiekin etengabe ikasiz aritzeko zortea izan dut. Horretaz gainera, Elhuyarrek bidea zabaldu dit eta etengabe akuilatu nau ideiak plazaratzeko, egitasmoak prestatzeko eta beste toki batzuetara ere iristeko eta haietan eragiteko: itzulpengintzaren mundura zabaltzeko, hezkuntzaren mundura eta, jakina, Euskaltzaindira ere bai. Ez modu indibidualean, baizik eta kide gisa beti, Elhuyar proiektuaren itzal eta babesarekin.

AEKren, UEUren eta Elhuyarren zordun naiz, beraz. Haien bidez eta haiei esker nago ni hemen gaur zuen aurrean. Haiei esker, eta, esan dezadan egia, Jaione Aldaz nire emazteari esker. Izan ere, duela 35 urte baino gehiago, AEKn ia 5 urte eman ondoren AEKtik irtetea erabaki eta, irten eta berehala, lanik ez nuela, ustekabean enpresa batek ingeniari-lanpostu tentagarri bat eskaini zidan, eta, onartzekotan nengoela, ezetz esan zidan Jaionek, ez hartzeko ingeniari-lana, bai ala bai euskalgintzan jarraitzeko, industrian bazirela ingeniari asko lehendik ere baina euskalgintzan gutxi. Irmoki saiatu zen nire iritzia aldatzen, tinko, konbentzitu ninduen arte.

Eta trantzea da niretzat une hau beste arrazoi batengatik ere. Zoriak edo patuak ekarri du gaurtik aurrera egokituko zaidan Euskaltzaindikoa aulkia lehenengoa izatea. Bai, 30 aulki ditu Euskaltzaindiak, eta zenbakituta daude, hurrenkera bati jarraitzen diote. Orduan, nahiago nukeen beste aulki diskretuago bat, hainbeste nabarmentzen ez den beste zenbakiren bat duena, egokitu balitzait, zeren eta aulkiek historia baitute eta gaurgero nirea izango den aulki horren pisua izugarria baita. Berehala ulertuko duzue zergatik. Hiru jabe handi, oso handi, izan ditu aulki horrek orain arte:

- Lehenik, 1918an, Resurreccion Maria Azkue, hau da, Euskaltzaindiaren sortzaile nagusietakoa eta lehen euskaltzainburua.
- Bigarrenik, 1953tik aurrera, Koldo Mitxelena, euskalari gorena eta euskara batuaren sortzaile nagusietakoa.
- Eta hirugarrenik, 1988tik, azken 34 urteetan, Ibon Sarasola, euskal lexikografiaren erraldoia.

Horregatik, lotsagorritu egiten naiz aulki horri erreparatzen diodan bakoitzean. Ibon Sarasola emeritu bilakatu denean hautatu naute ni euskaltzain oso, baina ez naiz ni Ibon Sarasola polifazetikoaren “ordezkoa”, ezin izan, haren aulkia egokitu bazait ere; ondorengoa naiz, baina ez ordezko.

Oso ondo gogoratzen naiz, ia 34 urte igaro badira ere, noiz entzun nuen lehen aldiz euskaltzain baten sarrera-hitzaldi bat. Hogeita bederatzita urteko gazte bat nintzen orduan, 1989ko urtarrilaren 27an, eta batzar-areto honetan bertan nintzen, entzuleen artean, Ibon Sarasolaren “Euskal hitzez” izeneko hitzaldia entzuten. Bi urte geroago, Ibon ezagutzeko aukera izan nuen, ni jada Elhuyarren nengoela, lantzen ari ginen *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa* obraren aholku-taldeko kide izan baikenuen bera. Hilean behin bilera luzetxoak egiten genituen erredaktoreok eta aholkulariek. Harrezkero, gutxitan elkartu gaitu lanak berriro Euskaltzainditik kanpo; azkena, 2007an, nik EHUrako itzulitako liburu baten hizkuntza-begiralea izan bainuen Ibon. Baina Kontxako pasealekuan tarteka-tarteka gurutzatu gara, igande edo larunbatetan, goizeko zortziak aldera, ni korrika-saioa egiten, Antigua auzotik Paseo Berrirantz eta bera, berriz, Antigua alderantz, pasieran... edo —susmoa daukat, inoiz galdetu ez badiot ere— bulegora bidean aste-bukaera izan arren.

Ez naiz luzatuko Ibon Sarasolaren ekarrien aipamen luzetan, ez nuke-eta ezer esango lehendik ezaguna ez denik, eta, gainera, labur geldituko nintzateke beti.

Horrenbestez, hitzaldiaren mamiari helduko diot.

* * *

Leioako Biltzarraren garrantzia

Euskaltzaindiak 50 urte bete zituenean, 1968an, Arantzazuko Biltzarra egin zuen. Biltzar ospetsu eta ia mitikoa, euskara batuaren sorreraren data ofizialtzat hartzen baita, han finkatu baitzuen Euskaltzaindiak euskara estandarizatzeko lehen arau-multzoa, lehen oinarriak.

Badu euskara batuak beste mugarri garrantzitsu bat, beste biltzar garrantzitsu bat, Arantzazukoa bezain ospetsua ez bada ere: Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra, Leioako Biltzarra deitua, 1994ko urriaren 3tik 7ra Leioan egina, 350 pertsonatik gora elkartuta, Arantzazuko Biltzarraren 25. urteurrenaren eta Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren kariatz egina. Biltzar horrek biziberritze bat ekarri zuen euskara batuaren garapenean, suspertze bat, hasierako urrats azkar baina txikien ondoren (*Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, 1975; *Matematika hiztegia*, 1978; *Euskal Herriko udalen izendegia*, 1979; *Merkatalgo izendegia*, 1984; *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, 1986) normatibizazioa motelaldira batean sartua baitzen 1980ko hamarkadaren bigarren erdian.

Honela dio Euskaltzaindiaren Leioako Biltzarraren amaierako adierazpenak:

(...) Euskaltzaindiak erabakiak hartuko ditu hurrengo hilabeteetan hemen eztabaidatu diren gaiet buruz, bereziki **gramatikari** eta **exonomastikari** dagozkienet buruz. Bestalde, ahaleginak egingo ditu **hiztegi batuari eta ahoskerari** dagozkienak ere, egin arau, ahalik eta lasterren argitaratzeko.

(...) Euskaltzaindiak argi utzi nahi du euskal **gizarteak eskatzen dionari erantzungo** diola, beti ere hartarako behar diren **baliabideak** eskuratuko dituen neurrian.

Normatibizazioan oinarri sendoak jartzeko lan batzuk abiatuak zituen ordurako, dena dela, Euskaltzaindiak, hala gramatikan nola hiztegegintzan. Gramatikan, *Euskal gramatika. Lehen urratsak* (EGLU) egitasmoak (euskararen gramatika deskribatzailea) 1985ean kaleratu zuen lehen emaitza, eta 1994an bide erdian zegoen, lehen lau liburukiak argitaratuta (EGLU I 1985ean, EGLU II 1987an, EGLU III 1990ean eta EGLU IV 1994an). Hogeita sei urte behar izan ziren

guztira egitasmoa burutzeko. Hiztegitintzan, *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) obra erraldoia 1987an hasia zen argitaratzen, eta 1994an *F* letran zegoen, VII. liburukian (guztira, 16 liburuki izan ziren, eta azken liburukia 2005ean argitaratu zen. Hemezortzi urte behar izan ziren egitasmoa burutzeko). Eta 1991n hasi zen mamitzen *Hiztegi Batua* egitasmoa, hitzen ortografiaren hiztegi arauemailea eta gaur egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* aurrekaria, artean ezer kaleratzeko moduan ez bazegoen ere. 2015ean burutu zen egitasmoa, hogeita lau urteren ondoren.

Munduko leku eta pertsonen izenen arloan, ordea, ez zuen ia ezer egina Euskaltzaindiak, 1975ean Xabier Mendigurenek *Eusker*a aldizkarian argitaratutako “Estatu Izenak” lan gogoangarria kenduta. Eta 1980ko hamarkadan ere ez zuen exonomastikako lanik egin. Gramatikan eta hiztegitintzan jarriak zituen lehentasunak. Ez da harritzekoa, nolahi ere, premiak askotarikoak direnean lehentasunak ezarri behar baitira, eta hizkuntzaren gune-gunekoak baitira gramatika eta hiztegia; exonomastika, berriz, hizkuntzaren periferian dago, ez da hizkuntzaren ardatza.

Euskalgintzaren egoera 1990eko hamarkadaren hasieran

Gogora ekarri behar dugu nola zegoen euskalgintza, hizkuntza idatziari dagokionez, 1990eko hamarkadaren hasieran:

- Idatzizko hedabideetan, informazio orokorreko *Argia* astekaria genuen aspalditik (*Anaitasuna* 1982an desagertu zen, eta bizi laburreko *Hemen* eta *Eguna* astekariak ere bai, 1990ean. Baziren, beste maila batean, *Jakin*, *Egan* eta *Karmel* aldizkariak ere). Larri ibili zen *Argia* 1980ko hamarkadaren hasieran, baina bizirik jarraitzea lortu zuen. Eta 1990eko hamarkadaren hasieran (1990eko abenduaren 6an, zehazki), *Euskaldunon Egunkaria* jaio zen. Ez dago azaldu beharrik zer toki garrantzitsua duen exonomastikak egunkarietan.
- Beste alde batetik, euskarazko entziklopediagintza plazaratu zen: 1990eko hamarkadaren hasieran *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* argitaratu ziren, eta *Harluxet Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* hamarkadaren erdialdean. Eta, jakina, exonomastika da entziklopedia orokorren atal nagusietako bat.
- 1990ean bertan, bestalde, Pentsamenduaren klasikoak proiektua abiatu zen. Eta hamarkada horretan, hezkuntzan, unibertsitate azpiko irakasmailetan irakasgai guztietara iritsi zen euskara, eta unibertsitateetan, batez ere EHU, eta

euskarazko ikasketak ugarituz zihoazen eta, haiekin, baita euskarazko eskolatzen-liburuak ere. Biblia ere aipatu behar da, euskara batuan argitaratu baizen 1994an (Elizen Arteko Biblia elkartearen ekimenez). Nabarmena da lan horietan guztietan toki garrantzitsua dutela kanpoko lekuen eta pertsonen izenek.

- Ezin nabarmenago ageri zen exonomastika landu beharra, eta lehen lanak 1991-1992etan agertu ziren:
- Elhuyarrek, bere entziklopedian erabiliko zituen irizpideak ezartzeko aurrean gisa, *Munduko leku-izenak* (1991) eta *Munduko pertsona-izenak* (1992) liburukoteak argitaratu zituen.
- Ibon Sarasolak “Exotoponimoen euskal formaz” artikulua idatzi zuen (*Euskera XXXVI*, 1991).
- Andolin Eguzkitzak eta Gorka Palaziok *Geografidatutegia* liburua argitaratu zuten (1991).
- Alfonso Irigoienek *Pertsona-izenak euskaraz nola eman* liburua argitaratu zuen (1994).

Euskaltzaindia ezin zen begira gelditu borborka ari zen errealitatearen aurrean

Euskaltzaindiak bere buruari ezarritako eginkizuna da “hizkuntzaren normalizazioaren garapena eta zabalkundea”, eta, horretarako, arauak behar dira. Honela definitzen du *normatibizazio* hitza *Euskaltermek*:

normatibizazio

Hizkuntza komunikazio-tresna egokia izan dadin, hizkuntza-arau batzuk ezartzen dituen prozesua. Ortografiak, gramatika arauemaileak eta hiztegi arauemaileak osatuko lukete arau-multzo hori.

Definizio horrek ortografia, gramatika eta hiztegia aipatzen ditu. Ez du aipatzen, ordea, beste arlo bat, onomastika aplikatua, hau da, izen berezien arloa (leku-izenak eta pertsona-izenak, batez ere, baina ez haiek bakarrik). Hizkuntza normalizatzeko, jakin behar dugu nola idatzi behar diren gure herriak, mendiak, ibaiak, probintziak, nola idatzi gure abizenak, gure ponte-izenak. Ez da hor agortzen gaia, ordea: gure leku eta pertsonen izenak nola idatzi jakiteaz gainera, gureak ez direnak ere nola

idatzi jakin behar dugu. Kanpoko onomastika ere hartu behar dugu kontuan euskara komunikazio-tresna egokia izango bada. Eta arlo hori ere langai izan zen Leioako Biltzarrean.

Biltzar horretatik abiatu zuen Euskaltzaindiak exonomastikaren langintza modu sistematikoan. Lan-arlo horrek ez du prentsan lerrobururik ematen, ez du hizkuntzaren bizian zentralitaterik, gramatikak eta hiztegiak duten bezala, eta ez du pizten hedabideen arreta Euskal Herriko onomastikako gai batzuek tarteka pizten duten bezala (adibidez, pertsona-izen epizenoen gaiak, pertsona-izen batzuen gaiak —*Hazia* pertsona-izenaren auzia piztu da hil honetan bertan— edo leku-izen batzuen ingurukoak, *Iruñea*, *Etzegarate* edo *Toloño*, kasurako), baina beharrezkoa da, ezinbestekoa, inguratzen gaituen Euskal Herriaz kanpoko mundua aipagai dugun bakoitzean. Arlo horretan Akademiak zer egin duen erakustea da hitzaldi honen helburua. Erakustea, alegia, arlo aski ezezagun horretan ere jardun duela, eta badiharduela; hau da, **Euskaltzaindia kanpora begira ere jarria dagoela** 1994az geroztik.

Aitzindari bat

Bada aurrekari garrantzitsu bat: 1974an —gogoan izan artean Franco bizirik zegoela—, Xabier Mendiguren Bereziartuk estatu-izenen zerrenda bat aurkeztu zuen Euskaltzaindian, eta, euskaltzainen zenbait ohar jaso ondoren, Akademiaren *Euskera* aldizkarian argitaratu zen. Honela zioen orduan Xabier Mendigurenek:

(...) Neronek proposaturiko Estatu izenen zerrenda Euskal Akademian aurkeztu ondoren, Oregi, Lizundia eta Zatarain jaunek zenbait ohar eta proposamen egin zuten zerrenda hau hobetu eta osatu nahiz, eta azkenik, Imanol Berriatuak oso laguntza garrantzitsua eskaini dit Estatu izenei buruzko ohar eta argitasun ugari iradokiz eta emanez. Ikastolak, kazetaritzak eta euskal kulturgintzak abegi ona egingo diola uste dut Estatu izenen zerrenda honi, komunikabideen aurrerakuntza egunean egunean bizkorragotzen ari den mende honetan.

Aurrerapauso txikia baina garrantzitsua izan zen. Ez zen Euskaltzaindiaren araua, baina, besterik ezean, hura hartu zuten oinarritzat erabiltzaile askok hurrengo urteetan. Eta lan horretan adierazitako irizpideetako asko halaxe finkatu dira gerora. Adibidez, uve letrari eustea, nahiz eta beste aldaketa grafiko batzuk egin. Honela adierazi zuen Xabier Mendigurenek:

(...) Zehatzagora joaz, ortografiari dagokionean, “V” eta “K” letrak erabili behar eta alemaniarren erizpideari jarraiki natzaio gehienbat. Ene ustez, “V”-ren ordez “B” erabiltzeak gehiegi aldatuko luke hitzen irudia eta Estatu izenen kontu honetan erabilkera edo usadio zabalduenari errespetoa zor diogulakoan nago. “C”-ren ordez “K” erabiltzeak alemanieraz aurreko bat baduenez gero, hitzen irudia hainbeste alda dezakeenik ez dut uste.

Zerrenda horretan ageri diren *Txekoslovakia*, *Vatikanoa* edo *Jugoslavia* izenak, adibidez, hala erabili ziren gero *Euskaldunon Egunkarian* eta entziklopedietan, eta hala arautu ditu gerora Euskaltzaindiak berak.

Exonomastika azpibatzerdearen sorrera

Euskaltzaindiak exonomastikari heltzea erabaki zuen 1991n. Onomastika batzordeak, Henrike Knörr buru zuela, bi azpibatzerde edo lantalde eratu zituen: Munduko Leku-izenen azpibatzerdea (Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Xabier Mendiguren, Beñat Oihartzabal), Euskal Herritik kanpoko toponimiaz arduratzeko, eta Ponte-izenen azpibatzerdea (Dionisio Amundarain, Martxel Etxehandi, Anton Gurrutxaga, Xabier Mendiguren, Jose Maria Satrustegi), kristau-antropónimo, izen historiko, mitologiko eta abar finkatzeko. Handik gutxira, bi azpibatzerdeok bateratuta, Exonomastika azpibatzerdea sortu zen, 1992an.

Exonomastikako lantaldeak 1992ko urriaren 23an egin zuen lehen jardunaldia Bilbon. Onomastika batzordekideekin batera, erakunde eta sektore hauen ordezkariak ere izan ziren:

- Bibliaren itzultzaileak
- Bikoiztaileak
- EAEE/IVAP
- EITB
- Elhuyar
- *Euskaldunon Egunkaria*
- Itzultzaileen Elkarteak
- Klasikoak SA
- Liturgia batzordea
- Lur eta Eusenor entziklopediak

- UZEI

Durangon izan zen bigarren bilera, abenduan. Lantaldea finkatu eta eginkizunak markaturik gelditu ziren. Akademiaren 1993ko batzorde-organigraman ageri da lehen aldiz Exonomastika lantaldea Onomastika batzordearen barnean. Hauek ziren batzordekideak:

Jose Maria Satrustegi, Beñat Oihartzabal, Dionisio Amundarain (Elizen Arteko Biblia), Martxel Etxehandi, Antton Gurrutxaga (Elhuyar), Inaki Irazabalbeitia (Elhuyar), Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Xabier Mendiguren.

1992ko urriaren 23an abiatu zen lantalde hura, Elhuyarren *Munduko leku-izenak* eta *Munduko pertsona-izenak* lanak abiapuntutzat harturik eztabaida eta ikerketarako. 1994ko uztailera bitartean, 16 bilera egin zituen, Bilbon, Donostian eta Durangon. 1994ko uztailaren 1ean eta 2an, Exonomastika Jardunaldiak egin zituen Euskaltzaindiak Miarritzen. Han aurkeztutako txostenek osatu zuten Leioako Biltzarraren Exonomastika atala, eta han ezarri ziren oinarriak Leioako Biltzarraren ondorengo araugintza exonomastikoaren lehen faserako.

Honela dio Miarritzeko Exonomastika Jardunaldien adierazpenaren azken paragrafoak:

Exonomastika azpibatzailearen lan guztietan, eta bereziki jardunaldi hauetan gailendu diren **iritzi-adostasuna eta hurbiltze-giroa** ikusirik, etorkizunean ere lankidetzaren modu berean urrats handiak egingo diren itxaropen osoa dugu komunikabide, lexikografi talde, ikasliburugintza enpresa, erlijio-talde desberdinen, argitaletxe, idazleitzultzaileen elkarte eta Administrazioen esku hartze eraginkorrekina.


Miarritzen, 1994ko uztailaren 2an

1994tik aurrera, araugintza

Leioako Biltzarraren ondoren hasi zen Euskaltzaindia arauak ematen. 1994tik gaur arte, 194 arau eman ditu, eta haietako asko exonomastikaren arlokoak dira.

Bi fase bereizten dira exonomastikaren araugintzan.

Exonomastikako araugintzaren lehen fasea (1995-1998)



1995ean, exonomastikako 6 arau eman zituen Euskaltzaindiak:

- (32. araua) *Espainiako erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak*
- (36. araua) *Frantziako errepublikako eskualde, departamendu- eta hiriburu-izenak*
- (38. araua) *Munduko estatuen izenak, herritarren izenak eta hiriburuak*
- (47. araua) *Hizkuntza hilak eta klasikoak*
- (51. araua) *Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak*
- (52. araua) *Munduko geografiko zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)*

Eta beste 7 arau eman zituen 1996tik 1998ra bitartean:

- (53. araua) *Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak*
- (59. araua) *Ibaiak*
- (60. araua) *Aintzirak*
- (66. araua) *Santutegiko izen ohikoenak*
- (70. araua) *Mundu zabaleko uharte nagusiak*
- (76. araua) *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*
- (82. araua) *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*

Ez dira denak maila eta garrantzi berekoak. Leku-izenei dagokienez, lehenengo hirurak dira garrantzitsuenak (32., 36. eta 38.ak), erabilera-maiztasun handiko leku-izenei baitagozkie: Espainiako eta Frantziako probintzia, autonomia-erkidego, departamendu eta eskualdeak eta haietako hiriburuak, eta munduko estatuak eta hiriburuak. Leku-izen horiek noiznahi agertzen dira komunikabideetan eta eskola-liburuetan, eta guztiz premiazkoa zen izen horien grafia finkatzea. Pertsona-izenei dagokienez, lehenengo biak dira garrantzitsuenak (66. eta 76. arauak), haietan xeheki zehazten baitira pertsona-izenen grafia eta, oro har, latinetik iritsitako izenen (pertsonek eta lekuen) grafia egokitzeko irizpideak. Haien ondoren etorritako arauetan ere aplikatu dira irizpide horiek.

Bi oinarri: tradizioa eta egungo erabilera

Arauak prestatzeko, kanpoko leku-izen horiek euskaraz nola erabili diren aztertzea da lehen urratsa. Azterketa horrek bi ondorio garbi erakusten ditu. Batetik, kanpoko leku- eta pertsona-izenetan euskararen tradizioa, oro har, eskasa dela. Bestetik, tradizioa dagoenean ez dagoela batasunik oinarritzko izenak idazteko orduan.

Eta bi ondorio horiek ez dira harritzekoak. Gure literatura historikoa aski mugatua da, eta gehienbat erlijio-gaiei edo hemengo gaiei lotua dago; horregatik, kanpoko lekuen eta historiako pertsonen izenak ez dira oso ugariak, erlijio-kontakizunetan agertu ohi direnez landa. Eta, bestalde, kontuan izanik euskarak duela gutxi arte ez duela ortografia baturik izan, ez da harritzekoa izen horiek tradizioan agertzen direnean grafia-batasunik ez izatea, hau da, bi aldaera grafiko edo gehiago izatea (askotan, Hegoaldeko idazleek gaztelaniaren grafia, edo haren antzekoa, erabiltzen dute, eta Iparraldekoek, berriz, frantsesaren grafia, edo haren antzekoa).

Horren azterketa xehea egin zuen Gidor Bilbaok, eta adibide ugari erakutsi zituen Leioako Biltzarrean.¹ Hona hemen bi adibide adierazgarri, leku-izen eta pertsona-izen ezagun bana hartuta:

¹ Gidor Bilbao Telletxea, 1994, "Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan", Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra.

| <i>Egipto</i> leku-izenaren grafia tradizioan | |
|--|---|
| latina: <i>Aegyptus</i> / grekoa: <i>Αἴγυπτος</i> | |
| Idazkera | °Nork erabilia |
| Egyptu | Etxeberri Ziburukoa |
| Ejypte | Leizarraga |
| Egypte | Leizarraga, Pouvreau |
| Egyptoa | Hiribarren, Zerbitzari, Barbier |
| Ejypto | Mihura, Hiribarren |
| Egypto | Materre, Mendiburu, Larregi, Zaldubi |
| Aigito | Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia |
| Ijitu | Mogel |
| Ijito | Ubillos |
| Igito | Orixe, Ubillos |
| Egipta | Belapeire, Egiategi, Intxauspe |
| Ejipta | Belapeire, Intxauspe |
| Egipte | Materre, Pouvreau |
| Ejipte | Leizarraga, Pouvreau, Etxeberri Ziburukoa |
| Egiptu | Gasteluzar |
| Ejiptu | Etxeberri Ziburukoa, Gasteluzar, Laneufville Katixima, J. J. Mogel |
| Ejiptoa | Mihura, Zerbitzari, Jauffret Katixima |
| Ejito | Añibarro, Frai Bartolome, Xenpelar, Beobide, Urruzuno, B. Enbeita, Anabitarte |
| Ejipto | Axular, Baratzart, Mihura, Agirre Asteasukoa, Etxagarai, Gerriko, Duhalde, Iztueta, Arrese Beitia, Lardizabal, Iraizoz, Inza, Argi Done Laburra, J. M. Barandiaran, Jauffret Katixima |
| Egipto | Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Mendiburu, Larregi, Laneufville Katixima, Jes. Bih., Uriarte, Lardizabal, Altuna, Inza, Zerbitzari, Ibiñagabeitia, Mirande, Aresti |

| Virgilio pertsona-izenaren grafia tradizioan | |
|---|--|
| latina: <i>Vergilius/Virgilius</i> | |
| Idazkera | Nork erabilia |
| Vergili | Orixe |
| Bergili | Ibiñagabeitia, Onaindia |
| Bergilio | Ibiñagabeitia (behin) |
| Virgile | Zerbitzari |
| Virgili | Lizardi |
| Virjilio | Azkue |
| Birgili | Orixe, Gaztelu, Ibiñagabeitia (behin) |
| Birjilio | Iztueta, Jon Eguzkitza, Berrondo |
| Virgilio | Ettxeberri Sarakoa, V. Mogel, Hiribarren, Lizardi, Irazusta, Ibiñagabeitia |

Horregatik, tradizioaz gainera, gaur egungo erabilera ere aztertu behar da. Egun, euskarazko corpus ugari ditugu, zorionez, erabilera errearen berri jakiteko; 1990eko hamarkadan, baina, datuak ez zeuden hain eskura. Baziren iturriak, dena dela: entziklopediak (Elhuyar, Lur), *Euskaldunon Egunkaria* (besteak beste) eta Euskaltzaindiaren *Eguno Euskararen Bilketa Sistematikoa* (EEBS) corpora:

EEBS: Egipto (119), Egypto (53), Ejipto (28), Egiptu, Ejiptu, Egypte, Ejipte, Ejipto (0). Entziklopediak eta Euskaldunon Egunkaria: **Egipto**

EEBS: Virgilio (18), Virgili (2), Birgili (2), Virjili, Virjilio, Birjili, Birjilio (0). Entziklopediak eta Euskaldunon Egunkaria: **VirgilioE**

Bi oinarri horien gainean eraiki ziren arauak: tradizioa eta azken urteetako erabilera aztertuta. Hala taxutu ziren irizpide nagusiak, eta irizpide horiek aplikatuz, analogiaz, hobetsi ziren grafiak tradizioak eta azken urteetako erabilerak argi handirik egiten ez zuten kasuetan, kontuan harturik, halaber, nola jokatzeko duten halakoetan gure inguruko hizkuntzek; alegia, kontuan harturik inguruko hizkuntzek leku edo pertsona baten izenaren grafia etxekotzen duten edo jatorrizkoa bere horretan hartzen duten.

Arauk eguneratzea eta emendatzea

- 1995-1998 bitarteko arau nagusi haiek eguneratu eta osatu egin ziren gerora:
- 1995eko *Espainiako erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak* araua (32. araua) 2006an eguneratu eta berrantolatu zen. Jatorrizko arauak 3 orrialde zituen, eta azken bertsioak 16 orrialde ditu.
- 1995eko *Frantziako errepublikako eskualde, departamendu- eta hiriburu-izenak* araua ere (36. araua) 2006an eguneratu eta berrantolatu zen, eta berriro ere eguneratu zen 2020an, Frantziako Errepublikako banaketa administratiboa aldatu zenean. Jatorrizko arauak 16 orrialde zituen, eta azken bertsioak 31 orrialde ditu.
- 1995eko *Munduko estatuen izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak* araua (38. araua) zenbait aldiz eguneratu da, munduan gertatu diren aldaketak jasotzeko, zuzenketa puntual batzuk egiteko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko ordainak eransteko, informazio berria sartzeko eta zerrenda erabilgarriagoak eskaintzeko. Azken eguneratzea 2019an egin zen. Jatorrizko arauak 16 orrialde zituen, baina azken bertsioak 61 orrialde ditu.
- 1997ko *Santutegiko izen ohikoenak* araua (66. araua) 2019an eguneratu eta emendatu zen. Ingelesezko ordainak erantsi ziren azken bertsioan, eta 118 izen berri gehitu. Hala, 424 izen biltzen ditu arauak orain.
- 1997ko *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia* izeneko araua (76. araua) 2014an eguneratu eta osatu zen. Ingelesezko ordainak erantsi ziren, eta 208 pertsona-izen berri gehitu. Hala, 569 pertsona-izen biltzen ditu arauak orain.

Exonomastikako araugintzaren etena (1999-2003)

Hasierako urte suhar haien ondoren (12 arau 3 urtean), motelaldi bat izan zen. Exonomastika azpibatzordeak bilera batzuk egin zituen 1999an, baina ez zuen emaitzarik kaleratu. 2000., 2001. eta 2002. urteetan lana etenda egon zen. 2003an berrekin zion lanari. Lau urteko tarte horretan, Euskaltzaindiak, bitartean, 29 arau eman zituen, beste arlo batzuetakoak:

38

MUNDUKO ESTATU IZENAK, HIRIBURUAK ETA HERRITARREN IZENAK

| | |
|--|--|
| Afganistango Errepublika afganistandar, afganiar Kabul kabuldar | Alemaniar Errepublika Federala alemaniar/aleman Berlin berlindar |
| Afrika Erdiko Errepublika afrikaerditar Bangi angiar | Aljeriako Herri-Erepublika Demokratikoa aljeriar Aljer aljertar |
| Albaniako Herri-Erepublika Sozialista albaniar Tirana tiranar | Ameriketako Estatu Batuak / AEB estatubatuar Washington washingtondar |

38. araua. *Munduko estatuen izenak, hiriburuak eta herritarren izenak araua* (1995eko bertsioa)

I. Munduko estatuen, hiriburuen, herritarren eta hizkuntza ofizialen izenak euskaraz


| Estatuaren izena | Estatuaren izen ofiziala | Herritarren jende-izena | Hizkuntza ofiziala(k) [mugagabea] | Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena |
|----------------------------------|--|---------------------------------|--|--|
| Afganistan | Afganistango Islamiar Errepublika | afganistandar/afganiar | paxtunera, dari | Kabul; kabuldar |
| Afrika Erdiko Errepublika | Afrika Erdiko Errepublika | afrikaerditar | frantses (ofiziala), sango (hizkuntza nagusia) | Bangi; bangiar |
| Albania | Albaniako Errepublika | albaniar | albaniera | Tirana; tiranar |
| Alemania | Alemaniar Errepublika Federala | alemaniar / aleman | aleman | Berlin; berlindar |
| Aljeria | Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa | aljeriar | arabiera, amazigera | Aljer; aljertar |
| Andorra | Andorrako Printzerria | andorratar | katalan | Andorralla Vella; andorratar |
| Angola | Angolako Errepublika | angolar | portuges | Luanda; luandar |
| Antigua eta Barbuda | Antigua eta Barbuda | antiguar; Antigua eta Barbudako | ingeles | Saint John's; saintjohnstar |

II. Munduko estatuen izenakeuskaraz, gaztelaniaz, frantsesetzetaingelesez


| Euskarazko izena | Gaztelaniazko izena | Frantseseko izena | Ingeleseko izena |
|---------------------------|--------------------------|---------------------------|--------------------------|
| Afganistan | Afganistán | Afghanistan | Afghanistan |
| Afrika Erdiko Errepublikâ | República Centroafricana | République centrafricaine | Central African Republic |
| Albania | Albania | Albanie | Albania |
| Alemania | Alemania | Allemagne | Germany |
| Aljeria | Argelia | Algérie | Algeria |
| Andorra | Andorra | Andorre | Andorra |
| Angola | Angola | Angola | Angola |
| Antigua eta Barbudâ | Antigua y Barbuda | Antigua-et-Barbuda | Antigua and Barbuda |
| Arabiar Emirerri Batuak | Emiratos Árabes Unidos | Émirats arabesunis | United Arab Emirates |
| Argentina | Argentina | Argentine | Argentina |
| Armenia | Armenia | Arménie | Armenia |
| Australia | Australia | Australie | Australia |
| Austria | Austria | Autriche | Austria |
| Azerbaijan | Azerbaiyán | Azerbaïdjan | Azerbaijan |
| Bahamak | Bahamas | Bahamas | Bahamas |
| Bahrain | Baréin | Bahreïn | Bahrain |
| Bangladesh | Bangladés | Bangladesh | Bangladesh |
| Barbados | Barbados | Barbade | Barbados |

38. araua. Munduko estatuen izenak, hiriburuak eta heritarren izenak **araua** (2019ko bertsioa)

Araugintza (1999-2002): 29 arau (exonomastikakoak: 0)



Euskaltzaindiaren arauak 2003-2021 bitartean




Exonomastikako araugintzaren bigarren fasea (2003-2021): lan sistematikoa

2003an, lantaldea egokituta, lanari berrekin zion azpibatzordeak urte anitzeko programa sistematiko batekin. Harrezkero, Euskaltzaindiaren arau gehienak exonomastikaren arlokoak izan dira (Hiztegia ere bada araua, baina ez da arau gisa argitaratzen). 2003-2021 bitartean, arau gehienak (45 arau, guztien % 64) exonomastikakoak izan dira.

2007an, ikusirik exonomastikako lana gorpuzten ari zela, lan-programa mardul eta zehatza zuela eta lan-metodologia berezkoa zuela, ordu arte azpibatzordea zena (Onomastika batzordearen atal gisa) batzorde beregain bihurtzea erabaki zuen Euskaltzaindiak: hala sortu zen Exonomastika batzordea. Hasiera hartan, honela osatu zen: Jose Luis Lizundia zen batzordeburua, Alfontso Mujika batzordeko idazkaria, eta Xabier Kintana, Mikel Gorrotxategi eta Inaki Irazabalbeitia ziren gainerako batzordekideak. 2009an, Irene Arrarats —ordura arte batzordeko aholkularia zen— batzordekide bihurtu zen, eta 2013ko apirilean, Jose Luis Lizundia emeritu bihurtuta batzordetik irten zenean, Xabier Kintanak hartu zuen batzordearen ardura. Geroztik, batzordearen osaketan ez da aldaketarik izan.


Bigarren fase honetan (2003-2021), hiru buru izan ditu exonomastikako lantaldeak:



Andolin Eguskitza
(2002-2004)



Jose Luis Lizundia
(2004-2013)



Xabier Kintana
(2013-...)

Zer zegoen egina eta zer falta zen aztertuta, epe luzeko lan-programa bat ezarri zen, hurrenkera honetan gauzatzeko:

- 1- Antzinaroko leku-izenak
- 2- Gainerako leku-izenak (gaur egungoak): hurbiletatik hasi eta urrunetaraino

3- Pertsona-izenak eta mitologia

4- Bestelakoak (gainerako onomastika)

Antzinaroko leku-izenak

Hala, bi arauarekin osatu zen lehen atala: 2004an, *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak* (110 eskualde-izen biltzen ditu), eta, 2006an, *Antzinateko hirien euskarazko izenak* (163 hiri-izen biltzen ditu). Bi arau horiek osatzeko, 1997an eta 1998an Antzinate klasikoko pertsonaia historiko eta izen mitologikorik erabilieneren zerrendak osatzeko erabilitako irizpideak aplikatu ziren (Euskaltzaindiaren 76. eta 82. arauak), garai bereko eta jatorri bereko izenak baitira, hots, gehienbat latinaren bidez hedatuak. Izen ezagun ugari eta erabilera handikoak daude zerrendetan, hala nola *Arkadia, Bizantzio, Eszitia, Etruria, Lizia, Traxia, Zirenaika; Herkulano, Jeriko, Kaltzedonia, Kartago, Mizenas, Numantzia, Troia...*

| Euskara | Eratortzia | Izen klasikoa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|------------------------|--------------------------|-----------------------|---------------------|------------------------|---------------------|
| Africa Pro-kontsularra | Afrika Pro-kontsularreko | Africa Pro-consularis | África Pro-consular | Afrique Pro-consulaire | Proconsular Africa |
| Akaia | akaiar | Achaea | Acaya | Achaïe | Achaea |
| Akitania | akitaniar | Aquitania | Aquitania | Aquitaine | Aquitaine |
| Arakosia | arakosiar | Arachosia | Aracosia | Arachosie | Arachosia |
| Argolida | argolidar | Argolis | Argólida | Argolide | Argolid / Argolis |
| Arkadia | arkadiar | Arcadia | Arcadia | Arcadie | Arcadia |
| Asiria | asiriar | Assyria | Asiria | Assyrie | Assyria |
| Atika | atikar | Attica | Ática | Attique | Attica |
| Baktriana (Baktria) | baktriar | Bactriana | Bactriana | Bactriane | Bactria / Bactriana |
| Beozia | beoziar | Boeotia | Beocia | Béotie | Boeotia |
| Betika | betikar | Baetica | Bética | Bétique | Baetica |
| Bitinia | bitiniar | Bythynia | Bitinia | Bithynie | Bythynia |

| Euskara | Eratorkia | Izen klasikoa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|------------|---------------|--|--|---|
| Bizantzio / Bizantziar Inperioa / Ekialdeko Erromatar Inperioa | bizantziar | Byzantium | Bizancio / Imperio bizantino / Imperio Romano de Oriente | Byzance / Empire byzantin / Empire romain d'orient | Byzantium / Byzantine Empire / Eastern Roman Empire |

142. araua. Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak arauaren erakusgarria

| Euskara | Eratorkia | Izen klasikoa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|------------|-------------|--------------------------------|-----------------|----------------|---------------|
| Abidos | abidostar | Abydos / Ebydus | Abydos / Abidos | Abydos | Abydos |
| Adab | adabtar | | Adab | Adab | Adab |
| Akad | adadtar | | Acad | Akkad | Akkad |
| Alesia | alesiar | Alesia | Alesia | Alésia | Alesia |
| Alexandria | alexandriar | Alexandrea / Alexandria | Alejandro | Alexandrie | Alexandria |
| Antiokia | antiokiar | Antiochia / Antiochea | Antioquia | Antioche | Antioch |
| Asur | asurtar | Assur | Assur | Assour / Assur | Ashur / Assur |
| Atenas | atenastar | Athenae | Atenas | Athènes | Athens |
| Babilonia | babiloniar | Babylonia | Babilonia | Babylone | Babylon |
| Betel | beteldar | | Bet-el / Betel | Béthel | Bethel |
| Betleem | betlemdar | Bethleem / Bethlehem / Bethlem | Belén | Bethléem | Bethlehem |

147. araua. Antzinateko hirien euskarazko izenak arauaren erakusgarria

Gainerako leku-izenak

Antzinateko leku-izenak arautu ondoren, kanpoko leku-izenen bigarren atalari iritsi zitzaion txanda: gaur egungo leku-izenak. Hurbilenetatik hasi eta urrunetaraino heldu behar zen. Lehenik, Euskal Herri inguruko leku-izenak aztertu ziren, haietan badirelako euskaraz tradizioa duten exonimo batzuk eta badirelako, bestalde, euskal toponimo garbiak direnak, Errioxan eta Burgosen batez ere. Patxi Galék egin zituen prestalanak, eta 2006an onartu zen *Euskal Herri inguruko exonimoak* araua. 72 leku-izen biltzen ditu hiru sailetan. Hona hemen adibide batzuk:

- Euskal exonimoak, euskara jasoan erabili beharrekoak:

Landak > **Akize** (Dax), **Tarnose** (Tarnos)...

Bearno > **Aramitze** (Aramits), **Navarregose** (Navarrenx)...

Aragoi > **Jaka** (Jaca), **Sause** (Sos del Rey Católico)...

Errioxa > **Nafarruri** (Casalarreina), **Naiara** (Nájera)...

Burgos > **Miranda Ebro** (Miranda de Ebro), **Mena Harana** (Valle de Mena)...

- Historia-lanetan edo eleberrietan erabil daitezkeenak:

Ansó: **Berari**; Huesca: **Oska**; Gijón: **Kixoi**...

- Euskal jatorriko inguruko izenak, euskal grafiaz erabil daitezkeenak:

Ezcaray: **Ezkarai** (Errioxa); Ochánduri: **Otxanduri** (Errioxa); Herrera: **Olaerrea** (Burgos)...

Hurrengo arauan, Espainia eta Frantziako eskualdeen izenak euskaraz idaztean kontuan hartu beharreko irizpide batzuk eman ziren (151. araua), eta zerrenda labor bat erantsi zen (euskal exonimoa dutenak: *Jazetania*, *Bearno*, *Bigorra*, *Ardenak*, *Landak*; euskal exonimorik ez dutenak: *Alcarria*, *Bureba*, *Empordà*, *Champagne*, *Médoc*, *Périgord*...).

Ondoren, Europako leku-izenak eman ziren, hiru arautan (2008-2010 bitartean): *Europako eskualde historiko-politiko nagusiak* (154. araua), *Europako hiriak* (157. araua) eta *Europako toponimia fisikoa* (159. araua). Erabilera-maiztasun handiko izenak dira: egunero agertzen da haietako bat baino gehiago komunikabideetan eta turismo-iragarkietan. Halaber agertzen dira eskola-liburuetan eta Europako historiari eta arteari buruzko irakasgaietan. Eta beharrezkoa zen izen horien grafia finkatzea. Haietako asko, gainera, ez dira berdin idazten hizkuntza guztietan.

Adibidez, nederlanderaz *Vlaanderen* idazten den Belgikako eskualdea *Fiandre* da italieraz; *Flandern*, danieraz, alemanez eta suedieraz; *Flander*, finlandieraz; *Flandes*,

gaztelaniaz eta katalanez; *Flandra* errumanieraz; *Flandre*, frantsesez; *Flanders*, ingelesez; *Flandres*, portugesez; *Flandria*, estonieraz, hungarieraz eta polonieraz; *Flandry*, txekieraz...

Eta euskaraz ere era batera baino gehiagotara idatzi da: *Flandes*, Mitxelena, Mendiburu eta Iztuetaren idazlanetan; *Flandres*, berriz, Lapitzen eta Piarres Etxeberriren obretan; eta *Flandria* ageri da Miranderen eta Txillardegiren idazkietan. 2000. urteaz geroztik argitaratutako lanetan ere nabari zen batasunik eza: *Flandria* idatzi zuten Piarres Xarritonek, Joan Mari Lekuonak, Josu Zabaletak, Pablo Sastrek, Koro Navarra, Juan Martin Elexpuruk eta Koldo Izagirrek; *Flandes*, berriz, Andu Lertxundik, Aingeru Epaltzak, Patziku Perurenak, Iñigo Aranbarrrik, Felipe Juaristik, Jon Alonsok eta Iñaki Mendigurenek. Eta *Flandres* idatzi zuen Aurelia Arkotxak. *Flandes* (333 aldiz) eta *Flandria* (423 aldiz) ageri zen *Euskaldunon Egunkarian*; *Flandria*, berriz, *Herria* aldizkarian. Euskarazko entziklopedietan ere ez zegoen erabateko batasunik.

Arauetan, irizpide historiko-politikoen izenak azaltzeaz gainera, zerrenda luzeak eman ziren (430 eskualde historiko-politikoen, 225 hiri-izen eta 450 toponimo fisiko).

| EUSKARA ¹ | GAZTELANIA | FRANTSESA | INGELESA | JATORRIZKO IZENA ² | ESTATUA ³ |
|---|---|----------------|--|---|----------------------|
| Abruzzo | Abruzos (los) | Abruzzes (les) | Abruzzi / Abruzzo | Abruzzo | Italia |
| Adigea (Adigeako Errepublika) | Adiguesia | Adyguèe | Adygea | Республика Адыгея (errusiera) / Адыгэ Республик (adigera) | Errusia |
| Aga-Buriatia | Buriatos de Aguinskoye / Aga Buriàtia | Aga-Bouriatie | Agin-Buryat Okrug / Aga Buryatia | Агинский- Бурятский округ (errusiera) / Агын Бурядаы округ (buriatera) | Errusia |
| Akaia | Acaya | Achaïe | Achaea | Ἀχαΐα [Achaia] | Grezia |

157. araua. *Europako hiriak* arauaren erakusgarria

| EUSKARA | JATORRIZKOA | GAZTELANIA | FRANTSESA | INGELESA | ESTATUA |
|------------------------------------|----------------------------|---|----------------------------|---|-------------|
| 's- Hertogenbosch | 's-Hertogenbosch/Den-Bosch | 's-Hertogenbosch (antzin-a: <i>Bolduque</i>) | Bois-le-Duc | s-Hertogenbosch | Herbehereak |
| Abakan | Абака́н | Abakán | Abakan | Abakan | Errusia |
| Agrigento | Agrigento | Agrigento | Agrigente | Agrigento | Italia |
| Akisgran/Aachen² | Aachen | Aquisgrán | Aix-la-Chapelle | Aachen (antzina: <i>Aix-la-Chapelle</i>) | Alemania |
| Algeciras | Algeciras | Algeciras | Algésiras | Algeciras | Espania |
| Anadyr | Ана́дырь | Anádyr | Anadyr | Anadyr | Errusia |
| Ancona | Ancona | Ancona | Ancône | Ancona | Italia |
| Arkhangelsk | Арха́нгельск | Arjángelsk (antzina, <i>Arkángel</i>) | Arkhangelsk / Arkhanguelsk | Arkhangelsk (antzina, <i>Archangel</i>) | Errusia |
| Asis | Assisi | Asís | Assise | Assisi | Italia |
| Astrakhan | Астраха́нь | Astracán / Astrakán | Astrakhan | Astrakhan | Errusia |
| Augsburg | Augsburg | Augsburgo | Augsbourg | Augsburg | Alemania |
| Babruisk | Ба́бруйск | Babruisk | Babrouïsk / Bobrouïsk | Babruysk / Bobruisk | Bielorrusia |
| Barnaul | Ба́рнаул | Barnaul | Barnaoul | Barnaul | Errusia |
| Benevento | Benevento | Benevento | Bénévent | Benevento | Italia |
| Bergamo | Bergamo | Bérgamo | Bergame | Bergamo | Italia |

154. araua. *Europako eskualde historiko-politiko nagusiak* arauaren erakusgarria

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|--|---|---|
| Aar [Aar ibaia] | Aar (frantsesa) Aare (alemana) | Aar | Aar | Aar |
| Adige [Adige ibaia] | Adige(italiera) | Adigio | Adige | Adige |
| Adriatikoa / Itsaso Adriatikoa | Mare Adriatico (italiera) Deti Adriatik (albaniera) Jadransko morje (esloveniera) | mar Adriático | mer Adriatique | Adriatic Sea |
| Aiguilles Rouges [Aiguilles Rouges mendiak] | Aiguilles Rouges (frantsesa) | Agujas Rojas | Aiguilles Rouges | Aiguilles Rouges |
| Ajoko lurmuturra | cabo de Ajo (gaztelania) | cabo de Ajo | cabo de Ajo | |
| Alborango itsasoa | mar de Alborán (gaztelania) | mar de Alborán | mer d'Alboran | Alboran Sea |
| Aldan [Aldan ibaia] | Алдан (errusiera) | Aldan | Aldan | Aldan |
| Alexandretako goikoa / Iskenderungo goikoa | Ískenderun Kõrfezi (turkiera) | golfo de Iskenderun / golfo de Alejandreta | golfe d'Iskenderun / golfe d'Alexandrette | Gulf of Iskenderun / Gulf of Alexandretta |

157.araua. *Europako hiriak* arauaren erakusgarria

Beste alfabetoak

Leku-izen garrantzitsuen bila Europako ekialderantz egin ahala, beste arazo batekin egiten da topo: Errusia, Bulgaria, Bielorrusia eta Ukrainako leku-izenak, adibidez, alfabeto zirilikoa idazten dira. Beraz, alfabeto horretako izenak —izen arruntak zein leku-izenak edo pertsona-izenak— gure alfabetora ekarri behar dira; hau da, izen horiek transliteratu² edo transkribatu³ behar dira. Hobe litzateke alfabeto zirilikotik alfabeto latinora aldatzeko nazioarteko sistema bat izatea eta alfabeto latinoan baliatzen duten hizkuntza guztietan hura erabiltzea.

² Transliterazioa prozedura hertsia eta normalizatua da, idazkera-sistema baten grafema bakoitzari beste idazkera-sistema bateko grafema bat edo grafema-talde bat esleitzen diona, ahoskera dena dela; hau da, teoriarik ez dago hizkuntza jakin bati lotua, alfabeto bati lotua baizik. Horrek esan nahi du alfabeto hori erabiltzen duen edozein hizkuntzarentzat baliagarria dela.

³ Transkripzioa ez da transliterazioa bezain sistema hertsia, eta helburu-hizkuntza bakoitzari lotua dago: jatorri-hizkuntzaren fonetika ahalik eta erarik zehatzenean jasotzea du helburu. Horrek esan nahi du sistema fonetiko-fonologiko bera edo bertsua duten hizkuntzentzat baino ez duela balio transkripzio bakoitzak.

Eta bada horrelakorik, bat baino gehiago ere bai. Berriena eta nazioartekoena ISO 9 estandarra da, alfabeto zirilikoa erabiltzen duten hizkuntza eslaviarren zein ez-eslaviarren karaktereak alfabeto latindarrera aldatzeko sortua. Diakritikoak baliatuz, karaktere ziriliko bakoitzari karaktere latindar baliokide bat esleitzen dion sistema unibokoa da. Horrek esan nahi du ISO 9 sistemaren bidez egindako transliterazio bat alfabeto zirilikora zehatz-mehatz eraman daitekeela atzera —alderantzizko transliterazioa—, hutsik egin gabe.

Oso zehatza da, baina ez du lortu sustraitzerik hizkuntza nagusietan, zeinu diakritiko ugari erabiltzen baititu (ǣ, ě, ê, ž, ĭ, ů, č, š, š, è, û, â). Horregatik, hizkuntza nagusietan ez dira nazioarteko sistemak erabiltzen, eta hizkuntza bakoitzak bere sistema(k) sortu d(it)u, hizkuntza horietako bakoitzean letrak nola ahoskatzen diren oinarriztat harturik: transkripzio praktikoa, alegia. Horren ondorioa transkripzio-aniztasuna da.

Adibidez, Errusiako **Челя́бинск** hiri-izena edo **Горбачёв** pertsona-izena honela idatzi behar dira ISO 9 nazioarteko estandarraren arabera:

Челя́бинск = Čeljabinsk; **Горбачёв** = Gorbačëv

Hala ere, gure inguruko hizkuntzetan ez da hori erabiltzen, eta hizkuntza bakoitzak bere sistema du:

| errusiera | ingeleza | gaztelania | frantsesa | alemana | katalana |
|-------------------|-------------|-------------|--------------|---------------|-------------|
| Челя́бинск | Chelyabinsk | Cheliábinsk | Tcheliabinsk | Tscheljabinsk | Txeliabinsk |
| Горбачёв | Gorbachev | Gorbachov | Gorbachev | Gorbatschow | Gorbatxov |

Transkripzio praktikoaren helburua hau da: jatorriz alfabeto batean idatzitako izenak bigarren alfabeto batera aldatzea, bigarren alfabeto hori erabiltzen duten irakurleek beren irakurtze-ohiturak nabarmen hautsi edo behartu gabe irakurri ahal izan ditzaten. Horregatik, euskararako transkripzio praktikoa eman zuen Euskaltzaindiak 2009an, 156. arauan. Bide hori erabiltzen ari zen jada 1990eko hamarkadan euskarazko entziklopedietan eta *Euskaldunon Egunkarian* —eta *Berrian* geroago—, eta bide horri heldu zion Akademiak, irizpideak azalduz, eredu zehaztuz eta informazio osagarria eskainiz.⁴

⁴ Sistema prestatzeko, Ivan Igartua eslavistaren laguntza izan zuen Akademiak.

| Errusiera | eu | es | fr | en | ca | ISO 9 |
|-----------|-----------|-------------------------|---------------------------|------------------------|-----------|----------|
| Ё, ё | o | o | e | e | o | ë |
| (1) | Gorbatxov | Gorbachov | Gorbatchev | Gorbachev | Gorbatxov | Gorbačëv |
| Горбачёв | Khrustxov | Jruschov | Khrouchtchev | Khrushchev | Khrusxov | Hrušëv |
| Хрущёв | io | io | io | yo, e | io | ë |
| (2) | Piotr | Piotr | Piotr | Pyotr | Piotr | Pëtr |
| Пётр | Potiomkin | Potiomkin / Potemkin | Potemkine / Potiomkine | Potyomkin | Potiomkin | Potëmkin |
| Потёмкин | Oriol | Orel / Oriol | Orel / Oriol | Oryol / Orel | Oriol | Orel |
| Орёл | Koroliiov | | Koroliiov | Koroliyov / Korolev | Koroliiov | Korolëv |
| Королёв | | | | | | |
| Ж, ж | zh | zh | j | zh | j | ž |
| Нижний | Nizhni | Nizhni | Nijni | Nizhny | Nijni | Nižnij |
| Воронеж | Voronezh | Voronezh | Voronej | Voronezh | Voronej | Voronež |
| Брežнев | Brezhnev | Brëzhnev | Brejnev | Brezhnev | Brëjnev | Brëžnev |
| Живаго | Zhivago | Zhivago | Jivago | Zhivago | Jivago | Živago |

(1) ж, ч, ш eta щ letren ondoren.

(2) gainerako kontsonanteen ondoren, hitz-hasieran, bokal artean eta ь edo ъ ondoren.

Hala, zehaztuta gelditu zen nola idatzi euskaraz bulgarierazko, bielorrusierazko, errusierazko eta ukrainerazko izenak, hala leku-izenak (*Jalta, Sotxi, Txemobyl, Karatxai-Txerkesia, Txukotka, Kamtxatka...*) nola pertsona-izenak (*Andrei Sakharov, Anton Txehov, Boris Jeltsin, Josif Stalin, Maria Xarapova, Nikita Khrustxov, Mikhail Gorbatxov...*).

Beste hainbeste egin zuen Euskaltzaindiak 2011n georgieraren, armenieraren eta arabieraren alfabetoetarako, ez baitago haietarako nazioarteko transkripzio praktikorik eta hizkuntza bakoitzak bere sistema erabiltzen baitu. Bi arautan eman zuen: *Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema* (163. araua) eta *Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema* (165. araua).

| georgiera | euskara | Georgiako sistema naz. | ISO 9984 | BGN | IPA |
|-----------|---------|------------------------|----------|-----|------|
| ა | a | a | a | a | [ɑ] |
| ბ | b | b | b | b | [b] |
| გ | g | g | g | g | [g] |
| დ | d | d | d | d | [d] |
| ე | e | e | e | e | [ɛ] |
| ვ | v | v | v | v | [ʋ] |
| ზ | z | z | z | z | [z] |
| თ | t | t | t' | t' | [tʰ] |
| ი | i | i | i | i | [i] |
| კ | k | k' | k | k | [kʰ] |
| ლ | l | l | l | l | [l] |

| Armeniera xehea / larria | euskara sinplifikatua | ISO 9985 | BPG/PCGN | ingeles sinplifikatua | Ahoskera ekialdeko armenieran |
|--------------------------|-----------------------|----------|----------------|-----------------------|-------------------------------|
| Ա / ա | a | a | a | a | [ɑ] |
| Բ / բ | b | b | b | b | [b] |
| Գ / գ | g | g | g | g | [g] |
| Դ / դ | d | d | d | d | [d] |
| Ե / ե | e | e | e | e | [ɛ] |
| | je [hitz-has.] | | ye [hitz-has.] | ye [hitz-has.] | [je] [hitz-has.] |
| Զ / զ | z | z | z | z | [z] |
| Է / է | e | ē | e | e | [ɛ] |
| [hitz-has. soilik] | | | | | |
| Ը / ը | e | ë | y | e | [ə] ¹ |
| Թ / թ | t | t' | t' | t | [tʰ] |
| Ժ / ժ | zh | ž | zh | zh | [ʒ] |

163. araua. *Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak arauaren erakusgarria*

| Arabiera 1 : bakarturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran | | | | Letra- izena eta fonetika (IPA) | ISO 233 DIN 31635 | UN BGN- PCGN ALA-LC | en (sinpl.) | es (EFE) | fr Beirut, B aldaera (sinpl.) | de (Wikepe dia) | ca (IEC, 1989) sinpl. | Euskara |
|--|---|---|---|---|----------------------------|------------------------------|----------------|-------------|---|-----------------------|--------------------------------|-----------------------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | | | | | | | | | |
| ب | ب | ب | ب | bā' /b/ | b | b | b | b | b | b | b | b |
| ت | ت | ت | ت | tā' /t/ | t | t | t | t | t | t | t | t |
| ث | ث | ث | ث | thā' /θ/ | ʔ | th | th | z | th | th | th | th |
| ج | ج | ج | ج | jīm ʔɑʒ/ / /g/ | ǧ | j | j | y/ch | dj [dj, j] | dsch/d dsch | j | j |
| ح | ح | ح | ح | hā' /h/ | h | h (UN) h (ALA- LC) | h | h | h [h] | h | h | h h (hasperen dua) |
| خ | خ | خ | خ | khā' /x/ | h (ISO) h (DIN) | kh | kh | j | kh | ch | kh | kh |

165. araua. Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema arauaren erakusgarria

Europako leku-izenekin amaitzeko, Anatolia eta Hego Kaukasoko toponimia eman zen 2011n, 162. arauan. Turkia, Azerbaijan, Georgia eta Armenia estatuetako leku-izen nagusiak jaso ziren, eta, turkiera eta azerbaijanera idazteko erabiltzen den alfabeto latinoan dauden grafema berezien kasuan (< ğ >, < ı >, < ş > eta < ə >), Europako mendebaldean erabiltzen diren teklatueta oso eskura ez daudenez eta gure kultura ingurunean grafema horiek arrotzak gertatzen direnez, arauak zehazten du onargarria dela grafema horien ordezkari < g >, < i >, < s > eta < a > grafemak erabiltzea —sinplifikazioak egitea, alegia— testu ez-espezializatueta eta dibulgazio-testueta. Adibidez, **Erdoğan** jatorrizko deitura **Erdogan** idaztea eta **İzmir** eta **Diyarbakır** jatorrizko leku izenak **Izmir** eta **Diyarbakir** idaztea. Dena dela, arauak zehazten du idazkera jaso zainduko testu espezializatueta (esate baterako, entziklopedietan) komeni dela jatorrizkoari atxikitzea.

Europako toponimia arautu ondoren, gainerako kontinenteetako leku-izen nagusien euskarazko izenak eman ziren, 7 arautan, 2011-2012 bitartean:

- (164. araua) *Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia* (319 leku-izen)

Aqabako golkoa, Aswan, Bengazi, Falluja, Kabilia, Nasiriya, Negev basamortua, Ramallah...

- (167. araua) *Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia* (49 leku-izen)

Esperantza Oneko lurmuturra, Kabinda, Rift Haran Handia, Timbuktu...

- (168. araua) *Afrika kolonialeko toponimia* (48 leku-izen)

Ekuatore Afrika Frantsesa, Kongo Belgikarra, Sudan Anglo-egiptoarra...

- (169. araua) *Ozeaniako toponimia* (73 leku-izen)

Australiako Badia Handia, Hebrida Berriak, Koral Hesi Handia, Sydney...

- (170. araua) *Amerikako toponimia* (237 leku-izen)

Aintzira Gazi Handia, Columbia Britainiarrak, Kalifornia Beherea, Heriotzaren harana, Mendi Harritsuak, Pazko uhartea, San Frantzisko, Ternua...

- (171. araua) *Asiako toponimia* (331 leku-izen)

Balutxistan, Hindustan, Indus ibaia, Itsaso Horia, Kalkuta, Kaxmir, Kotxintxina, Mantxukuo, Maxhad, Punjab, Quetta...

- (172. araua) *Itsaslasterren izenak, itsasgune batzuen izenak eta Antartikako toponimia* (63 leku-izen)

Golkoko itsaslasterra, Itsaslaster Zirkunpolar Antartikoa; Box Irlandarra, Sole Handia / Grande Sole; Maud Erreginaren Lurralde, Weddell itsasoa...

Leku-izenen arloko azken araua *Astroen izenak* izan zen (173. araua), 2013an emana. Astro-mota bakoitza izendatzeko oinarriak zein diren zehaztu (zer astro-motatan egokitzen den izenaren grafia eta egokitzeko irizpideak zein diren, zer astro-motatan ez diren egokitzen izenak eta zer astro-motatan itzultzen diren izenak) eta astro ezagunenen izenak ematen dira sailka: planetak, sateliteak, izarrak, konstelazioak, nebulosak, galaxiak, asteroideak, kometak, izar iheskorrak... 355 astro-izen guztira. Bide batez, izarrak izendatzeko alfabeto grekoaren letren izenak erabiltzen direnez (*Alfa Centauri, Beta Orionis, Epsilon Canis Majoris...*), alfabeto grekoaren letren euskarazko izenak ezarri ziren arauan (gero, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ere eraman ziren); horretaz gainera, zodiakoko hamabi konstelazioen latinezko izenekin batera izen horien itzulpenak eta egokitzapenak erabiltzen

direnez, astrologian batez ere, zodiakoko konstelazio eta zeinuen euskarazko izenak ere finkatu ziren arauan.

| larria | xehea | grekoa | euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|--------|-------|--------|----------------|------------|------------|----------|
| A | α | Άλφα | alfa | alfa | alpha | alpha |
| B | β | Β βήτα | beta | beta | bêta | beta |
| Γ | γ | Γάμμα | gamma | gamma | gamma | gamma |
| Δ | δ | Δέλτα | delta | delta | delta | delta |
| E | ε | Έψιλον | epsilon | épsilon | epsilon | epsilon |
| Z | ζ | Ζήτα | zeta | dseda | zêta/dzêta | zeta |
| H | η | Ήτα | eta | eta | êta | eta |
| Θ | θ | Θήτα | teta | zeta | thêta | theta |

| Euskara | Sinboloa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Alemana | Italiera |
|---------------------------------------|---|-------------|------------|-----------|------------|------------|
| Aquarius / Akuarioa |  | Acuario | Verseau | Aquarius | Wassermann | Aquario |
| Aries / Aharia |  | Aries | Bélier | Aries | Widder | Ariete |
| Cancer / Karramarroa |  | Cáncer | Cancer | Cancer | Krebs | Cancro |
| Capricornus / Kaprikornioa |  | Capricornio | Capricorne | Capricorn | Steinbock | Capricorno |
| Gemini / Bikiak |  | Géminis | Gémeaux | Gemini | Zwillinge | Gemelli |

173. araua. *Astroen izenak* arauaren erakusgarriak

Pertsona-izenak eta mitologia

Exotoponimia bukatuta, exoantroponimia eta mitologia lantzeari heldu zion Exonomastika batzordeak, bere lan-programari jarraituz. Ordena kronologikoa ezarri zen izenak lantzeko: lehenik, Antzinateko izenak.

Baziren bi oinarri garrantzitsu, 1997an eta 1998an ezarriak: *Santutegiko izen ohi-koenak* (66. araua) eta *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia* (76. araua). Arau horietan zehaztu ziren izen klasikoak euskaraz idazteko irizpideak, baina baziren, hala ere, zalantza sortzen zuten pertsona-izen asko. Beharrezkoa zen, beraz, irizpide horiek garatzea eta zenbait puntutan osatzea. Lan hori eginda osatu ziren Antzinateko pertsona-izenen arauak. Lau arau eman ziren 2014-2015 bitartean:

- (175. araua) *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (I)*. Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia (60 izen)
- (176. araua) *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II)*. Antzinateko Egipto (44 izen)
- (177. araua) *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III)*. Bibliako pertsona izenak (202 izen)
- (179. araua) *Bizantziar Inperioko pertsona-izenak* (59 izen)

Izen garrantzitsu ugari daude zerrenda horietan, historia-liburuetan agertzen eta eskoletan ikasten baitira. Haietako asko eta asko tradiziodunak dira, eta haien grafia aldatu egiten da hizkuntza batetik bestera. Adibidez:

Ziro (es, it, pt *Ciro*; fr *Cyrus*; en *Cyrus*; ca *Cir*; de *Kyros*)

Keops (es *Keops*; fr *Khéops*; en, de *Cheops*; ca *Kheops*; it *Cheope*; pt *Quéops*)

Elias (es *Eliás*; fr **Élie**; en *Elijah*; ca *Elies*; it *Elia*; de *Elija*)

Eta euskaraz, tradizioan, ez dira beti berdin idatzi. Adibidez:

Samson (B. Larregi, Zerbitzari, J. Duvoisin eta J. Etxeberry Ziburukoa)

Sanson (K. Mitxelena, F. I. Lardizabal, F. Arresebeitia, M. Elizanburu, J. Barbier, Axular, R. Olabide, P. A. Añibarro. A. Mihura, J. Lizarraga Elkanokoa, D. Intza eta B. Madariaga)

Horregatik, beharrezkoa zen irizpideak zorroztea eta izen horien grafia finkatzea.

| Euskara | Nazioarteko transkripzio jasoa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---------------|--------------------------------|---|---|---|
| Asurbanipal | Aššur-bāni-apli | Asurbanipal / Ashurbanipal / Assurbanipal | Assourbanipal / Assour-bani-apli | Ashurbanipal / Assurbanipal / Asurbanipal |
| Asurnasirpal | Aššur-nāšir-apli | Ashur-nasir-pal / Asurnasirpal | Assournazirpal / Assur-Nazirpal | Ashurnasirpal |
| Gudea | Gudea | Gudea | Gudea / Goudéa | Gudea |
| Hammurabi | Hammurabi | Hammurabi | Hammurabi / Hmmourabi | Hammurabi |
| Manixtuxu | Maništušu | Manishutusu | Manishtusu / Man-İstusu / Manishtusu / Manishtousou | Manishtushu |
| Nabonasar | Nabû-nāšir | Nabonasar | Nabonassar | Nabonassar |
| Nabonides | Nabû-nā'id | Nabonido / Nabónides | Nabonide | Nabonidus / Nabonides |
| Nabopolasar | Nabu-apla-usur | Nabopolasar | Nabopolassar | Nabopolassar |
| Nabukodonosor | Nabû-kudurri-ušur | Nabucodonosor | Nabuchodonosor | Nebuchadnezzar |

175. araua. Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (I). Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia arauaren erakusgarria

| Euskara | Transliterazio jaso edo grekoa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--------------------------------|--|--|---|
| Akenaton edo Amenofis IV.a (jasoa: Amenhotep IV.a) | ʒḥ n Jtn / Jmn ḥtp | Akenatón / Amenofis IV / Amenhotep IV | Amenhotep IV / Aménophis IV / Akhénaton | Akenaton / Akhenaten / Amenhotep IV / Amenophis IV |
| Amenemhat I.a | Jmn-m-ḥ3.t | Amenemhat I / Sehetepibra Amenemhat | Amenemhat I^{er} | Amenemhat I / Amenemhet I |
| Amenofis III.a (jasoa: Amenhotep III.a) | Jmn ḥtp | Amenofis III / Amenhotep III | Aménophis III / Amenhotep III | Amenophis III / Amenhotep III |
| Amosis I.a (jasoa: Ahmoze) | J ^s ḥ ms(j.w) | Amosis I | Ahmôsis I^{er} | Amosis I / Ahmoze I |
| Apofis I.a (jasoa: Apopi edo Ipepi) | Ipp(i) | Apofis I / Apepi | Apophis I^{er} / Apopi I^{er} | Apophis / Apepi / Ipepi |
| Berenize | Βερενίκη | Berenice I | Bérénice I^{re} | Berenice I |
| Djoser edo Zoser | Ḍsr-jt | Zoser / Dyeser | Djésér / Djoser | Djoser / Djoser / Zoser |
| Hatxepsut | Ḥ3.t-špsw.t | Hatshepsut | Hatchepsout | Hatshepsut / Hatchepsut |

176. araua. Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II). Antzinateko Egipto arauaren erakusgarria

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|---|---|
| Herodias | Herodías | Hérodiade / Hérodiás | Herodias |
| Hiram I.a | Hiram I | Hiram I ^{er} | Hiram I |
| Holofernes | Holofernes | Holopherne | Holofernes |
| Isaak | Isaac | Isaac | Isaac |
| Isaias | Isaías | Isaïe / Ésaïe | Isaiah |
| Isakar | Isacar | Issachar | Issachar |
| Ismael | Ismael | Ismaël | Ishmael |
| Israel | Israel | Israël | Israel |
| Jafet | Jafet | Japhet | Japheth |
| Jahveh¹ | Yahveh / Yavé | Yahweh / Yahvé | Yahweh |
| Jairo | Jairo | Jairus | Jairus |
| Jakue² Alfeorena edo Jakue Txikia | Santiago, hijo de Alfeo / Santiago el Menor | Jacques d'Alphée / Jacques, fils d'Alphée / Jacques le Mineur | James, son of Alphaeus / James The Less |
| Jakue³ Zebedeorena edo Jakue Nagusia | Santiago de Zebedeo / Santiago el Mayor | Jacques de Zébédée / Jacques le Majeur | James, son of Zebedee / James the Greater |

177. araua. Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III). Bibliako pertsona-izenak arauaren erakusgarria

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Latina / Grekoa |
|---|------------------------------|--------------------------------------|-------------------------|---|
| Alexio I.a Komneno | Alejo I Comneno | Alexis I ^{er} Comnène | Alexios I Komnenos | <i>Alexius I Comnenus</i> Ἀλέξιος Α' Κομνηνός |
| Androniko I.a Komneno | Andrónico I Comneno | Andronic I ^{er} Comnène | Andronikos I Komnenos | <i>Andronicus I Comnenus</i> Ἀνδρόνικος Α' Κομνηνός |
| Artabasdo | Artabasdo | Artabasde | Artabasdos | <i>Artabasdos</i> Ἀρτάβασδος |
| Basilio II.a Bulgaroktonoa² | Basilio II Bulgaróctono | Basile II le Bulgaroctone | Basil II Boulgaroktonos | <i>Basilius II Bulgaroctonus</i> Βασίλειος Β' ὁ Βουλγαροκτόνος |
| Basilio Mazedoniarra | Basilio Augusto el Macedonio | Basile I ^{er} le Macédonien | Basil I the Macedonian | <i>Basilius I Macedonius</i> Βασίλειος Α' ὁ Μακεδὼν |

179. araua. Bizantziar Inperioko pertsona-izenak arauaren erakusgarria

Antzinateko pertsona-izenen grafia arautu ondoren, Erdi Aroko, Errenazimentuko eta gaur egungo pertsona-izenen azterketari ekin zitzaion, 2015-2018 bitartean. Lan horren emaitza sei arau hauek izan ziren:

- (180. araua) *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak* (161 izen)
- (181. araua) *Erdi Aroko pertsona-izenak* (129 izen)
- (185. araua) *Errenazimentuko pertsona-izenak* (58 izen)
- (186. araua) *Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irixpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua* (237 izen)
- (188. araua) *Munduko mitologiako zenbait izen eta Ekialdeko erlijio-sineskeren arloko zenbait pertsona-izen* (40 izen)
- (189. araua) *Amerindiar buruzagien izenak* (29 izen)

Germaniar jatorriko pertsona-izenek izen-multzo handi bat osatzen dute, oso garrantzitsua Erdi Aroko izenetan. Gehienak ez ziren hizkuntza germanikoetatik zuzenean hedatu, latinaren bidez baizik, eta latinetik beste hizkuntzetara igaro ziren, grafia moldatuta. Adibidez, latinez *Lotharius* den pertsona-izena honela idazten da gure inguruko hizkuntzetan: *Lothaire* (fr), *Lotario* (es, it), *Lothair* (en), *Lothar* (de), *Lotari* (ca). Beraz, latinetiko egokitzapena hartu zen kontuan euskarazko izenak arautzeko ere. Izenen morfologia aztertuta, kasu bakoitzean euskaraz erabili beharreko grafia zehaztu zen arauan. Gero, izen-zerrendetan, errege-erregina bisigodoak (*Alariko*, *Klotilde*, *Rekaredo*, *Rezesvinto*, *Txindasvinto*, *Witiza*...), frankoak (*Adalberto*, *Brunilda*, *Egberto*, *Erik*, *Karloman*, *Klotario*, *Txildariko*...), bandaloak (*Genseriko*, *Hilderiko*, *Trasamundo*...), sueboak (*Agiulfo*, *Malariko*, *Rekimundo*...) eta ostrogodoak (*Atalariko*, *Teia*, *Vitiges*...) eman ziren.

Erdi Aroko pertsona-izenen arauan, Europako lurralde kristauetako pertsona-izen ezagunak (*Antselmo Canterburykoa*, *Gilen Akitaniakoa*, *Joan Lurgabea*, *Marco Polo*, *Petrarca*, *Rikardo Lehoibihotza*, *Wifredo Iletsua*...) eta kristandadearen eremuaz kanpoko pertsona-izen ospetsuak eman ziren: musulmanen mendeko lurraldeetakoak (*Almanzor* edo *Al-Mansur*, *Averroes* edo *Ibn Ruxd*, *Saladin*...), hebrear kulturakoak (*Abraham ben Ezra*, *Salomon ben Gabirol* edo *Avizebron*, *Yehuda Halevi*...) eta mongolen inperioko buruzagi nagusienak (*Gengis Khan*, *Tamerlan* edo *Timur*, *Txagatai*...). Haietaz gainera, literatura arturikoan ageri diren pertsonaia nagusiak (*Isolda*, *Joanes bereterra*, *Lantzelot Aintzirakoa*...) eta *Mila gau eta bat*

gehiago obrari lotutako pertsona-izen nagusiak ere eman ziren (*Aladin, Xeherezade, Zubaida...*).

Errenazimentuko pertsona nagusien zerrenda eman zen hurrengo arauan, aski garai nahasia baita izenei dagokienez. Izan ere, tokian tokiko hizkuntzak gero eta toki handiagoa hartuz joan ziren inprenta agertzearekin batera. Alabaina, pertsona askoren izenak latinizatu egiten ziren oraindik. Horregatik, garai hartan, jatorrizko izenekin batera, latinezko izenak ere agertzen dira; tokian tokiko grafia-aldaerak ere gertatzen dira, latinizatutako izenetatik abiatuta egokitzen baitziren, batzuetan, pertsona-izen horiek beste hizkuntza batzuetara pasatzean, adibide hauetan ikus daitekeen moduan:

| izen latinizatua | <i>Ioannes Calvinus</i> | <i>Christophorus Columbus</i> | <i>Nicolaus Copernicus</i> |
|------------------|-------------------------|-------------------------------|------------------------------|
| alemana | <i>Johannes Calvin</i> | <i>Christoph Kolumbus</i> | <i>Niklas Koppemigk</i> |
| frantsesa | <i>Jean Calvin</i> | <i>Christophe Colomb</i> | <i>Nicolas Copernic</i> |
| gaztelania | <i>Juan Calvino</i> | <i>Cristóbal Colón</i> | <i>Nicolás Copérnico</i> |
| hungariera | <i>Kálvin János</i> | <i>Kolumbusz Kristóf</i> | <i>Nikolausz Kopernikusz</i> |
| ingeleza | <i>John Calvin</i> | <i>Christopher Columbus</i> | <i>Nicolaus Copernicus</i> |
| italiera | <i>Giovanni Calvino</i> | <i>Cristoforo Colombo</i> | <i>Niccolò Copernico</i> |
| katalana | <i>Joan Calví</i> | <i>Cristòfor Colom</i> | <i>Nicolau Copèrnic</i> |
| letoniera | Žans Kalvins | <i>Kristofors Kolumbs</i> | <i>Nikolajs Koperniks</i> |
| nederlandera | <i>Johannes Calwijn</i> | <i>Christoffel Columbus</i> | <i>Nicolaas Copernicus</i> |
| poloniera | <i>Jan Kalwin</i> | <i>Krzysztof Kolumb</i> | <i>Mikołaj Kopernik</i> |
| portugesa | <i>João Calvino</i> | <i>Cristóvão Colombo</i> | <i>Nicolau Copérnico</i> |

Arauan, Errenazimentuko izen garrantzitsuenak eman ziren: *Albrecht Dürer, Erasmo Rotterdamgoa, Jeronimo Bosch, Joan Kalbino, Kristobal Kolon, Magallaes, Martin Lutero, Nikolas Koperniko...*

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|----------------|----------------|--------------------------------|----------------|
| Albrecht Dürer | Alberto Durero | Albrecht Dürer | Albrecht Dürer |
| Aldo Manuzio | Aldo Manuzio | Alde Manuce / Alde l’Ancien | Aldus Manutius |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--------------------------|-----------------------------------|--------------------------|
| Alexandro Farnese | Alejandro Farnesio | Alexandre Farnèse | Alexander Farnese |
| Alonso Ertzilla ¹ | Alonso de Ercilla | Alonso de Ercilla | Alonso de Ercilla |
| Ameriko Vespuzio (jatorrizko izena: Amerigo Vespucci) | Américo Vespuccio | Améric Vespuce / Amerigo Vespucci | Amerigo Vespucci |
| Andrea Alciato (Alciati ere deitua) | Andrea Alciato / Alciati | André Alciat | Andrea Alciato / Alciati |
| Andres Vesalio | Andrés Vesalio | André Vésale | Andreas Vesalius |

185. araua. *Errenazimentuko pertsona-izenak* arauaren erakusgarria

Kanpoko pertsona-izenen azterketa kronologikoaren azken arauan, Aro Modernotik gaur arteko pertsona-izenak hartzen dira kontuan. Eta irizpide nagusia garbi ezartzen da:

Gaur egun, gure kultura-ingurune zabalean, kanpoko pertsona-izenen grafia ez da aldatzen. Hori da irizpide nagusia gure inguruko hizkuntzetan, bai eta euskaran ere. Alegia, *Marie Curie*, *Adolf Hitler*, *Hillary Clinton* edo *Italo Calvino* beren jatorrizko grafia horrekin idazten dira euskaraz, abizenen grafia aldatu gabe eta ponte-izenen euskal ordainak erabili gabe (**Maria Kurie*, **Adolfo Hitler*, **Hilaria Klinton*, **Italo Kalbino*).

Irizpide nagusia ezarri ondoren, salbuespenak zein diren zehazten da: aita santuak eta errege-erreginak. Hala ere, errege-erreginen izenei dagokienez, nazioartean oso errotuta zegoen tradizio hori ahulduz joan da azken urteetan. Gaur egun, hizkuntza batzuetan erabat desagertu da izena egokitzeko tradizio horren aplikazioa azken urteotako errege-erreginen izenei dagokienez; beste hizkuntza batzuetan, aldatze bidean dago, eta beste batzuetan, azkenik, sendo iraun du gaur egun arte. Arauan, zehazki aztertu ziren gaztelaniaren eta frantsesaren jokaera eta joerak, eta euskararen gaur egungo erabilera ere bai. Eta ondorioztatu zen gaur egungo erabilera ez zegoela bateratuta: euskal entziklopedien eta euskal hedabideen jokaerak ez zetozen bat. Errealitate nahasi horren aurrean, Euskaltzaindiak bere iritzia plazaratzea eta gomendio bat ematea erabaki zuen. Hona hemen:

Euskaltzaindiak errege-erreginen izenen euskarazko idazkerari buruz ematen duen gomendioa

1- Europako errege-erregina **historikoen** izenak, oro har, **euskal grafiara egokituta** idazten dira, santu-santen izenak egokitzen diren bezala eta gure inguruko hizkuntzetan ere ohitura den moduan. Adibidez, *Gilelmina I.a Herbehereetakoa* (jatorrizko izena: *Wilhelmina*; gaztelaniaz, *Guillermina*; frantsesez: *Wilhelmine*; ingelesez: *Wilhelmina*); *Filipe II.a Espainiakoa* (jatorrizko izena: *Felipe*; frantsesez: *Philippe*; ingelesez: *Philip*); *Henrike IV.a Frantziakoa* (jatorrizko izena: *Henri*; gaztelaniaz: *Enrique*; ingelesez: *Henry*).

Dena dela, Europako iparraldeko erresumetakoak, ezezagunagoak edo baitzaizkigu, ez egokitzea da joera nagusia. Adibidez, Eskandinaviako *Harald* edo *Magnus*, edo Eskoziako *Duncan* edo *Malcolm*.

2- Errege-erregina **garaikideen** kasuan, berriz, haien jatorrizko izenak **ez dira egokitzen**; hau da, jatorrizkoan bezala idazten dira. Zehazki, Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik (**1945az geroztik**) errege edo erregina bihurtu direnen izenak ez dira egokitzen. Adibidez, *Elizabeth II.a Erresuma Batukoa*, *Felipe VI.a Espainiakoa*, *Beatrix Herbehereetakoa*.

Arauan, irizpideak eta erabilera-gomendioa emateaz gainera, Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginen izenak lurraldeka eta ordena kronologikoan eman ziren (sistematikoki bildu ziren Aragoi, Gaztela, Espainia, Frantzia, Portugal eta Ingalaterrako errege-erreginak; gainerako erresumei dagokienez, nagusi batzuk baino ez ziren jaso).

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|-----------------------------------|--|-------------------------------------|
| Ramiro I.a Aragoikoa | Ramiro I de Aragón | Ramire I ^{er} d'Aragon | Ramiro I |
| Antso Ramiritz | Sancho Ramírez | Sanche I ^{er} d'Aragon / Sancho Ramirez | Sancho Ramírez |
| Petri I.a | Pedro I | Pierre I ^{er} | Peter I |
| Alfontso I.a edo Alfontso Borrokalaria | Alfonso I de Aragón el Batallador | Alphonse I ^{er} d'Aragon le Batailleur | Alfonso I the Battler / the Warrior |
| Ramiro II.a edo Ramiro Monjea | Ramiro II de Aragón el Monje | Ramire II d'Aragon le Moine | Ramiro II the Monk |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|-------------------------------|---------------------------------------|--|
| Petronila Aragoikoa | Petronila de Aragón | Pétronille d'Aragon | Petronilla |
| Alfontso II.a edo Alfontso Kastoia edo Alfontso Trobadorea | Alfonso II de Aragón el Casto | Alphonse le Chaste / le Troubadour | Alfonso II the Chaste / the Troubadour |
| Petri II.a edo Petri Katolikoa | Pedro II el Católico | Pierre II le Catholique | Peter II the Catholic |
| Jakue I.a edo Jakue Konkistatzailea | Jaime I el Conquistador | Jacques I ^{er} le Conquérant | James I the Conqueror |

186. araua. Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua arauaren erakusgarria (Aragoiko errege-erreginei dagokie)

Atzerriko pertsona-izenen arloa burutzeko, beste bi arau eman ziren:

Munduko mitologiako zenbait izen eta Ekialdeko erlijio-sineskeren arloko zenbait pertsona-izen arauan, Ameriketako zenbait izen mitologiko (*Pachamama, Viracocha, Tlatoc, Manitu...*), mitologia germanikoko eta zeltikoko izen batzuk (*Odin, Thor, Tutatis...*), hinduismoaren jainko-jainkosa nagusi batzuk (*Brahma, Vixnu, Xiva...*) eta mitologia islamikoaren eremuko izen batzuk eman ziren (*Malik, Azrael, Iblis...*). Izen mitologikoez gainera, Asian sortutako erlijio batzuetako pertsona-izen nagusi batzuk ere eman ziren (*Buda, Konfuzio, Zaratustra...*).

Azkenik, *Amerindiar buruzagien izenak* arauan, Ipar Amerikako indiar tribuen buruzagi batzuen izenak (*Zezen Eseri, Bele Txiki, Hodei Gorri...; Cochise, Pocahontas...*) eta inken buruzagi batzuen izenak eman ziren (*Huayna Capac, Pachacutec, Tupac Amaru...*).

Bestelako exonomastika

Leku-izenak eta pertsona-izenak dira exonomastikaren muina. Badira, dena dela, kanpoko izenekin zerikusia duten izen-sail batzuk, gehienbat izen arruntez osatuak baina leku edo pertsonen izenekin zerikusi handia dutenak, hala nola herrien eta etnien izenak, dinastien izenak eta zenbait gizarte-talderen izenak. Izen horiek maiz agertzen ziren pertsona-izen historikoen testuinguruan, eta haien azterketa

sistematikoa ere egin zen 2015-2018 bitartean. Era horretako izenak euskaraz eratzeko irizpideak landu eta izen-zerrendak prestatu ziren batzordean, eta Akademiak, aztertu ondoren, arau gisa plazaratzea erabaki zuen. Gero, izen horietako asko —ezagunenak edo erabilera maiztasunik handienekoak— *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eraman dira.

Zehazki, hauek dira:

- (174. araua) *Antzinateko herriak. Ekialdeko eta Europako herriak* (111 izen)
- (182. araua) *Dinastien izenak* (107 izen)
- (187. araua) *Munduko zenbait gizarte- eta erlijio-talderen jarraitzaileen izenak eta ordena militar eta ospitalario nagusiak* (98 izen)
- (190. araua) *Munduko herriak eta etniak* (177 izen)

Antzinateko herrien izenak izen arruntak dira, eta *Hiztegi Batuan* baziren batzuk (*judu, etrusko, bandalo...*), ezagunenak, baina ez zeuden modu sistematikoan jasoak, eta era horretako izenak eratzeko irizpideak (noiz mailegatu eta nola, noiz eratorpena baliatu eta nola) finkatu gabe zeuden. Irizpideak zehaztu eta izen-zerrendak eman ziren arauan, Ekialdeko herrienak (*akadtarrak, filistiarak, hebrearrak, hixsoak, semitak...*) eta Europako herrienak (*barduliarrak, eskotoak, piktoak, saxoiak, sueboak, teutoiak...*).

Beste hainbeste egin zen dinastien izenekin. Irizpideetan zehaztu zen zer hartu behar den kontuan dinastiaren izena eratzeko: jatorriari erreparatu behar zaio, eta ikusi zer eponimo dagoen: pertsona-izen bat, leku-izen bat edo izen arrunt bat. Horretaz gainera, dinastia-zerrendak eman ziren, bost multzotan banatuak: Antzinateko dinastiak (*seleukotarrak, sasandarrak...*), Erromatar Inperioko dinastiak (*antoninotarrak, flaviotarrak...*), Bizantziar Inperioko dinastiak (*komnenotarrak, paleologotarrak...*), Europako dinastia nagusiak (*estuardotarrak, borboiak, kapetarrak...*) eta islamaren eremuko dinastia nagusiak (*abentzerajeak, alaiak, banukasitarrak...*).

Antzera jokatu zen gizarte- eta erlijio-taldeen jarraitzaileen izenak eratzeko irizpideak osatzeko. Eta zerrendetan, kristautasunaren (*jansenista, presbiteriano, Jehovaharen lekuko...*), islamaren (*sunni, xii/xiita, ismaili...*) eta judaismoaren (*askenazi, falaxa, haredi...*) eremuko gizatalde nagusiak, historikoak zein gaur egungoak, eman ziren, eta politikaren eremuko zenbait gizatalde ezagun ere bai (*atorrabeltz, espartakista, mentxebike, gibelino, kosako, zipaio...*). Bestalde, ordena militar eta ospitalario nagusien izenak ere bildu ziren arauan (*Jerusalemgo San Joan Ospitaleko Zaldunen Ordena, Maltako Ordena, Tenpluko Zaldunen Ordena...*).

Azken arauan, munduko herrien eta etnien izenak landu ziren. Arauaren lehen atalean, ohi bezala, irizpideak zehaztu ziren. Etniaren izena egoten da hizkuntza-izen askoren eta leku-izen askoren jatorrian. Adibidez, *amharera* hizkuntza *amhara* etniaren hizkuntza da, eta *balutx* etniaren izenetik eratorria da *Balutxistan* leku-izena. Noiz den egokia grafia egokitzea eta noiz komeni den nazioarteko grafiari eustea zehazten da irizpideetan. Bigarren atalean, etnia-zerrendak daude kontinenteka sailkatuak (*guantxeak, khoikhoiak, txetxenak, tartaroak, rohingyak, komantxeak, txero-kiak, maputxeak, toltetak...*).

Bestelako onomastikan sartzen dira Euskaltzaindiak emandako artelanei buruzko arauak ere, landutako azkenak (2018-2021). Hiru eman dira orain arte, eta laugarrena lantzen ari da batzordean 2022an:

- (191. araua) *Artelanen izenak. Historiaurrea eta Antzinaroa* (150 artelan-izen)
- (193. araua) *Artelanen izenak. Arkitektura* (100 artelan-izen)
- (194. araua) *Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura* (118 artelan-izen)

Hiru arauetan, artelan-mota bakoitzaren izenen berezitasunak deskribatzen dira, zer egitura duten (osagai espezifikoak eta osagai generikoak) eta izendapenetan zer erabili behar den letra larriz hasita eta zer ez, bai eta letra etzana noiz erabili ere. Halaber zehazten da zer irizpideren arabera erabakitzen den artelan baten izena euskaratzea edo jatorrizko forma erabiltzea. Zerrendetan, artelan ezagunenak eman dira.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|-------------------------------|----------------------------|
| Abu Simbelgo tenpluak | templos de Abu Simbel, los | temples d'Abou Simbel, les | Abu Simbel temples, the |
| Afrodita Knidokoa | Afrodita de Knido, la / Venus de Knido, la | Aphrodite de Cnide, l' | Aphrodite of Knidos, the |
| Agamemnonen maskara | máscara de Agamemnon, la | masque d'Agamemnon, le | Mask of Agamemnon, the |
| Akropolia edo Ate-nasko akropolia | Acrópolis de Atenas, la | acropole d'Athènes, l' | Acropolis of Athens, the |
| Alexandriako biblioteka | Biblioteca de Alejandría, la | bibliothèque d'Alexandrie, la | Library of Alexandria, the |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | |
|---|---|------------------------------------|--------------------|--|
| Aita Santuen jauregia | palacio de los papas / palacio papal de Avignon | Palais des papes d'Avignon | Palais des Papes |  |
| Al-Aksa meskita | mezquita de Al-Aqsa | mosquée al-Aqsa / al-Aksa | Al-Aqsa Mosque |  |
| Biblioteka Laurentzianoa edo Laurendiren Biblioteka | Biblioteca Laurenciana | bibliothèque Laurentienne | Laurentian Library |  |
| Britainiar Museoa edo British Museum | Museo Británico / British Museum | British Museum / Musée Britannique | British Museum |  |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | |
|-----------------------|----------------------------|-------------------------------|--------------------------------|--|
| Adamen kreazioa | La creación de Adán | La Création d'Adam | The Creation of Adam |  |
| Arraunlarien bazkaria | El almuerzo de los remeros | Le Déjeuner des canotiers | Luncheon of the Boating Party |  |
| Atseginen baratzea | El jardín de las delicias | Le Jardin des délices | The Garden of Earthly Delights |  |
| Buruxka-biltzaileak | Las espigadoras | Des glaneuses / Les glaneuses | The Gleaners |  |

191., 193. eta 194. arauak. *Artelanen izenak* arauen erakusgarriak

Exonomastikak eragindako arau eta gomendioak

Kanpoko lekuen eta pertsonen izenak lantzean, zenbait zalantza, albo-arazo eta eremu lauso agertu dira ahoskeraren eta morfologiaren arloan. Ez dira exonomastikaren berezko langaiak, baina, hutsuneak ikusita, Exonomastika batzordeak, aztertu ondoren, zalantzak argitzeko eta irizpideak emateko proposamenak prestatu eta Osoko Bilkurari aurkeztu zizkion, eta, eztabaidatu eta osatu ondoren, arau moduan plazaratzea erabaki zuen Akademiak. Lau dira:

- (158. araua) *Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak* (2009)
- (178. araua) *Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak* (2015)
- (183. araua) *Adierazpen izendatzaileen deklinabidea* (2016)
- (184. araua) *Erdal hitzen deklinabidea* (2017)

Kanpoko izenen ahoskerari buruzko gomendioa Euskaltzaindiak 1998an emandako *Euskara batuaren ahoskera zaindua* izeneko arauaren eranskin moduko bat da. Arau hura (87. araua) euskal hitzen ahoskera zainduari dagokio; 158. arauak, berriz, kanpoko izenen ahoskera zainduaz dihardu (arauan leku-izenak baino ez dira aipatzen, artean grafia aldatzen ez zaien kanpoko pertsona-izenak aztertu eta arautu gabe baitzeuden, baina kanpoko leku, pertsona zein bestelako izendapenatarako ere balio du berdin-berdin), eta hau du helburu: irrati-telebistetako berri-emanaldietan, jendaurreko hitzaldietan, eskolako azalpenetan eta haien antzeko egoera formaletan euskara batuan aritzean kanpoko izenak ahoskatzeko erabili beharreko irizpide orokor nagusiak zehaztea. Araua prestatzeko, fonologian espezialista den Miren Lourdes Oñederra euskaltzain osoaren laguntza izan zuen Exonomastika batzordeak.

Bi sail bereizten dira. Batetik, jatorrizkoan ez bezala idazten direnak, grafia euskarara moldatua dutenak: era horretakoak euskal hitzak dira, eta *Euskara batuaren ahoskera zaindua* arauan zehazten den bezala ahoskatzekoak dira: *Andaluzia, Flandria, Suedia...* Bestetik, jatorrizkoan bezala idazten direnak, hau da, egokitzen ez direnak, hala nola *Yorkshire, Calais, Aachen, Jena...* jatorrizkoan bezala (jatorrizko ahoskeratik ahalik eta gertuen) ahoskatzea gomendatzen da. Eta ahoskera zaindurako gomendio nagusiak ere ematen dira gure inguruko hizkuntza nagusi batzuetarako: alemana, ingelesa, frantsesa, gaztelania, italiara, katalana eta portugesa.

| Alemana | Adibideak | Euskararako gomendioa | Bestelako aukerak | |
|---------|--|--|---|----------|
| | | | Heg. | Ipar |
| ch | <i>Aachen</i> <i>Zürich</i> | <j> (gaztelaniazko <i>jamón</i> hitzeko lehen hotsa bezalako) | | <h>, <g> |
| ei | <i>Breisgau</i> <i>Holstein</i> <i>Zweibrücken</i> | <ai> | | |
| h | <i>Hamburg</i> <i>Hessen</i> <i>Holstein</i> <i>Hannover</i> <i>Anhalt</i> | Ahoskatzen saiatu, bokal artekoa denean izan ezik (bokal artekoa denean, ez da ahoskatzekoa; <i>Karlsruhe</i> : <karlsruhe>) | <j> (gaztelaniazko <i>jamón</i> bezala) | |
| j | <i>Jena</i> | Euskarazko <i>jadanik</i> edo ingelesezko <i>yes</i> hitzeko lehen hotsa bezalako | | |
| ö | <i>Göttingen</i> <i>Königsberg</i> | Frantsesezko <eu> bezala; <o> eta <e> arteko zerbait | | |
| sch | <i>Schmalkalden</i> <i>Schleswig</i> | <x> (<i>horixe</i> , <i>pixka</i> , <i>xagua</i>) | | |

158. araua. Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak arauaren erakusgarria

Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak izeneko arauan, lehenik, herritar-izenak eta jatorri-adjektiboen erabilera-esparruak zein diren zehazten da, eta noiz erabili (BAI: *jatetxe txinatarrak*) eta noiz ez (EZ: *kale gasteiztarak*), eta zergatik, adierazten da. Bigarrenik, jatorri-adjektibo konposatuak deskribatzen dira (*afro-amerikarrak*, *albano-kosovarrak*, *anglo-normandiarrak*), eta haien idazkera orokorra —eta salbuespenak— eta erabilera-esparruak zedarritzen. Hirugarrenik, adibide ugariz hornituak, euskaraz herritar-izenak sortzeko bideak —mailegutza eta eratorpena— adierazten dira, forma hibridoak gaitzesten dira (**europear*, **kanadiar*...) eta gure bi auzo-erdaren —gaztelaniaren eta frantsesaren— konplexutasunaren aldean (herritar-izenak sortzeko duten atzizki-ugaritasuna) euskarak duen erraztasuna aipatzen da (atzizki bakarra, hiru aldaera dituen: *-ar/-dar/-tar*). Amaitzeko, atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak eratzekeo gidalerroak ematen dira, Euskal Herriko udaletako herritar-izenetan

gertatzen diren joerak aztertuta eta analogia erabilia, leku-izenaren amaieraren arabera sailkatuta.

| Leku-izenaren amaiera | Atzikiaren aldaera | Adibideak |
|----------------------------|---|---|
| l / m / n | -dar | <i>kabuldar, madrildar, amsterdamdar, jerusalemдар, berlindar, kamerundar, piongiandар, leondar, re-uniondar</i> |
| f, g, j, p, q, r, s, x, z | -tar | <i>aljertar, salvadortar, barbadostar, londrestar, lapaztar, lxemburgar, vaduztar, baranofar, beneluxtar, burgostar, clujtar, danzigtar, gaziantepar, göteborgtar, jekaterinburgtar, mainztar, marrakextar, najaftar, phoenixtar, riftar</i> |
| h (kontsonante ondoren) | h-aren aurreko kontsonanteari dagokiona | <i>phnompenhdar, bangladeshtar, karkemishtar, kishtar, lagashtar, bandaacehtar, perthar, auchtar, greymouthar, christchurchtar, karabakhtar</i> |
| h (bokal ondoren) | -tar | <i>ramallahtar, kermanxahtar</i> |
| ts tx tz | -star -xtar -ztar | <i>(Saint Kitts) sankistar, (Txerepovets) txerepovestar (Felanitx) felanixtar, (Halytx) halyxtar, (Vaigatx) vaigaxtar (Metz) meztar</i> |

188. araua. Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak arauaren erakusgarria

Adierazpen izendatzaileen deklinabidea izeneko arauan, izendapen berezien gaia aztertzen da, eta halakoek kasu-markak nola hartzen dituzten argitzeko prestatu du araua Euskaltzaindiak. Alegia, era honetako zalantzak argitzea du helburu arauak:

Nola behar du? Eta zergatik?

*Euskaltzaindi**ko** ala Euskaltzaindi**ako**?*

*Euskalte**leko**, Euskaltel**go** ala bietara?*

*Elhuyar**reko**ak ala Elhuyar**ko**ak?*

*Osasun**eko** jokalaria ala Osasun**ako** jokalaria?*

*Euskadi Gazte**ako** esatariak ala Euskadi Gazte**ko** esatariak?*

Arauan luze-zabal aztertzen dira horrelako izendapenak, kasu-markak jartzean zer hartu behar den kontuan zehazten da, eta irizpide argiak eta askotariko adibideak ematen dira.

Exonomastikak eragindako arau eta gomendioetako azkena *Erdal hitzen deklinabidea* izeneko araua da. Galdera hauei erantzuten die arauak:

Nola jartzen zaizkio kasu-markak kanpoko hitzei ahoskera eta idazkera bat ez datozenean?

Nola jartzen zaizkio kasu-markak **h**, **y** edo **w** letraz amaitzen diren hitzei?

Nola idatzi behar da?

Greenpeaceen itsasontzia ala *Greenpeacearen* itsasontzia?


Googlearen produktuak ala *Googleen* produktuak?

Allahren izenean ala *Allahren* izenean?


Bungalowwo atea ala *bungaloweko* atea?

Exonomastikako arauak Euskaltzaindiaren araugintzan

194 arau eman ditu Euskaltzaindiak 28 urtean, 1994tik 2021era bitartean. Arau horien banaketa kronologikoa ez da orekatua. Hasieran eman zituen arau gehienak, 1994tik 1999ra bitartean —sei urteko tartean—: 104. Eta hurrengo 22 urteko tartean, berriz, 90 arau eman ditu.



Euskaltzaindiak 1994tik gaur arte emandako 194 arauetako 67 *Hiztegi Batuari* dagozkio (letraz letra edo letra-zatika argitaratuz joan zelako bi itzulitan), eta jada ez daude indarrean; haien ordeztan, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* dugu 2012az geroztik. Hiztegiari dagozkion arauak kenduta, 127 arau gelditzen dira, honela banatuta:



Eta kontuan hartuz gero Exonomastika batzordea 2007an sortu zuela Euskaltzaindiak (ordura arte Onomastika batzordearen azpiko lantalde bat zen), garbi ikusten da geroztiko araugintzan exonomastikak izan duela pisu nagusia.



Exonomastikako araugintzaren emaitza 1995etik 2021era

Guztira 54 arau izan dira; haietan, irizpideez gainera, 7.746 kanpoko izen eman dira zerrendetan (lekuak, pertsonak, bestelakoak), honela banatuak:

- Leku-izenak (3.603 izen): 24 arau
- Pertsona-izenak (2.389 izen): 11 arau
- Bestelakoak (1.754 izen): 12 izen
- Beste alfabetoetan idatzitako izenak euskarara transkribatzeko sistemak (3 arau)
- Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak (1 arau)
- Morfologiako arauak (3 arau)

Ezohiko egoerari ezohiko erantzuna

Ez da ohikoa hizkuntza-akademia baten arauetan kanpoko lekuen eta pertsonen izenen atalak hain toki handia izatea. Baina euskararen egoera ere ez zen, eta ez da, gure inguruko erdara nagusia bezalako.

1990eko hamarkadan, egunkaria eta entziklopediak agertzearekin batera, nabarmen ageri zen euskalgintzan exonomastikaren hutsunea. Euskaltzaindiak, orduan, premiaz jabeturik, premiarik larrienei irtenbide bat eman zien 1995-1998 bitartean: exonomastikako 13 arau eman zituen.

2000ko hamarkadaren hasieran eten egin zen langintza hori, baina premiak baziren oraindik, eta ez txikiak. Gainera, 1990eko hamarkadan abiatu ziren euskarazko proiektu entziklopedikoek ez zuten aurrera egin hurrengo hamarkadan, eta euskarazko Wikipedia hastapenetan zegoen (2006ko urtarrilaren 28an 5.000. artikulura iritsi zen Wikipedia). Euskarazko hedabideek ahal zutena egiten zuten nonahi ageri ziren hutsuneei erantzuten, baina ez zuten egiturarik eta bitartekorik exonomastikaren premiei modu antolatu eta sistematikoan erantzun betea emateko. Eta hezkuntzaren munduan ere ondo ohartuak zeuden gabeziez. Horren erakusgarria da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005ean Euskaltzaindiaren oniritziaraz plazaratu zuen *Onomastika* liburua, eskola-materialetan arlo horretan (neurri handi batean, Euskal Herritik kanpoko izenetan) zegoen arau-gabeziari aurre egin nahian.

1990eko hamarkadan emandako exonomastikako 13 arauak aski ez zirela oharturik, exonomastika lantzeari berrekin zion Euskaltzaindiak 2000ko hamarkadaren erdian, sistematikoki lan eginez, epe luzeko egitasmo argi batekin, arlo horretan euskarak zituen gabezia gehienak konpontzen saiatzeko. Gaur egun, zorionez, esan daiteke arlo hori dagoeneko aski ongi hornituta dagoela hala irizpidez nola adibidez, eta ia bukatutzat eman daiteke exonomastikako araugintza; lan txiki batzuk baino ez dira falta, eta noizean behingo eguneratzeak baino ez dira beharko aurretzean.

Euskalgintzak exonomastika lantzea eskatu zion Euskaltzaindiari 1994an, eta Akademiak, Leioako Biltzarraren amaierako adierazpenean, honela esan zuen: “Euskaltzaindiak argi utzi nahi du gizarteak eskatzen dionari erantzungo diola”.

Orain, 2022an, atzera begiratuta esan dezakegu hitzemandakoa bete duela. Obrak mintzo.

Alfontso Mujika euskaltzainaren Sarrera-hitzaldiari erantzuna

AZKARATE, Miren
Euskaltzain osoa

**Euskaltzaindia kanpora begira jarri zen...,
barrura begiratzeari utzi gabe**

Alfontso Mujikaren emazte, senide, lagunak; Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengarriko zinegotzi ordezkari eta lehen alkateordea, gaur Donostiako Udaletxeko Udalbatza Areto honetara hurbildu zaretenok, egun on guztioi.

Pozik etorri naiz gaur goizean zuen artera, pozik eta esker onez beterik. Izan ere, bereziki pozgarria izaten da euskaltzainen sarrera ekitaldietara etortzea. Zer esanik ez, etortzeaz gain, sarrera-hitzaldiari erantzuna emateko eginkizuna ere ezarrita badauka norberak.

Eskerririk asko, benetan, Alfontso, gaurko zure *bataio* honetan ama ponteko izatera gonbidatzeagatik. Saiatuko naiz ahalik eta zintzoen betetzen eskatutako lana.

«Euskararen alde orain arte egindako lanen esker-erakutsiz» dio, minutu gutxi barru jasoko duzun diplomak. Hemen zaudetenotatik inork zalantzarik bazuen, nahikoa izango zuen Alfontso Mujikaren hitzaldia arretaz entzutea, jabetzeko zein diren Euskaltzaindian euskararen alde egindako lan horiek. Ez dira, baina, euskararen alde egindako lan bakarrak; askoz lehenagokoak eta ugariagoak dira gaur sarrera-hitzaldia egiten duen euskaltzainaren ekarpenok.

Gure artean beste hainbatek bezala, Ingeniaritza alorreko ikasketak egin zituen Alfontso Mujika Etxeberriak. Baina euskarari, bereziki euskararen corpusa elikatzeari eskaini dio ikasketak amaitu ondorengo lana. Berehala etorriko zaizkigu gogora Ibon Sarasola, Andoni Sagarna edo Mikel Zalbideren izenak.

Eta gure artean beste hainbatek bezala, unibertsitate aurreko ikasketak amaitu ondoren ekin zion Alfontso Mujikak euskaraz ikasteari. Elebidunen artean euskara bigarren hizkuntza dutenak ugaldtu zaizkigun garaiotan, euskara L1 izan beharrik ez dagoela erakutsi du euskaltzain berriak euskalgintzan ekarpen ederrak egiteko. Ez da, bestalde, ez lehena, ez bakarra, gaztetan euskaraz ikasi eta euskaltzain oso izatera iritsi dena. Zorionez, euskal literaturan, euskalgintzaren munduan, bai eta Euskaltzaindian bertan ere, ez zaizkigu falta Alfontso Mujika bezalakoak.

Euskaraz ikasi orduko bideratu zuen bere jarduna euskararen mundura, AEKn lehenik, UEUn ondoren eta Elhuyarren azkenik. Hortxe hasi zen bere ekarpen nagusiaren lehen haziak eraiten: *Elhuyar* eta *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa* egitasmoetako lanak ikusaraziko zion zenbateraino den garrantzitsua exonomastika alorreko ikerketa. Bestelako eginkizunak ere izan ditu: *Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa*, ETBko *Teknopolis* programa, *Terminologia batzorde-atal bereziko* kidetza...

Baina onomastika eta exonomastika alorrekin lotzen dugu guztiok Alfontso Mujikaren izena; hala esango nuke, behintzat. Esparru horietantxe lan egin du Euskaltzaindian ere 2002. urtetik aurrera: Exonomastika batzordeko kide gisa hasieran, euskaltzain urgazle moduan 2006tik aurrera; eta 2016tik gaur arte, Onomastika batzordean ere bai, batzorde beregaina osatu baitzen urte horretan.

Euskaltzaindiak 1994az geroztik onomastikaren eta exonomastikaren alorrean egindako lanaren kronika bikaina biribildu du Alfontso sarrera-hitzaldi honetan. Kronika horrek erakutsi digu, besteak beste, nola lan egiten duen Euskaltzaindiak: tradizioa eta egungo erabilera oinarri harturik. Bi oinarri horiek izan ditugu gidari araugintzan, hiztegigintzan: beste batzuek egindako lana kontuan hartu, eta aurretiko lan horretan kontsentsua dagoenean, bide beretik aurrera egin.

1968an gure hizkuntzaren aldaera estandarra moldatzeari ekin zitzaionean ez bezala, gaur eragile ugari osatzen dute euskalgintza. Horien guztien eguneroko lanak ekarri du euskara gaur dagoen lekura. Eta lan hori aintzat hartzen duen Euskaltzaindia erakutsi digu Alfontso Mujikak bere hitzaldian.

Gramatika eta hiztegia jarri ditu erdigunean estandarizazio lanari ekitean. «Exonomastika, berriz, hizkuntzaren periferian dago, ez da hizkuntzaren ardatza», esan

digu. Baina hori esan ondoren, berehala nabarmendu du zer toki garrantzitsua duen exonomastikak hedabideetan, entziklopediagintzan (ederki sufrituko zuen forma normalizatuen falta 1990eko hamarkadan horretan ari zenean!), unibertsi-tateko ikasketetan... Nola idatzi, bada, Wikipediako artikuluak euskaraz, besteak beste, kanpoko izen horientzat forma estandarrik ez badugu? Areago, jatorriz alfa-beto zirilikoa idazten diren izenen beharra ere badugunez, horien transkripzio-rako irizpideak ere eman ditu Euskaltzaindiak. Euskara komunikazio-tresna izango bada, kanpoko pertsona- eta leku-izenak ere kontuan hartu behar ditugu.

Orain dela gutxi entzuna diot Jon Sarasuari, Lizardiren ametsa —«baina nik eus-kara larreakoa nahi haunat noranahikoa»— oraindik ere bizirik dagoela gure artean. Amets hori egia bihurtzeak, azaroaren 24an 40 urte bete dituen Euskararen Le-geak aitortzen dizkigun hizkuntza-eskubideak gauzatzeak, ezinbestean eskatzen du 1994tik hona arautu diren kanpoko izenen forma horiek guztiak estandarizatzea. Exonomastika, beraz, ez dago periferian. Gaurko gizartean, guztiz beharrezkoa zai-gu euskaraz jardun nahi badugu. Ez da harritzekoa, horretara, exonomastikak ho-rrenbesteko garrantzia eta pisua hartu izana Euskaltzaindiaren araugintzan: 2003 eta 2021 urte bitartean arau gehienak exonomastikakoak izan direla entzun dugu. Eta halaxe da, izan ere.

Arauekin batera, gainera, askotan, irizpide zehatzak ere eman zaizkigu. Adibide bat ekartzearen, astroen izenetan, esplizituki esaten da zer astro-motatan egokitzen den izenaren grafia eta egokitzeko irizpideak zein diren; eta zer astro-motatan itzultzen diren izenok.

Egia da, lan hori guztia ezin dezakeela lagun bakarrak egin. Alfontso berak aitortu du: «Beti gu izan gara, eta ez ni». Batzordeetan lan egiten dugu; talde-lana-ren emaitza eta fruitu dira arau-proposamenak, hiztegiko zerrendak, gramatikako kapituluak... Eta, hala ere, gure *Alfonen* zehaztasun eta zorroztasunarekin lotzen ditugu exonomastika eta onomastika arauetako argibideak.

Kanpora begira jartzeak, ordea, ez dakar barrura begiratzeari uzterik. Hala aitortu du gaur ofizialki hartzen dugun euskaltzainak hitzaldiari ipini dion izenburuan: *Euskaltzaindia kanpora begira ere jarri zen*. Hitzaldian entzun dugun bezala, arauen gaiak aztertuz gero:

- 31 arau eman dira idazkerari eta morfologiari buruzkoak;
- 19 sintaxiaren gainekoak;

- 4 aditza gai dutenak;
- 1 Euskara Batuaren ahoskera zainduaz.

Badira, bestalde, arau jakinez haragoko egitasmo mardulak. *Hiztegi Batua* egitasmo zerrendak oinarri hartuta, *Euskararen Hiztegia* landu da urte hauetan eta hilero-hilero ari gara zerbait gehitzen, osatzen. «Ari gara» ere esateko modu bat da; zintzoago litzateke esatea: Euskaltzaindiaren Hiztegia, Adierak eta Adibideak izeneko lantaldearen lan zorrotz eta finari ohar bat edo beste egiten diogula guk. Barrura begirako araugintza lan eskerga dago hor. Haugenek hizkuntza baten estandarizatorako aipatu zituen urratsetatik azkena, *elaborazioa* dago hor: «Hizkuntzaren barietate estandar arautua eguneratzea, aberastea eta komunikazio-funtzio guztietarako baliagarri egitea» (*Soziolinguistika hiztegia*), inoiz amaitzen ez den lana, hiztegia eta terminologia etengabe eguneratzea eskatzen duena.

Arau-emaile izan ez arren, *EGLU*ko 7 liburukiak begien aurrean izanda, *Euskararen Gramatika* (EG) ondu du Gramatika Batzordeak, bi liburukitan. Euskararen eta euskararen aldaeren orain arteko deskribapenik zabalena dago ia 2.300 orrialdetan jasoa.

Ez dira horiek, jakina, 1994tik hona egindako lan bakarrak. Baina berehala ulertuko duzue zergatik ekarri ditudan lerro hauetara Hiztegia eta Gramatika.

Izan ere, bereizketak eta sailkapenak baliagarri izaten zaizkigu askotan, baina ez dira konpartimentu estankoak izaten; sail bakoitza ez da bere baitan itxita eta bilduta egoten. Halaxe gertatzen zaio esku artean dugun gaiari ere: kanpora begirakoak, batetik, eta barrura begirakoak, bestetik, berezi arren, berehala jabetuko gara batak besteari eragiten diola, batak bestea moldatzen eta aberasten duela.

Zer ekarri diote kanpora begirako arauak barrura begirako lanei? Azken urteetako onomastika arauak onartzean, zenbat bider ez ote digute ohartarazi: «*tortso* ez dago *Euskaltzaindiaren Hiztegian*; *kuros* eta *kore* jaso gabe daude *Euskaltzaindiaren Hiztegian*; *zigurat* ere gehitu beharko litzateke!» (Eta araua onartu ondoren, sartu egin dira hiztegian). Hitz-sorta polita etorri da kanpora begirako arauetatik hiztegi-*ra* (aipatutakoez gain *mastaba*, *odeoi*, *estoa*, *kratera*...).¹ *Pepl*o, esaterako, oraindik ere ez da ageri sarean kontsultagai dagoen bertsoian.

*Euskararen Gramatika*n ere erraz antzemango dugu kanpora begirako lan horren ekarria, bai Morfologia Lexikoan eta bai Morfologia Funtzionalean.

¹ Beharbada horietakoren bat egongo zen araua onartu aurretik ere *Euskararen Hiztegian*, baina horrek ez dio baliorik kentzen hemen diodanari.

Eratorpen-atzizkiak aztertzean, *-(t)ar / -(d)ar* atzizkiaz esaten denak asko zor dio Onomastika eta Exonomastika Batzordeetan egindako lanari. Halaxe aitortzen da, aitortu ere, honako arauak aipatzeaz gain –38., 57., 99., 108., 142., 147., 178., 182., 187. eta 190. arauak—, honakoa esatean ere: «Bereziki interesgarria da 178. araua, kanpoko leku-izenei dagozkien herritar izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak ematen baititu. Azken arau honetan aurkituko ditugu irizpideak, noiz erabili aldaera edo alomorfo bakoitza» (EG, 5.3.1a-b). Areago, atzizki horren bidez eratorritako adjektiboak sortzeko irizpideak ez ezik, erabilera-irizpideak ere ematen ditu arauak (bai *jatetxe txinatar*, ez **kale gasteiztar*). Arauetako herri- edo etnia-izenak, dinastia izenak, hartu genituen adibideak ematerakoan: *bengalar*, *lareliar*, *mordoviar*, *makabear*, *ptolomeotar*, *justinianotar*, *teodosiotar*, *lancastertar* edo *hannovertar*, beste askoren artean (EG, 5.3.1c).

Zeharbidez, Morfologia Lexikoan zalantza- eta eztabaida-iturri izan ohi den beste auzi bati ere heltzen zaio; alegia, noiz baliatu mailegutaz eta noiz eta zein irizpiderekin sortu eratorriak. Horixe egin zen 174. arauan antzinateko herrien izenak modu sistematikoan normalizatzean; bai eta 182. arauan, dinastien izenei dagokienez. Esan gabe doa, antzinateko herrien eta dinastien izen horiek guztiek dutela beren sarrera *Euskararen Hiztegian*.

Hitz elkartu motak aztertzean ere, *Euskararen Gramatikan* jaso dugun *fino-hungariar* jatorri-adjektibo dvandvaren ondoan balukete lekua 178. arauko beste hauek ere: *afro-amerikar*, *albano-kosovar*, *anglo-normandiar*.

Izengoiti adierako izen elkartuak direla eta, haxe irakur dezakegu *Hitz-Elkarketa/1* liburuan: «Beren burua euskalduntzat duten askok eta askok (bizigunez, lanbidez edo adinez erdararen erasana gogorrago jasaten dutenek bereziki) nekez sortzen dituztela era honetako esaerak» (215. or.). 1987tik hona, zorionez, aldatu egin da egoera; zalantzarik gabe esan dugu *Euskararen Gramatikan* bizi-indarrrik ez zaiela falta gaur egun mota horretako egiturei. «Emankorrek gertatzen ari dira, gainera, pareko erdal izengoiti ezagunak euskaraz emateko orduan, Euskaltzaindiak arautu dituen pertsona-izenak aztertzean ikus daitekeen bezala: *Alberto Garailea*, *Alberto Artz(a)*, *Alberto Handia*, *Alfontso Ausarta*, *Alfontso Konkistatzailea*, *Alfontso Mendekaria*, *Alfredo Handia*, *Antso Azkarra*, *Dionisio Nekazaria*, *Eduardo Ele-ederra*, *Eduardo Zaharra*, *Erik Aizkora Odoldua*, *Erik Gorria*, *Karlos Gaztea*, *Rikardo Lehoi bihotz(a)* (erregea), *Federiko I Bizargorri(a)* (enperadorea), *Filipe Zuhurra*, *Fernando Zuzena*, *Artaxerxes Eskuluze(a)*, *Karlos II Burusoil(a)*, *Enrike Txori-ehiztari(a)*, *Juan Lurgabe(a)*, *Walter Landerra*» (EG, 7.2.9e). Adibide horiek guztiak jasotzeaz gain, oin-oharrean

erantsita dago, izengoitien zerrenda luzea aurki daitekeela 180., 181., 182., 186. eta 189. arauetan.

Bestalde, izen elkartu arrunt edo adjektibo elkartu egiturako izengoitizat hartu genituen arren (EG, 7.2.10), zuhurragoa litzateke, agian, aitortzea 189. arauko Ipar Amerikako tribuetako buruzagien izenek izen elkartu exozentrikoen artean dutela lekua, nahiz *Zezen Eseri*, *Bakegile Handi*, *Belatz Beltz* edo *Bele Txiki* ez izan, zehazki euskal tradizioko *oilobusti* edo *txoribururen* pare-parekoak. Datuak berrikusi eta birformulatzeraz garamatza kanpora begirako lanak.

Gramatika ia-ia kalean zela onartutako 193. arauak ere ondo asko hornituko luke, adibidez, «Aposizio egiturako izen elkartuak» atala (EG, 7.2.8), eta aberastu ere bai orain arteko egituren deskribapena, kontuan hartuta nolako egitura duen lehen osagaiak, osagai espezifikoak, hor ageri diren izenetan: *Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika*, *Inozenteen ospitalea*, *Askatasunaren estatua*, *Lehoien patioa...* Beste hainbat arautan ere badira, jakina, aposizio elkartuen adibideak: estatu izenak, munduko geografiako zenbait izen, mundu zabaleko uharte nagusien edo Europako toponimia fisikoaren izenak (ibai, aintzira, lurmutur, mendikate...) euskaraz nola eman ezartzen duten arauetan.

Eta, zer eragin izan du onomastikako araugintzak Morfologia Funtzional deritzogun horretan?

Postposizio-sintagmak aztertzean, Euskaltzaindiaren esana jasota dago *Euskararen Gramatika*n. Hau da, *-tik*, *-ko* eta *-ra* atzizkiak *-n*, *-l*, *-r*, *-s* edo *-z* amaierako leku-izen propioei eranstea, bi aukera ditugula, biak zuzenak: *Usurbiletik/Usurbildik*, *Zarautzetik/Zarauztik*, *Baztaneko/Baztango*, *Eibarreko/Eibarko* eta abar (EG, 20.2.1.1b-c). Baina bigarren puntu bat gehitu diogu orain arte esandakoari (EG, 20.2.1.1d):

Harrezkero ez du Euskaltzaindiak hasierako arau orokorra aldatua, baina onomastika eta exonomastika alorretako arauen harira, *Madrilgo Erkidegoa* (32. araua) eta *Afganistango Islamiar Errepublika* edo *Bahraingo Erresuma* (38. araua) formak eman zituen euskara baturako; eta ez *Madrilgo*, *Afganistaneko* edo *Bahraineko*. Euskaraz ere *Usurbilgo Udala* eta *Irungo Udala* dira izen ofizialak. Forma horiek *Usurbildik* eta *Irundik* aukeratzera eramango gintuzkete, nahiz *Usurbiletik* eta *Irunetik* ere euskaldun askok erabiltzen dituzten.

Halaber, *Agoizko*, *Agoiztik* formak gomendatzen ditu 155. arauan (6. oharra). Beraz, *Gasteiztik*, *Garestik* eta *Zarauztik* izango genituzke (eta ez *Gasteize*, *Garesetik* eta *Zarautzetik*).

Egia da, *Euskararen Gramatikan* esaten den bezala, «araurik ezean, ezin da esan gaizki daudenik bestelako formak», baina geuk ere *Usurbildik*, *Irundik* edo *Eibartik* formak eman ditugu postposizio-atzizkien tauletan.

Beste bi arau ere aipatu nahi ditut: 183. eta 184. arauak. Beste hitz batzuetan esanda: nola jokatu kasu-markak edo postposizio-atzizkiak gehitzean, *adierazpen izendatzaila* deitutako izenetan—Euskaltzaindia, Hezkuntza Saila, Elhuyar Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltel, Osasuna— eta erdal hitzetan —*hockey*, *cowboy*, *squash*, *Shakespeare*, *François*...—.

Batetik, entzun dugun bezala, *Euskadi Gazteako* esatariak ala *Euskadi Gazteko* esatariak, *Osasuneko* jokalaria ala *Osasunako* jokalaria behar duen jakiteko, «arauan luze-zabal aztertzen dira horrelako izendapenak, kasu-markak jartzean zer hartu behar den kontuan zehazten da, eta irizpide argiak eta askotariko adibideak ematen dira».

Bestetik, luze-zabal jorratuta daude erdal hitzen egiturak, bokal edo kontsonante amaieradunak diren, zein diren zalantza sor dezaketenak, eta ahozkoaren (ahozko ebakeraren) eta idatzizko formaren arteko lehian, ahoskeraren aldeko irizpide garbia eman digute.

Horiek guztiak ez dira, jakina, gramatika orokor batean sartzekoak. Baina ederki osatzen dituzte *Euskararen Gramatikan* ematen diren argibideak.

Eta, azkenik, ez dut aipatu gabe utzi nahi kanpoko izenen ahoskerari buruzko gomendioa, 158. araua, 1998an emandako «Euskara batuaren ahoskera zaindua» arauaren eranskin modukoa. Hemen ere 1998an esandakoak osatu, egokitu..., egiten dira kanpoko izenetara, izen horien etengabeko beharra dugu-eta gizarte honetan euskaraz jardutean.

Hitz batean, Hiztegia eta Gramatika osatzen eta aberasten lagundu digu kanpora begira jartze horrek. Alfontso Mujikaren beraren hitzetan, hizkuntza baten normatibazioa zurkaizten duten hiru oinarrietatik bitan (Mujika 2021: 254). Ez da harritzekoa, beraz, barrura begirako lanean ere eragina izan duen kanpora begirako lanaren arduraduna, *Euskara Batuaren Eskuliburuko* aholkulari zereginetan aritzea.

Kanpora eta barrura begira jardun ostean, barrura begira amaitzeko izango dira nire azken hitzak. Goraxeago aipatu dut, Alfontso esana dela hizkuntza baten normatibazioa hiru oinarritan zurkaizten dela: Ortografia, Hiztegia eta Gramatika. Baina, Arantzazun 2018an entzun genionez, “euskara batuaren aulkia hiru-

garren hankatik herren” zebilen; hau da, Ortografiaren hankatik... Herren horri sendabidea emateko, *desideratum* modura, *Euskara Batuaren Ortotipografia* landu beharra nabarmendu zuen, bai eta zehaztu ere zein liratekeen aztertu beharreko gaiak. Eta honela amaitu zituen bere hitzak: «*Euskara Batuaren Ortotipografia* noizko? Hogeita sei urte behar izan ditu Euskaltzaindiak Gramatika deskribatzailea egiteko, eta hogeita bost uste, berriz, Hiztegia egiteko. Ez ahal dugu beste hainbeste itxaron beharrik izango *Euskara Batuaren Ortotipografia* ikusteko!» (Mujika 2021: 265).

Azken Barne Jardunaldietan onartu zuen Euskaltzaindiak hurrengo lau urteetan *Euskara Batuaren Ortotipografia* (EBO) formulatzea. 2021eko urritik 2022ko martxora arte prestalanak egin ondoren, 2022ko apirilko osoko bilkuran izan genuen euskaltzainok esku artean 2024ko ekainera arteko lan-egitasmoa. Dagoeneko aztertu ditugu Laburdurak, Siglak eta Sinboloak atalak. Beste hamaika gai etorriko zaigu mahaigainera datozen hilabete eta urteetan. EBOren bozeramailea zein den asmatu ezetz! Alfontso Mujika.

Hasieran diplomaren lehen hitzak aipatu ditut, «egindako lanaren esker erakutsiz», baina isilik gorde dut bigarren parteak: «eta gerokoen pizgarri». Dagoeneko hasita zaude «geroko» lan horietan, pizgarri gerta dakizula, bada, diplomaren eta dominaren bidez egin dizugun aitortza. Urte askoan, Alfontso!

Erreferentziak

GRAMATIKA BATZORDEA (2021): *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.

LEF BATZORDEA (1987): *Hitz-Elkarketa/1*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MUJIKA, Alfontso (2021): «Euskara batuaren aulkia hirugarren hankatik herren», in A. Urrutia (arg.), *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018* (Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra). IKER bilduma, 40. Euskaltzaindia-Iberoamericana/Vervuert: 253-265.

Hilberri-txostenak

Pello Zabalaren hilberri-txostena (1943-2022)

AGIRREBALTZATEGI, Paulo
Ohorezko euskaltzaina

Pello (Pedro Maria) Zabala Bengoetxea, amezketarra, 1943ko ekainaren 2an jaio zen. Beste Bengoetxea hain ospetsuaren ondorengoa zen amaren aldetik: Pernaldo Amezketarrarena –eduki ere, zerbait baino gehiago haren bertsolari-senetik–. 2022ko otsailaren 2an hil zitzaigun, 78 urte eta zortzi hilabete betetzean doi-doi.

1953ko irailaren 15 hartan ezagutu nuen lehenbizikoz Pello Zabala: hamar urte zituen berak, hamaika bete berriak nik. Elkarrekin iritsi ginen Arantzazuko seminaria –garai hartan Kolegio Serafikoa izenekora–: bera Amezketatik Oñatira, eta handik Arantzazura, “Oñatiarra” autobusean. Erdibidean agertu nintzaien ni, Araoztik Urtiagainera oinez igota, ama eta arrebarekin, baserriko astoa lagun, neure fardelak eramateko. Bazen fraidetarako beste mutikorik ere autobus hartan, Arantzazun ikasketak hastera zihoanik. Gogoz eta umorez gogoratzen zidan Pellok lehen topaketa hura, bertan gertaturiko pasadizo xelebrea eta guzti.

Arantzazuko fraideetan ezagunenetakoa eta popularrena izan dugu Pello Zabala hainbat urtetan –Arantzazuko ikonoetako bat, zalantzarik gabe–. Arantzazu izan zuen, hain zuzen, bere bizileku eta txokorik maitatuena ia 70 urtez. Aurrenik mutikotan hiru urte bertan... Eta urte bi Foruan, urtebete Zarautzen eta beste hiru Erriberrin eman ondoren, berriro Arantzazun burutu zituen, lau urtez, fraide eta apaiz heziketa-ikasketak. 1966ko abenduan apaiztu zen. Urtebete eskas Bilbon eman ondoren, 1967an hasi eta ondorengo 23 urteak eman zituen Arantzazuko seminarioko hezitzaile eta irakasle, 1990ean hura itxi zuten arte. Ondoren ere Arantzazuri guztiz atxikita jarraitu zuen beste 32 urtez, hil arte: santutegiko organo-jole eta musikari, bertako liturgiaren girotzaile, irrati-telebistetan berriemaile eta solastari, hizlari eta idazle. “Txikitatik hain Arantzazuko eta hain Arantzazurako naizen honenek...”, idatzi zuen bere liburuetakoa batean.¹

1 *Zeruan zer berri*, Alberdania, Donostia, 2006: 90.

Hiru hitzokin aurkeztu ohi dute Arantzazu: NATURA (mendia eta ingurumen harrigarri osoa), KULTURA (ikastetxea, artea, literatura, musika) eta ESPIRITUALITATEA (santutegia: fraideak eta erromesak)... Hiru arlotan ageri zaigu Pello sentikortasun biziko, interpretatzaile (irakurle) bizkor eta jokalaria trebe. Dohain ugarikoa baitzen bera, eta mutikotatik baitzen bizitzako hainbat jokaleku ezberdinetan eroso ibili eta jardutekoa, berezko xalotasun eta erraztasunez.

Bertatik eta barru-barrutik bizi eta gozatu izan zuen Pellok Arantzazuko inguru naturalaren ederra eta aberatsa, bere bizi-jakinduriaren iturritzat hartuz gainera hori. Sentiberatasun hurbil-hurbilekoa zuen alor horretan Bitoriano Gandiaga, bere bizikide, lankide eta adiskide Arantzazun. Poetaren interprete egokienetako dugu, gainera, berak idatzitako “Bitoriano Gandiaga Arantzazun frantziskotar” idazlanean erakusten duenez.² *Argia, haizea, lurra, euria* eta *eguzkia*: Gandiagaren bizi-beharrari lotzen dizkio bost elementuok Pellok: “Bizi-konstanteak iraunkor itsatsiak behar ditugu bizirik irauteko -idatzi zuen-. Halatsu dira iraunkor tinko konstanteak Bitorianoren bizitzan aipatu bost horiek”. Gandiaga poetak bezala, ordea, Zabalak berak, naturaren behatzaile finak, ondorioz eguraldiaren aztertzaile eta meteorologo saiatu bihurtuak, bere bizi-konstantetzat ikusi eta sentitu ditu bost elementu naturalok: *Argia, haizea, lurra, euria, eguzkia*, bostak. Hamaikatxo irrati-entzulek jarraitu izan zituen urte askotan, irrikaz eta mirespenez, Pellok bere Arantzazuko talaiatik ematen zituen eguraldiaren argibideak eta aurreikuspenak.

Arantzazu naturala bizi, azertu, kontatu eta kantatzeaz gain, Arantzazu kulturala landu eta aberastu zigun Pellok, bertako kultur tradizioaren ildotik. Badu, hain zuzen, argitaraturik XX. mendeko Arantzazuko kultur gertakariei buruz eta bertako musika-historiaz artikulua bana.³ Kulturaren alor honetan aipatua dugu seminarioko irakasle lana: euskara, latina, gaztelania, eta frantsesa irakatsi zituen urte horietan; baita erlijioa ere; eta bere gai bereziagotzat, pianoa eta solfeo.

² Arantzazu, *Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz* (Jose Intxausti, zuz.), Arantzazu E.F., Oñati, 2003: 505-515; *Vidas memorables – Bizitza oroigarriak*, Arantzazu E.F., Oñati, 2009: 321-347 – *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean. Un santuario Vasco en el siglo XX* (Joseba Intxausti, zuz.), Arantzazu E.F., Oñati, 2001: 232-238.

³ Arantzazu, *Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz*, aip. lib., 445-464 eta 465-486 or. – *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean. Un santuario Vasco en el siglo XX*, aip. lib., 239-253.

Lan profesional horrekin batera, ordea, musikari eta idazle nabarmendu zitzaigun, baita hizlari eta irratiko eta telebistako ahots eta aurpegi ere.

Seminarioko mutiko guztiek hartzen zuten solfeo-eskola, eta horietako askok elizako koruan kantatzen zuten bertako elizkizunetan. Horrez gain, musika-tresnatan trebatu zen Pello: Arantzazuko lehen urtetik hasi zen pianoa ikasten; geroago harmoniuma eta organoa ikastera eta jotzera pasa zen –gure ikastetxeetako harmonium- eta organo-jotzaileetako bat genuen bera-. Eskusoinuan ere trebea zen –urte askotan ezaguna egin zen Pelloren irudia Arantzazuko Gabonetako “errondako” kantari-taldea animatzen, bere akordeoia eskuetan-. Musika-titulu akademikorik ez zuen atera nahi izan –inolako titulu akademikoren zale ez zenez-, baina bere bizitza osoan jardun zen musikaren alorrean: kantari, musika-jotzaile eta konpositore.

Konpositore titulurik ere ez zuen, baina hamaikatxo doinu berri eta polit sortu zuen; Arantzazun eta Arantzazutik kanpo abestu ohi dituzte horietako asko. Eliz kantetan 146 doinu behintzat kontatuak ditut, Pellok sortu eta landuetan. Nabarmenezkoa dugu berriro ere Pelloren lankidetzaren Gandiagarekin, kanta berrien konposizioan –testua Gandiagarena eta doinua Pellorena-: poetaren testu eta poemengain 130 bat doinu eta konposizio ditu sortuak. Gabon-kanta berri ugari argitaratu zituzten bien artean *Egan* aldizkarian, 1980ko lehen urteetan, gero *Gabon dut anuntzio* liburuan bildu zituztenak (1. edizioa 1986an, bigarrena 2010ean); era berean aipatzekoa da Gandiagak bere azken urteetan idatzitako erlijiozko gorazarreen bilduma, gero Pellok doinua ipini zienena (*Frantziskotar gorazarreak* tituluarekin argitaratuak, 2012). Pello Zabalaren eta Iñaki Beristainen –Arantzazuko fraidea hori ere-, bien arteko lankidetzaren estua ere aipatzekoa da, Vatikanoko bigarren Kontzilioaren ondoren elizako euskarazko hainbat kanta berri sortzen eta zabaltzen: batek testua eta besteak doinua. Azken batez, benetan goraiatzekoa da Arantzazuren lana oro har, erlijiozko euskarazko kanten errepertorioa aberasten, azken hirurogei urteotan.

Eta Pello Zabala euskal idazlea... Hamar-hamaika urteko mutiko zela nabarmendu zen Pello, beste ikaskide guztion artean euskarazko eskolan: Karmelo Iturria eta Luis Villasante, irakasle. Hamazazpi urterekin, Erriberriko filosofiako ikasleon *Gure Izarra* izeneko barne-aldizkaritik hasi –olerkiak eta filosofiako gaiak-, *Jakinen* jarraitu Arantzazun –besteak beste, Fernando Amezketarrari buruzko pare bat artikulua-, eta ondoren beste hainbat aldizkaritan –*Arantzazu*, *Ardatz*, *Egan*, *Habe*, *Zeruko Argia*– argitara eman zituen bere idazlanak. Bereziki seinalatzekoa *Arantzazu*

aldizkarian hainbat urtetan argitaratu zuen artikulu saila, “Naturan” izenekoa, ekologia alorreko gaiak jorratuz: Arantzazuko bertako animalia eta hegaztien, landare eta zuhaitzen, eta bertako eguraldiaren gorabeherak kontatuz eta kantatuz. Bere bloga ere landu zuen *Berria* egunkarian: gaien artean Vatikanoko II. Kontzilioari buruzkoak ere erabili zituen, gero paperean argitaratuko zituenak, *Joan XXIII.aren Kontzilioa Frantziskoren garainako*. Pello Zabala “blogariaren” hegaldiak tituluarekin.

Orain arte aipaturiko hiru liburuez gaiz, beste dozena erdiren bat eskaini zizkigun Pello Zabalak, eguraldiari eta meteorologiari buruzko gaiak herritarrei eskuratzuz. Adierazgarriak dira horien titulu gehienak: *Naturaren mintzoa*, *Zeruan zer berri*, *Harkaitzaren magalean*, *Mendiko behatokia...* UEUn, EHUn eta herri askotan emandako hitzaldi eta ikastaldi gehienak ere alor beretik dabilta. UZEIko *Meteorologia hiztegia* lantzen ere bere partaidetza eskaini zuen.

Eta Pello musikariarengana itzuliz, seinalatzekoa da beraren partaidetza UZEIko *Artea hiztegia*n. Izan ere, musikaria izatearekin batera, musikologo eta musika-kritikari ere jardun baitzen bera, eta musikaren historiaz idatzitako artikuluez gain, hitzaldi bat baino gehiago eman zuen horretaz UEUko ikastaroetan. Ezagunagoa izan zen, ordea, Euskadi Irratian hogeita bat urtez (1983-2004), egunez egun, zuzenduriko *Klasikoak Gaur* musika emanaldiengatik.

Irakasle, musikari, idazle eta hizlari ez ezik, kazetari oparo eta arrakastatsua izan zen Pello Zabala –2006an Andoaingo Udalaren Rikardo Arregi saria jaso zuen–. Ia berrogei urtez (1985-2022) “Arantzazuko talaiatik” jardun zen eguraldiaren berri ematen eta bere iragarpenak eskaintzen: Euskadi Irratiaren haritik batez ere, baina baita Radio Euskadi, eta Segura, Xorroxin eta Egin irratiaren haritik ere –lehenagotik hasia zen Arantzazuko zentro meteorologikoko datuak egunez egun bildu eta Donostiako Meteorologia Zentrorra bidaltzen–.

Meteorologiaren jakintzaz (zientziaz) gain, meteorologiaren jakinduria ematen asmatu zuen bere saio eta idatzietan, meteorologia ez baitzuen Pellok eguraldiaren datu gordinak jaso eta horien berri ematea soilik; naturaren barruan bizitzeko modutzat hartzen zuen berak bere lan hori. Tenperaturaren, hezetasunaren, eurriaren, haizeen eta bestelako datu gorabeheratsuez harantz, naturaren zantzuak bilatzen zituen, natura ulertu eta bizitzeko. Haren liburuetakoki bati egindako sarrean Joxerra Garciak dioen bezala, “meteorologia, zientzia hutsa bainoago, Natura ulertzeko modu bat da Pellorentzat, eta ez dago Natura ulertzerik haren ahotsa arretaz entzun gabe”.⁴ Horregatik hitz egiten du sarritan Naturaren “mintzoaz”,

⁴ *Zeruan zer berri*, aip. lib., 11.

Asisko Frantziskorengandik eta frantziskotar espiritualitatean ondo ikasita. Esan dezagun, meteorologiaren atzean espiritualitate-modua dagoela harentzat; horixe komunikatzen saiatu zen, eguraldiaren albiste eta aurreikuspenak eskaintzearekin batera. Agian espiritu horixe hitz errazez eta hizkera lauz eta biziz komunikatzen zuelako, eduki zuten halako arrakasta haren parte meteorologikoez, bere Arantzazu mendiko talaiatik eskainiek.

Arantzazun Arantzazuko fraide bizi izanik, bertako Andre Mariaren santutegiko espiritualitatearen osoan integratu zuen ondo Pello Zabalak izadiaren bere espiritualitatea. Aipaturiko eginkizun ugari eta lan guztitarikoez batera, basilikako liturgiaren zerbitzuan jardun izan zen fin: elizkizun-zuzentzaile eta organistaz gain, bertako hizlari ere bai. Ezagunak izan ziren, bestalde, urte askotan irrati bidez eskaini eta gidatu izan zituen mezak, eta beraietako hitzaldi atsegin-biziak. Alor horretan ere material piloa landu eta idatzi zuen. Hil baino urte gutxi lehenago eskuratu zidan horrelakoen karpeta mardul bat baino gehiago, ea argitaratzeko bidea irekitzen nien. Zain daude...

Euskara izan zuen Pello Zabalak bere komunikazio eta laneko hizkuntza erabat nagusia. Idazkeran bezala hizkeran, liburuetan bezala irratiko saioetan, bere estilo bere-berea erakutsi zigun Pello Zabalak: berezkoa eta librea, formalismo gramatikal eta lexikal estuak hautsiz batzuetan, herri euskararen ahozko forma jatorrak bereganatuz maiz, irakurle eta entzulearekin solasean. Erraz eta atseginez irakurtzeko edo entzuteko testuak ditugu Pellorenak, irudiz eta metaforaz jantziriko prosa bizian idatziak. Euskara “airosoa” Pellorena, berak hain maite zuen adjektibo hori beraren estilo literarioari egokituz.

Horra Pello Zabala Bengoetxearen ekarri aberatsa. Horren aitortzen izendatu zuen Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain 2018ko azaroaren 23an.

Pello Zabalaren bibliografia aukeratua

Liburuak

Naturaren mintzoa. Egunez egun, sasoién gurpilean, Alberdania, Irun, 2000.

Zeruan zer berri. Arantzazuko talaiatik eguraldiari begira, Alberdania, Irun, 2006.

Mendiko behatokia, Alberdania, Irun, 2009.

Eguraldia beti airean, Euskal Editorea SM, Arrigorriaga, 2009.

El tiempo. La meteorología al alcance de todos, Txertoa, Donostia, 2009.

Harkaitzaren magalean, Alberdania, Irun, 2010.

Gabon dut anuntzio, Soinuz eta kantuz (2. edizioa) (Testuak: B. Gandiaga; harmonizazioa: J. L. Atxega; irudiak: X. Egaña; ahotsak: Pello Zabala, Edurne Agirre, Migel Noble, etab.), Arantzazu E.F., Oñati, 2010.

Frantziskotar Gorazarreak (Testuak: B. Gandiaga), Arantzazu E.F., Oñati, 2012.

Joan XXIII.aren Kontzilioa Frantziskoren garairako. Pello Zabala "blogariaren" hegaldiak, Arantzazu E.F., Oñati, 2013.

Natura labur mintzo, Alberdania, Irun, 2019.

Artikuluak

"Ama birgiña Euskal Errian", in: *Gure Izarra* 11 (1960) 344-347.

"Euskal jantziak", in: *Gure Izarra* 15 (1962) 103-108.

"Tomas deuna-ren bost bideak", in: *Gure Izarra* 15 (1962) 33-39.

"Pernando Amezketarra", in: *Jakin* 17 (1964) 3-8.

"Europa'ren batasuna 1700'ean", in: *Jakin* 16 (1964) 89-96.

"Pernando dala-ta", in: *Jakin* 16 (1964) 29-31.

"Mi tatarabuelo Fernando Amezketarra: Sucesidos y ocurrencias, in: *Enciclopedia Guipuzcoana*, 1964.

“Klima aldatzen ala endredatzen”, in: *Ura eta bizia. Agua y vida. Naturaren ihardunaldiak. Jornadas de Naturaleza en Tolosa* (mahai-ingurua), Centro de Iniciativas de Tolosa, 1997: 17-25.

“Santutegiko kultur gertakari nagusiak”, in: *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean. Un santuario vasco en el siglo XX* (Joseba Intxausti, zuz.), Arantzazu E.F., Oñati, 2001: 232-238.

“Santutegiko gertakari kulturalak”, in: *Arantzazu. Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz* (Joseba Intxausti, zuz.), Arantzazu E.F., Oñati, 2003: 445-464.

“Musika Arantzazun”, in: *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean. Un santuario vasco en el siglo XX*, aip. lib., 239-263.

“Musika eta musikarien historia”, in: *Arantzazu. Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz*, aip. lib., 465-486.

“Bitoriano Gandiaga Arantzazun Frantziskotar”, in: *Arantzazu. Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz*, aip. lib., 505-515; *Vidas memorables. Bizitza oroigarriak*, Arantzazu E. F., Oñati, 2009: 321-347.

“Arantzazuko mendiak” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2008 urtarrila, 46-47.

“Natura naturala” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2008 otsaila, 46-47.

“Natura librea” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2008 martxoa, 46-47.

“Udazken lurrinak” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2008 abendua, 46-47.

“Nire lagun zuhaitzak” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2009 urtarrila, 44-45.

“Negutik begira” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2010 abendua, 46-47.

“Euria ongarrri” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2012 urtarrila, 44-45.

“Pinguino bat hemen” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2014 martxoa, 46-47.

“Gaztaina” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2014 abendua, 46-47.

“Oinazearen izenean” (‘Naturan’ saila), in: *Arantzazu*, 2015 ekaina, 46-47.

Kanta eta musika konposizioak

“Agur, Zuri, gurutzeko” (Testua: B. Gandiaga), in: *Kanta dezagun. Pazkoa*, 1988: 56-57.

“Aizkorriko puntan” (Testua: B. Gandiaga), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Nazareteko Jesus gurutziltzatua” (Testua: B. Gandiaga), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Sinesten dut bizitza” (Testua: B. Gandiaga), in: *Kanta dezagun. Pazkoa*, 1988: 57.

“Elgea mendiko”, (Testua: B. Gandiaga), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Agur, Maria Belengo” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 100.

“Gabon dut anuntzio” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 102.

“Gabon bakoitzeko” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 106.

“Zorion, zorion, zorion” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 38.

“Berrionaren berri emaile” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 48.

“Agindu eta eman” (Testua: B. Gandiaga), in: *Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz*, Arantzazu E. F., 2010: 56.

“Kruxku xaguak” (Testua: B. Gandiaga), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Dezagun argia piztu” (Testua: B. Gandiaga), in: *Kanta dezagun. Urtean zehar*, 1995: 16.

“Hemen, / euskeraz ez dakianak” (Testua: B. Gandiaga), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Ura, ura” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.

“Bakearen zoriontasunak” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.

- “Igandea bizi” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Sinesten dut, Jauna!” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Urrundik nator” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Arantzazuko Magnificat” (Testua: Iñaki Beristain), in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Aintza Aitari”, in: *Kanta dezagun. Pazkoa*, 1988: 62.
- “Agur Zuri”, in: *Kanta dezagun. Pazkoa*, 1988: 56-57.
- “Jaunaren maitasuna”, in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Berri on, aleluia”, in: Arantzazuko Artxiboa.
- “Zerurako grina”, in: Arantzazuko Artxiboa.

Pello Apezetxearen hilberri-txostena (1932-2022)

IÑIGO ARIZTEGI, Patxi
Euskaltzain urgazlea

Pelloren izaera eta nortasuna hitz gutitan laburtuz, erranen nuke lider izan zela, ekintzaile eta sustatzaile arlo aunitzetan, hala nola, eliz lan eta eginkizunetan, herri mailan, kulturari, ikerketa lanetan eta, bereziki, euskararen babeste eta sustatze lanetan. Eta azken eginkizun horretan zuen jarrera aktiboa eta positiboa erakutsi zuen eta, borrokalaria, batez ere, sortzen zitzaizkion zailtasun eta eragozpenak gainditzeko.

Pello Apezetxea Goizuetan jaio zen 1932ko ekainaren 24an. Hamaika urterekin Iruñeko Seminariora joan zen eta han apez ikasketak burutu ondotik, 1955ean apeztu zen.

Hamar urtez Etxarri Aranazko apez laguntzaile izan zen eta hango organista. Gainera, abesbatzaren sortzaile eta arduradun ere bai. Eta bertze apez lagunak eta berak parrokiako zinema antolatu eta kudeatu zuten, garai hartan arrakasta handia izan zuena herrian eta inguruan.

Gero, 1965ean, Etxalarko erretore izendatu zuten eta han egon zen 57 urtez, hil zen arte. Hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan Iruñeko Elizbarrutiko Presbiterio Kontseiluko kide izan zen 15 urtez, Elizbarrutiko Mendialde eremuko apezpiku bikarioa 4 urtez eta Bortzirietako artzapez 10 urtez.

Osasun arazoak izan zituen. Gazte zenez geroztik urdaileko ultzera zeukan eta ebakuntza egin zioten; handik aitzina hagitz begiratu behar izan zion bere buruari eta jatekoari bereziki. Horrez gain, 1981ean bihotzeko larria izan zuen, baina bere burua zainduz eta sendagileen aholkuei jarraituz, gorabeherak gorabehera, bizitza nahiko duina eramanez ahal izan zuen. Osasun arazo horien ondorioak, batez ere bere irudian eta argaltasun fisikoan ziren nabari.

Baserritarren aldeko lana

Elizako lanez gainera, herriaren arazoez ere kezkatu zen hasieratik eta, lan handia eta jarraitua egin zuen herriaren alde.

Urrutiko baserriek bide estuak eta txarrak zituztela eta batzuek argindarrik ere ez zutela jakinik, 1969an bi arazo horiek konpontzeko tramiteak egiten hasi zen. Lortu behar ziren baimen guziez arduratu eta 1970ean pistak egin zituzten; ondoren, 1970-1973 urteetan argindarra ere sartu zuten baserri guzietan. Gero telefonoa sartzera animatu zituen baserritarrak.

1974an, Usoa kooperatiba sortzen lagundu zien nekazariei. Hasieran 50 bazkide elkartu ziren, denak baserritarrak. Eta 12 urtez bi etxetan izan zuten bildegia. 1987an deliberatu zuten herriko sarreran orain ikus daitekeen egoitza egitea. Denborarekin herritarrak ere sartu ziren Usoara eta gaur egun 140 bazkide ditu. Denak ados dira aitortzean herritarren artean elkartasun handia sortu zuela kooperatibak.

Herriaren aldeko lana

Herrian ere arlo aunitzetan egin zuen lan.

1972an, txistua irakasten hasi zen txistulari izan nahi zutenei, eta horrela segitu zuen hainbatetan eta hainbati eskola eta aholkuak ematen hurrengo urte luzeetan.

1988an, Larraburua etxean jubilatuentzat egoitza egitea bultzatu zuen eta goiko solairuan bi bizitza prestatu ziren, bakarrik bizi zirenei edo moldatzeko zailtasunak zituztenei han bizitzeko aukera emateko.

1991n, egoitza berean eta beheko solairuan Larraburua Jubilatuen Elkarte sortu zuen adinekoek biltzeko eta elkarrekin egoteko modua izan zezaten. Bertan dago *jubiloteca* deritzona, non yoga, gimnastika erritmikoa eta horien gisako ariketak eskaintzen baitira. Aldika otorduak egiten dituzte bazkideek eta noizbehinka mendi irteerak eta bidaiak ere bai.

Urte berean, 1991n, Altxata Kultur eta Kirol Elkarte sortu zen, euskara eta euskal kultura indartzeko helburuaz. Eta Pellok elkarte honi ere lan egiteko adore eman zion. Bere egitekoen artean daude, urtean zehar Gasna Feria, Etxalarko

Mendi Itzulia, Usategiko Igandea eta antzeko ekitaldiak antolatzea eta laguntza eskaintzea. Horretaz gain, dantza eskola emateaz, pilota txapelketak antolatzeaz ere arduratzen da elkarte hori.

Artxibo lan eta argitalpenak

Artxibo ikerketa handia egin zuen eta lan ederrak argitaratu herriko historiaz, toponimiaz, oikonimiaz eta abarrez. Horrela:

1985ean, «Etxalarko etxe eta baserrien izenak»¹ lan diakronikoa. Geroago, 2009an, Patxi Salaberri euskaltzainarekin batera lan hori sakonago eta osatuago *Etxalarko etxeen izenak* liburu bikainean argitaratua izan zen, etxe izen bakoitzaren azalpen, argazki eta bertze emanez.

1997an, Nafarroako Gobernuak argitara eman zuen bere «Etxalarko toponimia» lanaren bilketa.²

1999an, «Etxalarko usategiak».³ Etxalarko ehiza bereziaren berri eman zuen: antolakuntza, arautegia, nola egiten den, zer nolako tresnak erabiltzen diren, eta azkeneko bi mendeetan sortutako gorabeherak, muga aferak ere jaso zituen horretan.

2006an, *Bi erreka arteko Andre Maria Eliza*. Liburuxka honetan, XVI. mendetik gaur arte Etxalarko elizaren eraikuntzaren eta urteetan zehar izan dituen aldaketa eta egokitze lanen berri eman zuen, baita irudiak nork eta noiz eginak izan ziren ere.

2009an, *Etxalarren historiako zenbait jakingarri* liburua atara zuen. 800 eta 1600 urteen artean Etxalarren izandako berri batzuk eman zituen eta nabarmendutako herritar batzuk aipatu. Baina, batez ere, XVI. mendetik gaur arteko informazioa dakar.

2016an, *Etxalarko kronika eta kontakizun zaharrak* liburuan Teodoro Arburua, Etxalarko semea eta 1918an euskaltzain urgazle izendatua izan zenaren idatziak bildu zituen eta zenbait azalpenekin osatu.

Urte berean, 2016an alegia, *Etxalarko hilarriak* argitaratu zuen. 1987an elizako biltegiko zolan lan batzuk egiten ari zirela, lehen-lehen kanpoan egondako 75

1 *Fontes Linguae Vasconum* 45: 183-203. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

2 *Nafarroako Toponomia eta Mapagintza* 49: 121-169. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

3 *Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra* 53: 137-177. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

hilarri aurkitu zituzten. Gaur egun elizako sarrerako lorategian daude, herritar eta kanpotar aunitzen gozamenerako. Horiei hilerrian eta bertze toki batzuetan daudenak erantsiz gero, 100 inguru ikusten ahal ditugu Etxalarren. Nafarroan hilarri gehien dituen herria da. Vidal Pérez de Villarreal adituaren ezinbertzeko laguntza izan zuen, batez ere sailkatzeko, noizkoak ziren jakiteko eta marrazkiek zer adierazten zuten argitzeko. Gainera, Vidalek hilarri bakoitzaren ezaugarriak zehaztu zituen, hala nola marrazkiak, forma, altuera eta lodiera adierazi. Pelloren liburuan datu horiek eta bertze hainbat azalpen ageri dira.

Euskara eta euskalgintza

Zalantzarik gabe, euskara eta euskalgintza izan zen Pelloren lan garrantzitsuena. Izan ere, euskararen babeste eta sustatze lanetan erakutsi zuen etengabeko parte hartze aktiboa eta jarrera positiboa.

Euskara jasoan aritu ahal izateko, bere buruari helburu zehatz eta zorrotzak jarri zizkion eta, bertzeak bertze, EGA titulua eskuratu zuen.

1975ean, alfabetatze irakasle izan zen Lesakako gau eskolan eta bortz urtez ari izan zen lan horretan. Hurrengo bertze bortzetan, Etxalarko gau eskolan. Ondorengo lau urteetan, AEKrekin alfabetatze eta EGArako prestatze lanetan, eta bertze lau urtez IKArekin lan berean.

1976an, Bide Ona izenburupean, ikastola sortu zuen 3, 4 eta 5 urteko haurrentzat, eta hasieran bera izan zen buru eta gero laguntzaile. Urte berean, eskola publikoko haurrei, gelako orduen ondotik, euskarazko eskola ematen hasi zen eta hiru urtez segitu zuen lan horretan.

1985ean, Euskal Elizan Euskaraz apaiz taldeko bultzatzaile eta gero kide izan zen.

1987an, eskola publikoan D ereduaren sartzen hasi ziren eta horretan ere bultzatzaile izan zen; bi urte geroago ikastola eskola publikoan integratu zen.

1989an sortu zen Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta egitasmo horretan ere sustatzaile sutsu eta kide dugu Pello. Eta legeztatua izan zenetik, Aholkulari batzordeko kide eta, aldi berean, Etxalarko Euskara batzordeko kide.

Ttipi-ttapa hamaborzkarian ere lan handia egin zuen. 1990etik 2002ra Etxalarko berri emaile izan zen. Gainera, Ttipi-ttapa Fundazioko kide, hura sortu zenetik, eta

1997az geroztik Fundazioko presidente, hil zen arte.

Haren lanik oparoena, komunikabideetan ehunka idatzitako iritzi artikulua dira. *Euskaldunon Egunkarian*, itxi zuten arte, 65 idatzi zituen eta gero *Berrian* jarraitu zuen.

Herria 2000 Eliza aldizkariko argitalpen guzietan idatzi zuen bere zutabea 20 urtez, azkenekoa argitaratu zen arte.

Tipi-ttapan ere idazten zituen iritzi artikulua. Eta gainera, *Egin* eta *Gara* egunkarrietan, *Argia* astekarian eta *Karmel* aldizkarian ere bai.

Artikulu horietan garbi ageri da, Pelloren kezka handiena euskara zela. Aunitzetan euskara du gai nagusia eta, gai nagusia ez denetan ere, gehienetan euskararekin ikustekoa duen aipamenen bat aurkituko dugu.

Hala maiz kritika gogorra eta zorrotza egiten dio Elizari, batez ere hierarkiak Nafarroan erakusten duen euskararekiko jarreragatik. Frankotan agintari politikoei ere bai, arrazoi berarengatik.

Eta Euskaltzaindian gaudenez gero, aipagarria da, Euskaltzaindiaren Jagon sailak «Eliza eta euskara» izenburupean lurraldeka antolatu zituen jardunaldietan, Pellok, 2003ko irailaren 19an, Irunberrin hitzaldi gogor eta zehatza eskaini zuen, gero «Elizako euskararekiko jarrera Nafarroan» izenburupean *Euskera* agerkarian argitaratu zena.⁴

Euskaltzaindiak, 2007an, Etxalarren egin zituen XV. Barne Jardunaldien amaierarako antolatu zuen Ageriko bilkuran, bertako bi seme gogoratu eta omendu nahi izan zituen, eta Pello arduratu zen honako hitzaldi hau emateko: «Bi etxalartar Euskaltzaindiaren sorreran: Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar».⁵

Euskal gizarteak ohoratua eta omendua

Euskararen alde egindako lan handia kontuan hartuz, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen 2004an.

Etxalarko Altxata Kultur eta Kirol Elkarteak 2011n bere 20. urteurrena ospatu

⁴ *Euskera* 48, 2003, 2: 769-787. Bilbo: Euskaltzaindia.

⁵ *Euskera* 52, 2007, 1: 283-290. Bilbo: Euskaltzaindia.

zuenean, Pello omendu zuen eta egun hori baliatu zuten esker ona agertzeko: baserritarrek, Txistulari Elkarteak, Usoa kooperatibak, eskolako gurasoek, Gau-eskolak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Etxalarko Euskara Batzordeak, *Ttipi-ttapa* aldizkariak, ehiztarien elkartekoek, Etxalarko kantariak eta ekitaldira gonbidatua izan zen Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak. Bereziki kultura arloan, euskara babesteko eta sustatzeko izan zuen etengabeko parte hartze eta laguntza eskertu zioten eta «beti ondoan eta ez gainean» egon izana balioetsi.

2015ean, Etxalarren 50 urte zeramatzala ospatzeko, Etxalarko herriak ere antzeko omenaldia antolatu zuen eta orduan ere herri guziak hartu zuen parte.

2018an, Iruñeko Udalak eta Olentzeroren Lagunak Elkarteak Txondorra saria eman zioten, «herri kulturaren ikerketan eta zabaltzean egindako lana eskertzeko».

Etxalarko Udalak berak herriko kultura etxeari *Pello Apezetxea Kulturgunea* paratu dio izena, herriaren alde egin zuen lan oparo eta anitzaren oroitzapena etorkizunean ahantz ez dadin.

Adio, Pello laguna. Hartzak gure aitortza eta maitasuna!

Iñaki Segurolaren hilberri-txostena (1962-2022)¹

LAKARRA, Joseba A.

UPV/EHUko katedraduna eta euskaltzain osoa

1. Iñaki hil eta ondoko egunetan eta are asteetan izan ziren mezu ugari eta hain ezberdinek garbi erakutsi zituzten era askotariko jendearekin izandako harreman, elkarreragin eta esperientzia partekatu arrunt diferenteak. Horregatik eta egokitu zaidan —neuk onartu dudana— egitekoan deblauki sartu baino lehen, iruditu zait on zatekeela gaztigitzea hemen aipatuko dudana «Iñaki», izan edo aurkez litezkeen «Iñaki» anitzetarik bat dela, neuk irudikatua edo ezagutua, edo neure hurbilekoek zuzen edo zeharka hartaz irakatsia.

Segur naiz edozeinek edo batek baino gehiagok bai, bederen, badukeela zer erants eta zer ken edo hainbat egokitu edo nahikoa aldatzekorik hemen eman den iruditik edo «errelatotik», horrelakorik osatzea lortuko banu.

Iñakik berak zioenez, sektakide izatekotan nahiago zuen hainbat sektatako izan, ez bakarreko eta, beraz, esan dezadan haren sektak eta nireak soilik zatika letozkeela bat edo, hori ere askotxo baita seguruenik, zenbait aldiz zangalatrauan zirela behintzat.

Esan ohi da pertsona bakoitza mundu bat dela, eta hori aitortzen duenak aitortuko ere du, Iñakiren mundua gutariko askorena baino aberatsago, ñabarrago eta definitzen zailago dela. Arantxa Iturbek zioen bezala: «Nahiko nitek hiri aditutakoak lerrootara ekartzeko hire graziaren laurdena, graxia erdipurdiko honen orde. Imitatuko nitizkek konplizitatez hire hitz berriak, *lixtoustekoarena* eginez, hi bezain libre banintz, nori gustatu edo ez gustatu asko axola gabe. Partituko nitek egurra ezker-eskubi, jarriko nitek zalantzan dena, kritikatu modernokeria, artaldekeria eta *motzeria* (eta intelektualak, eta etimologoak eta...)... Ezin leizken gauzak».²

1 Testua osatzen lagundu didaten Iñaki Camino, Ane Loidi, Julen Manterola eta Blanca Urgelli eskerrak eman beharrean nago; baita hori asko txukundu duten HIZBEAkoiei ere. Ez batzuek ez bestek ez dute, ordea, gelditu bide diren akatsen errurik.

2 Arantxa Iturbe: «Juxtu gaurkoa al huen?», *Berria* 16/04/2022.

Horrenbestez, bestelako edo oso bestelako ikuspegia duketen Iñakiren senide, ezagun, lagun eta adiskideei nire eskasia eta ausardiagatik barkamena alde zurririk eskatu ondoren, lotuko natzaio neure egitekoari.³

2. Iñaki Azepeitian jaio zen 1962ko martxoaren 8an. Huntaz eta hartaz aritzea beti gustuko zuen eta bere jaiotegunaz ere harrotasun edo zirikatzaile punttu batekin entzun izan diot inoiz, berari inork gutxik (*gizon* edo *gizonen* arteko inork, bederen) abantailarik eraman ahalko ziola feminista izateko bidean. Antonino Seguirola eta Maria Luisa Amutxastegi zituen gurasoak, fabrikako langilea hura, etxeandrea hori, Iñakik behin baino sarriago aipatu ohi zituen miresmen handiz eta are harrotasunez. Anaia Joxe Marik Ekonomia eta Filosofiako ikasketak egin zituen EHU, eta euskara irakasle eta idazle hura ere, bizi du oraindik eta baita Garbiñe Larrea andre-laguna ere; Olatx arrebagaia jaio berritan hil zen, baina haren oroitzapena ez zuen inoiz ahaztu, bere lehen saio-liburuko eskaintza ederrak lekukotzen duen bezala.

Lehen ikasketak Azepeitian egin zituen, eta, adinkide hertsia izan dudanez, orduantxe asmatua zuten OHO (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) estreinatuko zukeen eta baita, halaber, gero BBB (Balioanizdun Batxilergo Bateratua) eta COU edo UBI (Unibertsitateko Bideratze Ikasturtea) berria ere.

3. Unibertsitateko ikasketak 17 urterekin abiatu zituen 1979-80 ikasturtean, oraindik urte horretan Bilboko Unibertsitatea zen Valladolidekoaren eranskin izandako Arabako Unibertsitate Ikastegian; zehatzago, Arabako Diozesiak dirutan utzitako eta ordurako apaizgaiez hustua zen Seminarioaren alderdi batean. Egungo Letren Fakultateak duen —eta orduantxe «Filologia eta Geografia-Historia» deitzen hasi zen Fakultatearen— egoitza berria 1987an amaitu zen (Iñakik Euskal Filologia bukatu eta hiru ikasturte geroago), beste askok legez gure aitak Arakara baino lehen «kanpamentua» egin zuen aspaldiko Flandes Erregimentuaren kuartel berrituen aldamenean. Ni ere 1979-80 hartan iritsi nintzen Gasteiza eta ikasketa

³ Garbiñe Larreak bizi-bizi zioen bezala: «Nahi nitek bidea samurra izatea, baina bizi hau ulertzen ez zegok erreza. Lasaitzen natxik hirekin ikasitakoak: ulertzea gainbaloratua dagoela, poesia ere ez dela dena ulertzen, badela eremu lauso bat, gauza gai *deskribasmatuen*, ez-definituen eremua. Ba, nire biziak ere izango dik eremu lauso horretatik dexente».

berak egitera, baina ikastaroak hasixeak zirenean egin genuen elkarren ezagutza, L eta S hasiera-letradun deituretakoak ikasgai zenbaitetan talde diferenteetan kokatu gintuztelako edo. Halere, lehen urte hartako euskarazko ikasgai bakarrean biok genuen irakasle bera, literaturaren historian aditua eta orduantxe Hegoaldeko testu zaharren lexikoaz tesia amaitzen ari zen Ibon Sarasola azpeitiar injineru donostiar-tua. Ibonek literatura modernotik linguistika formalera eta ondoren ohiko filologiara bidea egina zuen —praktikan ikastaroa euskara eta euskal filologiazko sarrera genuen— eta haren nortasunak eta eskolek —nahiz une batean, hobe beharrez, denbora ez galtzeko bibliotekara bidali gintuen biok— ukitu eta erakarri gintuzten ondoko ibilbidean, usu geuk horrela ez aitortu arren.

Bigarren urtean ere (euskal gramatikari egokitu ikastaro zoragarrian) beste irakasle azpeitiar iritsi berri bat izan genuen, Patxi Goenaga, alegia. *Gramatika bi-deetanen* bi edizioen arteko ikastaro gogoangarrian datu berrien eta teoria zaharren (eta alderantziz) zangalatrauan odisea apartaz gozatu genuen.

Lehendabizikoz Koldo Mitxelenarekin hirugarren urtean izan zuen Iñakik eskola eta haren ikasle jarraituko bigarren zikloan, 1983-84 ikasturtean lizentzia amaitu arte; maisu gisa, aldiz, betirako. Eibartar bat (gero akitaniera eta baskoiera ikertzeaz landa indoeuropearazko irakasle bilakatutakoa), Joakin Gorrotxategi izan zuen latin irakasle,⁴ Karmele Rotaetxe hizkuntzalaritzan eta Ricardo Zierbide gazteleraren gramatika historikoan eta hizkuntza erromanikoen diakronian. Espainiar literatura eta literatura kritikan Jon Juaristi bilbotarra eta, aldi batez, Carlos Blanco Aguinaga irundar amerikartua, behintzat.⁵

Ezin esan Iñaki ikasle-pisuko gelan sartua, parrandarik egin gabe, gelditzen zen ikasle txintxoetarikoa zenik (garai hartan *enpolloitzat* jotzen ziren horietarikoa)

4 Niri Menéndez Pelayoren zale eta *la misión histórica del Lacioren* aldarrikatzaile bat tokatu zitzaidan urte hartan; haren alde esan beharra dut bi urte geroago Latin Arrunta ikasgaiaren eskuliburu gisa Veiko Väänänenen liburu bikaina esleitu zigula filologia guztietako ikasleoi (Díaz y Díazena ahaztu gabe), Gredoseko gaztelerazko edizio ezagun zabalduan. Mende laurden geroago bitxi gertatu zitzaigun bati baino gehiagori, Veleiako «idazkiak» zirela-eta *frikiek* Väänänenen liburu horixe bera aldarrikatzen zutenean, ustez ezagutzen ez zuten katedratiko ezjakinen aurrean.

5 Jendea eta irakasgaiez oso txikia zen orduko Euskal Filologia Saila, baina han ziren dagoeneko hurrengo ikasturteetan —niri ez eta ez dut uste Iñakiri ere— egokitu ez zitzaizkion Henrike Knörr, Lourdes Oñederra eta Ines Pagola; Iñakik lizentzia amaitu orduko helduko ziren Pello Salaburu, Itziar Idiazabal eta Jon Kortazar, eta baita geroxeago Koldo Zuazo ere.

—nahiz bere «ogroa/*ogru*e» ezizen zabalduak baduen horrekin zerikusirik—. ⁶ Baina oraingo ikasle gutxiarekin gertatzen denaren aurka, Iñaki liburuak eskuan edo besapean ibiltzea ohiko zen; orobat Bastiturriko ikasle-pisuan eta gainerakoetan flexoapean edo ohe gainean, gehienetan irakasleek beharrezkotzat ezartzen ez zituztenekin: Noam Chomskyren sintaxizkoak nahiz politikazkoak, Roman Jakobsonen linguistika eta poetikazkoak, Émile Benvenisteren hizkuntzalaritza orokorreko idazkiak, Koldo Mitxelena *Sobre el pasado de la lengua vasca*, *Fonética histórica vasca* eta *Textos arcaicos vascos* (gehi ehizan edo trukean harrapa zitzakeen haren artikuluen fotokopiak). Orobat orduan eskura zitezkeen bestelako euskal testu zahar eta berriekekin ere (Hordagoko bilduma beltzekoak eta beste edozein, Leizarraga eta Axular berariaz), Sade, eta Cioran, eta anarkismoaren inguruko dexente, marxismoaz ez hainbeste, eta Antonio Zavalaren Auspoa bildumakoak noiznahi.

Gogoan ditut Iñigo eta Manul azpeitiarrekin gehi Keux axkoitiarrekin (kuadrilla makala, alajaina!) Bastiturri kalean Iñakik eta biok igarotako bi ikasturteak, eta han eta Floridako parkean partekatu Leizarragaren ahoz gorako irakurketak (harenak nireak baino ozenagoak), baita Parte Zaharrean elkarrekin iluntzean nahiz ordu txikitara egindako jirak eta birak ere. Geroago, noizbehinkako topaketak haren lagun berri niretzat ezezagunekin.

4. Karrerako azken ikasturtean, orduantxe eratzen hasia zen *Orotariko Euskal Hiztegi*ko EJIEn eta Gasteizko Hiribideko bulegoan beste hainbat ikaskiderek euskal testuak informatizatzen eta zuzentzen aritu ondoren, hurrengo urterako erredaktore kontratua egin zioten OEHRako (lehendabizikoa, Marijose Kerejetarekin batera). Donostiara aldatuaz hasi zen han lanean, lehenik Groseko bulegoan eta gero Marinela kalean, Londres Hoteletik gertu. Hurrengo ikasturteetan Gasteizko promozio berrietarik gehituko zitzaizkien Blanca Urgell, Gabriel Fraile, Eduardo Valencia, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi eta Ainara Estarrona; baita geroago Amaia Olabarria eta Ainhoa Otamendi ere.

Gure bideak funtsean orduan banatu ziren, ni tesia egiteko ikerketa-bekarekin bainintzen 1983ko irailetik Euskal Filologia Sailari atxikirik. Alabaina, hurrengo urteetan ere elkarrekin jarduteko aukerarik izan ohi genuen, tesia dela-eta Donostiara Mitxelena ikustera edo ASJUko zereginetara joan beharra bainuen eta noizbehinka, hari eta OEHko lagunei bisita egin eta gero, Hiztegi bulego inguruetan

⁶ Nik, egia esanda, gehiagotan aditu izan nion *torerue*, ez bere zezen-toreadore trebeziengatik, baina azpeitiarren ohiko zezenzaletasuna gogoanduz.

bazkalduez. Berak ere egin ohi zituen txangoak Gasteiza, nahiz ez gehienik Fakultatera, lekat aldiro oraindik bertan zen Biblioteka artean liburu nahiz aldizkaritan hornituxeagora.

5. 1987ko abenduan, Koldo Mitxelena hil eta pare bat hilabetetara OEHren lehen liburukia (*A-Ama*, xlviii + 902 or.) atera zenean, EJIIEkoez landa, Gabriel Fraile, Marijose Kerejeta, Ibon Sarasola, Iñaki Seguiola, Blanca Urgell eta Eduardo Valencia ageri ziren erredakzioan; Isabel Arrigain eta Arantza Egia «datuen kontrolan» eta Ibon Sarasola koordinatzaile gisa. 2. liburukitik aurrera (1989, *Ame-Asd*, vii-lvi + 867 or.) akabuko 16.era arte (2005, *UT-Z*, iii-xlj + 1085 or.),⁷ Iñaki Seguiola Ibon Sarasolarekin batera «koordinatzaile eta begirale orokor» ageri zen jabegoen orrialdean, bi urte Koldo Mitxelenaren heriotzaz geroago, eta horrela jarraitu zuen ondoko 16 urteetan ere.

Ez zen nolanhiko aldaketa: Iñakik bere gain hartuak zituen lehen baino erantzukizun gehiago, denek aitortzen zioten ahalmen apartekoaren arabera. Iñakik han egindako lan erraldoia ezaguna da ofiziokoen zein enparauen artean eta, zorionez, bada oraindik horren lekukorik. Ehunka testu eta iturri astiro irakurriak (filologoi omen dagokien legez) eta bere eta inoren idazketa eta zirriborroak behin eta berriro berreginak eman zion euskal tradizio osoaren ezagutzak parekorik ez zuen Mitxelenaz landako euskal filologoen artean, eta nekez izango ere du etorkizunean.

6. OEHko lehen urteetan, gainera, bere aldetiko ikerketak egitea ere bazuen: 1985eko ASJU n atera zen «Etxeberri Luzaideko Bikarioaren Dotrina Argitaragabea» (19/1: 129-197). Lan horretan testuaren eta berorren hizkeraren iruzkin ederra osatu zuen eta —«Aviso pecadore guzientzat»— bertsoekiko eranskin artatsuan, euskal tradizioaren barneko loturen alderdi interesgarria azaldu Asteteren beste zenbait itzulpenetan aurki daitezkeen eite bereko bertsoekin erkatuaz. Dotrina honetako bertsoak aurreko mendeko Errialdeko Irazustaren bertsoekin, Agirre Oikiakoarenekin, Añibarroren nafarrerazko dotrinakoekin eta 1826ko «Baztango Valleko Parrokoaren Dotrinako»ekin erkatu zituen, aldeak eta berdintasunak agertuaz.

⁷ Nire alearen hasieran bada *post-it* hori bat bidaltzaileak erantsia: «Hau behintzat bukatu duk. Buruz ikasi behar du[k] katedrarako. Ongi izan ahal dela. Ibon». Hor aipatu katedra ekain hartan izan zen; tamalez, oraindik ere ez dut Ibonek jarritako lana bete; horretarako Iñaki izan behar.

Bi urte geroago (ASJU 21/1: 265-276) «Notas de toponimia amescoana» atera zuen, lehentxeago K. Mitxelena aldizkari berean eman «Algunos nombres de Contrasta»-ren jarraipen gisa. Bertan, besteak beste, gero Patxi Salaberrik ere ikerituko zituen *Satzname* (izen berbalduna, edo K. Mitxelena hitzetan “izen berezi gisa erabilitako perpausak”, ASJU 19/2: 596) bitxi bezain interesgarriak aztertutituen (*Arizadana, Arteadana, Ascarradana, etab.*), 1590eko *Guibeladayzecana* barne.

Urte berean *Quito'n arrebarekin* Orixeren liburuaren edizioa prestatu zuen Jauraritzaren Klasikoak Bildumarako haren zuzendaritzak eskaturik, eta inoren akui-lurik gabe, 1992an *Izotz-Kandelak* Nemesio Etxaniz azkoitiar apaizaren nobela argitaragabe hain interesgarria editorial komertzial batean argitaratzea lortu zuen. Aurkezpen eta kokapen egokiez landa, irakurlea testuaren hizkuntzan eta edukian barneratzeko trebezia berezia erakutsi zuen bietan, aparteko irakurketa gozagarriak bihurtuaz. Bi liburuetan egindako filologo-lana bikaina izan zen eta oraindik ere irakurtzea merezi dutenak dira, katalogoetarik kanpo izan arren.⁸

Alabaina, ondoko urteetan ez da bere ikerketa pertsonalaren emaitza gehiago izan zorigaitzez, ez behintzat ofiziokoen aldizkari, bilduma, biltzar eta horrelakotan. Iraultzek beren umeak jan ohi omen dituzten bezala, *Orotarikoak* ere ez die ikerketarako biderik eman bertan parte hartu duten gehienei —nahiz batek baino gehiagok han sartu aurretik edo hango lehen urteetan, Iñakik bezala, ahala eta isuria frogatua izan—, eta tesia edo lan zabalik egitekotan, OEH utzi eta ikerketa atarpetzen duen beste erakunderen batera jo behar izan duenik ere bada.

7. 2005ean amaitu zen «Papereko *Orotarikoa*», eta bestetara baino lehen hasierako lauzpabost liburukiak eraldatu ziren; hurrengo urteetan, eta, zalantza zenbaiten ondoren, «Sareko *Orotarikoari*» heldu zitzaion. Horrekin batera, OEHko langileen berrantolaketa etorri zen eta, Iñakik baldintza berrietan ez zuen jarraitu nahi izan eta utzi zuen *Orotarikoa* 2006an.

Geroztik itzulpen eta antzeko lanetan jardun zuen zenbait urtez, baita aldizkarietan idazten eta irrati saioak egiten ere.

⁸ «Lagunarte antiklerikalean zebilen gaztea apaiz baten nobela berreskuratzen eta promozionatzen. Ez nolanhiko apaiza, ez nolanhiko nobela, jakina», dio Juan Luis Zabalak arrazoi osoz; ordea, ados bide litzateke nik «ez nolanhiko antiklerikala» gehi baneza. Bidenabar, Iñaki Seguroa eta biok 1991n izan ginen izendatuak euskaltzain urgazle.

Gure irrati tartean sermoia botatzea etorri nahiko ote huen galdetu genian. Xaxardiak maite guk. Lagunak egitea, hik. Eta irratiak horretarako aukera paregabea ematen zian. Hainbeste urtetan ez diagu inor ezagutu hamar minututan irrati-entzuleak bi ekipotan banatzeko halako gaitasuna izan duenik: seguirolazaleitsuak versus seguirolahorrekzerarraioustedutarrak. (A. Iturbe, *ibid.*)

2005ean argitaratu zuen haren lehen kreazio liburua, aurreko urteetako egunkari eta aldizkarietako zutabean eta berariaz gehitu idazki berrien bilduma: *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*. Gero irratiko «sermoi transkribatuen» beste bilduma bat, *Nere gorringotik* (2008), eta saiakeran *Arrazoa ez dago edukitzetik* (2012) eta *Sed quia sua*—Oteizaren *Quosque tamdemetik* hain hurbil eta hain urrutiko liburu anarko-abertzalea— (2020)⁹ atera ziren, baita 2021ean *Koiteretzia* nobela ere izurritearekikoez; azkenik, *Ganorexia* saioa Iñaki hil eta hilabete batzuk geroago aurkeztu zuten Garbiñe andre-lagunak eta argialetxeak.

Mikel Asurmendik azken saioaz idatzi zuenez:

Munduan bizi ezinak eraman zuen. Gaixotasun baten menpe bizitzea baino, munduaz bestera joatea erabaki zuen. Mundu honetaz beste bizitza-modu bat bilatu zuen. Bizitzaren ezina adierazteko modu bat duzu. Bizitzak *ganorexia* moduko bat egarri/nozitu—izan— duenaren herrena. (...) **Mine-tik sortzen gara, baita sufrimendutik sortu ere**. Jakinduria ez da nahikoa sortzeko, ordea. Iñaki Seguirolaren bagajea alimalekoa izanda ere, minetik sortzeak eman zion/dio berezko estilo bat. Hor nonbait. **Bizitzaren ezinak edota bizitzaren herrenak pairatu gabe**, Seguirolak idatziko ote zuen idazten zuen bezala? Hau da, bere herrenak, bere ezinak estilo bere(i)zi bat bermatu al zioten?»¹⁰

Juan Luis Zabala idazle eta Iñakiren adiskide axkoitiarraren ondoko hitzek laburtzen dute nik egin nezakeen baino hobeto Iñakiren idatziez eta idazkeraz esan gogo nukeena:

⁹ Cf. «Alta bada, badago zerik, badago alderik. Oteizak uste potoloetan poto egin baitzuen, Seguirolaren ustez. Bertsolaria endelegatu ez, eta euskal hizkuntzaren hutsetik hizkuntza osatu nahi izatea ere! Arranopola. Arraroa da euskalduna. *Hararoa* erdal profeta. Behialako bertsolaria *BECTsolaria* dateke gaur egun. *Hararoa* hau ere. Izan ere, harra izan emea izan, *extinct*-arogan geratu bide zen euren jakituria. Hor nonbait!» (Mikel Asurmendi, «*Sed quia sua*. Iñaki Seguirola, Erein, 2020] Ona bere gaitzarekin», *blogak.eus*, 21/10/2022).

¹⁰ «*[Ganorexia*. Iñaki Seguirola. Alberdania, 2022] *Ganorexia*. Kaos kosmikoa egartzeko modu bat», *blogak.eus*, 02/04/2023.

Uste dut (...) *euskaltzulotasun* erradikal batek bizi zuela Iñaki, euskara zerbait organikoa zela haren gorputz-gogoetan (...).

(...) Iñaki Seguirolaren prosak beste inorenak ez bezala erakusten du euskara batua zein aberats, indartsu eta bizia izan daitekeen; eta den, azken batean. Prosa hori, ordea, ezer gutxi litzateke, prosa horrekin idatzitako testuetan ez balego pentsamendu bizi, bakan eta libre bat, kate guztietatik askatu nahian dabilena etengabe, batzuetan askatu nahia bera lotura bihurtzeraino, gero lotura horretatik ere askatu nahi izateko.

Fisikoki handia, Iñaki Seguirola *Ogrue* erraldoi bihurtzen zen hizketan eta idazketan. Hitzeko erraldoia.¹¹

8. 2009an Euskaltzaindiak Urkiolako Barne Jardunaldietan onartu zuen *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE) egitasmoa eta baita hura garatzeko bi teknikari esleitu ere. Lanak hurrengo urtearekin hasteko ginen eta teknikarietarik batak etimologiaren alderdi historikoaz arduratu behar zuen eta besteak protohistorikoaz eta diakroniaz; bigarrenekorako Julen Manterola izan zen hautatua eta lehen-bizikorako, Iñaki Seguirola. Orduan bezala orain ere har genitzakeen hoberenak hartu genituelakoan nago eta ondoko urteetan egindako lana aski ozen mintzo da.

Gauzak, halere, modu bitxian hasi ziren: bai Iñakik eta bai Julenek ez zuten arduraldi osoko lana hartu nahi izan, baina zatikazkoa, EHHErentzako ordu ordainduetarik kanpora bestelakoak egin ahal izateko: 2015ean amaitutako erakusleen eta artikulua gramatikalizazioari buruzko tesi bikainean aritzeko Julenek; Iñakik ez ikerketarako baina «bizitzeko», bere hitzetan. Horrenbestez, hirugarren kontratu batentzako aukera zen, baina ez genuen inoiz premiazko hutsune hori bete ahal izan. Ia hamar urteren buruan, EHHEren akaburantz, inprimategian edo harako bidean zenean lehen eta azken liburukia, lortu zen bien kontratuak osatzea, 2018aren akabuan edo 2019aren hasieran. Inprimaketa-aldi luzea amaiturik, aurkezpena uztailearen hasieran egin zen; Iñakik halako ospakizunak ez laket eta ez zen bertaratu.¹²

11 Cf. «Hitzeko erraldoia», *Gipuzkoako Hitza* 22/04/2022. Inguman badira zenbait erreferentzia Iñakiren liburuez, batez ere Mikel Asurmendirenak, baina baita Iratxe Esnaola eta Aingeru Epalzarrenak ere, lehen diez.

12 EHHEren aurkezpenean parte hartu zuten Reina Bastardasek, Joakin Gorrotxategik, Joseba A. Lakarrak, Julen Manterolak, José Antonio Pascualek, Blanca Urgellek eta Andres Urrutiak; eman-dako txostenen testu osatuak 2019ko *Euskeran* atera ziren.

Egitasmoak iraun zuen denbora guztian egin zitezkeen doitasunak egin ondoren ere, behar baino lankide gutxiagorekin aritu ginen. Lehenik Gasteizko Dato kale osteko bulego batean eta gero aspaldiko Seminario zaharrean berriz. Egia da, azken urteetan Gabriel Frailek eta Koro Seguiolak laguntza baliotsua eman zigutela zenbait hitzen historiaren datuak bilduaz edota hiztegiaren aurkibideetarako ekarpen bikaina luzatzeaz, baina EHHE ezin izan zen inoiz garatu, baldintzak, bereziki giza baliabideak eta Erakundearen eta langileen arteko harremanak egokiagoak izan balira bezala. Nolanahi ere, 200 hitz-familia handi, 2.600 sarrera eta etorkizunean hizkuntzaren historia, protohistoria eta diakronia ikertzeko ezinbesteko lanabes modularraren oinarriak garatu ahal izan ziren.

9. Iñakik ia hamar urteotan sarrera eta azpisarreretako hitzen ehundaka, milaka zirriborro egin zituen: OEHko *Tr.* delakoa (funtsean lekukotasunen laburpena) lekuko berriekin (zirenean) osatu eta gure eredura egokitu, zehaztu iturri, aldaera eta formen kronologiak, adieren hurrenkerak ezarri edo hobeki antolatu diakronikoki... Baina usu hortik harago zihoan Iñaki eta itxuraz lotura gabeko edo aurrez antzeman gabeko erlazioak eta are bilakabide osoen zantzuak ere baziren bere ekarpenetan, Iñakiren lankide formalistentzat –inoiz Iñakik aipatu «Mitxelenaren eskolako akrobazia fonetikoen» zaleagoentzat– gehitxo aukeran.

Azken urteetan Gabriel Frailerekin elkarlanean saiatzen zen asetzen Julen Manteolaren eta bion eskari beti asegaitzagoak: ulertzekoa-edo denez, zenbat eta hitz-familia hedatuago eta egituratuago, orduan eta –analisi finago eta sakonagoen eta are gainerako hizkuntzetan lortutako paralelismoen landa– Iñakiri zegokion alderdi historikoaren premia larriago bilakatzen zen eta horrekin astinaldi berri eta ugariagoak ezinbesteko gertatzen, dela lehen erreparatu gabeko hitz eta aldaeretan, dela familia-bikoteak edo -hirukoteak elkarren artean lotzera iristen ginenean, horietan ertz eta bazterretan ziren –usu, halaber, lehen nukleo gogorrenekotzat jotakoen– hainbat eta hainbat zahar eta berri testatu beharra... Hots, ez hasierako planean ez haren garapenetan aurreikusi gabeko egitekoak pilatzen ziren eta hori, jakina, «atzoko», eta ez inspirazioa berez piz ledinerako ere. Iñakik kiroltasun handiz hartzen zituen aurrerago eta ugaltzenago zihoazen eginbehar berri horiek. Orobat, tentuz landutako bere ekarpenak inoiz aski eraldatuak agertzen zirenean EHHEren hurrengo erredakzio-aldian edo akabuko zuzenketa orokorretan. Esan gabe doa, 2019an *EHHE-200* argitaratu zenean guretzat haren izena ere gainerako egileekin liburuaren azalean agertzea –ez barruan ezkututako oharren batean– ezinbesteko bilaketa zela eta hala ematea lortu genuen azkenik.

10. 2019an bertan UPV/EHUko Euskara Institutuko zuzendaritzaren eskaintza jaso zuen Iñakik, han Ibon Sarasola urte askoan lantzen aritu zen eta arestian amaitu den *Egungo Euskararen Hiztegia*n laguntzeko. Geroztik hantxe jardun zuen lanean eta horrek eta ditxosozko pandemiak oso gutxitan eman ziguten elkarrekin izateko aukera. Noizean behingo telefono deiren bat edo e-mailen bat edo Julen Manterolaren bidez genuen batak bestearen berriren bat. Ustez betiko antzean zebilelakoan ginen eta zur eta lur utzi gintuen Iñakiren heriotzak, apirilaren 15eko Ostiral Santuko egun seinalatuko igarokizunak.

11. Zilegi bekit azken hitza Iñakiri berari ematea, hain zuzen ere, «31 eskutik» blogean atera zuen ama zenaren hilburukoan idatzikotik hartuaz:¹³

Esan dezaket zure agonian, bizi-heriotzen borroka horretan, zure izter-artera begira gelditzen nintzela sarri, pentsatuz bezala hortik atera zela amazulo hau, euskaltzulo hau, eta zuk egin ninduzula zulo. («Zuk egin ninduzula zulo!»: ez dakit zer diodan, baina baneki ere ezin esana litzateke). Eta orobat esan dezaket deabrutxo ere egin ninduzula: zure fedearen haundiegiak utzi bide ninduela ni ezertan sinisteko ezindua bezala. Eta hau psikoanalisi merkea izango da beharbada, baina ezin segurtatu dit inork psikoanalisi garestia baino eskasagoa denik nahitaez.

Bo, esan dezadan garbi: ezin dut sinistu eta ez dut sinisten medikuen, ehorzleen eta burokraziaren bertsiorik. Ez dut sinisten eta, mundutik ihesi, hizkuntzara nator. Sinistu ezean, argitu egin nahi dut asuntua hementxe, itzultzaile euskaldunen begiratoki honetan. Eta argitu nahi dut hizkuntzaren eta hitzen argira joz, itzuli ezineko hitzetara joz. Eta horregatik hitz egin nahi dizut minaren gainean eta gure *min* hitzaren gainean eta azpian. Zer egin nezake bestela? Hitzen historia kontatzetik ateratzen dut bizimodua, badakizu, edo bazenekien».

Bakean bego Iñaki Seguirola Amutxastegi

13 Zail da ahazten argitalpen berean (2015/04/08) emandako Iñakiren «Extinct», urte bereko Jose Ignazio Hualderen «Basque as an extinct language»-ren iruzkin bizia. Hara bukaera: «Kontsolamendu motza, hotza eta gorotza: *euskahaldun* galkorrak eta *euskezindun* ugalkorrak batera kontatetik heldu dena. “Extinct”? Etsi-etsian, bai; etsirik gabe, ez eta ez!».

Miren Jone Azurzaren hilberri-txostena (1929-2022)

AZURMENDI ZABALETA, Nerea
Euskaltzain urgazlea

Miren Jone Azurza Aristegieta (1929-2022). “Emakume, kazetari, fededun aurreratu”

Miren Jone Azurza Aristegietaren bizitza, guztion bizitzak bezala, bi datak zedarritzen dute: 1929ko maiatzaren 18ak eta 2022ko maiatzaren 5ak. Donostiako badiaren mutur batean hasi zen, itsasora Ondarretak gerturatzen duen Antigua auzoan, eta bestean amaitu, Kontxatik oso hurbil, 93 urte betetzeko hiru egunen faltan.

Bi mugarri biografiko horien arteko tartea era askotara bete daiteke. Bidea egin daiteke nagiz, unean uneko ufaden menpe utzita hurrengo urratsa, patuari esleituz aukeren ardura. Eraiki daiteke, halaber, kontzientzia osoz: arreta betea ipinita, xede nagusia handia bada egiteko txikirik ez dagoela sinetsita. Esango nuke norberarena zein ingurukoen bizitzak aberasten dituen bigarren mota horretakoa izan zela Miren Jone Azurza kazetari eta ohorezko euskaltzain donostiarraren ibilbidea.

Gogoratu ere modu askotara gogoratu daiteke bizitza bat. Egindakoaren arabera. Izandakoaren arabera. Egindakoa eta izandakoa ez datozenez beti bat, aukeraturako irizpidearen arabera izan ohi da maiz azken argazkia. Miren Jone Azurzaren kasuan, baina, ia entzunezina da bi dimentsio horien arteko disonantzia, haren ahalegin nagusietako bat izan zelako etengabe bilatzea izanaren eta eginaren arteko koherentzia. Bere garaiko emakume batentzat ezohikoak ziren hainbat erabakitan gauzatu zen misiotik ere bazuen joera irmo hori, nahiz eta berak, ez zuenez batere gogoko bere buruaz hanpatzea, urrats horietako gehienak *txurroak* izan zirela esan eta gainerakoak, berriz, *milagroak*.

Aintzatezpen berantiarra

Inguruak haren diskrezio nahiari men egin izan balio bezala, lau hamarkadaz komunikazioaren hainbat arlotan batere zarata eta espanturik gabe aritu zen Miren Jone Azurzari berandu heldu zitzaion aintzatespena, lau rogei urteen atarian, erretiroa hartu eta hogei urtera.

2011. urtean Rikardo Arregi kazetaritza sarietako ohorezko aipamena jaso zuen, belaunaldikide zuen Ignazio Arregi jesuita eta kazetariarekin batera, bata zein bestea izan zirelako, idatzizkoan Azurza eta entzunezkoan Arregi, profesional aitzindariak iragan mendeko 60ko hamarkadan. Aitortu zieten moduan, “euskarazko kazetaritzaren zutoinak” biak ala biak.

Euskaltzaindiak 2018an izendatu zuen ohorezko euskaltzain. Bost emakumek jaso zuten domina ekitaldi berean, irakaskuntzaren munduko Maria Jose Azurmendi eta Izaskun Gastesik, eta hiru kazetarik: Miren Jonek berak eta haren osteko belaunaldiko Arantxa Urretabizkaiak eta Txaro Arteagak. Hirukoaren argazkiak bistaratu zuen, bolada luzeegi batean begi oso gutxikoa izan arren, bazela euskal emakume kazetarien katerik, eta toki nabarmena zuela horretan Miren Jone Azurza Aristegietak.

Letra larriz idatzitako hitz handiak esleitu zizkioten urte haietan minuskulatan bizitzea nahiago zuen Miren Joneri: aitzindaria, euskal kazetaritza modernoaren zimenduak jarri zituena, lehen emakume kazetaria... *Kazetari aitzindaria* izenburua zuen 2020. urtean Eusko Jaurlaritzak sustatutako Bidegileak bilduman argitaratu zen biografiak. Elixabete Garmendia kazetariaren lan benetan bikainean daude jasota, hain zuzen, Miren Jone Azurzaren ibilbide pertsonal eta profesionalaren nondik norako zehatzak. Ez ditut errepikatuko, askok ezagunak izango dituzuelako eta gainerakoek sarean dituzuelako eskuragai.

Etxean jasotakoa

Idazkitxo hau soslai labur bat besterik ez da, idazle fin, lankide eskuzabal eta emakume argi hark eskaini zituen elkarrizketa urrietan esandakoak oinarri hartuta. Gainerakoak gutxietsi gabe, bada bat bereziki adierazgarria: 2007an, omenaldiak-eta iritsi aurretik, Joxe Arregik jada desagertua den *Hemen* erlijio gogoetarako aldizkarian egin ziona.

Elkarrizketa hartan, zuzenketa kutsua ere baduen aurreneko erantzunean ezarri eta azpimarratu zuen Miren Jone Azurzak ororen oinarri eta giltzarria. Elkarrizketatzaileak «emakumea, euskalduna eta kazetaria» definizioarekin abiatu zuen solasa, eta berehala egin zion zuzenketa elkarrizketatuak, hiru ezaugarriak ukatu gabe baina lehentasunak finkatuz: “Lehenik eta denen oinarri, kristau izatea daukat nire pertsonaren mamitzat. Kristau izateari zor dizkiot bizitzan hartu izan ditudan erabakirik eraginkorrenak”, argitu zuen.

Hortxe izana, eta horren araberakoa egina.

Horri eutsi zion bizi osoan, baina bada aurretiazko oinarri bat, den-denaren funts eta jatorria, aipatu elkarrizketan berak nabarmendu zuena: etxean jasotakoa, gurasoak, familia... Amaren aldeko aitona harginak —aitona biak zituen ofizio berekoak— egindako Matia kaleko 14ko etxebizitza; Joxe Azurza aita, Igeldoko base-ri bateko semea, maisu bilakatu zen mutil argia; Juli Aristegieta ama, garairako emakume ikasia, telefonista izateko azterketa gairatuta eta ezkondu aurretik Telefónican lanean aritua. Anaiak: bi urte zaharragoa zuen Joxe Joaquin zena, eta ondolik etorriko ziren Ramon, Luix Mari zena eta Inaxio. Han, haiekin, bereganatu zituen bizitza osorako izango zituen eta hainbat erabaki ulertzeko lagungarriak diren jarraibide eta balioak: erlijio-sena, abertzaletasuna, euskaltzaleatasuna, jakin-mina eta ikasteko grina, besteekiko ardura...

Ardura eta erantzukizuna halabeharrak inposatu zizkien Azurza Aristegieta anai-arrebei. Abertzale eta euskaltzale izatea nahikoa delitu izan zuen aitak gerra erbestean igarotzeko eta itzultzean maisu lana ezin berreskuratuta gelditzeko. Amak lanera itzuli behar izan zuen familia aurrera ateratzeko, eta 12 urteko Miren Jone gazte-gaztearen gain geratu ziren etxeko zenbait ardura, nahiz eta horrek ez zion eragotzi ikasketekin jarraitzea. “Gurasoek argi zeukaten nik ere batxilergoa egin behar nuela mutilek bezalaxe. Gu pertsona jator, euskaldun eta kristau izatea nahi zuten eta, eskasian bizi baginen ere, kultura aurrerakoia opa ziguten”, esan zion Joxe Arregiri. Garaiak zailak izan arren familia alaia zirela eta gartzaro zoriontsua izan zutela ere aitortu zion.

Ezustean kazetari

Abertzale sutsua izanagatik, politikak ez zuen inoiz erakarri Miren Jone. Bes-telako dei bati egin zion jaramon, bokazioari. Bere hitzak erabilita, Jainkoaren

deiarri. Hogei urte betetzekoa zela entzun zuen argi eta ozen. Ordurako bukatuta zeuzkan batxilergoa eta irakasle-ikasketak, begiak unibertsitatean jarrita zeuzkan. Ez zitzaizkion falta etxean horren beharrezkoa zen dirua lortzeko lan eskaintzak, mutil-laguna ere bazuen...

Orduantxe eman zuen bere bidea definituko zuten pauso nabarmenetan lehena: dena utzi eta erlijio-bizitzan murgildu, Rufino Aldabalde Aiako apaizak sortu berri zuen Misiolari Sekularren Institutua elkarteko kide bilakatuta. Ez zen erabaki erraza izan. Sakrifizio handiak eskatu zizkion. Handiena, berak esanda, ama izateari uko egitea.

21 urterekin ekin zion etapa berriari, 1950ean. Baliteke gerora egindako hautuak eta hartutako erabakiak gaztetako urrats haren bertsio gero eta helduagoak izatea, hitz baten distantzia baino ez baitago erlijio-bokazioaren eta zerbitzu-bokazioaren artean.

Institutuan berehala antzeman zioten kudeaketarako eta lan zehatz eta zorrotzerako zeukan gaitasuna, eta laster eman zizkioten ardura dezenteko lanak. Irakas-kuntzan hasi zen, baina luze gabe igarri zuten idazteko ere bazuela aparteko tre-bezia, eta jazotakoa idatziz jaso beharra zegoenetan han zen Miren Jone.

Ezusteko batek ireki zizkion, baina, kazetaritzarako atea, ez baitzen hori aurreikusitako bidea, Estatu Batuetara misiolari joatea baizik. 1955. urtean, bidaiaren atarian zegoela, planak porrot egin zuen, eta Institutuarekin harremana zuen *Vida Nueva* aldizkari katolikora gerturatu zen, “balio ote nuen-edo aproba egitera. Horrela hasi zen nire kazetari-bizitza”.

Bere bizitza bilakatuko zen kazetaritza. Artean bakarra zen, eta bete-betean erregimenaren kontrolpean zegoen Madrilgo Kazetaritza Eskola Ofizialean ikasketak egitea erabaki zuen. Onartu zuten, egin zuen karrera eta lortu zuen kazetari titulua, horixe baitzen bere xedea. Hamar urteko esperientzia ez ezik, garai hartan ezin kazetari euskaldunek ez zeukan titulua zuela itzuli zen Donostiara, amaren ondora, 1965ean.

Bere kezka sozialekin bat zetorren argialetxe batean hasi zen lanean, baina, zer gerta ere, *Zeruko Argia* euskarazko aldizkarian ere utzi zuen txartela, inoiz kazetari euskaldun tituludun baten beharrik izatekotan esanetara zeukatela jakinarazteko. Beharrak estututa, handik bi urtera akordatu ziren emakume kazetari tituludun harekin.

“Dena zegoen egiteko”

Luzatu zioten lanerako proposamena, eta baiezkoa eman zuen. Hasiera ez zen samurra izan: “Lehen urtebete luzea ikasten pasa nuen, euskaratik hasita. Ordura arte euskal kazetaritzako esperientziarik ez nuen. Erabateko erdal girotik nentorren. Borondate guztiz onez, baina jakinduria gutxiz hasi nintzen”, kontatu zion Arregiri. Luze gabe izendatu zuten zuzendari, 1969an, kazetari tituluduna behar zutelako ezinbestean postua betetzeko. Ordura arte, kaputxinoek argitaratzen zuten aldizkariko zuzendari gisa Iñaki Gabilondo ageri zen, baina Andaluziara joan zen lanera, eta hutsune nabarmena utzi zuen mantxetan.

Miren Jone Azurza ez zen hutsunea betetzearekin konformatu, eta buru-belarri murgildu zen lan berrian. “Dena zegoen egiteko”, esan zuen Ahotsak ekimenaren baitan egin zioten elkarrizketan. Egin zezakeen dena egin zuen berak, momentu zailtan egin ere: euskara batuaren eta *h*-aren inguruko eztabaida puri-purian zegoen; zentsura saihesteak abilezia izugarria eskatzen zuen; maila politiko eta ideologikoan ere aztoratuta zeuden urak.... Loraldi betean, berriz, euskararen eta euskal kulturaren inguruko ekimenak. Horren guztiaren erdi-erdian egon zen *Zeruko Argia*, eta hantxe zen Miren Jone Azurza, euskararen firmamentuko izarrek, orduko zein etorkizunekoek, inguratuta. Nola edo hala, lortu zuen proiektua funtzionatzeko molde profesionaletara hurbiltzea, eta argitalpen zaharkitutik aldizkari modernorako bidean jartzea.

Gerora horrenbeste laudorio ekarriko zizkion esperientziaren bukaera, tamalez, garratza eta mingarria izan zen, eta 1974. urtearen amaierako batzar nagusian dimisioa eman zuen, behartuta eta hilabete oso gogorrek igaro ostean. Denboraren poderioz orbaindu ziren zauriak, Miren Jone Azurzaren izaerak lagundu zuen oroitzapen mingotsak gozatzen, baina bere bizi-esperientziaren zati izaten jarraitu zuten, bere jakinduriaren osagai.

Berriro abiatu behar

Berriro egokitu zitzaion ia hutsetik abiatzea, 45 urterekin. Bizitzeko adina ematen zioten zenbait lanetan aritzearekin batera, bere burua jantzen jarraitzea erabaki zuen, eta garai hartan EUTG esaten zitzaion Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean Historia ikasten hasi zen, baita karrera bukatu ere.

1977ko ekainean sortu zen *Deia* egunkariak eman zion beste hamabi urtez kazetari jarduteko aukera, gaztelaniaz batik bat, euskararen eta herriaren egoerarekin oso kezkatuta beti, denetariko lanetan. Miren Jone Azurzarentzat, hain zuzen, ez zegoen lan txikirik, itxuraz ezdeusa zenari ere arreta betea jartzen zion. Gazte-gaztetan *Deiaren* Donostiako erredakzioan lankide izan genuenok umore fineko eta kultura handiko profesionalaren ondoan ikasteko aukera izan genuen, gozotasuna eta irmotasuna dotorezia handiz uztartzen zituen emakumea ezagutzekoa.

Bizitzak, gainera, opari eder bat zeukan gordeta Misiolari Sekularren Institutua utzi eta kristautasuna beste era batera bizitzeko hautua egina zuen Miren Jone-arentzat. *Deian* hasi eta hilabete gutxira ama hil zitzaion. Familiaren, lagunen, eguneroko egitekoen eta fedearen babesa bazuen ere, hasia zen nozitzen bakardadearen hozkada, harik eta 1980an 23 urtez bidelagun izango zuen Joxe Mari Aiestaran beasaindarra ezagutu zuen arte. 60 urte betetzean erretiroa hartu zuen, eta urte zoriontsuak igaro zituzten elkarrekin, 2003an Joxe Mari itzali zen arte.

Azken zerbitzu bat zeukan eskaintzeko Miren Jonek, eta hura ere ez zen nolana-hikoa izan. 1990etik 1996ra Donostiako gotzaindegiko prentsa-bulegoaren ardura hartu zuen bere gain, bokazioz, borondatez. Bere-berea zuen irmotasun gozo eta adeitsua baliatu zuen Jose Maria Setien gotzainari gaizki-esate eta irainez jositako urte haiek igarotzen laguntzeko. “Lan gogorra izan zen, baina konpentsazio handikoa. Ohore bat niretzat. Apal, umil jardun nuen nire arduran eta nik emandakoa baino askoz ere gehiago jaso nuen”, esan zuen etapa hartaz aritzean.

67 urte beteta zeuzkala izan zen estreinakoz eguneko ordu guztien jabe. Ardura profesionalik gabeko etapa berriak eskaintzen zizkien aukerez gozatzea zen bikotearen asmoa, baina tamalez laster, azkarregi, hartu zuen gaixotasunak ostatu Miren Joneren eta Joxe Mariren etxean, eta urtetan senarraren zaintzari eman zizkion ordu gehienak. Alargundu ostean ere zaintza izan zen bere apostolutza argiena. Berak esana da. Teresa Avilakoak barne-gaztelua deitu zuen hori atontzen eta aberasten jarraitu zuen Miren Jonek, bilaketa espiritual sakon eta oso pertsonalean murgilduta, begirada kritikoari eta komunikatzeko grinari eutsiz betiere.

Joxe Arregik idatzitako hitz batzuekin amaitu nahiko nuke, lerro gutxiok ondo baino hobeto azaltzen dutelako nor izan zen Miren Jone Azurza Aristegieta: “Xumetasunak are miresgarriago egin zaitu. Ez duzu inoiz aitzindari izateko ametsik ez usterik izan, baina aitzindari izan zara: emakume, kazetari, fededun aurreratu”.

Eustasio Etxazarretaren hilberri-txostena (1938-2022)

ZUGAZAGA, Lontzo
Ohorezko euskaltzaina

1. Kronika

Ekainaren 9an hil zitzaigun Donostiako Ospitalean Eustasio Etxezarreta Zelaia apaiza. Andoaindarra bazen ere, Albizturren jaio zen, bere amaren jaiotetxean, Atxisaeta baserrian. Ikasketak Andoaingo La Salle ikastetxean eta Donostiako seminarioan egin zituen. Seminarioko ikasketak burututa, 1963an hartu zuen apaizgoa eta urte hartan bertan Saturrarango seminariora bidali zuten, hezitzaile taldera.

Trintxerpeko apaiz laguntzaile izan zen gero. 1966an Erromara joan zen, beneditarren Anselmianum fakultatean Liturgiako lizentzia ikastera.

Erromatik etorri eta Elizbarrutiko Liturgia-arduradun izendatu zuten 1970ean, eta 1971n Elizbarruti Arteko Liturgia Itzultzaile Taldearen idazkari eta gidari. Liturgia argitalpenen arduradun, euskal eliza-musika berria sortu duen musikari taldearen gidari eta, berariaz, Gotzainen idazkien itzulpen lanetan jardun izan du. IDATZ eliza-liburu denda sortzen eta aurrera ateratzen ere harenak izan dira aha-leginik handienak.

1986tik Astigarragako agustindarren kapilau ere izan dugu. Horrekin batera, 1985ean Euskal Telebistan Meza Santua ematen hasi zirenetik bera izan zen arduradun 2017ra arte. Eustasiok ezagutu ez zuen parrokia gutxi izango da Euskal Herrian, gure zazpi lurraldeak hainbeste urtetan zeharkatu zituelarik. Bera arduratu zen EiTBk igandero Meza Santua eta Mezaren aurretik izan ohi den mintzaldia eskain zitzan, baita Mezaren grabaketarako zertzeladak antolatzeaz ere.

Azken urteetan arrebekin bizi izan da eta San Rafaelgo erlijiosoei nahiz Domini-ka lekameei kapilau arreta eskainiz, baina itzulpen lanetan eta liturgiaren zerbitzuan tinko, azken egunak arte.

1978tik euskaltzain urgazle izan da eta 2002tik EIZIEko ohorezko bazkide.

Kronika labur hau bukatzeko, Andoaingo parrokian hileta elizkizunerako Unai Manterolak, Eustasioren adiskideak, prestaturiko bertsoetako bat abestuko dizuet:

*Denean zinen zerbitzaria / ta jantzia dohain askoz
entzule fina, Jainko-laguna / inor ez zenuen arrotz
arrats honetan esker onean / eta otoitzean gatoz
Jainko on-onak bihur dezala / gure iluntasuna poz
eta zu berriz jantzi zaitzala / **amaituko ez den pazkoz** (2).*

2. Eustasio: langile fina eta elkarlanerako maisu trebea

Ikaragarria izan da Eustasioren lana. Hainbeste urtetako lan eskerga aintzat hartuz, liturgia arloko lanik behinenak gogora genitzake:

Ohikune Liburuak (behin-behinekoak)

1970, *Mezaren Egunerokoa*

1978, *Irakurgaiak*

1983, *Itun Berria* (1)

1984, *Meza Liburua*

1987, *Itun Berria* (2)

2019, *Meza Liburua* (Berria): 1365 or.

2020, *Mezako Irakurgaiak* (Berria): 3000 or.

2021, *Erantzun-Salmoak eta Aleluiak*

Ohikune Liburuak (behin betikoak): Erromako Kongregazioaren onespeneren zain: *Haurren Bataioa; Kristau Sarbidea* (Helduen Bataioa); *Sendotza; Ezkontza; Erromako Liburu Pontifikala; Gaixoen Oliadura; Penitentzia; Hiletak.*

Langile fina eta nekaezina izan dugu Eustasio. Liturgia arloko lanarekin batera, batek daki zenbat eta zenbat eliz idazki eta gure Elizbarrutietako Gotzainen zenbat dokumentu euskaratu izan dituen.

Hala ere, ehuneko handi batean, talde lanean egina izan da haren jardunik astunena eta ugariena. Aberatsa da talde lana. Izan ere, talde lanean aritzeak asko aberasten, doitzen eta zehazten du itzulpena, eta taldean lan egiteak egokiera eskaintzen du bakoitzaren proposamen eta iritziak erakutsi, aztertu, kontrastatu, zuzendu eta hobetzeko.

Baina oso aberatsa den elkarlan horrek baditu bere zailtasunak. Prestakuntzaz eta trebetasunaz gain, borondate ona ere behar da, eta pazientzia handia, bakoitzak egindakoa taldeak berrikusi eta kideek egiten dituzten aldaketak eztabaidatzeko eta onartzeko, azkenean testua ondo finkatua geldi dadin.

Horretarako, bateratzaile, koordinatzaile iaioa behar da elkarlanetan: egiteko den lana, bere osoan, aurreikusteko; testuak lankideen artean banatzeko eta bakoitzak bere proposamenak egin ditzan bultzatzeko; lankide batzuen eta besteen bertsioak, iritziak, zuzenketak jaso eta bateratzeko.

Horrela egindako lana ederra da, baina zaila era berean: testu originalak euskaraz adierazteko joera eta esamolde desberdinak izan ohi dira lankideen artean, eta ez da harriztekoa nork bere bertsioari eutsi gura izatea, egokiena horixe izan daitekeelakoan. Ibilbide horretan eztabaida biziak ere sortzen dira, harik eta guztiek burua makurtu eta gehienen ustez egokien dena onartu arte. Berrogeita hamar urtetik gora elkarlanean jardun arren, nik ez dut gogoan Eustasiok sekula haserrerik izan edota erakutsi zuenik.

Zorrotza eta zehatza izan da Eustasio egin izan dituen ekarpenetan, baina bikain bete du bateratzaile eginkizuna: denei errespetuz entzunez, denen iradokizunak jasorik proposamenak eskainiz, zalantzako puntuetan erabakia hartu aurretik kontsultak eginez edota bilerak deituz, eroan eta tentu handiz jokatu.

Ataltxo hau amaitzeko, bertso bidez egin nahi diot Eustasio maisuari neure aitortza:

*“Pluscuamperfecto” ezizenakin / izan zintugun ezagun
hain zen argia guretzat zure / lanetako zehaztasun
berbizikoa izan arren / zorroztasun ta doitasun
itzulpengintzan lankideontzat / bazenuen malgutasun.*

3. Izaera mazala eta txeratsua erakutsi izan du Eustasiok

Eustasioren kanpoko itxura garbia eta argitsua izan da. Beti aratz, txukun, beti apain eta dotore. Arrebekin bizi izanak mesede egingo zion, baina bera zen halakoxea. Hitz egiterakoan eratsua, neurrisua, delikatua eta adeitsua, benetan atsegina, errespetutsua eta barea. Gizalege handiko pertsona izan dugu eta abegi onekoa guztientzat.

Berarekin luzaro lan egin dugunon artetik azpimarragarria da bere patxada, sarri gure artean nagusitzen den presa larri eta itotzaileari lekurik eman gabe. Kanpoko agiri zaratatsurik eta zalapartaririk gabe, hurbileko sentiarazten zuen edonor. Bizkaitarrok, Jose Mari Rementeria eta biok, Gentzara iristen ginen bakoitzean haren irribarre lotsati eta erakarleak gertuko eta etxeko sentiarazten gintuen, hitz askoren premiarik gabe.

Bukatzeko, hor doakizu, Eustasio maite, nire agurra, Jaunaren aurrean otoitz bihurtua:

*Goza ezazu Eustasio / Aitaren etxean
zeruko liturgia / ospakizunean
zehatza ta samurra / izana lurrean
mazal ta txeratsua / hartu-emanetan
har zaitzala Jainkoak / bere besoetan (2).*

Txomin Peillenen hilberri-txostena (1932-2022)

COYOS, Jean-Baptiste
Euskaltzain osoa

Txomin Peillen zena gogoan

Txomin Peillen Karrikaburu euskaltzain osoa Parisen sortu zen 1932an. Aite-tamak zuberotarrak zituen; haien artean euskaraz ari ziren baina bi semeekin ez ziren anitz euskaraz mintzatzen. Oporretan, Zuberoako Ligira joaten zen Txomin, familian egoteko, eta zuberera entzuten zuen. Parisen, Andima Ibinagabeitia bizkaitarrarekin ikasten hasi zuen serioski, familiak laguntzen ez bazuen ere.

Horren segida ezagutzen dugu: lehen lana euskaraz 1948an egin zuen, adiskide bretoi batek frantsesera itzuli kantu bat euskarara eramanez. Laster, Txomin euskal idazle emankorra bilakatu zen, nahiz prosan, nahiz olerkian, hasieran gipuzkeran eta gero nagusiki euskara batuan.

Haren lehen lanbidea biologia izan zen, irakasle gisa bigarren mailan. Tesia etnografian eta lexikografian oinarritu zuen, Zuberoan aitzina eraman zituen etnografia-ikerketak baliatuz, medikuntza herrikoia Basabürüan, besteak beste. Alor horretan bi beka eskuratu zituen. Hizkuntzalaritzan ikerketak egin zituen zuberera aztertuz, historian zehar. Adibidez, zubererak okzitanierari mailegatu zizkion bearnes hitzak bilatu eta zerrendatu zituen. Iparraldean holako ikerketa nafar-lapurterarekin egiteko litzateke.

Literaturan sei sari eskuratu zituen, azkena iaz abenduaren 16an, baina berantegi abenduaren 9an hil baitzen. Literaturan politika, polizia-eleberria, umorea, fantastikoa eta erotismoa landu zituen, berrogei bat liburu argitaratuz. Frantsesez eta gaztelaniaz ere liburu batzuk argitaratu ditu.

Zuberotarra izanik ere, euskara batua landu du bizi osoan bere idatzietan, zuberera, familiaren euskalkia, ahantzi gabe. Bazakien euskara batuaren sortzea eta garapena nola garrantzitsua zen euskara bera salbatzeko eta garatzeko gaur egungo

gizartean. Hirurogei bat urte badira Euskaltzaindiak euskara batuari buruz irizpideak, gomendioak eta arauak emaiten dituela. Baina idazlerik, erakaslerik, kazetaririk, itzultzailek gabe, euskara batua ez zatekeen garatuko.

Euskararen sortzaile eta hedatzaile horien artean, Txomin lehen lerroan izan zen, lan oparo, aberats eta mota anitzekoarekin, euskal literatura indartzeko, euskal ikasketak eta ikerketak bultzatzeko. Pentsamendu kritikoa gauzatu zuen bitartean zehar, umorea ere bai.

Azken hatsa arte lan egin du Txominek. Euskaltzaindiaren Osoko bilkuretara joaten zen beti, gogo onez. Iragan azaroaren 15ean oraino, zailtasun handiarekin ibiltzen baldin bazen ere, bere azken liburua aurkeztu zuen Baionako Euskal Museoan. Liburuak *Ene bertsoen bilduma – Recueil de versification* izena du eta Euskaltzaindiak argitaratu du. Horretan bizi osoan idatzi zituen euskarazko olerkiak bildu ditu eta denak frantsesez itzuli.

Azaroaren 17an, akitua izanik ere, bere 90 urteak ospatu zituen etxean. Baina biharamunean, 18an, Baionako ospitalera eraman zuten, han berriz idatzi zuen pixkat, eta gero Kanbora eraman zuten non abenduaren 9an hil zen.

Txomin Peillenen ekarpena euskarazko literaturari eta euskal ikerketei neurtezi-na da. Eta hitz hauen bidez Euskaltzaindiak Txomin eskertu nahi du. Argitaratu dituen 40 bat liburu eta 200 bat artikulua baditugu, anitz ikasteko euskarari buruz, euskal kulturari eta euskal gizarteari buruz. Hau da utzi diguna.

Eskerririk hanitx Txomin, zinez.

Txomin Peillenen hilberri-txostena (1932-2022)

DAVANT, Jean-Louis
Euskaltzain osoa

Txominez oroitzapen zenbait

Dominique / Txomin Peillenen bizia eta obra Coyosek zehazki aipatu ditu bere hilberri txostenean. Beraz ene aldetik oroitzapen oso pertsonal batzuetara mugatuko naiz hemen. Txominen ezagutzak egin nituen Hazparden, 1957 urtean, uztail ondarrera, euskal ikasleen elkarteak urtero bezala antolatu zuen astebeteko ikastaldian. Eskuan zuen Txillardegiren lehenbiziko eleberria, *Leturiaren egunkari ezkutua*, agertu berria, eta hartaz mintzo zitzaigun. Ordukoz berak ere idazten zuen: lehenbiziko liburugaia berrogeita hamahiruan prestatua zuen, hogeita bat urteetan, baina hamahiru urteren buruan argitaratu zioten, Txomin Agirre saria ukan ondoren, *Gauaz ibiltzen dena*.

Bitarte horretan Aljeriako gerlan soldaduzka egina zuen erizain lanetan, eta berak erran ukan du han pazifista bilakatu zela. Guda horrez liburu bat agertu zuen 1982an Hordago etxean, *Aldjezairia askatuta*, eta bestalde olerki liburu bat eskaini zion Abdelkader emirari, *Abdelkader* deitua hain zuzen ere: Bilboko Labayru ikas-tegian argitaratua izan zen 2006an.

Hitz hau Marie-Thérèse Olivier, Txomin Peillen zenaren andre alargunari zor diot. 1982an Normandiatik Euskal Herrira etorri zen, zehazkiago Perche eskualde txikitik Baionara, Paristik iraganez. Baina hurbilketa hori ez da iduri lukeen bezain bitxia. Historian barna, harreman tinko eta nasaia izan dira gure bi lurraldeen artean, itsasoz bereziki, Baionako portutik: bai arrantzaleen eta merkatarien artekoak, bai Normandiako dukeen eta gure baskoiendako erregeen artekoak. Eta holaxe, behin batean, Nafarroako arrano beltza izango zena handik etorri zitzaigun, Margarita Percheoak 1134an ezkontzaz ekarria Monzon Gartzia Ramirez Berrezarlea erregeari. Eta berrikiago Marie-Thérèsek Txomini beste txoririk ekarri zion Normandiako eskualde txiki hartarik. Haatik ezin hautatuz nago zein ote zen edo

ziren: ainara lankide trebea, ala bakearen usoa, Txomin lasaitzen zuena? Ala biak agian? Baina Txominek badakike, eta duda barik, erran zeikeon ezin hobeki.

1964an ezkonduak, haurrik ez zuten ukan, baina bi belaundiz bizitu dira batasun onean. Alta bada Txomin ateo zen argi eta garbi, ez zuen gordetzen. Aldiz emaztea, orain alarguna, katoliko suharra da. Baina bikote indartsua moldatu dute, Txominek olerki liburu batez ospatu zuen Abdelkader emirak proposaturiko «kontrarioen harmonia edo azalia» ederki betez. Batasun dialektiko horrek gogora dakarkit Louis Aragon frantses poeta handiaren olerki hunkigarri bat, «La rose et le réséda», eta hona horren lehenbiziko bertsoa:

Celui qui croyait au Ciel
Celui qui n'y croyait pas
Tous deux adoraient la belle
Prisonnière des soldats
Lequel montait à l'échelle
Et lequel guettait en bas ?

Pentsatuz Txominek eta biek elkarrekin burutu dugun euskaltzale lanari, Aragonen olerkia gure borrokari egokitzen diot euskaraz, soneto baten itxuran.

Arrosa eta herezea

Zeruan sinesten ez zuen Txominek
Eta sinestea daukadan honek
Euskal Herria maite genuen zinez
Presoner zegoela bizi ezinez.

Haren askatu nahiz elkaturik
Gauero zubi luze bat harturik
Leiho gorarat igo behar baitzen
Zein goiti zoan, zeinek pean zaintzen?

Gaur da bizirik, erdi askatuta
Bakea halaber burutzeko da
Lan erditan geldituren al gara?

Txomin zubitik eroria zaigu
Ni ere laster jausiko seguru
Baina beste batzuk igoko dira.

Esperantza dut azken epaileak, juje zuzenenak, Matiuren Ebanjelioko irakaspenen arabera epaituko duela: Gose nintzen, egarri, biluzgorri, arrotz, eri, preso, eta zuk lagundu nauzu. Trajeria/pastoral batean Txominen erantzuna holaxet asma nezake: «Jauna, ez zaitut ezagutzen, ez zaitut sekulan ikusi, eta gainera ez dut bazarenik ere sinesten!». Epaileak erantzun lezaioke: «Parisko euskaldun lepo zurruna, ez duzu sinetsi beharrik, ikusten nauzu eta. Lehentze obedituko didazu: ate urdinetik sar zaite, bai, urdinetik, ene eskuin aldeko honetarik, eta ez gustukoa zenukeen ezkerreko ate gorri hartarik! Ez duzu hauturik, bizi eternalera kondenatzen zaituzte zure obra onek. Hor azkenean esker onezko otoitzak zuzenduko dizkidazu: behar den asti guztia badukezu».

Haatik segur bezala nago Txomin Urdatx Santa Graziko bortu goran ibiliko dela gustura, baita mundu osoko bortu gora guztietan ere. Ago bake handian, Txomin, bereziki Allande Sokarros eta Junes Casenave berriki joanen konpainian, eta Parnaso mendiko biztanle guztiekin!

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko Bilkura

Bilbon, egoitzan.

2022ko urtarrilaren 28an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Gonzalez de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Txomin Peillen; Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (10:30etik

aurrera); Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, egoitzan, egin da, 2022ko urtarrilaren 28an, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak bilkurara hurreratutakoak agurtu ondoren, jakitera eman du 2021eko azaroaren 26an izendatutako Alfontso Mujika Etxeberria euskaltzainak 2021eko abenduaren 13an gutun bat igorri duela. Gutun horretan adierazten da, batetik, izendapena onartzen duela eta, bestetik, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela. Beraz, Barne-erregeletan, 64.6 xedapenean, araututako prozedura bete da eta A. Mujikak euskaltzain osoaren izaera eskuratu du.

Ondoren, euskaltzainburuak etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarrileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko Bilkurako (2021-11-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharririk egin nahi den galdetuta, ez da oharririk egin. Ondorioz, 2021eko azaroaren 26ko bilera-agiria onartu da aho batez.

2. Exonomastika: *Munduko artelanak: pintura, argazkigintza eta eskultura* araua. *Gurutzetatik jaistea* edo *Gurutzetatik eraistea*. Argibideak eman.

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkariak gogorarazi duenez, azaroko Osoko Bilkuran, *Gurutzetik eraistea* kasuan, M. Azkaratek, *Elizen arteko Bibliak* darabilen forma onartzea proposatu zuen. Bibliaren euskarazko beste bertsio batzuk badirela aipatu zuen A. Arejitak, eta, badaezpada, haietan, besteak beste, Lontxo Zugazagak eta Marcel Etxehandik zer erabili duten jakitea komeni dela adierazi. Egiaztapen hori egitea eskatu zen, eta hala egin du Onomastika batzordeak. Horiek horrela, aurkeztu den idatzian askotariko datuak jaso dira. Ondorioz, tradizioa eta *jaitsi* aditzaren zentzu bikoitza kontuan izanik, M. Azkaratek iradokitako *Gurutzetik eraistea* bere horretan utzi da. Kontu hau egiaztatze soila izan denez gero, arauak, 2021eko azaroaren 26ko data eramango du.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. *Klima-aldaketaren oinarritzko lexikoa*. Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman duenez, Euskaltzaindiak eta UZEIk sinatutako hitzarmenaren barruan landu du UZEIk *Klima-aldaketaren oinarritzko lexikoa*, eta 25 formei Batzorde Ahaldunduak egindako oharrak eztabaidatu dira bileran. *Energia bigun*-en ordez, *energia arin* ematea proposatu du P. Zabaletak, baina termino normalizatu da Euskaltermen *energia bigun*, eta darabiltenek hala darabilte. Ponentziak zerrendatik kentzea proposatu badu ere, azkenean Osoko Bilkurak bere horretan mantentzea erabaki du.

P. Zabaletak berak *klima-aldaketa* sarrerako definizioan erabili diren *prezipitazio* eta *temperatura* forma arautuen ordez *eraso* eta *egumaila* erabiltzea proposatu du, baina ez da onartu eta proposatzaileak berak erretiratu egin ditu proposamenak.

A. Iñigok *NoK* (*naturan oinarritutako konponbide*) laburduraren ordeztu ez ote duen behar galdetu du. Inguruko erdaretan hedatuenak es *SbN*, fr *SfN*, en *NbS* badi dira ere, *SBN*, *SFN* eta *NBS* ere erabiltzen dira. Horiek horrela, *NOK* gisa jasotzea onartu da. Azkenik, *RCP agertoki* sarrerako huts baten berri eman du eta hori ere zuzendu da. Ondorioz, jasotako iruzkinak eztabaidatu eta aztertu ondoren, Osoko Bilkuran onetsi da *Klima-aldaketaren oinarritzko lexikoa*.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduen oharrak (XXX). Aurkeztu.

Euskaltzaindiaren Hiztegian irudizko erabilera duten adierak berrikusi dira. Horiei A. Iñigo eta M. Azkarate euskaltzainek egindako oharrak aurkeztu ditu M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak. Bileran hainbat ohar egin da ahoz, baina idatziz bidaltzeko epea zabaldu da, otsailaren 14ra artekoa.

5. Esku artekoak.

5.1. Arauen Datutegi Onomastikoari (ADO) buruzko azalpena. R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak azaldu duenez, Euskaltzaindiak emandako arauetan jasotzen diren pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak aspalditik ikus daitezke EODAREN bitartez, baina 2022ko urtarrilaren 18an aurkeztu den bilaketa-tresna berri baten bidez, onomastikari dagozkion arau horietan guztietan eman diren erregistro guztiak bila daitezke, haietan agertzen diren datuekin. Era berean, bila daitezke onomastika-arauetan eman diren leku-izen historikoak, pertsonaia historiko zein mitologikoak, artelanak eta halakoak. Guztira, 8.500 erregistro jasotzen ditu corpus horrek, eta datuen bilaketarako ohiko bideak ez ezik, arau-zenbaki, izaera nahiz kokalekuaren bitartez ere jo daiteke datuetara. Erregistro onomastiko bakoitzarekin batera, jatorrizko arauaren erreferentzia zehatza, testuingurua, izaera, kokalekua... eta halako informazioak ere ikus daitezke. Erakutsitako datu bakoitzetik erabiltzaileak jatorrizko araura eta hari lotutako EODAKO erregistroetara jotzeko aukera ere izango du.

5.2. Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko 43. Jardunaldia. 2022ko urriaren 4tik 7ra bitartean, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo den jardunaldiaren xehetasunak azaldu ditu J.-B. Coyos buruordeak. Aurkeztu den idatzian jardunaldiko aztergaiak eta parte hartzeko edota ekarpenak egiteko xehetasunak azaldu dira.

Gaur banatu den dokumentazioa online bidaliko zaie euskaltzain osoei, emerituei, ohorezkoei eta urgazleei jakitun egon eta, nahi duenak, parte hartzeko modua izan dezan.

5.3. *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma argitalpenaren aurkezpena.*

Gotzon Lobera legegile, euskaltzain urgazle eta Sustapen batzordeko kideak koordinatu du argitaraldi hori, hiru formatutan eskaintzen dena: argitalpen digitala, ePub formatua eta PDF formatua. Gogorarazi duenez, 2007an abiarazitako egitasmoaren hirugarren argitalpena da oraingoa, eta bereizgarri nagusiak hedadura geografikoari, edukiari, denbora-eremuari, antolaketari eta testuen kopuruari dagozkie. Horiek horrela, Euskaltzaindiak 692 testu gehitu dizkio argitalpen honen 2. argitaraldiari.

Aurkezpenarekin amaitzeko, webguneko bertsioaren aurkibidea, loturak eta kontsultak egiteko moduez azalpenak eman dira.

Osoko Bilkurak eskerrak eman dizkio G. Loberari egindako lanagatik.

5.4. *Euskararen Gramatika liburuaren aurkezpena.* Hedabideen aurrean, abenduaren 3an aurkeztutako *Euskararen Gramatika* liburuaren aurkezpena egin du M. Azkarate euskaltzain osoak eta Gramatika batzordeko kideak. Azaldu duenez, *Euskararen Gramatika* deskribatzailea da, ez arauemailea. Edozein gisaz, urrats handia da euskararen alorrean. Horiek horrela, gaur egungo gramatikek eta *Euskararen Gramatikak* partekatzen dituzten ezaugarriak aletu ditu. Egungo gramatikak talde-lanaren fruitu dira. Ez dira egile bakarrarenak, ezta hainbat egileren kapituluak bilduma huts ere. Talde batek adostutako lanak dira. Gure kasuan, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearen lana; gainera, deskribatzaileak dira gramatika horiek, ez dira gramatika teorikoak, baina kontuan hartzen dituzte azken urteetan egindako ikerketa teorikoak; izan ere, gramatika modernoak egungo ikerketen sintesi izan ohi dira. Horrez gain, gramatika horiek tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka bilatzen dute. Guri dagokigunez, azken hogeita bost urte hauetako euskarari buruzko ikerlanen ekarpenak ere ekarri dira *Euskararen Gramatikara*.

Aurkezpenarekin amaitzeko, M. Azkaratek etorkizun hurbileko eginkizunak aipatu ditu. Batetik, *Euskararen Gramatika* Euskaltzaindiaren webgunean jasotzea, interesa daukanak kontsultak erraz egiteko era izan dezan. Bestetik, argitalpenaren bertsio laburtua, eskukoa paratzea, kontzeptuak eta edukiak gizarteratzen lagun dezan.

Osoko Bilkurak eskerrak eman dizkio Gramatika batzordeari eginiko ekarpenagatik.

5.5. Gaur banatuko diren lau liburuak.

- *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa (1968-2018)*. Iker 40. Askotarikoen artean paratua. A. Urrutia liburu honen argitarazleak aurkezpen laburra egin du.
- *Aniztasuna: hizkeren berba-mintzoak. Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia Biltzara*. Iker 41. Askotarikoen artean paratua. A. Arejita liburu honen argitarazleak aurkezpen laburra egin du.
- *Bertsolaritzaren historia soziala. Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)*. Iker 43. Antxoka Agirrek paratua. Euskaltzaindiaren eta EHUren arteko lan-kidetzaren barruan argitaratu da.
- *Euskararen Gramatika*. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak paraturiko argitalpena.

5.6. Xabier Kintana euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaiak. Arautegiaren 33. eta 34. eta Barne-erregelaren 4.1. eta 4.2. artikulua betez, hutsartea betetzeko, X. Kintana, A. Arejita, J. Kaltzakorta eta A. Urrutia euskaltzain osoek Miren Agur Meabe idazlea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan ez da bestelako hautagairik aurkeztu. Horiek horrela, hutsartea betetzeko bozketa Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian egingo da otsailaren 25ean.

5.7. Hurrengo bilkurak.

2022ko otsailaren 25ean, Osoko Bilkura egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian, 10:00etan.

Egun horretan, Iruñean, 2021eko azaroaren 26an izendatutako ohorezko euskaltzainei ikurra eta diploma emateko, Ageriko Bilkura egingo da jauregian bertan, 12.00etan.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 12:40 direnean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian.

2022ko otsailaren 25ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Jabier Kaltzakorta; Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian, egin da, 2022ko otsailaren 25ean, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak bilkurara hurreratutakoak agurtu ondoren, etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko Bilkurako (2022-01-28) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 28ko bilera-agiria onartu da aho batez.

**2. Xabier Kintana euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsar-
tea: hautagaia bozkatzea.**

Arautegiaren 33. eta 34. artikuluen eta Barne Erregelaren 4.1. eta 4.2. xedapenen arabera, hutsartea betetzeko, Adolfo Arejita, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana eta Andres Urrutia euskaltzain osoek Miren Agur Meabe idazlea eta euskaltzain ur-gazlea aurkeztu zuten Iruñeko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an eginiko Osoko Bilkuran.

Horiek horrela, hautagaia izendatzeko bozketa egin da. Denera, zuzenean eta ordezkatuak, 23 euskaltzain egon dira. Emaidza ondokoa izan da: hautagaiaren alde 22 boto eta boto zuri bat.

Ondorioz, Arautegiak eta Barne erregelek diotena betez, Miren Agur Meabe euskaltzain oso izendatu da.

**3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren
oharrak (XXX). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.**

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak gogorarazi duenez, urtarrileko Osoko Bilkuran irudizko erabilera duten adierei A. Iñigok eta M. Azkaratek egin-dako oharrak aurkeztu ziren. Horiei A. Mujikak eta P. Zabaletak egin-dako oharrak aztertu dira bileran.

flysch sarreraren definizioan, “sedimentu metaketa”-ren ordez, “sedimentu meta-kin” proposatu du A. Mujika euskaltzainak, eta halaxe proposatu dute hiztegiko egitasmokoek ere. Baina bileran, M. Azkaratek egin-dako oharra kontuan hartuta, “metakin” soila uztea onartu da. Beraz, “Itsaso sakonean sortu zen eta milaka metroko lodiera duen metakina, harri gogor eta bigunezko geruza txandakatu-z osatua” definizioa onartu da. Horrekin batera, metakin forma (lantaldearen azter-gaian zegoena, datozen hilabeteetan lantzeko) hiztegiratu da, baina M. Azkaratek eginiko iruzkina kontuan hartuta, definizio-proposamena moldatu da eta hala ja-sotzea erabaki da: “Gertakari natural baten ondorioz metatu den materiala”.

*jantzi*¹ sarrerako adibideari oharra egin dio A. Mujikak, “San Domingoren Hirugarren Ordena” ordena-izeneko osagaiek bere osotasunean letra larriz behar dutela eta. Hala onartu da. Azkenik, A. Iñigok *lurreko su* hiztegian jasotzeko egina zuen proposamenari oharra egin dio P. Zabaletak, baina datuak ikusita eta eztabaidaren ondoren, P. Zabaletak erretiratu du oharra. Beraz, *lurreko su* hiztegian jasotzea onartu da, *Batez ere Naf.* markarekin.

Ez da bestelako oharririk jaso eta, hortaz, irudizko adieren multzo osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua- ren oharrak (XXXI). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak zerrenda berria aurkeztu du, A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Oharrak egiteko epea zabaldu da, martxoaren 14 artekoa.

5. Esku artekoak.

5.1. Arabako eta Nafarroako ordezkari-tzetan jarduteko bi lanposturen deialdiaren emaitza. 2021eko azaroaren 26ko Osoko bilkuran azalduenez, Arabako eta Nafarroako ordezkari-tzetan jarduteko bi lanposturen deialdia egin da. Guztira, 48 pertsona aurkeztu dira. S. Alemanek eta R. González de Viñasprek, Nafarroako eta Arabako ordezkariak, hurrenez hurren, eman dituzte azalpenak.

E. Osa idazkariordeak eta J. Zabaleta kudeatzaileak, nork bere aldetik, Zuzendaritzak zehaztutako profila kontuan hartuz, hautagaiak galbahetik igaro eta ondoen egokitzen direnak proposatu dituzte. Bi-biak bat etorri dira hautatutako zerrenda osatzean. Guztira, 9 hautagai proposatu dira, 4 Arabako ordezkari-tzetan eta beste 5 Nafarroako ordezkari-tzetan jarduteko. Ondoren, hizkuntza-azterketa proba egin da. Proba egun eta ordu berean egin da, Gasteizen eta Iruñean. Gasteizko probara hautagaietako bat ez da aurkeztu, uko egin baitio. Beraz, 8 hautagai igaro dira azken fasera, aurrez aurreko elkarriketara, hain zuzen.

Elkarrizketetan, lurralde bakoitzeko ordezkariak, idazkariordeak eta kudeatzaileak parte hartu behar zuten. Nafarroan eginiko elkarrizketetan, kudeatzaileak ezin izan du parterik hartu gaixorik zegoen eta. Horiek horrela, P. Rekalde Nafarroako ordezkariordeak parte hartu du. Elkarrizketak egin ondoren, Araban eta Nafarroan parte hartu duten elkarrizketatzaileek txostena paratu eta Zuzendaritzari proposamenak egin dizkiote, aho batez. Zuzendaritzak gaia aztertu zuen 2022ko otsailaren 17an eginiko bilkuran.

Azken buruan, Arabako ordezkariari dagokionez, lanpostua **Leire Sueskun** andreari eskaintzea erabaki da Zuzendaritzan. Horretarako kontuan hartu dira, batetik, askotariko egitasmoak kudeatzeko eskarmentua, ibilbidea, euskalgintzaren ezagutza, jarrera eta lanerako gogoia. Halaber, ordezkariatzatik gertu bizitzek erraztasun batzuk ere eskaintzen dizkio Euskaltzaindiari. Leire martxoaren batean hasiko da.

Nafarroako ordezkariari dagokionez, lanpostua **Itziar Luri** andreari eskaintzea erabaki da. Horretarako, kontuan hartu dira, batetik, askotariko egitasmoak kudeatzeko eginiko ibilbidea, euskalgintzaren ezagutza, harremanetarako eta egitasmoak kudeatzeko gaitasuna, jarrera eta lanerako gogoia, bai eta hizkuntzen ezagutza eta Iruñean bizitzea. Itziar martxoaren laugarren astean hasiko da.

5.2. Mainer Garaikoetxea langilearen berri. E. Osa idazkariordeak gogorarazi du 2021eko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran, Mintzola Fundazioak desegiteko erabakia hartu zuela jakitera eman zela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2022tik aurrera, Mintzolan arduratzen harrez gero ez zela proposatu ziola Euskaltzaindiari. Gipuzkoako Foru Aldundiak Mintzolari eman ohi zion dirulaguntza Euskaltzaindiari emateko diru-zuzkidura jaso du 2022ko aurrekontuetan.

Aldi berean, orain arte Gipuzkoako ordezkarietan jardun duen Maixa Goikoeak erretiroa hartzea erabaki duenez gero, Gipuzkoako ordezkarietan hutsartea gertatu da.

Horiek horrela, Mintzola egitasmoari jarraitutasuna emateko, bai eta Gipuzkoako ordezkarietako zenbait lan egiteko ere, orain arte Mintzolan jardun duen Maider Garaikoetxea hartzea erabaki da Zuzendaritzan. Horretarako, kontuan hartu dira prestakuntza, ibilbidea, egitasmoak kudeatzeko gaitasuna, harremanetarako gaitasuna eta abar.

5.3. Hurrengo bilkura. 2022ko martxoaren 25ean, Osoko Bilkura egingo da Gasteizen, *Etxezarra* eraikinean, 10:00etan.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Bilkuraren ondoren, Iruñeko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an izendatutako ohorezko euskaltzainei ikurra eta diploma emateko antolatu den Ageriko Bilkurara hurreratu dira euskaltzainak. Ekitaldiari buruzko argibideak eman ditu E. Osa idazkariordeak.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregiko Jargi aretoan.

2022ko otsailaren 25ean.

Batzar-agiria

Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregiko Jargi aretoan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko Bilkura egin du, 2021eko azaroaren 26an izendaturiko ohorezko euskaltzainei ikur-diplomak emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Alfontso Mujika, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Luis Baraiazarra, Joxemari Iriondo eta Julen Urkitza.

Gaurko ekitaldian ikurra eta diploma jasoko duten ohorezko euskaltzainak: Piarres Aintziart, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Luis Aranberri “Amatiño”, Manolo Arozena, Pilare Baraiazarra, Jesus Eguzkitza “Eguzki”, Luzien Etxezaharreta, Carlos Garaikoetxea, Juan Luis Goikoetxea, Daniel Landart, Anjel Lertxundi, Daniel López Moreno, Xabier Mendiguren, Jose Antonio Mujika, Mixel Oronoz, Rosa Miren Pagola, José Antonio Pascual, José María Sánchez Carrión “Txepetx”, Marikita Tambourin, Josu Zabaleta, Pakita Zabaleta eta Lontzo Zugazaga. Maria Pilar Lasarteren ikurra eta diploma Lierni Lasarte ilobak jasoko ditu.

Euskaltzain urgazleak: Ainhoa Arregi, Xabier Peritz “Euzkitze”, Jacinto Iturbe, Pantxoa Etxegoin, Jakes Sarrailet eta Luis Mari Zaldua.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusia eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Maider Garaikoetxea.

Ikurra eta diploma jasoko duten ohorezko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Jargi aretoko ekitaldia Joxan Goikoetxea musikariak eta Xabier Euzkitze bertso-lari eta euskaltzain urgazleak girotu dute. Ekitaldian, zenbait euskal abesti eskaini dira.

M. Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusiak hitza hartu eta etorri-rikoak agurtu ditu. Azpimarratu du beretzat ohorea dela euskalaritzan horrenbeste urte ibilitakoei ohorezko euskaltzain izendapenaren ikurra eta diploma emateko ekitaldian parte hartzea. Era berean, gogoan izan ditu euskarak une zailak bizi izan zituen garaiak eta, sasoi haietan, ohorezko euskaltzain izendatutakoek egin zuten ahalegina eta erakutsi zuten konpromisoa. Halaber, berretsi du Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskaltzaindiarekin lankidetzan jarduteko daukan borondate irmoa, euskarak aitzinatzen eta normalizatzen segi dezan.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorri-rikoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Gogorarazi duenez, ikurra eta diploma jasoko duten ohorezko euskaltzainak Iruñeko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an eginiko Osoko Bilkuran izendatu ziren. Izendatutakoak euskal lurralde guztietakoak dira, bai eta kanpokoak ere, euskararen alde eginiko ahaleginengatik edota lanengatik izendatu direnak.

E. Osa idazkariordeak ohorezko euskaltzain bakoitzaren soslai laburra irakurri du. Segidan, ohorezko euskaltzainek hitza hartu eta esker oneko berbak esan dituzte. Ikurra eta diploma banatu ondoren, idazkariordeak azpimarratu du ohorezko euskaltzain izendatutako Itziar Idiazabalek (Gaintza, 1949), Ramon Saizarbitoriak (Donostia, 1944) eta Bernhard Hurchek (Schärding/Inn, Austria, 1955), hainbat arrazoi direla tarteko, ez dutela hurreraterik izan eta aurrerago eskuratuko zaiela ikurra eta diploma.

Ikur-diplomak banatzeko ekitaldiari amaiera emateko, hitza hartu du A. Urrutia euskaltzainburuak. Ohorezko euskaltzain berriek euskara eta euskal kulturarekiko

engaiamendua azpimarratu du Urrutiak, eta goraiatu du euskara eta euskal kultura sustatzeko guztiek egin duten ahalegin “izugarria”. Era berean, lanean segi dezatela eskatu die, euskarak guztion ahaleginaren eta arnasaren beharra dauka eta.

Ekitaldia 13:30ean amaitu da, J. Goikoetxeak eta X. Euzkitzek abestutako euskal kanta batekin eta A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko berbak entzun ostean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Bilbon, egoitzan.

2022ko martxoaren 25ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Miren Azkarate; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Miren Agur Meabe; Paskual Rekalde; Andoni Sagarna; Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Paskual Rekaldek ahala Andres Iñigori;

Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, egoitzan, egin da, 2022ko martxoaren 25ean, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak bilkurara hurreratutakoak agurtu ondoren, etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, martxoako Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko Bilkurako (2022-02-25) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2022ko otsailaren 25eko bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko Bilkurako (2021-01-29), bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2021eko urtarrilaren 29ko Ageriko Bilkurako bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXXI). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi duenez, otsaileko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrenda dela eta, ohar bakarra aurkeztu zaio, Alfontso Mujika euskaltzainaren iruzkina, hain zuzen.

isuski sarrerako ‘Batzuk uste dute isuskia edo ginarra ate ostean ipini ezker, ezin han sorginik sar daitekeela’. Adibideari oharra egin zion A. Iñigok, eta adibidea zuzendu (*Batzuk* → *Batzuek*) eta egokitu zuten hiztegiko kideek, horrela: ‘Batzuek uste dute, isuskia edo ginarra ate ostean ipini ezker, han ezin daitekeela sorginik sar’. Adibide horretako komen erabilerari egin die oharra A. Mujikak. Izan ere, mendeko perpaus bat beste mendeko perpaus baten barnean dago eta halakoetan ez da komarik erabiltzen. Komaren erabilerari buruzko araurik ez badago ere, hori da azken urteetan hedatu den erabilera nagusia. Eztabaida luzea izan da Bilkuran eta, azkenean, koma biak mantentzea onartu da, ulergarriagoa baita horrela Astarloaren adibidea.

Ez da beste oharrik jaso eta, hortaz, multzo osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXXII). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak zerrenda berria aurkeztu du, A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena.

Oharra egiteko epea zabaldu da, apirilaren 14 artekoa.

5. Esku artekoak.

5.1. Martxoan, J. Zabaleta kudeatzailearen aita, Jose Ignacio Zabaleta Gondra, eta E. Osa idazkariordearen ama, Karmele Ibarloza Laka, hil direla eta, Osoko Bilkurak doluminak eman dizkie kudeatzaileari eta idazkariordeari.

E. Osa idazkariordeak eskerrak eman dizkie guztiei, bai eta desenkusatu ere doluminak adierazi eta bere aldetik erantzunik jaso ez duten euskaltzainei.

5.2. Pello Apezetxea etnografo, idazle eta ohorezko euskaltzaina hil da, 89 urte zituela, martxoaren 17an. *Ttipi-Ttapa* Fundazioaren burua izan zen Apezetxea, eta Herria 2000 Eliza erakundeko kide ere bai. Euskal kultura eta etnografiari buruzko liburu ugari idatzi zituen, eta 2004ko azaroaren 26an ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak. Besteak beste, lan hauek idatzi ditu: *Etxalarko etxeen izenak* [elkarlanean] (2009); *Etxalarko historiaren zenbait jakingarriri* (2009), eta *Joandakoen oroigarriak*; *Etxalarko hilarriak* (2017).

5.3. Brebeta eta baxoa euskaraz. Urtarrilaren 14an, Euskaltzaindiak egoitzan hartu zituen Piarres Larzabal kolegioko ikasle eta irakasleak. Egoitza bisitatu ondoren, Ipar Euskal Herrian “bregbeta” eta “baxoa” azterketak euskaraz egiteko dituzten zailtasunak azaldu zituzten, eta atxikimendua eskatu zioten Euskararen Akademiari. Zuzendaritzak gaia Sustapen batzordearen esku utzi zuen. Sustapen batzordeak gaiaz adierazpen bat egitea, zabaltzea eta Frantziako eta Ipar Euskal Herriko erakunde nagusietako ordezkarietara gutun bana igortzea proposatu zuen. Halaxe egin zen, otsailaren 3an adierazpena kaleratu baitzuen Euskaltzaindiak, euskaraz eta frantsesez. Era berean, gutunak igorri zitzaizkien Frantziako Errepublikako presidenteari, Hezkuntza ministroari, Euskal Elkargoko eta Euskararen Erakunde publikoko presidenteei.

Harrezkero, Jean-Baptiste Coyos buruordeak azaldu duenez, Frantziako Errepublikako presidentearen kabinetearen buruak, Brice Blondelek, gutuna igorri du, eta bertan esaten da Emmanuel Macron presidentea konbentziturik dagoela Frantziako hizkuntzak altxor nazionala direla, frantziar kultura aberasuten dutela eta garrantzitsua dela hizkuntza- eta kultura-ondare immaterial hori babestea. Era berean, gutuna Jean-Michel Blanquer Hezkuntza Nazionalaren ministroari eskuratuko diola eta gaiaz Euskaltzaindia informaturik izanen dela baieztatu du.

5.4. Hurrengo Bilkurak.

- Apirilaren 5ean, Euskaltzaindia Elkartearen Urteko Biltzar Nagusia egingo da Baionan, ordezkartzan, 17:00etan. Horren berri emango du Jean-Baptiste Coyos buruordeak.
- Apirilaren 10ean, Sarako Azoka egingo da. Euskaltzaindiak, Sarako Azokan, hiru argitalpen aurkeztuko ditu:

- Txomin Peillenek idatzia *Ene bertsoen bilduma / Recueil de versification (1951-2021)*.
- Jean-Louis Davantek idatzia *Blanca eta Viana: Nafarroako Blanca trajeria*.
- Jabier Kaltzakortak prestatua *Zerbitzari: idazlan hautatuak*.
- Apirilaren 29an, Osoko Bilkura egingo da Baionan, Herriko Etxean, 10:00etan.
- Apirilaren 29an, 2021eko azaroaren 26an izendatutako euskaltzain urgazleei (bai eta otsaileko Ageriko Bilkuran ikurra eta diploma jaso ez zuten oho-rezkoei ere: Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Ramon Saizarbitoria Zabaleta eta Bernhard Hurch) ikur-diplomak emateko, Ageriko Bilkura egingo da Baionan, Herriko Etxean, 16:00etan.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Bilkuraren ondoren, 2021. urtean zendutako Gorka Aulestia ohorezko euskaltzainaren, eta Kaxildo Alkorta, Ramuntxo Camblong eta Allande Socarros euskaltzain urgazleen hilberri txostenak irakurtzeko antolatu den Ageriko Bilkurara hurreratu dira euskaltzainak. Ekitaldiari buruzko argibideak eman ditu E. Osa idazkariordeak.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

2022ko martxoaren 25ean.

Batzar-agiria

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko Bilkura egin du, 2021ean hil ziren Gorka Aulestia ohorezko euskaltzainaren, eta Kaxildo Alkorta, Ramuntxo Camblong eta Allande Socarros euskaltzain urgazleen hiltzerri-txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Alfontso Mujika, Txomin Peillen, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzaina: Juan Luis Goikoetxea.

Euskaltzain urgazleak: Andres Alberdi, Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Sebas Gartzia Trujillo, Jacinto Iturbe eta Manu Ormazabal.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria.

Ekitaldian, Irati García biolin-jotzaileak eta Elene Etxebarria txelo-jotzaileak parte hartu dute.

2021. urtean hildako ohorezko euskaltzainaren eta euskaltzain urgazleen hainbat senide eta lagun.

A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Horiek horrela, lau omenduen profil euskaltzalea nabarmendu du bere sarrera-hitzaldian, eta goraipatu du euskara eta euskal kulturaren alde guztiek eginiko lan eskerga. Ondoren, banan-banan irakurri dira iaz zendutakoen

hilberri-txostenak.

Karlos Otegi euskaltzain urgazleak Gorka Aulestia (Ondarroa, Bizkaia, 1932 – Gasteiz, Araba, 2021) ohorezkoaren profila aletu du. Gogoratu du Aulestiaren bizialdi oparoa, eta “ekintza ugari eta askotarikoetan” murgildutako lankide bezala definitu du. “Euskal Herriaz gain, Frantzian, Zairen eta Ameriketako Estatu Batuetan jardundakoa. Nevadako Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitateak sustatutako *Esperientzia Gelak* programan irakasle izana, euskal literaturaren idazle askori buruzko monografia biografiko-literarioak osatu eta argitaratu zituen Gorkak”, esan du Otegik. Baina, horren guztiaren gainetik, ondarroarra “kontalari aparta, jendekina eta errotik baikorra” zela aitortu du.

Iñaki Sarriugarte irakasle eta Mendebalde Kultura Elkarteko kideak Kaxildo Alkortaren (Getaria, Gipuzkoa, 1943 - Bilbo, Bizkaia, 2021) bizitzari buruzko zertzelada batzuk eman ditu, euskaltzale gipuzkoarrak jorratutako arlo esanguratsu batzuk aipatuz: “Getariatik Nerbioi-ertzetara, Nafarroan barna, Xabier-Loioletan, pilota-munduan, irakasletzan, IVAPen, UZEIn, Mendebalde elkartearen, Euskaltzaindian... Ubera gizatiarra utzi du Kaxildo Alkortak bere bizitzan zehar”.

Adolfo Arejitak irakurri du Gexan Alfaro euskaltzain urgazleak Ramuntxo Camblongi (Makea, Lapurdi, 1939 – Angelu, Lapurdi, 2021) buruz idatzitako hilberri-txostena. Alfarak Camblongen ibilbide oparoa laburbildu du bizpahiru orrialdetan, gogoratuz “1969an Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen elkarteko sortzaileetarik bat” izan zela, eta 1972an Elkar argitaletxearen sustatzailea ere bai. Horrez gain, “Euskal Herriko Kultur Zentroko lehendakari aritu zen 1984tik 1988ra, eta EKE Euskal Kultur Erakundeko buru egon zen beste lau urtez (1990etik 1994ra bitartean). Bestalde, kristau gisa, *Fededunak* deitu elkarteko kide ere bazen”, agertu du txostenean Alfarak. Camblongen idazle profila ere ez du ahantzi, eta azpimarratu du *Herrian*, *Jakinen* eta *Euskaldunon Egunkarian* edozenbat artikulu idatzi zituela.

Battitu Coyos buruordeak Jean-Louis Davantek idatzitako txostena irakurri du. Bertan, Allande Socarros (Etxebarren, Zuberoa, 1957 – Maule, Zuberoa, 2021) idazle eta kazetariaren ibilbide politiko eta kulturala deskribatu du, xeheki, bestelako kontu batzuk ere aipatuz: “Idazle zinez emankorra eta ona izan da berrogei bat urtez, bai zubereraz, bai euskara batuan, erakutsiz gainera praktikan euskara batua

eta euskalkiak ez direla elkarren etsaiak, alderantziz, elkar laguntzen dutela eta osatzen”. Davantek Socarrosen izaera “lagunkina” ere nabarmendu du bere idazkian: “Allande Socarros langilea bezain lagunkina zen, maitagarria eta maitatua”.

Ekitaldia girotzeko, Irati García biolin-jotzaileak eta Elene Etxebarria txelo-jotzaileak hiru pieza klasiko interpretatu dituzte. Hain zuzen, J. S. Bach-en *Re Maiorreko Suitearen ‘Aria’*, Vivaldiren *Bi txelorentzako kontzertua (2. mugimendua)* eta J. Massenet-en *Thais-en meditazioa*.

Ekitaldia 13:30ean amaitu da, A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko hitzak entzun ostean, gaurkoan omentzeko asmoz, hasieran esan dituenak gogora ekarriz, hurreratu diren senide eta lagunei hildakoek eginiko lanak azpimarratuz eta go-goan izanen ditugula berretsiz.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Baionan, Herriko Etxean.

2022ko apirilaren 29an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto González de Viñaspre; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Jabier Kaltzakorta; Miren Agur Meabe; Andoni Sagarna; Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkia; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Baionan, Herriko Etxean, egin da, 2022ko apirilaren 29an, ostiralean.

Bilkuraren aurretik, Baionako Herriko Etxeko Yves Ugalde 4. axuantak eta Xabier Parrilla Etchart 14. axuanta eta Herriko Etxean hizkuntza politikaz arduratzen denak euskaltzainak agurtu dituzte eta harrera egin diete.

A. Urrutia euskaltzainburuak jakitera eman du Donostian, 2022ko otsailaren 25ean izendatutako Miren Agur Meabe euskaltzainak 2022ko martxoaren 14an gutun bat igorri duela. Gutun horretan adierazten da, batetik, izendapena onartzen duela eta, bestetik, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela. Beraz, Barne-erregelatan, 64.6 xedapenean, araututako prozedura bete da eta M. A. Meabek euskaltzain osoaren izaera eskuratu du.

Ondoren, euskaltzainburuak etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, apirileko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko Bilkurako (2022-03-25) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharririk jaso. A. Urrutiak ahoz oharririk egin nahi den galdetuta, ez da oharririk egin. Ondorioz, 2022ko martxoaren 25eko bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduen oharrak (XXXII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi duenez, martxoko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrendari oharrak egin dizkio X. Videgainek.

ere sarrerako “*Euskal idazleak arloteak, eskasak, gogaikarri samarrak ere bai, agertzen zitzaizkigun*” adibidean, bigarren koma ezabatzea proposatu du ohargileak, baina ez da onartu, beharrezkoa baita dagoen lekuan. *eskas* 7. sarrerako adibidea (“Euskara aski eskasa eta gabea da fonema kontuan”), Mitxelenarena, ezabatzeko dio ohargileak, baina zuzena da, hiztegiak ez baitio iritziari begiratzen, iraingarria ez bada behintzat, hizkuntzaren erabileraren zuzentasunari baizik. Dagoen-dagoenean uztea onartu da. Aldiz, *gogor izan* azpisarrerako “*Emakume baten gogo gaiztoari gogor egin beharrean aurkitu zen*” adibidea ez da egokia eta, bestela ere aski adibide daudenez, isiltzea onartu da. *institutu* sarrerako lehenengo adiera zabaldu egin da (‘Alor askotako adituak, artistak edo idazleak biltzen dituen erakundea; zenbait ikastetxe eta ikerketa-lekuri ematen zaien izena’), eta adiera berria egin da: “3. iz. Ipar. Frantzian, irakaskuntza pribatuko ikastetxea”. *irten* sarreran, erlijioari lotutako adibide gehiegi daudela eta, horietako bat ezabatu eta “*Aukera ona izan zitekeek egoera honetatik irteteko*” berria jaso da. Azkenik, *zabal* sarreran ‘zabal’ adiera gehitzea proposatu du ohargileak, baina ez da beharrezkoa ikusi, nahasgarria izan daitekeela iritzita. Horrez gain, hiztegiak jaso berriak dituen *plater azal*, *plater zapal*, *plater sakon*, *plater txokon* azpisarrekerekin batera, *zabal* eta *barnetsu* sartzea proposatu du ohargileak, baina *plater/plat/azieta zabal/barnetsu* behar duen zehaztu gabe. Hiztegiko ordezkariak, hiztegi eta corpusetan aurkitutako datu urrien aurrean, Osoko Bilkurak erabakitzeke utzi dute proposamena. Aurrera begira familia osoa berrikustea baina, oraingoz, ez jasotzea onartu da.

Ez da beste oharririk jaso eta, hortaz, multzo osoa onartuta geratu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua- ren oharrak (XXXIII). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak zerrenda berria aurkeztu du, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Oharrak egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 16 artekoa.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Batzorde Ahaldundua. Zibersegurtasunaren oi- narrizko lexikoa. Aurkeztu.

Euskaltzaindiak eta UZEIk sinatutako hitzarmenaren barruan landu du UZEIk *Zibersegurtasunaren oinarrizko lexikoa*, 27 forma biltzen dituen. X. Videgainek egindako oharrak aztertu dira bileran: *phishing* definitzeko ‘amu’ hitzetik kalko bat asmatzea proposatu du, baina ez da onartu, ez baitago metaforaren beharrik eta, gainera, ez delako hitzik asmatzen, erabiltzen dena jasotzen baizik, hala dagokionean behintzat. *spam* hitzaren definizioa zabalatzeko eskatu du ohargileak, eta hala onartu da. *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* definizio berari heldu dio UZEIk, ‘mezu baztergarria’, baina hiztegiko *mezu baztergarriaren* definizio zabalagoa jasotzea onartu da. *ziber-* osaerako forma guztietan “webgunea (Internet)” aipatzea eskatzen bazuen ere, ez da onartu, “informatika”, dagoena, zabalagoa baita, hor sartzen dira Internet eta era guztietako sistema digitalak. *doxxing*, *fraping*, *kriptojack* formak jasotzea ere proposatu du, baina 27 hitzeko oinarrizko lexiko baterako gehitxo izan daitekeela iritzita, ez sartzea onartu da; Hegoaldean, gainera, ez daude oso hedatuak. *objektu konektatu* aipatzeko ere badio Videgainek, baina termino horrek ez du, berez, zibersegurtasunarekin zerikusirik. Azkenik, *ziberkrimen* jasotzeko eskatu du, baina *ziberdelitu* jaso dago eta termino zabalagoa da. 27ko zerrenda honetarako, oraingoz behintzat, aski dela onartu du Osoko Bilkurak.

Oharrak gaur aurkeztu besterik egin behar ez baziren ere, azkenean Osoko Bilkurak ontzat eman ditu eta *Zibersegurtasunaren oinarrizko lexikoa* onetsi da.

5. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Azalpen orokorra.

Euskaltzainburuak adierazi du barne-jardunaldien ondorioetako bat izan zela ortotipografia lantzea. Horretarako, 2021ean, EBE batzordeari egitasmoa lantzen hasteko eskatu zitzaion. Eta EBE batzorde ahaldundua ez denez, hark prestatzen dituen lanak Osoko Bilkurara ekarriko dira, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko. Horiek horrela, EBE batzordeko A. Mujikak egitasmoaren prozedura eta kronograma azaldu ditu.

2021eko urrian hasi zen EBE batzordea proiektua lantzen. Lehenik, prozedura finkatu zuen, hiru mailatan: txostengilea, EBE batzordea eta Osoko Bilkura. Ondoren, behin-behineko edukiak zehaztu zituen, lanaren helburua finkatu zuen, didaktazio-ereduari buruzko gogoeta egin zuen eta behin-behineko kronograma bat ere egin zuen, edukiak Osoko Bilkurara noiz eramango diren aurreikusteko. Banatu den dokumentuan, zehazki adierazita daude hala prozedura nola kronograma. Egitasmoa 2024ko udarako amaitzea aurreikusi da.

Prozedura zehaztu eta kronograma egin ondoren, edukietan lanean hasi baino lehen, bibliografia jaso da: 60 bat oinarriko lan, euskarazkoak, gaztelaniazkoak, frantsesezkoak, ingelesezkoak eta katalanezkoak. Ondoren, lehen atalari ekin zion batzordeak: laburtzapenak (sarrera orokorra, laburdurak eta siglak). Hasieran aurreikusi ez bazen ere, batzordeak erabaki zuen laburduren lanari laburduren hiztegi labur bat eranstea.

Lan horiek amaituak ditu batzordeak, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio. Hurrengo bi atalak ere landuak ditu batzordeak: siglak eta ikurrak. Txostenak eginda daude, eta batzordekideen oharrak ere jasota eta landuta daude. Batzordearen hurrengo bi bileretan bi atal horiek ere prest geldituko dira Osoko Bilkurara ekartzeko. Eta laugarren atalaren txostena ere (letrakerak) egina eta batzordean aurkeztuta dago, batzordekideen oharren faserako prest.

6. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Laburtzapenak. Aurkeztu.

Txostena banatu da, eta A. Mujikak azaldu du gaingiroki. Laburtzapenei buruzko sarrera orokor bat prestatu da, laburtzapenak, oro har, zer diren azaldu eta laburtzapen fonikoak eta grafikoak bereizteko. Ortotipografiari laburtzapen grafikoak

dagozkie. Haien helburua eta funtzioa zein diren deskribatu da, eta laburtzapean grafikoen komunikazio-teknologia berrietan duten tokiri buruzko azalpenak ere ematen dira idazkian. Ondoren, laburtzapean motak zein diren zehazten da, eta, amaitzeko, euskarazko laburtzapean historia laburra egin da, arlo horretako lan nagusiak zein izan diren azaltzeko eta Euskaltzaindiak arlo horretan zer egin duen aditzera emateko.

7. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Laburdurak. Aurkeztu.

Txostena banatu da, eta A. Mujikak azaldu du. Hemezortzi puntutan banatuta dago txostena eta hainbat azpipuntutan: azalpen orokorra, laburdurak nola irakurri behar diren, erabilera-aholkuak, laburdurak sortzeko bideak, marratxo eta zuriuneak laburduretan noiz-nola, letra xeheak eta larriak laburduretan noiz-nola, letra etzana laburduretan noiz, laburduraren puntua eta gainerako ortografia-markak nola uztartu, laburduren kokaera egokia eta desegokia lerroan, eta laburdurak kasu-markekin nola uztartzen diren. Azalpenez gainera, adibide ugari hornitu da txostena.

Txostena eztabaidatu ondoren, batzordeak erabaki zuen laburduren hiztegi labur bat ere prestatzea, eredu garri gertatzeko eta han-hemen dabilzan laburdura desegoki batzuen aurrean forma egokiak proposatzeko. Hori da txostenaren azken puntua, laurehun bat laburduraz osatua.

Hiru ohar utzi ditu EBE batzordeak Osoko Bilkurarako:

- postdata latinezko hitza *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sartzen bada, (versus sartu den bezala), laburdura jada ez litzateke letra etzanez idatzi behar.
- Laburduraren ondoko etenpuntuak idatzi behar direnean, hiru puntu edo lau puntu idatzi? Ez dago argudio sendorik era batera edo bestera egiteko, eta hizkuntzatik hizkuntzara aldeak daude.
- astearte hitza laburtzeko ar. eta as. proposatu dira euskarazko lan batzuetan (Euskaltermek eta IVAPek as. eta EIMak eta *Berriak*, berriz, ar.). Bien artean, ar. formak egokiagoa dirudi, astelehen edo asteazken hitzen laburdura izan daitekeela pentsatzeko bidea ixteko.

Laburduren hiztegitxoia osatzeko, Euskaltzaindiaren lau produktu garrantzitsu arakatu ditu EBE batzordeak: *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *Euskal Hiztegi Historiko-etimologikoa*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* eta *Euskararen Gramatika*, eta ikusi da kasu gutxi batzuetan haietan erabili diren laburdurak ez datozela bat batzordeak txostenean proposatzen duenarekin eta, bestalde, hitz bera laburtzeko ez direla laburdura berak erabili beti lan horietan guztietan; alegia, batetik bestera badirela aldaera batzuk. Horregatik, beste txosten bat egin da horren berri emateko eta, egoki iritiz gero, nola bateratu litezkeen azaltzeko. Txostena banatu da, eta labur azaldu da.

M. Urkiak adierazi du, *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* dagokionez, aztertu dutela eta egoki ikusten dutela aldatzea, baldin eta Osoko Bilkurak txostena onartzen badu. Azaldu du zalantza izan dutela batez ere jakintza-arloen laburduren hasierako letra larriarekin, hori delako euskal hiztegi eta entziklopedietan orain arte erabili dena, baina ez dutela arazorik egokitzeko. M. Azkaratek adierazi du *Euskararen Gramatikako* laburduretan detektatu diren laburdura horiek aldatzeko arazorik ez duela ikusten obraren bertsio digitala egiten denean.

Oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 20 artekoa. Oharrak egiten laguntzeko, dokumentuak euskarri digitalean igorriko dira astelehenean, oharrak egiteko fitxa batekin batera.

8. Esku artekoak.

8.1. Iñaki Segurola filologo eta euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Azpeitian (Gipuzkoa) jaio zen Segurola, 1962ko martxoaren 8an. Euskal Filologian lizentziaduna (UPV/EHU), Euskaltzaindiak 1991ko urtarrilaren 31n izendatu zuen urgazle. Urte luzez, honako batzorde edota egitasmo hauetan egin izan ditu ekarpenak: Orotariko Euskal Hiztegia lantaldea (1989-2005), Hiztegi Batua lantaldea (1993-2009) eta Euskal Hiztegi Historiko-etimologikoa egitasmoa (2010-2021). Idazlea ere bazen Iñaki Segurola eta zenbait hedabidetan ere kolaboratu izan du.

8.2. Bost urterako lankidetzahitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarteak, apirilaren 1ean. Bi erakundeok euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, zabalkundean eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartu dute, bertsoaritzaz ezagutzera emateko egitasmoak, monografiak, bertsozaletasuna indartzeko lehiaketak, ikastaroak, iker-

ketak, bekak eta abar abian jarri ahal izango dituzte elkarlanean. Horrez gain, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak iraganean zein hitzarmen honen indarraldian sorturiko euskarazko edukia baliatuko luke, hain zuzen, Akademiak dauzkan ahozko zein idatzizko edukiak biltzen dituzten datu-baseak aberastea litzateke helburua (Euskaltzaindiaren datu-baseek hainbat hedabidek, argitaletzek eta erakundek euskaraz ekoitzirikoa -ahoz nahiz idatziz- jasotzen dute, corpusaren oinarri bihurtuz).

8.3. Hurrengo bilkurak.

Maiatzaren 21ean, larunbatean, Elizondon, udaletxean, Osoko Bilkura laburra egingo da, 10:00etan. Ondoren, 12:00etan, Amaiurko plazan, P. Rekalde euskaltzainaren sarrera hitzaldia dela eta, Ageriko Bilkura egingo da. Argibideak datorren astean bidaliko zaizkie euskaltzainei.

9. Azken ordukoak.

P. Zabaleta euskaltzainak, Espainiako Gobernuak, joan den martxoan, Susperaldi eta Eraldaketa Ekonomikorako Egitasmo Estrategikoen barruan, onetsitako Hizkuntzaren Ekonomia Berria egitasmorekiko kezka azaldu du. Izan ere, bere iritziz, onetsitako egitasmoan euskara, katalana eta galegoa ez dira aintzakotzat hartzen. Inguruabar horretan, zenbait erabaki-proposamen aurkeztu du. Horien artean, proposatu du harreman-bidea garatzea katalanaren eta galegoaren akademiekin, besteak beste, estrategiak koordinatzeko. Era berean, Espainiako Kongresuko zenbait talde parlamentariok gaiarekiko interesa eta kezka dutela ere azaldu du.

A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi du erabaki-proposamenak bideratzeko prozedura Barne-erregeletan, 67.5 xedapenean, zehaztuta datorrela eta, horren arabera, ezin dela gaia horrela bideratu. Edozein gisaz, gaiari buruz P. Zabaletaren kezka jasotzea proposatu du. Era berean, azaldu duenez, Ukrainako gerra hasi aurretik, Espainiako Gobernuak harremanetan jarri zen Euskaltzaindiarekin egitasmoari buruz hitz egiteko. Bilkura Donemiliagan egitekoa zen eta hizkuntzen akademia guztiak deituta zeuden. Ukrainako gerra arrazoitzat erabiliz, Espainiako Gobernuak atzeratu du aurrez aurre egin beharreko bilkura hori. Nolanahi ere, gaiari buruz hiru akademia historikoak harremanetan daudela eta era bateratuan jokatzeke asmoa dagoela esan du. Gaiari buruz egiten diren urratsen berri Osoko Bilkurari emango zaio, gertatu ahala.

Bilkurari amaiera eman aurretik, A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu eta euskaltzainei eskerrak eman dizkie apirilaren 10ean zendu zen Jesus Maria Urrutia Badiola “Txuma” bere anaiaren heriotza dela eta, adierazitako dolumin mezuengatik.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:15 direnean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Baionan, Herriko Etxeko areto nagusian.

2022ko apirilaren 29an.

Batzar-agiria

Baionan, Herriko Etxeko areto nagusian, 16:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko Bilkura egin du, 2021eko azaroaren 26an izendaturiko euskaltzain urgazleei ikurra eta diploma emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagarrio Aleman Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Xabier Kintana, Alfontso Mujika, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Paskual Rekalde, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Xipri Arbelbide, Bernhard Hurch, Antonio Campos, Luzien Etxezaharreta eta Marikita Tambourin.

Gaurko ekitaldian ikurra eta diploma jasoko duten euskaltzain urgazleak: Libe Agirre, Kike Amonarriz, Mixel Aurnague, Eneko Barrutia, Eneko Bidegain, Itxaro Borda, Pantxoia Etxegoin, Eba Gaminde, Asun Garikano, Aizpea Goenaga, Pedro Mari Goikoetxea, Manuel González, Oroitz Jauregi, Mikel Morris, Nerea Mujika, Marie-Andrée Ouret eta Elixabete Piñol.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Xabier Parrilla Baionako Herriko Etxeko 14. axuanta eta hizkuntza politikaren arduraduna.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Annie Etcheverry.

Ikurra eta diploma jasoko duten euskaltzain urgazleen hainbat senide eta lagun.

Ekitaldia, Xabier Parrillak (1. txistua), Andrey Pelsek (2. txistua), Yves Panizzolik (txistu handia) eta Xabier Saint Arromanek (atabala) girotu dute.

X. Parrilla Baionako auzapezordeak hitza hartu eta harrera egin die urgazle berriei Baionako Herriko Etxearen izenean.

A. Urrutiak gogorarazi du ikurra eta diploma jasoko duten euskaltzain urgazleak Iruñeko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an eginiko Osoko Bilkuran izendatu zirela. Bilkura horretan, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak baino ez ziren izendatu, Arabakoak 2015eko uztailearen 17an izendatu baitziren, eta Nafarroako azken urgazleak 2016ko apirilaren 29an. Ondoren, gaur ikur-diplomak jasoko dituzten euskaltzain urgazleei adierazi die Akademiak kontuan izan dituela beraien merituak euskararen alorrean, baina ondoren etorkizunari begira jarri da Urrutia: “Izendatuak izan zarete, eta orain dator bigarrena, alegia, zuen lanak eta ahaleginak gauzatzea Akademiaren barruan. Laster jakingo duzue nolakoa izango den zuen partaidetza, Akademiaren egunerokotasuna ezagutu dezazuen eta zuen ekarpenak egin ditzazuen”. “Orain artekoa nahiz etorkizunekoa, Euskaltzaindiak premiazkoa du zuen lana”, gaineratu du euskaltzainburuak.

Ikurra eta diploma banaketa Bernhard Hurch ohorezko euskaltzainarekin hasi da. Izan ere, ohorezko euskaltzainei ikurra eta diploma emateko asmoz, 2022ko otsailaren 25ean antolaturiko bilkura ez zuen hurreraterik izan Hurchek. E. Osa idazkariordeak austriarraren soslai laburra irakurri du. Hurchek eskerrak eman dizkio Akademiari eta dezakeen guztian laguntzeko prestutasuna erakutsi du.

Ondoren, idazkariordeak euskaltzain urgazle bakoitzaren soslai laburra irakurri du. Segidan, euskaltzain urgazleek hitza hartu dute eta esker oneko berbak esan dituzte. Ikur-diplomak banatu ondoren, idazkariordeak azpimarratu du euskaltzain urgazle izendatutako Nerea Azurmendik (Legazpi, 1961) eta Jon Sarasuak (Aretxabaleta, 1966), hainbat arrazoi direla tarteko, ez dutela hurreraterik izan eta aurrerago eskuratuko zaiela ikurra eta diploma.

Ekitaldiari 17:20 direnean amaiera eman zaio, A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko hitzak entzun ondotik. Urrutiak euskaltzain urgazle berriak euskara eta euskal kulturarekiko erakutsi duten atxikimendua azpimarratu eta gizartean, bai eta Akademiaren barruan ere, lanean segitzeko eskaria egin die.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Elizondon, udaletxean.

2022ko maiatzaren 21ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto González de Viñaspre; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Andoni Sagarna; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres

Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Xarles Videgainek ahala Patxi Zabaletari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Elizondoko udaletxean egin da, 2022ko maiatzaren 21ean, larunbatean.

Bilkuraren aurretik, Joseba Otondo Baztango Udaleko alkateak eta Ixabel Aleman Amaiurko herriko alkateak euskaltzainak agurtu dituzte eta harrera egin diete, Baztango Udaleko Osoko Bilkuren aretoan.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko Bilkurako (2022-04-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2022ko apirilko 29ko bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua- ren oharrak (XXXIII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi duenez, apirileko Osoko Bilku-
ran aurkeztutako zerrendari ohar bakarra egin dio A. Mujikak. Hain zuzen ere,
hiztegiko arduradunek EBE-EBOri argitzeko eskatua ziotena: *Ipar/Hego hemisferio*
letra larriz ala xehez idatzi behar ote den.

A. Mujikak euskal tradizioaren eta erdal erabileren datuak aurkeztu ditu bileran
eta, EBE batzordeak letra larri/xeheak aztertu arte, behintzat, *Ipar/Hego hemisferio*
egitea proposatu du. Eta, horrekin batera, *hemisferio* izena kalifikatzeko erabiltzen
diren *austral* eta *boreal* adjektiboak ere letra xehez idaztea proposatu du: *hemisferio*
australa eta *hemisferio boreala*. Onartu egin da proposamena. Horiek horrela, beste-
lako oharrak jaso ez denez, multzo osoa onetsita geratu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua- ren oharrak (XXXIII). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak zerrenda berria aurkeztu du, M.
Azkaratek, A. Iñigok eta X. Videgainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek
emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 13 artekoa.

4. Esku artekoak.

**4.1. Miren Jone Azurza kazetari eta ohorezko euskaltzainaren heriotzaren be-
rri.** Miren Jone Azurza Aristegieta kazetaria zendu da Donostian, 92 urte zitue-
la. Miren Jone Azurza aitzindaria izan zen kazetaritzan: lehen kazetari tituludun
emakumezko euskalduna; hedabide bat zuzentzen lehen emakumezkoa eta abar.
Donostian jaio zen, 1929ko maiatzaren 18an. Historiako lizentziaduna (Deustuko
Unibertsitatea), *Zeruko Argiako* zuzendari izan zen zortzi urtez (1969-1977). ‘Deia’,
‘Garaia’ eta ‘Muga’ hedabideetan ere jardun zuen. 2011n Ohorezko Rikardo Arre-
gi Saria jaso zuen, eta 2018ko apirilaren 27an ohorezko euskaltzain izendatu zuen
Euskaltzaindiak.

Familiari eta hurbilekoei doluminak adieraztea erabaki da Osoko Bilkuraren ize-
nean.

4.2. Aña Durruty Piarres Xarriton euskaltzain emeritu zenaren alargunaren heriotzaren berri. A. Urrutia euskaltzainburuak heriotzaren berri eman du.

Familiari eta hurbilekoei doluminak adieraztea erabaki da Osoko Bilkuraren ize-
nean.

4.3. Patxi Zabaleta euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2022ko maiatzaren 20an, 75 urte egin dituenz gero, Euskaltzaindiaren Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1. xedapenaren arabera, Patxi Zabaleta euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsar-
tea iragartzen da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsartea “hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izan-
go dira” (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3. xedapena). Horre-
la, gogorarazten da Arautegiaren 34. artikulua dioena: “Euskaltzain osoa izateko
proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera,
zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz”.

4.4. Hurrengo Bilkurak:

- Ekainaren 22an, asteazkenean, Eibarko udaletxean, Osoko Bilkura egingo da, 10:00etan.
- Egun eta toki berean, 12:00etan, Juan San Martin euskaltzain oso zenaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, ekitaldia egingo da.

5. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 11:00etan.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Amaiurren, herriko plazan.

2022ko maiatzaren 21ean.

Batzar-agiria

Amaiurko herriko plazan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko Bilkura egin du, Andres Iñigo euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, Bilbon, egoitzan, 2020ko uztailaren 17ko Osoko Bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Paskual Rekalderen sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagarrio Aleman Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Alfontso Mujika, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Martzel Andrinua, Koldo Artola, Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza.

Euskaltzain urgazleak: Andres Alberdi, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Igone Etxebarria, Patxi Galé, Patxi Iñigo, Patxi Petrirena, Castillo Suárez, Luis Mari Zaldua eta Juan Jose Zubiri.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea; Ana Olo Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria; Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Jabi Arakama Nafarroako Parlamentuko GB taldekoa; Isabel Olave Nafarroako Parlamentuko NA+ taldekoa; Joseba Otondo Baztango Udaleko alkatea eta Ixabel Ale

man Amaiurko herriko alkatea; Baztango zinegotziak eta eskualdeko zein herriko elkarte, ikastetxe eta ikastolako ordezkariak.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Itziar Luri.

P. Rekalde euskaltzainaren ama, emaztea, haurrideak, ilobak eta lagunak.

Gaurkoan, Akademiaren barne-arauek agintzen dutenari jarraikiz, sarrera-hitzaldia egitea egokitu zaio P. Rekalde euskaltzainari. Euskaltzaindiak bere sorterriko plazan antolatu duen ekitaldian egin du mintzaldia P. Rekaldek. Aurretik, Euskaltzaindiak Osoko Bilkura egin du Baztango udaletxean (Elizondon).

Ekitaldiari hasiera eman aurretik, dantza-saioa egin dute Amaiurko eskolako haurrek, Patxi Larralde arizkondar txistulariak zuzendutako taldearen musikaz lagundurik, P. Rekalderen sortetxearen, Joanikotenearen, aitzinean. Sortetxean izan dira, halaber, euskaltzain osoak, bai eta herri-agintariak ere. Ondoren, guztiak herriko plazara hurreratu dira.

Ekitaldiari hasiera emateko, Baztango Gaitariak izan dira; ondoren, Mikel Altuart *Dutari* baztandar bertsolariak pare bat bertso bota du; gero, Amaiurren Kantuz abesbatzak *Amaiur zintzo eta leiala* abestia kantatu du (Jexux Urrutiaren letra eta Fernando Cortijoren musika). Abesbatzaren ostean, A. Urrutia euskaltzainburuak, ekitaldiaren sinbolismoa eta garrantzia nabarmendu ditu bere mintzaldian. Ondoren, hitza hartu dute Joseba Otondo Baztango alkateak eta Isabel Aleman Amaiurko herriko alkateak ongiatorria emanez hurreratu diren guztiei.

A. Arejita Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu eta gogorazi du, Andres Iñigo euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, Bilbon, egoitzan, 2020ko uztailaren 17ko Osoko Bilkuran euskaltzain oso izendatu zela P. Rekalde. Haren sarrera-hitzaldiak 2021ean behar zuen, baina, COVID-19ak eragindakoa osasun egoeraren ondorioz, gibelatu behar izan da 2022ko udaberrira arte. Argibide horien ostean, A. Iñigo eta S. Aleman euskaltzainak P. Rekalde euskaltzaina ekarri dute Herriko Plazara, sarrera-hitzaldia irakur dezan.

Paskual Rekaldek sarrera-hitzaldian hiru gai nagusi jorratu ditu: euskara batua eta mintzamoldeak; Baztango hitzen ekarpena Euskaltzaindiaren Hiztegiari; eta Amaiurko toki-izenak, etxe-izenak, pertsona-izenak... (ezagun zein ezezagun). Rekaldek Andres Iñigo euskaltzain emeritua izan du gogoan bere hitzaldiaren hasie-

ran, haren lekua hartu baitu Akademian Amaiurko semeak. 24 urtez Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria izan denak eginiko lan eskergea azpimarratu du, bai onomastikan, bai hiztegian baita euskararen sustapenean ere. “Berari esker gero eta gehiago dira Nafarroako euskarazko hitzak *Euskaltzaindiaren Hiztegian*”, gogoratu du.

Euskaltzainak esan du 50 urtetik gora duen euskara batua ere indartzen ari dela, hain zuzen, eskolan eta unibertsitatean ikasten dena, “ahozkora ere hedatzen ari dela, partez bada ere zenbait tokitan”. Ondoren, Baztango euskararen aitzindari egin die ohore Paskual Rekaldek, Juan Kruz Goienetxe, Bitorio Apeztegia eta Jazinto Santsiñena amaiurtar apaizen ekarpenak aletuz.

Iraganetik jauzi eginez, euskarak gaur egun Nafarroan bizi duen egoeraz hitz egin du. “Belaunaldi berriak euskaraz gehiago mintzo dira (...) Euskara presente da hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan”, baina nabarmendu du, baita ere, hizkera “aunitz aldatu dela” azken urteotan. “Baztandarrak, eskuarki, ez gaude Iparraldera begira: gure euskara ez da egun baztanera-lapurtera, baztanera-nafarrera baizik”, aitortu du. Hortaz, ondorioztatu du “Baztango euskara *nafartzen* ari dela, eta gero eta euskara batuagoa egiten dutela bereziki eskolatik igaro diren haurrek”.

Baztango hitzei ere erreparatu die Rekaldek, Amaiur izenetik hasita. Ondoren, inguruko toponimia astindu du, zenbait bitxikeria argituz. Atzenean, Amaiurrek “bizirik eta euskaldun segitzen duela” azpimarratu du, “bere nortasun propioaz harro”.

Miriam Urkia euskaltzain osoak eman dio erantzuna Rekalderen hitzaldiari, eta haren ibilbide oparoa gogoratu du, Euskaltzaindian eginiko lanak nabarmenduz. Ondoren, goi-nafarrerak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* duen lekua azaldu du Urkiak (ia 600 adiera, momentuz).

Ekitaldiaren akabailan, euskaltzain berriak zin egin dio bere karguari, euskaltzain izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela esanez. Ondoren, euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu P. Rekaldek euskaltzainburuaren eskutik. Hala berean, opari bana jaso du Joseba Otondo Baztango Udaleko alkatearen eta Ixabel Aleman Amaiurko herriko alkatearen eskutik. Segidan, *Xalbadoren heriotzean* interpretatu du Amaiurren Kantuz abesbatzak.

14:00etan eman zaio amaiera ekitaldiari, A. Urrutia euskaltzainburuak Amaiur-

ko herriari eta herritarrei adierazitako esker oneko hitzak entzun ondotik. Euskaltzainburuak gaurko ekitaldia euskaltzain oso berriak iraganean eginikoengatik aitortza jasotzeko balio duela adierazi du, bai eta Akademian egin behar dituen lanen pizgarri izateko ere. Azkenik, ekitaldira hurbildutakoek zintzurra busti eta gozatzeko aukera izan dute amaiurtarrek prestatutako tokiko jakiekin, Baztango Gaitariak taldeko hiru kidek jotako musikaz lagundurik.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Eibarren, udaletxean.

2022ko ekainaren 22an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Miren Lourdes Oñederra; Paskual Rekalde; Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri;

Paskual Rekaldek ahala Andres Iñigori; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Eibarko udaletxean egin da, 2022ko ekainaren 22an, asteazkenean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak Osoko Bilkuraren ondoren, Juan San Martin euskaltzain zenaren mendeurrena dela eta, antolatu den Ageriko Bilkurari buruzko xehetasunak eman ditu.

1. Osoko Bilkurako (2022-05-21) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2022ko maiatzaren 21eko bilera-agiria onetsi da.

**2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua-
ren oharra (XXXIV). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.**

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi duenez, maiatzeko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrik egin, baina bileran bertan *trinko vs sintetiko* erabilerari buruzko datuak biltzeko eskatu zuen euskaltzainburuak, eta datu horiek banatu dira bileran.

Euskararen Gramatikak, EBek eta arauak jasotzen dutena ikusi ondoren, oraingoz, biak uztea eta *Morfosintaxiaren Estandarizazioa* Batzorde Ahaldunduak landu arte itzarotea onartu da. Horiek horrela, multzo osoa onartuta geratu da.

**3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua-
ren oharra (XXXV). Aurkeztu.**

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak zerrenda berria aurkeztu du, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena.

Oharra egiteko epea zabaldu da, uztailaren 11 artekoa.

**4. EBE batzordea. Euskara batuaren ortotipografia egitasmoa (EBO). Siglak.
Aurkeztu.**

EBE batzordeko A. Mujikak azaldu du Euskara batuaren ortotipografia egitasmoaren lehen bi dokumentuak (laburtzapenak eta laburdurak) apirileko batzorrean aurkeztu zirela eta haien oharra jasotzeko epea amaitu zela ekainaren 20an. Orain, EBE batzordean aztertzen ari dira. Gaurkoan, siglen txostena aurkeztuko da, eta aurreratu du hurrengo txostena sinboloei buruzkoa izango dela eta EBE batzordean jada onartua dagoela.

Siglen txostenaren aurkezpenean, adierazi du siglak direla laburtzapen-mota erabiliena eta garrantzikoena, laburdurek baino askoz presentzia handiagoa baitute hizkuntza idatzian. Txostenaren puntu nagusiak azaldu ditu handizka, eta xeheago deskribatu ditu erabiltzaileei zalantza gehien sortzen dizkieten puntuak: siglaren

irakurketa, erreferente berezia eta erreferente arrunta duten siglen arteko aldea eta siglei artikulua eta kasu-markak ezartzean kontuan hartu beharrekoak, bai eta erreferente berezia dutenen artean, plurala duten siglen kasu berezia ere.

Gai korapilatsua da siglen idazkeran letra guztiak larriz idatzi behar diren ala lehenengo bakarrik idatzi behar den. Puntu horretan ebazpen-proposamen bat prestatu du EBE batzordeak, baina, nazioartean adostasunik ez dagoenez eta eredu bat baino gehiago erabiltzen direnez, EBE batzordeak erdaretako informazioa ere erantsi du txostenean, oin-ohar gisa, euskaltzainei ikuspegi osoa eskaintzearen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, irailaren 5ean, astelehenean, amaitzen dena.

5. Esku artekoak.

5.1. Pantxoa Etchegoin-Elissagaray Ipar Euskal Herriko ordezkariordearen izendapenaren berri. Jean-Baptiste Coyos ordezkariari laguntzeko, bai eta Baionako ordezkari-tza bizkortzeko eta indarberritzeko ere, Pantxoa Etchegoin-Elissagaray euskaltzain urgazlea Ipar Euskal Herriko ordezkariordea izendatzea erabaki du Zuzendaritzak, 2022ko ekainaren 14an.

Pantxoa Ipar Euskal Herriko kultura-eragile ezaguna da. Euskal Kultur Erakundearen zuzendaria izan da 1996tik 2021era arte. *Gure Irratia* eta *Irulegi* irratian jardun du. Hainbat testu, itzulpen eta grabazio egin ditu, hala nola Euskal Herriko turismo bulegoarentzat eta Donibane Lohizuneko Musée Grevinentzat. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen Iruñean, 2021eko azaroaren 26an eginiko Osoko Bilkuraren.

5.2. Eustasio Etxezarreta euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Ekainaren 10ean hil zen E. Etxezarreta. Albizturren (Gipuzkoa) jaio zen, 1938ko urtarrilaren 28an. Haurtzaroko ikasketak Andoainen egin zituen, eta apaiz-ikasketak Donostiako seminarioan. 1963an, Donostiako elizbarrutiko apaiz egin zen. 1966-70 bitartean, Teologian eta Liturgian lizentziatu zen Erromako San Anselmo Institutuan. Donostiako elizbarrutian Liturgia Idazkaritzako arduradun eta Liturgia liburuen euskarazko itzulpenaren eta argitalpenaren elizbarruti arteko talde-arduraduna izan da 1970etik. EiTBko *Meza Santua* emankizunaren elizbarruti arteko arduraduna ere izan da Etxezarreta.

1979an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, eta Akademiak omenaldia egin zion 2019an.

5.3. Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. Bi-biek euskara eta euskal kultura zabaltzeko xedez, hitzarmena izenpetu zuten Iruñean, maiatzaren 24an. Bi erakundeek euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, zabalkundean eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartu dute. Lankidetzaren lehen emaitza heldu den irailerako antolatzen ari den *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean* mintegia izanen da.

5.4. Euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute Espainiako Senatuak eta Euskaltzaindiak, maiatzaren 26an. Hitzarmenaren arabera, Senatuak eta Euskaltzaindiak euren artxiboak, liburutegi eta dokumentu-funtsak erabiltzea errazago izango dute, eta argitalpenak batera argitaratzea erabaki ahal izango dute. Horrez gain, garrantzi bereziko lege-testuak itzultzen eta euskararen erabilera zuzena sustatzen lagunduko dute, materialak hizkuntza horretan sortuz, bai formatu digitalean, bai paperean.

5.5. Euskaltzaindiaren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena izenpetu da ekainaren 3an. Hitzarmen hau urtero sinatzen da, eta bertan ezartzen da Euskaltzaindiak euskara garatzen eta plazaratzen lagunduko diola udalari, hizkuntza arloko aholkularitza emanez eta hizkuntza biziberritzeko eta euskal kultura zabaltzeko hitzaldiak eta kultur jarduerak antolatuz. Halaber, aurtengo ekintzen artean dago jasota *Blas de Otero: Una letra impagada / Ordaindu gabeko letra bat* izeneko obraren argitalpena.

5.6. Hurrengo bilkurak.

- Bilbon, uztailaren 20an, asteazkenean, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzata rteko dela, “2030eko euskaldun eleaniztuna” jardunaldia egingo da, 09:00etatik aurrera.
- Alkizan, uztailaren 22an, ostiralean, Alkizako eskolako beheko solairuko gelan, Osoko Bilkura egingo da, 10:30ean; Juan Irazusta Alkizaleteren omenez, 13:00etan plaka inauguratu eta talde argazkia aterako da; arratsaldean, 17:00etan, udaletxean, Irazustari buruz erakusketa zabalduko da. Ondoren, elizan, Irazustaren omenez argitaratu den liburua aurkeztu eta hitzalditxoa emango da.

6. Azken ordukoak.

E. Osa idazkariordeak adierazi duenez, Euskaltzaindiaren Arautegia eta Barne-erregelak hizkuntzaren aldetik orrazteko egin beharreko lanak amaitu dira. Ondorioz, Osoko Bilkura amaitu ostean, Arautegia eta Barne-erregelak igorriko zaizkie euskaltzainei euskarri digitalean.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Eibarren, udaletxean.

2022ko ekainaren 22an.

Batzar-agiria

Eibarko udaletxean, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko Bilkura egin du, Juan San Martin euskaltzain osoa izan zenaren jaiotzaren mendeurrenean.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Luis Alberto Aranberri “Amatiño”, Luis Baraiazarra, Joxe Mari Iriondo eta Julen Urkiza.

Euskaltzain urgazleak: Andres Alberdi, Antton Aranburu, Jose Ramon Etxebarria, Joakin Gorrotxategi eta Jacinto Iturbe.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Jon Iraola Eibarko alkatea, Josu Mendikute Eibarko Udaleko EAJ-PNVren bozeramailea, Gorka Errasti Eibarko Udaleko EH Bilduren bozeramailea eta Isabel Fernández Eibarko Udaleko Podemos-Ahal Duguren bozeramailea.

Maria Jose Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako presidentea, Josu Zabaleta ohorezko euskaltzain eta EIZIEn ordezkaria eta Leire Vargas EIEren ordezkaria.

Oier San Martin eta Olga Arizmendiarieta.

Juan San Martin euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrenaren kariatz, Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak gorazarre egin nahi izan diote herriko euskaltzaleari.

Horiek horrela, Euskaltzaindia idazlearen sorterrian bildu da goizez, eta eguerdiko 12etan, Ageriko Bilkuran, Luis Alberto Aranbarri *Amatiño* kazetaria eta ohorezko euskaltzaina eta Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa aritu dira hizlari, aurrenak *Sorlekutik sorlekura* eta hurrenak *Juan San Martinen gaztetako lanak: Zirikadak eta Eztenkadak* berba hartuta.

Ekitaldiari hasiera eman dio A. Urrutia euskaltzainburuak. Urrutiak San Martinen garrantzia eta ekarpena nabarmendu du, bai eta Akademian izan zuen esku hartzea ere. Bada, Euskaltzaindiak San Martin urgazle izendatu zuen 1958an, eta 1964an euskaltzain oso. 1967-1978 aldirian, Euskaltzaindikoko idazkaria izan zen eta 1988. urtean, euskaltzainburuorde. Arantzazuko 1968ko bileran, euskara batuaren aldeko apustu sendoa egin zuen, ez bairik gabekoa; eta hilabete batzuk lehenago, haren ekimenaz, idazle-talde batek *Ermuko Zina* deritzon dokumentua izenpetu zuen, hizkuntzaren batasuna eskatzeaz gain, herri-hizkeren garrantziaz ohartaraziz: “*Euskararen enborretiko adarrak dira euskalkiak, eta adarrak sano izango baditu, enbor sendoa eta osasuntsua behar du. Euskara Batuaren sendotasunak hobeto gordeko ditu euskalkiak ere*”.

Jon Iraola Eibarko alkateak hitza hartu eta San Martinek Eibarren izan duen itzala eta eremu desberdinetan eginiko ekarpenak azpimarratu ditu. Izan ere, San Martinek lan handia egin zuen hainbat arlotan: Klub Deportiboan arrastoa utzi zuen mendizaletasunean, espeleologian eta eskaladan; eta, elkarteak kultura saila sortzeaz gain, kirol-ekintzen osagarri, hango liburutegia garatu zuen, hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta erakusketa antolatuz. Bera izan zen, Euskaltzaindiak antolatuta, Eibarko Amaya antzokian 1962ko azaroaren 11n egin zen Gipuzkoako Bertso Txapelketaren finalurrekoaren bihotza eta arima, non Lazkao Txikik irabazi zuen Eibarko Udalaren kopa.

Amatiño San Martinen izaeraz hitz egin du gaurko berbaldian, eta 1965etik 1975era bitarteko urteetan euskaltzaleak eginiko lanak eta ahaleginak azaldu ditu. Aipatu du, hala berean, kazetari-sasoian bera zela gazte askoren “informazio-iturria”, Internet bako garai haietan. Hala berean, nabarmendu du San Martinen sustapen lana, haren ekimenari esker sortu baitziren Euskal Idazleen Elkarte (EIE) eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE); *Egan* aldizkaria eta beste hainbat asmo. Idazle eta artezale porrokatua, hainbat argitalpenek darakutsate haren luma zorrotz eta gai askotarikoa. Eusko Legebiltzarrak

1989. urtean ararteko izendatu zuen eta Arartekoaren erakunde sortu berria osatu eta egituratu egin behar izan zuen, ezerezetik abiatuta, helburuak finkatuz eta lana erruz eginez.

Kaltzakortak Juan San Martinen lehen sorkuntza lanak aztertu ditu, hain zuzen, *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965) liburuak. “Antzerako izenburuko bi lanak herri-ipuinen kontakizun laburren bildumak dira, Eibar eta *Plaentzia* inguruan ahoz kontatzen ziren ipuin barregarriak, Eibarko euskaraz idatzi eta argitaratutakoak”, argitu du euskaltzainak. “Herri-umore eta euskara biziaren altxor apartak” direla azpimarratu du ikertzaile markinarrak.

Mintzaldien ostean, Uxue Alberdi bertsolariak San Martinek horrenbeste maite zituen Jean-Baptiste Elizanbururen (1828-1891) *Xori Berriketaria* poema sorta kantatu du.

Ekitaldiari 13:30ean eman zaio amaiera, J. Iraola Eibarko alkateak Oier San Martini eman dion lore sorta batekin eta A. Urrutia euskaltzainburuari eman dion oroigarri batekin. A. Urrutiak lau hizkuntzatan argitara emaniko *Ahotsak, hitzak, hizkuntzak* liburuaren ale bat oparitu dio J. Iraola alkateari, Eibarko liburutegian herritarrek eskura izan dezaten.

Amaitu ostean, udaleko ordezkariak, Euskaltzaindiko Zuzendaritza eta senide eta San Martinen hurbilekoak euskaltzain eibartarraren izena daraman udal liburutegira hurreratu dira. Bertan San Martinen jaiotzaren ehungarren urteurrenaren gomutan aureskua dantzatu eta xafla erakutsi da.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Alkizako eskolan.

2022ko uztailaren 22an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose, "Bernardo Atxaga",
Kintana, Xabier,
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, idazkariordea, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Txomin Peillen; Andoni Sagarna; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu "Bernardo Atxaga"k ahala Andres Urrutiari (12:30etik aurrera); Andoni Sagarnak ahala Miriam

Urkiari; Xarles Videgainek ahala Patxi Zabaletari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Alkizako eskolan egin da, 2022ko uztailaren 22an, ostiralean.

Iñaki Irazabalbeitia Alkizako alkateak euskaltzainei harrera egin die eta gaurko eguna alkizarrentzat zein garrantzitsua den azpimarratu du. Izan ere, Juan Irazusta Alkizalete Alkizako erretore eta euskal idazlearen heriotzaren 250. urteurrena betetzen da aurten. Urteurren horren harira, Euskaltzaindiaren Osoko Bilkura, erakusketa baten inaugurazioa eta liburu baten aurkezpena egingo dira. Harreraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, uztailleko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak, Juan Irazusta Alkizalete erretore eta euskal idazlea zenaren 250. urteurrena dela eta, Osoko Bilkuraren ondoren antolatu diren ekitaldiei buruzko xehetasunak eman ditu.

1. Osoko Bilkurako (2022-06-22) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2022ko ekainaren 22ko bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduarren oharrak (XXXV). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak nabarmendu duenez, ekaineko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrrik egin, baina bileran bi ohar egin ziren ahoz. Ondorioz, bi-biak aztertu dira Osoko Bilkuran. Lehenengoa, *bailara* forma dela eta, A. Iñigok oharra gehitzeko eskatu zuen, Nafarroako *ibar* eta *haran* historikoak izendatzeko, behintzat ez delako egokia. Halaxe jaso zen, 155. arauari erreferentzia eginda, baina euskaltzainek Nafarroara ez mugatzeko eskatu zuten, hedadura handiagokoa delako. Hala jasotzea onartu da, Nafarroa eta *ikus* delakoa aipatu gabe: [Oharra: *ibar* eta *haran* historikoak izendatzeko Euskaltzaindiak *bailara* ez erabiltzea gomendatzen du.].

Bigarren oharra *baliokidetza* formari buruzkoa izan zen. Proposatutako adibideetako bateko edukia, B tituluari buruzkoa, ez zen zuzena, eta dekretuko adibide bat jasotzeko eskatu zen. Hala jaso eta onartu da: *Gerora, urriaren 6ko 263/1998 Dekretuak Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakasle postuetarako hizkuntza eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berretsi zituen, eta 1. artikulua araberaren Euskaltzaindiaren D titulua Euskararen Gaitasun Agiriaren baliokidea da.*

Ez da beste oharrrik jaso eta, hortaz, multzo osoa onartuta geratu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduarren oharrak (XXXVI). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arazoituak biltzen dituen.

Horiek horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, irailaren 12ra artekoa.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Batzorde Ahaldundua: *Animalien ongizatea eta beganismoa*. Oinarrizko lexikoa. Iruzkinak aztertu eta erabaki.

Oinarrizko lexiko honi aurkeztutako oharrak eta iruzkinak eta bakoitzari emandako erantzun arrazoituak aurkeztu ditu Joxean Zapirain Euskaltzaindiaren erakunde atxikia den UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroko teknikariak. Ohargileak M. Azkarate, A. Iñigo, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzainak izan dira.

barazkijale eta *begano* sarrerak izan ezik, jatorrizko gainerako sarrerak eta definizioak bere horretan uztea erabaki da. Bi sarrera horietan, gaur aurkeztu den txostenean proposatu diren definizio berriak onetsi dira.

Oinarrizko lexiko hori onetsi ondotik, A. Urrutiak azpimarratu du webgunean *Oinarrizko lexiko teknikoetako* eta *Oinarrizko lexikoetako* formek ez dutela arautze-maillarik jasoko. Era berean, aurrerantzean halako lexiko multzoak aztertzerakoan erabiliko den prozedura Zuzendaritzan zehaztuko da. Batetik, Euskaltzaindiaren Hiztegia eguneratzeko erabiltzen den prozedurarekin talkarik ez izateko. Bestetik, gizartean aldian-aldian sortzen diren gaiei erantzun bizkorra emateko.

5. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Laburdurak. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

Denbora nahikoa ez dagoela eta, gaia iraileko Osoko Bilkuran aztertzea erabaki da.

6. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Sinboloak. Aurkeztu.

Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoaren hirugarren dokumentua, sinboloei buruzkoa, aurkeztu du A. Mujika EBO egitasmoaren txostengileak.

Adierazi duenez, sinboloak laburtzapenen artean sartu ohi dira, laburdurekin eta siglekin batera, baina sinboloak ez direla, berez, hitzen laburtzapenak, eta, horregatik, bereiz sailkatzekoak direla. Horren zergatia adierazteko argudioak zehaztu dira dokumentuaren hasieran.

Sinboloak nazioartekoak dira, eta hizkuntza guztietarako balio dute. Beraz, sinboloak idazteko arau ortotipografikoak euskarazko testuetan txertatzean gertatzen diren zalantzak argitzera bideratu da dokumentua. Arauez gainera, neurri-unitate nagusien sinboloen zerrenda prestatu da, eta neurri-unitateen sinboloak erabiltzean egiten diren akats nagusiak ere bildu dira.

EBE batzordean eztabaidatu ondoren, Jacinto Iturbe kimikariari bidali zitzaion txostena, zuzentasuna bermatzearen, eta Jacinto Iturbek ohar osagarri baliagarri batzuk egin zituen, txostenean sartzeko. Bestalde, neurri-unitateen sinboloekin batera erabiltzen diren aurrizki batzuen grafiaren egokitasunaren inguruan zalantza adierazi zuen Jacinto Iturbek, eta, gaia ebazteko, txostentxo osagarri bat prestatu (sinboloen dokumentuekin batera banatu da) eta Jose Ramon Etxebarria fisikariari bidali zitzaion, badaezpada. Jose Ramon Etxebarriak oniritzia eman ondoren prestatu da dokumentuaren azken bertsioa Osoko Bilkurari aurkezteko.

Aurkezpenaren ondoren, irailaren 12ra arteko epea jarri da oharrak egiteko.

7. Esku artekoak.

7.1. Patxi Zabaleta euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaiak. Arautegiaren 33. eta 34. eta Barne-erregelaren 4.1. eta 4.2. artikulua betez, hutsartea betetzeko:

S. Aleman, J. Irazu “Bernardo Atxaga”, M. A. Meabe eta P. Rekalde euskaltzain osoek Castillo Suárez García idazlea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

P. Salaburu, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzain osoek Paula Kasares Corrales irakaslea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan ez da bestelako hautagairik aurkeztu. Horiek horrela, hutsartea betetzeko bozketa Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, egingo da irailaren 30ean.

7.2. Xarles Videgain euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2022ko ekainaren 30ean, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelaren 5.1 xedapenaren arabera, Xarles Videgain euskaltzaina

euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsartea iragartzen da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

7.3. Andoni Sagarna euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2022ko uztailaren 11n, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1 xedapenaren arabera, Andoni Sagarna euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsartea iragartzen da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

7.2. eta 7.3. puntuetan iragarritako hutsarteak “hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan –irailean eta urrian– aurkeztu ahal izango dira” (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3 xedapena). Horrela, gogorarazten da Arautegiaren 34. artikulua dioena: “Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz”.

7.2. eta 7.3. puntuak direla eta, P. Uribarren euskaltzain emerituak euskararen biziberritzeak lurralde bakoitzean izan duen bilakaera kontuan hartuz, Barne-erregelen 4.3. xedapenaren bigarren esaldiak dioena (“...euskalki edo lurralde bateko euskaltzain osoek gehi emerituek ezin dezakete gaintitu kopuru orokorraren herena”) gogora ekarri eta gaia zertan den galdetu du. Izan ere, bere iritziz, lurralde batean Barne-erregelek diotena betetzen bada aukera egon daiteke beste lurralde batekoa euskaltzain oso izendatzeko eta lurralde horren presentzia indartzeko. A. Urrutia euskaltzainburuak esan du Zuzendaritzak gaia aztertuko duela eta emaitza iraileko batzarrera ekarriko duela.

7.4. Hurrengo bilkurak.

- Tafallan, irailaren 23an, Nafarroa Oinez 2022 antolatzen duen Garcés de los Fayos ikastolan Zuzendaritza bildu eta babeserakusteko ekitaldixoa egingo da. Xehetasunak aurrerago emango dira.
- Iruñean, irailaren 30ean, ostiralean, Nafarroako Parlamentuan, Osoko Bilkura egingo da, 10:00etatik aurrera.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan.

2022ko irailaren 30ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Meabe, Miren Agur,
Mujika, Alfontso,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Sagarna, Andoni,
Salaberrri, Patxi,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia
Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”;
Beñat Oihartzabal; Xarles Videgain eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala
Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo

Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Beñat
Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri;
Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari
(11:30etatik aurrera); Mikel Zalbidek
ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Iruñean egin da, Nafarroako
Parlamentuan, 2022ko irailaren 30ean,
ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu
diren euskaltzainak agurtu eta ahalak
irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu
ondoren, iraileko Osoko Bilkurari
hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak, eguneko xehetasunak
azaldu ditu.

**1. Osoko Bilkurako (2022-07-22) bilera-
agiria onestea, hala erabakiko balitz.**

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez
da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik
egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik
egin. Ondorioz, 2022ko uztailaren 22ko
bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko Bilkuretako (2022-02-25, 2022-03-25, 2022-04-29, 2022-05-21 eta 2022-06-22) bilera-agiriak onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, Ageriko Bilkuretako (2022-02-25, 2022-03-25, 2022-04-29, 2022-05-21 eta 2022-06-22) bilera-agiriak onetsi dira.

3. Patxi Zabaleta euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea: hautagaiak bozkatzea.

Uztailaren 22ko Osoko Bilkuran, bi hautagai aurkeztu eta aldarrikatu ziren. Bata, Castillo Suárez, eta bestea, Paula Kasares, bi-biak euskaltzain urgazleak.

P. Salaburuk, 2022ko irailaren 26an, Idazkaritzara igorritako idatzi batean, Paula Kasaresen hautagaitzaren alde emandako sinadura indarrrik gabe utzi nahi zuela jakitera eman zuen. E. Osa idazkariordeak aditzera eman du, hutsarte baterako hautagai bat aldarrikatu ostean, Arautegian eta Barne-erregelatan halakorik egiteko heldulekurik ez dagoela.

P. Zabaleta eta X. Videgain euskaltzain emerituek idatzi bat aurkeztu dute. Testua idazkariordeak irakurri du. Hauxe dio: “Azpian sinatzen dugun Patxi Zabaleta eta Xarles Bidegain euskaltzainok, honen bitartez jakinarazten diogu Euskaltzaindiari, Paula Kasares andreak bere hautagaitzari uko egiten diola eta erabaki hori Euskaltzaindiari guk helaraz diezaiogun eskatu digula”.

Horrela, hutsartea hornitzeko hautagai bakarra geratu da, Castillo Suárez, hain zuzen. Segidan, bozketa egin da, Arautegiak zehazten duenaren arabera.

Emaitza ondokoa izan da: Castillo Suárez izendatzearen alde 22 boto eta boto zuri bat. Ondorioz, Arautegiaren 35. artikulua dioena kontuan hartuz, Castillo Suárezek euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi duenez gero, euskaltzain oso aukeratu da. Euskaltzain oso izendatu berriari zorionak ematea erabaki da Osoko Bilkuran.

4. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Laburdurak. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

Laburdurei buruz, J.-B. Coyosek, M. Urkiak eta M. L. Oñederrak aurkeztu dituzten oharrak eta horiei batzordeak emaniko erantzunak aurkeztu ditu A. Mujika Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoaren arduradunak. Oharrak banan-banan azaldu eta ebatzi dira.

Idazte-hutsak edo laburdura-zerrendaren ordenazio-hutsak direnak zuzenean onartu dira. Gainerakoetan, laburdura-zerrendan:

Zuzenketa eta aldaketa hauek onartu dira:

- *animatua* (*anim.*) kentzea eta *biziduna* (*bizid.*) eta *bizigabea* (*bizig.*) sartzea.

- *antzina* (*antz.*) kentzea.

- *arkeologia* (*ark.*) kentzea eta *arkeologia* (*arkeol.*) uztea.

- *faktura* (*fra.*) uztea. Horretarako, bozketa egin da: 12 boto *fra.* uztearen alde eta 8 boto *fakt.* laburduraren alde.

- *zure faktura* (*z. fra.*) kentzea.

- *asteartea* hitzaren laburdura *ar.* izatea (eta ez *as.*) hobetsi da.

Egokitzapen hauek onartu dira:

- *erakundea* (*erak.*) eta *erakuslea* (*erak.*).

- *filosofia* (*fil.*) eta *filum* (*fil.*).

- *frai* (*fr.*) eta *frantsesa* (*fr.*).

- *generoa* (*gen.*) eta *genitiboa* (*gen.*).

- *ordena* (*ord.*) eta *ordinala* (*ord.*).

- *partikularra* (*part.*) eta *partizipioa* (*part.*).

- *poligonoa* (*pol.*) eta *politika* (*pol.*).

- *toponimoa* (*top.*) eta *toponimia* (*top.*).

- *zuzenbidea* (*zuz.*) eta *zuzendaria* (*zuz.*).

Eta oin-oharra jarriko da adierazteko testu berean ezin dela laburdura homograforik erabili.

Txostenaren 6.1 puntuan, hau erantsiko da:

“Frantsesezko izenetan, ponte-izenak euskarara egokitzen ez direnean, marratxoa erabiltzen da bi izenen inzialen artean. Adibidez:

J.-L. Davant (Jean-Luis Davant)

J.-B. Coyos (Jean-Baptiste Coyos)

M.-A. (Marie-Anne)

L.-Ph. (Louis-Philippe)”.

Txostenaren 7. puntuan, oin-ohar bat sartuko da frantsesezko izenen salbuespena adierazteko eta 6.1 puntura bideratzeko.

confer hitzaren laburdura biak utziko dira, *cf.* eta *cfr.*

goi-nafarrera hitzaren laburdura bakarra utziko da oraingoz: *naf.*

mugagabea hitzaren laburdura bakarra utziko da: *mugag.*

paseabide hitza zerrendatik kendu eta *pasealeku* bakarrik utziko da.

postdata hitzaren laburdura, *P.D.*, letra arruntez idaztea (p.d.) salbuespen gisa hartuko da, *a.m. p.m.* bezala.

Txostenaren 2. puntuan, honako testu honen ordeztu: “Laburdurak ez du inoiz aberasten lexikoa; hau da, laburdura ez da inoiz ahozko hizkuntzara igarotzen: igaroko balitz, sigla bihurtuko litzateke (latinetikoko *R.I.P.* laburdura [*requiescat in pace*], adibidez, *rip* irakurri ohi da; horregatik, sigla gisa idatzita ere ikusten da orain, *RIP*, punturik gabe)” beste testu hau jarriko da: “Laburdurak ez du aberasten lexikoa; hau da, laburdura ez da ahozko hizkuntzara igarotzen, salbuespenak salbuespen (adibidez, latinezko **a.m.** [*ante meridiem*] eta **p.m.** [*post meridiem*] laburdurak *a-eme* eta *pe-eme* irakurri ohi dira. Eta bada laburduraren bat edo beste sigla bihurtu dena; adibidez, **S.A.** [*sozietate anonimoa*] *ese-a* irakurri ohi denez, sigla bilakatu da: **SA**)”.

Txostenaren 3. puntuan, honako testu honen ordeztu: “Punturik ez badu, ez da laburdura. Salbuespen bakarra *vs da*, *versus* hitzaren laburdura. Adibidez: publikoa *vs pribatua*” beste testu hau jarriko da: “Punturik ez badu, ez da laburdura.

Salbuespen bakarra vs da, versus hitzaren laburdura, punturik gabe ere idazten baita. Adibidez: publikoa vs pribatua”.

Txostenaren 6.1 puntuan, honako testu honen orde: “Halakoetan, izena ezaguna denean, izen osoa irakurri behar da, eta ez laburdura” beste testu hau jarriko da: “Halakoetan, izena ezaguna denean, izen osoa irakurri ohi da, eta ez laburdura”.

Txostenaren 12.2 puntuan, honako testu honen orde: “Esaldiaren amaieran etab. edo etc. laburdura jartzen bada, ez da etenpunturik jartzen, esanahi bera baitute” beste testu hau jarriko da: “Esaldiaren amaieran etab. edo etc. laburdura jartzen bada, ez da etenpunturik jartzen”.

Zuzenketa eta aldaketa horiek eginda, EBO egitasmoaren lehen bi txostenak onartuta geratu dira, eta, horrenbestez, arau-maila dute: *Laburtzapenak*. *Sarrera* (EBO-01) eta *Laburdurak eta laburdura-zerrenda* (EBO-02).

Zuzendaritzak aztertuko du nola plazaratuko den: arau gisa, gainerako arauak argitaratu diren bezala, edo bestela. Era berean, azertu behar da ea atalez atal argitaratuko den onartu ahala edo unitate handiagoetan argitaratuko den (adibidez, *Laburtzapenak: laburdurak eta siglak* multzoa edo *Laburtzapenak (laburdurak eta siglak) eta sinboloak* multzoa). Horrekin batera, azertu behar da zer formatutan argitaratuko den: argitalpen elektronikoko hutsa izango den edo paperean ere argitaratuko den. Eta ea bilduma izango den eta, horrenbestez, liburuxkak argitaratuko diren (adibidez, EBO1 [*Laburtzapenak (laburdurak eta siglak) eta sinboloak*], EBO2 [*Letra-estiloak*], EBO3 [*Letra larriak eta xeheak*]...) edo amaitzean EBO osorik liburu bakarrean argitaratuko den.

**5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua-
ren oharrak (XXXVI). Jasotako iruzkinak azertu eta erabakiak hartu.**

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak nabarmendu duenez, uztailleko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharririk egin, hortaz, multzo osoa onartuta geratu da.

**6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua-
ren oharrak (XXXVII). Aurkeztu.**

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M.

Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena.

Horiek horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 18ra artekoa.

7. Esku artekoak.

7.1. Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena izenpe-tu da irailaren 13an. Ana Ollo Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak eta A. Urrutia euskaltzainburuak berritu dute bi erakundeen arteko 2022ko lankidetza-hitzarmena.

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, Euskaltzaindiak garatuko dituen proiektu eta lan hauek lagunduko ditu diruz: Joakin Lizarragaren lexikoa ikertzeko proiektuaren emaitzak argitaratzea; XXVI. Jagon Jardunaldietan azaldutako lanak argitaratzea (*Euskara Nafarroako hezkuntzan. Egoera eta aukera berria*); Onomastika batzordera edo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak iristen diren txostenak egitea eta eskaerak izapidetzea; Etxauribar osatzen duten udalei oikonimiari buruzko aholkularitza linguistikoa ematea; eta Euskaltzaindiaren 2022ko ikerketa-programetan parte hartzea (*Euskaltzaindiaren Hiztegia, Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Corpus Onomastikoa, eta Euskara Batuaren Ortotipografia*). Foru Gobernuak 190.000 euro jarri ditu horretarako.

7.2. Irailaren 16an eginiko bilkuran, Euskararen Nafar Kontseiluak, Nafarroako Gobernuak premiatu du Euskarari buruzko Foru Legea aldatzera, euskara Nafarroako Foru Komunitate osoan ofiziala izan dadin. Azalpenak S. Aleman Jagon sailburuak eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak eman ditu. Adierazi duenez, Kontseiluko 19 kide azaldu ziren adierazpenaren alde eta hiru abstenitu egin ziren. Orain, ahalik eta oihartzun zein eraginik zabalena izateko, askotariko pertsona eta erakundeen sinadurak biltzen ari dira.

7.3. Gaur banatu diren liburuak:

- *Euskera 2021*, ikerketa zenbakia.
- *Allande Socarros (1957-2021): Euskal idazlan eta lekukotasun*. Euskaltzainak bilduma 38.

7.4. Euskara eta Galizieraren I. Lexikografia mintegiaren berri. A. Arejita idazkariak hitza hartu du. Azaldu duenez, Galizieraren Errege Akademiak, Galizieraren Institutuak eta Santiago de Compostelako Unibertsitateak (USC) antolatute mintegia. Horrela, irailaren 12an eta 13an, Santiago de Compostelako Unibertsitateko Filologia Fakultatean, J. Kaltzakorta, M. Urkia eta A. Arejita euskaltzain osoek eta Amaia Jauregizar Akademiaren teknikariak parte hartu dute jardunaldiotan. Kaltzakortak *Esaera atmosferikoen egituraz* hitz egin du; M. Urkiak *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* etorkizuneko erronkak aletu ditu; A. Arejita ahozko-tasunaren garrantziaz mintzatu da eta A. Jauregizarrek *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arteko loturak jorratu ditu.

Era berean, A. Arejitak Manolo González Galizieraren Errege Akademiako kidearen eta euskaltzain urgazlearen lana azpimarratu eta eskertu du.

7.5. Hurrengo bilkurak.

- Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, urriaren 4tik 7ra. Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko 43. Biltzarra. Honen berri J.-B. Coyos buruordeak eman du. Behin betiko egitaraua banatu da Osoko Bilkuran .
- Gasteizen, urriaren 28an, Etxezarra eraikinean, Osoko Bilkura egingo da, 10:00etatik aurrera.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Batzarra amaitu aurretik, gaurko Osoko Bilkuran euskaltzain oso izendatu den Castillo Suárez batzar aretora sartu da. Euskaltzainek zutik hartu dute euskaltzain oso berria. Castillock euskaltzain guztiei eskerrak eman dizkie. Ondoren, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea, Parlamentuko Mahaiko zenbait kide eta zenbait parlamentari Osoko Bilkura egiten ari den aretora sartu dira.

Unai Hualdek eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari Osoko Bilkura Nafarroako Parlamentuan egitearren. Era berean, Nafarroako Parlamentuak daukan euskararekiko engaiamendua azpimarratu eta Euskaltzaindiak eta Nafarroako Parlamentuak, Hego Euskal Herriko gainerako ganbera legegileekin batera, ondu duten **Hitzak Lege** erakusketa hartu du hizpide. Erakusketa hau azaroaren 14tik aurrera egongo da ikusgai Nafarroako Parlamentuan. Halaber, C. Suárez euskaltzain oso

berria zoriondu du Parlamentuko buruak. U. Hualderen ondoren, hitza hartu du A. Urrutia euskaltzainburuak. Euskaltzainburuak Parlamentuko buruari eskerrak eman dizkio orain arte emandako laguntzagaratik, bai eta lankidetzarako erakutsitako borondateagaratik ere.

Bi erakundeotako buruen hitzak entzun ondoren, talde-argazkia atera da Nafarroako Parlamentuan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 14:00 direnean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Gasteizen, Etxezarra eraikinean.

2022ko urriaren 28an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Mujika, Alfontso,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Sagarna, Andoni,
Suárez, Castillo,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Miren Agur Meabe; Txomin Peillen; Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik

ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gasteizen egin da, Etxezarra eraikinean, 2022ko urriaren 28an, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko Bilkurako (2022-09-30) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2022ko irailaren 30eko bilera-agiria onetsi da.

2. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). *Siglak*. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

A. Mujikak azaldu ditu EBE batzordeak oharrei buruz prestatu dituen erantzunak. Idazte-hutsei baino ez dagozkienak besterik gabe onartu dira, eztabaidatu beharrik gabe. Gainerako oharrei banan-banan erantzun die EBE batzordeak.

P. Zabaletak egindako ohar orokorra siglei eta sinboloei buruzkoa bada ere, nazioarteko eta estatuko legeak sinboloei buruzkoak baino ez dira. Horregatik, sinboloei buruzko puntuan landuko da.

EBE batzordeak berak autozuzenketa bat aurkeztu du siglen irakurketaren atalean. Txostenaren 13.4 puntuan, EHNE siglaren adibidea IHOBE eta HUHZEI adibideekin batera jarri beharrean, bereiztea eta testu hau sartzea proposatu du:

“Hatxe kontsonantea bokal baten eta kontsonante baten artean gertatzen delarik, sigla silabaka irakurtzeko modukoa izanik, hatxea ez da ahoskatu ohi:

EHNE [e-ne] (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)

EHGAM [e-gam] (Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua)

EHBE [e-be] (Euskal Herriko Bertsozale Elkartea).”

Hala egitea onartu da, eta B. Oihartzabalek adierazitako EHAS siglaren salbuespena ere jasotzea onartu da: “Salbuespena da EHAS sigla (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), hatxe letra ahoskatu egiten baitzen”.

M. L. Oñederraren oharrak aztertu dira ondoren. Erabaki hauek hartu dira:

13. puntuan, testu honen ordeztu: “Hiztunak sigla irakurtzeko hautatzen duen modua (silabaka edo letraka) sigla osatzen duten letren antolaerak erabakitzen du, baita siglaren tamainak berak ere (...)”; beste testu hau jarriko da: “Hiztunak sigla irakurriko duen modua (silabaka edo letraka) sigla osatzen duten letren antolaerak erabakitzen du, baita siglaren tamainak berak ere (...)”.

13.4 puntuan, ahoskerari buruzko ohar hau sartzea onartu da: “Gehienetan, zantzarik gabe erabakitzen du hiztunak nola irakurri sigla; silabaka, letraka edo bietara. Baina zalantzak ere badira, eta erdaren eragina ere kontuan hartzekoa da. Gogorarazi behar da zein den *g* eta *j* letren euskarazko ahoskera zaindua. Adibidez, GKE sigla <ge-ka-e> irakurtzen da, eta <ge> hori ez da gaztelaniazko *general* hitzeko

ge silaba bezala ahoskatzen [x], ezta frantsesezko *gendarme* hitzeko ge silaba bezala ere [ʒ], gero euskal hitzeko ge silaba bezala baizik [g]. EAJ sigla <e-a-jota> irakurtzen da, eta <jota> hori ez da gaztelaniazko jota hitzeko jo silaba bezala ahoskatzen [x], ezta frantsesezko *joli* hitzeko jo silaba bezala ere [ʒ], euskarazko *joare* hitzeko jo silaba bezala baizik [j]. Eta c letra ahoskatzean ere, kontuan hartu behar da zein den ahoskera zaindua. Adibidez, PCR sigla <pe-ze-erre> irakurtzen da, eta <ze> hori ez da gaztelaniazko *doce* hitzeko ce silaba bezala ahoskatzen [θ], euskarazko *zehatz* hitzeko ze silaba bezala baizik [s]”.

15.5 puntuan (Noiz erabili behar da marratxoa siglaren eta kasu-markaren artean?), marratxoa erabiltzeko 3. salbuespena eztabaidatu da: “Silabaka irakurtzen diren eta erre letrarekin amaitzen diren sigletan, argi uztearren azken erre hori gogorra dela”. Aldeko eta aurkako argudioak eztabaidatu dira, eta ikusi da, batetik, marratxoa erabiltzeak ez duela berez bermatzen erre gogorra ahoskatzea eta, bestetik, sigletan amaierako errea beti dela gogorra. Horregatik, eta salbuespenak ahalik eta gutxien izan daitezen, kasu horretan marratxoa ez erabiltzea hobetsi da, baina txostenean horretaz ohartarazteko oharra jarriko da, eta erantsiko da ezen, siglak bost letra edo gehiago dituen kasurako, baldin eta sigla letra larriz hasita, baina letra xehez ere idazten bada erre letra bikoiztu behar dela. Azkenik, M. Azkarateren oharrak azertu dira.

6.3 puntuan (Sigla elkartuak), sigla tautologikoen kasuan, ohar hau sartuko da: “Euskal sigla eta erdal sigla batera erabili behar direnean, barra etzana baliatzea da logikoena, leku-izenetarako arautua dagoen moduan, eta horixe gomendatzen da izen berrietarako. Dena dela, marratxoaren erabilera aski finkatua dago sigla zahar batzuetan”.

12.1 puntuan, IOHLEE adibidea kenduko da, *industri ondare / industria ondare* gaia saihesteko, gai hori OMEAGI batzordean azertu eta ebatzi beharko baita.

12.3 puntuan, *Eixie* edo *EIZIE* gisakoetan, edozein jar daiteke, eta, behar izanez gero, biak zehaztuko dira bi aukerak adieraztearren. Beste horrenbeste, 13.4 puntuan *HUHEZI* edo *Huhezi* kasuan.

14. puntuan, BEZa eta PFEZa adibideak erantsiko dira.

15. puntuan eta agertzen den gainerako puntuetan (5 aldiz erabili da), “siglak deklinatzen” dagoen tokian, “siglek kasu-markak nola hartzen dituzten” jarriko da txostenean.

15.2 puntuak, BPG, TAO eta NAN adibideak gehituko dira, bakoitza dagoen tokian.

15.5 puntuak, kasu-marka siglaren azken letra berberaz hasten denean marraztea ez jartzea hobetsi da (adibidez, AEKko, ETEek).

19. puntuak (Lege, errege-dekretu, foru-arauen eta kidekoen sigla generikoz osatutako izendapen bereziak), eztabaidatu ondoren, erabaki da gaia batzordea itzultzea, irizpidea fintzen saiatzeko. Batetik, erabileraren ikuspegitik eta tradizioaren ikuspegitik, horrelakoak esalditik kanpo aipatzean artikulurik gabe esatea da ohitura aski finkatuta. Orduan, hori testuaren barneko erabilerara eramatean nola jokatu zehaztu beharko da, sistema koherentea izan dadin gainerako sigletarako ezarritako sistemarekin. Horretaz gainera, Nafarroako adibideak ere sartzea komeni da (foru-legea gisakoak) eta Frantziakoak eta zuzentzarauak ere aztertzea, haietan siglak erabiltzen diren jakiteko.

3. EBE batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoa (EBO). Sinboloak. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

A. Mujikak azaldu ditu EBE batzordeak oharrei buruz prestatu dituen erantzunak. P. Zabaletak ohar orokor hau egin du, adierazteko nazioarteko legeriak eta estatuko legeriak zehaztu egiten dutela sinboloen eta ikurren erabilera, hori hizkuntzetan aintzat hartu beharra dagoela eta EBE batzordearen proposamenen hori ez dela egin. Horregatik, azaldu du ezen, Euskaltzaindiak atala arautu aurretik, gai horretan lege-arloan aditua den bulego edo talde bati iritzia eskatu beharko litzaiokeela.

EBE batzordeak adierazi du hala Espainian nola Frantzian legezko unitate-sistema SI sistema dela, Europar Batasunean indarrean dagoen bera (1979ko abenduaren 20ko 80/181/EEE Direktiba, geroko zenbait direktibatan eguneratua izan dena). Espainiako legerian, 2009ko abenduaren 30eko 2032/2009 Errege-dekretuak legezko neurri-unitateak ezartzen ditu. Azken aldaketa 2020ko apirilaren 29koa da. Aldaketak SI sistemaren azken hobekuntza teknikoetara egokitzeko egin dira. Frantzian ere, zenbait dekretutan jasota daude, eta 1948ko urtarrilaren 14ko legeak ezartzen ditu arauak. Espainiako eta Frantziako lege horiek eskuratu ditu EBE batzordeak, eta Osoko Bilkuraren esku jarri ditu, inork kontsultatu nahi baiditu.

EBOren sinboloei buruzko txostenaren esparrua neurri-unitateena baino zabalagoa da, baina, neurri-unitateei dagokienez, SI sistemari jarraitzen dio erabat. Frantziako eta Espainiako legerian, SI sistemako neurri-unitateak (eta haien sinboloak) eta haiekin erabiltzen diren multiplo eta azpimultiploen izenak (eta haien sinboloak) zehazten dira Frantziako frantseserako eta Espainiako gaztelaniarako, eta ez dute ezer zehazten euskararako. EBOren txostenean nazioarteko sinboloak erabiltzen direnez (SI sistemakoak), ez dago kontraesanik Espainiako eta Frantziako arauekin. Eta txostenaren gainerako puntuak euskarari baino ez dagozkionez, ez daude Frantziako eta Espainiako legedian jasoak, baina Frantziako eta Espainiako legerian jasota dauden sinboloak berdin-berdin daude jasota EBOren txostenean, nazioartekoak baitira; alegia, ez dira Frantziakoak edo Espainiakoak bakarrik. Horregatik, ondorioztatu da ez dela beharrezkoa juridikoki aztertzea.

Ondoren, M. Azkarateren oharra aurkeztu eta eztabaidatu dira. Ohar gehienak idazte-hutsei dagozkie eta zuzenean onartu dira, eztabaidatu beharrik gabe. SI sistemako *jota-* eta *jokto-* aurrizkien kasuan, ahoskera zuzenaz ohartarazteko oin-ohar hau sartzea erabaki da: “*jota-* eta *jokto-* hitzen *jo* silaba ez da gaztelaniazko *jota* hitzeko *jo* silaba bezala ahoskatzen, euskara zainduan *jo* aditza ahoskatzen den bezala baizik. <j> letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa <y> da, eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera”.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharra (XXXVII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak nabarmendu duenez, iraileko Osoko Bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrik egin, hortaz, multzo osoa onartuta geratu da.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharra (XXXVIII). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena. Kasurik gehienak zuzenketa automatikoak zirenez, proposamen guztiak onartu eta zerrenda bere horretan onartzea erabaki da, oharra egiteko eperik zabaldu gabe.

6. Euskaltzaindiaren 2023ko egutegia. Aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak gogorarazi duenez, urtearen azken hiruhilekoan, Euskaltzaindiaren hurrengo urteko egutegia aurkeztu eta onetsi behar da Osoko Bilkuran. Hori horrela, Zuzendaritzak, 2022ko urriaren 26an eginiko bilkuran, Euskaltzaindiaren 2023ko egutegia zehaztu zuen. Egutegi horretan jasotzen dira Osoko eta Ageriko bilkurak eta jardunaldiak-eta antolatzeko xehetasunak. Ondorioz, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 14ra artekoa.

7. Esku artekoak.

7.1. Hurrengo bilkurak.

- Azaroaren 7an, astelehenean, “Henrike Knörr. Omenaldi-jardunaldia” egingo da Gasteizen, ordezkari-tan, Etxezarra eraikinean. Omenaldi-jardunaldiaren berri eman du R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta Arabako ordezkariak.
- Azaroaren 18an, ostiralean, XXVII. Jagon jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldiari buruzko xehetasunak azaldu dituzte Sustapen batzordeko S. Alemanek eta E. Osak.
- Donostian, azaroaren 26an, larunbatean, Donostiako udaletxean, Osoko Bilkura egingo da, 10:00etatik aurrera. Egun berean, A. Mujika euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia dela eta, Ageriko Bilkura egingo da Donostiako Osoko Bilkuren aretoan, 12:00etatik aurrera.

7.2. C. Suárez euskaltzain oso izendatu zen Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2022ko irailaren 30ean. Barne-erregelako 64.6 artikulua dioena kontuan hartuz (“Idazkaritzak gutun ofizial baten bidez hautatu berriari hautapena jakinaraziko dio, bai eta kargua hartzeko epea eta egin beharrekoak ere. Hautatua izan denak hilabeteko epea du bere baiezkua emateko. Baiezkua horrekin hautatua izan denak adieraziko du Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela”), idazkariak jakinarazpena igorri zion, 2022ko urriaren 3an. Euskaltzain oso berriak erantzuna igorri zuen, 2022ko urriaren 9an. Ondorioz, 64.6 artikulua dioena bete dela egiaztatu da.

7.3. Pedro Sancristóval euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Urriaren 7an hil zen, Araban, euskal kulturaren sustatzaile porrokatua izan den Pedro Sancris-

tóval Murua. Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua izan zen 1999tik 2003ra arte, eta orduko hartan, euskaraz egin zuen karguaren zina. Artium museoaren eta Gasteizko Jazz jaialdiaren sustatzailea ere izan da, eta ospe handia izan du artearen munduan, ez bakarrik Euskal Herrian. Usurbilen (Gipuzkoa) jaio zen 1932ko abuztuaren 21ean, eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen Zaragozako Unibertsitatean. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 1979ko abenduaren 20an, eta Euskaltzaindiaren Ekonomia batzordean jardun zuen 1987tik 1989ra arte.

7.4. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak R. M^a Azkue Literatura Sarien deialdi berria zabaldu dute. Sari hauen xedea idazle gazteak literatura mundura erakartzea da, eta, jakina denez, bi genero saritzen dira: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila: 2009, 2010, 2011 eta 2012an jaiok; eta B maila: 2005, 2006, 2007 eta 2008an jaiok. Lanak bidaltzeko epea 2022ko abenduaren 30ean amaituko da, eta erabakiak 2023ko martxoaren 31 baino lehen iragarriko dira. Iazko deialdira 526 lan aurkeztu ziren.

7.5. Euskaltzaindiak abian jarri du ‘Ahostegunak’ egitasmoa, bertsoaz, literaturaz, kantuaz eta antzerkiaz gozatzeko hiru saio. Hamazortzi eta hogeita bi urte bitarteko gazteei zuzendutako doako egitasmoa da *Ahostegunak*; hain zuzen, antzerkian, bertsolaritzan, kantuan eta literaturan murgiltzeko, gozatzeko eta sakontzeko saioak proposatzen ditu. Azaroaren 17an, 24an eta abenduaren 1ean izango dira saioak (guztira hiru), Euskaltzaindiaren Gasteizko ordezkartzan. Euskaltzaindiak bultzatzen du ekimen hori, Mintzola egitasmoaren bitartez, eta izena emateko epea urriaren 20an ireki eta azaroaren 10ean itxiko da.

7.6. Abian da euskarazko tesien Koldo Mitxelena sari VIII. deialdia. Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK bi urterik behin antolatzen duten sari VIII. deialdia da aurtengoa, eta sari bana esleituko da bost jakintza-arlo nagusi hauetan: Arte eta Giza Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Osasun Zientziak, Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura. Irabazleek diploma eta 2.000 € gordin jasoko dituzte. Eskariak aurkezteko epea urriaren 27an hasi eta azaroaren 11n amaituko da. Tesiak UPV/EHUren Erregistro Orokorreko edozein bulegotan aurkeztu ahalko dira. Baldintzak Euskaltzaindiaren eta EHUren webguneetan eskuragarri daude.

7.7. Xarles Videgain euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaia. Arautegiaren 33. eta 34. eta Barne-erregelen 4. artikulua betez, hutsartea betetzeko:

S. Aleman, A. Arkotxa, J.-B. Battittu Coyos eta T. Peillen euskaltzain osoek **Itxaro Borda** idazlea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan ez da bestelako hautagairik aurkeztu. Horiok horrela, hutsartea betetzeko bozketa Donostian, udal-etxean, egingo da azaroaren 26an.

7.8. Andoni Sagarna euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaia. Arautegiaren 33. eta 34. eta Barne-erregelen 4. artikulua betez, hutsartea betetzeko:

M. Azkarate, A. Sagarna, A. Urrutia eta M. Zalbide euskaltzain osoek **Andres Alberdi** irakaslea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan ez da bestelako hautagairik aurkeztu. Horiok horrela, hutsartea betetzeko bozketa Donostian, udal-etxean, egingo da azaroaren 26an.

7.9. Barne-erregelen 4.3. xedapenaren interpretazioa. Barne-erregelen 4.2. eta 4.3. xedapenek diotena:

“4.2. Euskaltzain osoak hautatzean, euskal lurraldeen eta euskalkien ordezkaritza kontuan hartuko da, banaketa honen arabera: Arabak, bat; bizkaierak, hiru; gipuzkerak, hiru; nafarrerak, hiru; behe nafarrera-lapurterak, hiru; zubererak, bat.

4.3. Gainerako hamar euskaltzainak hauta daitezke lurralde- edo euskalki-irizpide hau kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, euskalki edo lurralde bateko euskaltzain osoek gehi emerituek ezin dezakete gainditu kopuru orokorraren herena”.

Xedapen hauen interpretazioari buruz egin duen gogoeta ekarriko du Zuzendaritzak, abenduan egingo den Osoko Bilkurara.

7.10. Gaur banatuko diren liburuak.

- *Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak.* Jagon 23.
- Blas de Otero. *Una letra impagada / Ordaindu gabeko letra bat.* Ediciones El Gallo de Oro.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 13:15 direnean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko Bilkura

Donostian, udaletxeko Gobernu Batzordearen bilera gelan.

2022ko azaroaren 26an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose “B. Atxaga”
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Meabe, Miren Agur,
Mujika, Alfontso,
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Sagarna, Andoni,
Suárez, Castillo,
Uribarren, Patxi,
Xarles Videgain, eta
Zabaleta, Patxi.

Erramun Osa, idazkariordea, zegozkion
gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Beñat
Oihartzabal; Txomin Peillen; Patxi Sala-
berri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Beñat Oihartzabalek ahala
Miren Azkarateri; Patxi Salaberri ahala
Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala
Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian egin da, Donos-
tiako Udaleko Gobernu Batzordearen
bilera gelan, 2022ko azaroaren 26an, la-
runbatean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurrera-
tu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak
irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu
ondoren, azaroko Osoko Bilkurari hasie-
ra eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xeheta-
sunak azaldu ditu.

**1. Osoko Bilkurako (2022-10-28) bile-
ra-agiria onestea, hala erabakiko balitz.**

X. Videgainek 2. orrialdearen bukaeran,
15.5. puntuari buruzko pasarteetan, ka-
su-markaren inguruan egondako eztabai-
da jaso dadin iradoki du. Ez du testurik
proposatu. Ondorioz, bilera-agiria bere
horretan uztea erabaki da. A. Urrutiak
ahoz oharririk egin nahi den galdetuta, ez
da oharririk egin. Ondorioz, 2022ko urria-
ren 28ko bilera-agiria onetsi da.

2. Xarles Videgain euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsar-tea: hautagaia bozkatzea.

Urriaren 28ko Osoko Bilkuran, hautagai bakarra aurkeztu eta aldarrikatu zen, Itxaro Borda euskaltzain urgazlea, hain zuzen. Hori horrela, bozketa egin da, Arautegiak zehazten duenaren arabera.

Emaitza ondokoa izan da: Itxaro Borda izendatzearen alde 21 boto, boto bat kontra eta boto zuri bat. Ondorioz, Arautegiaren 35. artikulua dioena kontuan hartuz, Itxaro Bordak euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi duenez gero, euskaltzain oso aukeratu da. Euskaltzain oso izendatu berriari zorionak ematea erabaki da Osoko Bilkuran.

3. Andoni Sagarna euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsar-tea: hautagaia bozkatzea.

Urriaren 28ko Osoko Bilkuran, hautagai bakarra aurkeztu eta aldarrikatu zen, Andres Alberdi euskaltzain urgazlea, hain zuzen. Hori horrela, bozketa egin da, Arautegiak zehazten duenaren arabera.

Emaitza ondokoa izan da: Andres Alberdi izendatzearen alde 19 boto, boto bat kontra eta 3 boto zuri. Ondorioz, Arautegiaren 35. artikulua dioena kontuan hartuz, Andres Alberdik euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi duenez gero, euskaltzain oso aukeratu da. Euskaltzain oso izendatu berriari zorionak ematea erabaki da Osoko Bilkuran.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldundua-ren oharrak (XXXIX). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Proposamen guztiak onartu eta zerrenda dagoen-dagoenean onartzea erabaki da, oharrak egiteko eperik zabaldu gabe.

5. Euskaltzaindiaren 2023ko egutegia. Aurkeztu.

Urriaren 28ko Osoko Bilkuran, Zuzendaritzak 2023ko egutegi proposamena aurkeztu zuen. Iruzkina, ekarpenak edota oharrak egiteko irekitako aldia ez da ezer jaso. Ahoz oharrak egin nahi den galdetuta, ez da egin. Hori horrela, 2023ko egutegia onetsi da. Onetsitako egutegian gaur izendaturiko euskaltzainen sarre-ra-hitzaldiak non egingo diren zehazteko geratu da.

6. Esku artekoak.

6.1. Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Azaroaren 2an izenpetu zen Bilbon. Hitzarmen horren xedea da Euskaltzaindiaren eta Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioaren arteko lankidetzaren egonkorra sendotzea, hizkuntzaren ikuspegitik, euskal herritar gorra eta horien inguruko pertsonak ikusarazteko hainbat ekimen gauzatuta. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du.

6.2. Euskaltzaindiaren eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmena. Azaroaren 22an izenpetu zen Iruñean. Besteak beste, hitzarmenak hizkuntza-aholkularitzako eta euskara sustatzeko jarduerak jasotzen ditu. Hitzarmenak 12.000 euroko zenbatekoa dakar 2022an egiten diren jarduerak garatzeko.

6.3. Hurrengo bilkura. Pasa den urte bukaeran onetsitako urteko egutegian, Osoko Bilkura abenduaren 23an, ostiralarekin, Bilbon, egoitzan, egitea erabaki zen. Egun hori desegokia dela iritzirik, Zuzendaritzak bi aukera ikusten ditu: abenduaren 22an, ostegunean, egitea, 23an egin beharrean, edo, bestela, abenduan Osoko Bilkurarik ez egitea.

Euskaltzainen iritzia entzun ondoren, inork proposatu ez duenez abenduaren 23ko Bilkurari eustea edo 22an egitea, abenduan Osoko Bilkurarik ez egitea erabaki da. Hori horrela, hurrengo Osoko Bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, urtarrilaren 27an, ostiralean, egingo da, 10:00etatik aurrera. Egun horretan, 2022an hildako euskaltzainak gogorarazteko Ageriko Bilkura egingo da, 12:00etatik aurrera.

7. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 11:15 direnean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko Bilkura

Donostian, udaletxean, Osoko Bilkuren aretoan.

2022ko azaroaren 26an.

Batzar-agiria

Donostiako Udalaren Osoko Bilkuren aretoan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Ibon Sarasola euskaltzain osoa emeritu izatera igarotzearen ondorioz, Iruñean, udaletxean, 2021eko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Alfontso Mujikaren sarrera-hitzaldia egin eta hari dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos buruordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Andres Iñigo, Jose Irazu "Bernardo Atxaga", Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Miren Lourdes Oñederra, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Castillo Suárez, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Antonio Campos eta Joxemari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Irene Arrarats, Jose Ramón Etxebarria, Igone Etxebarria, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Antton Gurrutxaga, Jesus Mari Makazaga, Luis Mari Zaldua, Jakes Sarrailet, Jazinto Iturbe, Xabier Artola, Joxe Austin Arrieta, Asier Bidart eta Iñaki Irazabalbeitia.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi zerbitzuko arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria; Nekane Arzallus Donostiako alkateordea; Reyes Carrere Donostiako Udaleko EH Bildu taldeko bozeramailea; Joxe Mari Sors Elkar Fundazioaren presidentea; Jose Mari Pitarke Elhuyar Fundazioaren presidentea eta Aitor Bedialauneta Euskal Herriko Gorren Elkartearen Federazioaren presidentea.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Maider Garaikoetxea.

A. Mujikaren emaztea, ilobak, lankideak eta lagunak.

2021eko azaroaren 26an, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen A. Mujika hizkuntzalari gipuzkoarra. Ondoren, euskaltzainek zortzi hilabete izaten dute sarrera-hitzaldia egiteko. A. Mujikaren txanda izan da gaurkoa, eta hizkuntzalariak bere sorterrian egin du ekitaldia, hain zuzen, Donostiako udaletxean. Euskaltzaindiak Osoko Bilkura egin du 10etan, eta 12etan hasi da ekitaldi instituzionala. Udal txistulariek girotu dute ekitaldia.

N. Arzallus Donostiako alkateordearen eta A. Urrutia euskaltzainburuaren ongietorriak entzun ostean, A. Sagarna eta P. Rekalde, A. Mujikaren hautagaitzaren aurkezleatariko bat eta sarrera-hitzaldia irakurri duen azken euskaltzain osoa, hurrenez hurren, euskaltzain berriaren bila joan, batzartokian sarrarazi eta oholtzara-ino lagundu diote. Ondoren, A. Mujikak bere sarrera-hitzaldia irakurri du.

Aditzera eman du euskararen normalizazioaren eta estandarizazioaren arloan onomastika aipatzean, Euskal Herriko leku-izenak eta pertsona-izenak etortzen zaizkigula gogora, baina euskararen mundua ez dela Euskal Herrian amaitzen; euskaraz aritzean, mundu osoko leku-izenak eta pertsona-izenak ere aipatu behar izaten direla. Arlo horretan ere jardun du Euskaltzaindiak modu sistematikoan 1994az geroztik, eta eremu aski ezezagun horretan zer egin duen, zergatik egin duen eta nola egin duen azaldu du hitzaldian A. Mujikak, eta erakutsi du, halaber, kanpoko leku-izenetatik euskararen gramatikara eta hiztegiara dagoen tartea itxuraz dirudiena baino laburragoa dela.

Ingeniari eta hizkuntzalari donostiarraren sarrera-hitzaldiari M. Azkarate euskaltzain osoak erantzun dio. Azkaratek Mujikaren biografia aletu du, euskaltzain berriaren bertuteak azalduz, eta ondoren haren hitzei jarraikiz, hauxe gehitu nahi izan du: “Kanporako begiratu horrekin batera barrura begirakoa ere ez du ahaztu Euskaltzaindiak. Azken 25 urte hauetako morfologia eta sintaxi-arauak, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* nahiz *Euskararen gramatika* aztertzeak, bestalde, erakusten du nolako eragina izan duen kanpora begirako lan horrek euskal eratorpenean, hitz-elkarketan eta hiztegian”. Eta, azkenik, A. Mujikari arrazoia eman dio: “Kanpoko leku-izenetatik euskararen gramatikara eta hiztegiara dagoen tartea itxuraz dirudiena baino laburragoa da”.

Ondoren, euskaltzain berriak zin egin dio bere karguari, euskaltzain izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela esanez. Azkenik, euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu Mujikak euskaltzainburuaren eskutik. Ekitaldiaren akabailan, oparien eta ezusteen txanda heldu da.

Nekane Arzallus alkateordeak Donostiako Udalaren oparia eman dio Mujikari. Segidan, Txema Pitarke de la Torre Elhuyar Fundazioaren presidenteak Imanol Andonegi eskultore mutrikuarrak okasiorako landutako oroigarria eskaini dio. Saroi Jauregik lankideek paratutako hiru bertso kantatu dizkio. Alabaina, ekitaldiaren akabailan iritsi da saririk gozoena, A. Mujikaren iloben eskutik: bi-biek lore-sorta eta besarkada bana eman diote eta.

A. Urrutia euskaltzainburuak eman dio amaiera ekitaldiari. Gaurko ekitaldiak erakundearen jarraitutasuna irudikatzen du. Izan ere, mendea pasatxo daukan Euskararen Akademiak halako ekitaldien bitartez jarraitutasuna ematen baitio bere zereginari, hiztun elkartearekiko daukan betekizuna eta engaiamendua etengabe berrituz eta eguneratuz. Gaurkoa, ospakizunerako eguna izateaz gain, lanean segitzeko deia ere bada, euskaraz jarduten duen hiztun elkartearen beharrak al-dian-aldian osatzen joateko ardura baitu Euskaltzaindiak.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Adierazpenak

62. a

**EUSKALTZAINDIAK FRANTZIAKO AGINTARIEI ESKATZEN
DIE *BREBETA*¹ ETA *BAXOA* AZTERKETAK EUSKARAZ EGITEA
ONAR DEZATEN**

Frantziako hezkuntza sisteman ari diren ikasleek bi azterketa adierazgarri gainditu behar izaten dituzte. Batetik, *brebeta*, kolegioan hondarreko ikasturtea bukatu ostean eta bertetik, *baxoa*, hiru urte irauten duen bigarren hezkuntzako zikloa bukatzean, ikasleen ibilbide akademikoa biziki baldintzatzen duen azterketa. Azken berebizikoa da ikasleentzat, bereziki, goi mailako ikasketak egin nahi dituzten gazteen geroan.

2017. urtera arte, *brebeta* euskaraz egiteko aukera zuten kolegioko ikasleek. Orditik aitzina, alta, gibelera egin da, zientziak frantsesez ikastera behartu dituzte-eta ikasleak. Bertzalde, Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin *baxoa* azterketaren zati bat euskaraz egiteko adostasuna erdietsi bazen ere, adostasun hori bururatzeko urratsik ez da egin. Horiek horrela, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak kezka ikusten du gertatzen ari dena.

Euskararen Akademiaren aburuz, onartezinak dira, ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleek bi azterketa horiek euskaraz osoki egin ditzaten, Frantziako Administrazioak paratzen dituen trabak eta, ikasleen aukera berdintasuna urraturik, hondarraldian gibelera egin dituen urratsak. Euskaltzaindiaren iritzi, biziki onartezina da jarrera hori, are onartezinago aniztasuna horrenbeste goraipatzen duen eta, estatuek berezko hizkuntzak babesteko xedez, eginahalak egin ditzaten aldarrikatzen duen European.

Afera horretan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Frantziako herri-erakundeei eskatzen die *brebeta* eta *baxoa* azterketak euskaraz egiteko engaiamendua hartu eta hori segurtatzeko baliabideak jarri eta urratsak egin ditzaten. Eta ildo horretako ahaleginak egin daitezten, gutun bana igorriko die Ipar Euskal Herriko erakunde adierazgarrienei, Emmanuel Macron Frantziako presidenteari eta Jean Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroari. Era berean, Euskaltzaindia harremanetan jarriko da Frantzian hizkuntza gutxiagotuen eremuan lanean ari diren gainetarako akademia eta antolakundeekin gaia batera aztertu eta Europako erakundeen aitzinean ekimen bateratuak aitzinatzeke xedez.

Baionan, 2022ko otsailaren 3an

¹ 2023an Frantziako Gobernuak *Brebeta* euskaraz egitea onartu du.

62. b

L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE, EUSKALTZAINDIA, DEMANDE AUX AUTORITÉS FRANÇAISES D'ACCEPTER QUE LES ÉLÈVES PUISSENT PASSER LE BREVET DES COLLÈGES ET LE BACCALAURÉAT EN LANGUE BASQUE

Les élèves du système éducatif français ont deux examens primordiaux à passer dans le cursus général. Le premier examen se déroule à la fin de la classe de troisième pour l'obtention du brevet des collèges et le second examen arrive à la fin du lycée, en classe de terminale avec l'obtention du baccalauréat, diplôme déterminant pour les jeunes et la poursuite de leurs études supérieures.

Si jusqu'en 2017 les collégiens avaient la possibilité de passer le brevet des collèges en langue basque, depuis, la situation s'est détériorée avec l'obligation pour les élèves de troisième d'étudier les sciences en langue française. En ce qui concerne l'examen du baccalauréat, à ce jour, les élèves de terminale ne savent toujours pas s'ils pourront ou non passer une ou plusieurs matières de l'examen en langue basque cette année et ce, malgré les accords allant dans ce sens discutés récemment avec le ministère français de l'éducation nationale. Face à cette situation, la Direction de l'Académie de la langue basque exprime aujourd'hui son inquiétude.

Pour l'Académie de la langue basque il est inacceptable que les élèves qui suivent les cours en basque ne puissent pas ensuite passer leurs examens du brevet des collèges et du baccalauréat en langue basque et ce à cause des multiples obstacles posés par l'administration française. Cette marche arrière est par ailleurs regrettable car elle se fait aux dépens de l'égalité des chances des élèves. Pour Euskaltzaindia, cette attitude est d'autant plus inacceptable au sein d'une Europe qui fait l'éloge de la pluralité et incite les Etats membres à protéger les langues territoriales.

Ainsi, la direction de l'Académie de la langue basque demande aux institutions françaises un réel engagement afin que les élèves aient la possibilité de passer les examens du brevet des collèges et du baccalauréat en langue basque, ainsi que des moyens et des avancées pour l'application de cette mesure dans les établissements. Afin que les efforts aillent dans ce sens, elle enverra un courrier aux principales institutions du Pays Basque Nord, ainsi qu'au président de la république française Emmanuel Macron et au ministre français de l'éducation nationale Jean-Michel

Blanquer. Dans un même temps, l'Académie de la langue basque ira à la rencontre des différentes académies et autres organisations œuvrant en faveur des langues minoritaires en France afin d'étudier ensemble cette problématique et de présenter des actions communes devant les institutions européennes.

À Bayonne, le 3 février 2022.

EUSKALTZAINDIAK BAT EGITEN DU EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN 2022KO IRAILAREN 16KO ADIERAZPE- NAREKIN

Unai Hualde Iglesias
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

Ana Ollo Hualde
Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria

Bilbon, 2022ko azaroaren 16an

Lehendakari estimatua:

Kontseilari estimatua:

Nafarroako Gobernuko Euskarabidearen aholku-emaile eta kontsulta organoa den Euskararen Nafar Kontseiluaren kide da Euskaltzaindia, beste hainbat euskal eragile eta euskaltzaleekin batean. Kontseilu horrek, 2022ko irailaren 16ko bileran, onartu zuen adierazpenean, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Euskarari buruzko legea lehenbailehen aldatzera. Hori horrela, Euskaltzaindiak Euskararen Nafar Kontseiluko bileran adierazpen horren alde egin zuen, nafar guzrien hizkuntza eskubideak babesteko euskara Nafarroa osoan ofiziala dadin beharrezkoa delakoz.

Ondorioz, Euskaltzaindiak bat egiten du, bada, Euskararen Nafar Kontseiluko 2022ko irailaren 16an onartutako adierazpenarekin eta eskatzen dizu behar diren urratsak egin daitezen Euskararen Nafar Kontseiluak adierazitakoa gauzatzeko asmoz, urrats eragingarriak egin daitezen.

Besterik gabe, adeitasunez agurtzen zaitu

Andres Urrutia
euskaltzainburua
(Euskaltzaindiaren Idazkaritza)

EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN ADIERAZPENA

1986an Euskarari buruzko Legea onetsi zelarik, zentzu gutxi zuen Nafarroa zatitzeak eta horren arabera hizkuntza eskubideak aitortzeak. Lurralde osoan behar da Hizkuntza eskubideen aitortza. Ez daitezke eskubideak ukatu, norbanakoa dagoen tokian dagoela. Eskubide horiek bermatzeko hartuko diren neurriak bai izan daitezke ezberdinak toki batean eta bestean, baita jarriko diren bitartekoak ere, baina zentzugabea da Nafarroako herritarren artean muga geografikoak paratzea. Areago gaur, gizartean mugak gero eta lausoagoak direnean; garraioari eta teknologia berriei esker harremanak ugariagoak direnean eta fisikoki hurbilekoak direnekin bakarrik ez ditugunean. Bestalde, administrazio bakarra eta bera dugu, Nafarroako Gobernua, eta horrek gero eta indar eta eragin handiagoa du norbanakoengan.

Legea onetsi zenez geroztik, 35 urte joan dira. Bitarte horretan, ez du ia aldaketarik izan, eremuz aldatu diren udalerrri bakar batzuen besterik ez. Udal bakar batzuek eskaturik, 2017an, eremu mistotik euskaldunera jauzi egin duen udalerrria edo ez euskaldunetik mistora joan direnak izan ezik, ez da aldaketa gehiagorik izan, tamalez.

Indarrean dagoen testua eztabaidatu zenean, legelariak behin eta berriz adierazi zuten eremuak ez zirela finkoak, egoera aldatu ahala aldatuko zirela, eta egoera soziolinguistikoa alda zedin, euskara sustatzeko asmoa azaltzen da bertan. Legearen 5. artikulua 2. eta 3. puntuetan berean honako hau esaten da, hurrenez hurren: “Aurreko atalean zehaztutakoa berrikus daiteke, Nafarroako Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraiki”, “Nafarroako Gobernuak aldizka euskararen errealitate soziolinguistikoari buruzko azterlanak egitea aginduko du, eta horien berri emanen dio Parlamentuari”.

Azken 35 urte hauetan, gizartea errotik aldatu da, eta eremu bakoitzean dauden euskaldunen kopurua ere bai. Zail izanen dugu euskaldunik ez dagoen udalerririk aurkitzea. Gero eta gehiago dira ikastetxe edo euskaltegiren batean euskara ikasi dutenak edo ikasi nahia azaldu dutenak. Ez dira gutxi Nafarroako beste eremu batetik edo euskal lurralde batetik eremu misto edo ez euskaldunetara lanera, bizitzera edo bisitan joaten direnak.

Euskara ikasteko eta erabiltzeko eskubidearen alde egiten diren aldarrikapenak, ekimenak eta mugimenduak bizi-bizi dabilta azken urte hauetan, baita egungo legeak euskalduntzat jotzen ez dituen eskualdeetan ere: Cortesko adierazpena, Mendigorriko edo Castejongo eskaerak, Errigora ekimena, eremuz aldatzeko udalen eskaerak...

Gauzak garbi esanda: lege honek nafarrak diskriminatu egiten ditu eremuaren arabera, legeak berak aditzera ematen badu ere hizkuntza dela-eta inor ez daitekeela diskriminatua izan. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 2. artikuluan honela dio: “Gizaki orori dagozkio adierazpen honetako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, kolorea, sexua, HIZKUNTZA, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik”.

Hizkuntza-Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 12. artikuluan, berriz: “Gizaki orok eskubidea du, alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta lurraldeko hizkuntza propioa hori baldin bada”. Zoritxarrez, Nafarroan egun indarrean dagoen Euskarari buruzko Legeak ez du halakorik bermatzen, ez du biderik ematen herritar euskaldunaren hizkuntza eskubideak bete daitezen, ez baitio euskarari ofizialtasunik aitortzen Nafarroako Foru Komunitate osoan.

Horregatik guziagatik, adierazpen honen bidez, **Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Gobernuak premiatzen du euskara Nafarroako Foru Komunitate osoan ofiziala izan dadin Euskarari buruzko Foru Legea lehenbailehen aldatzera, herritar euskaldunen legezko baztertzea amaitu dadin eta herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak bete daitezen, herritar erdaldunenak betetzen diren bezalaxe, jakinki erabaki hori Nafarroako herritar guzi-guziendako onuragarria izanen dela.**

Iruñean, 2022ko irailaren 16an.

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2022ko araugintza

Otsailaren 4an, 194. araua argitaratu zen (194. araua: *Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura*).

191. arauan Historiaurreko eta Antzinaroko artelanak euskaraz adierazteko irizpideak eta adibideak eman ziren, eta 193. arauan arkitekturako artelanenak. Haien jarraipena da 194. araua. Hartan, munduko pinturak eta eskulturaz euskaraz adierazteko irizpide orokor eta xeheak zehaztu ditu Euskaltzaindiak. Artelanaren izendapenaren zer idatzi behar den letra larriz hasita eta zer letra xehez adierazten da arauan, zer letra etzanez eta zer letra zuzenez. Halaber zehazten da zer irizpideren arabera erabakitzen den artelan baten izena euskaratzea edo jatorrizko forma erabiltzea.

Irizpide nagusiak emateaz gainera, mundu osoko pintura eta eskultura ezagunen zerrenda bat ere ematen da arauan, 18 eskulturaz eta 100 pinturaz osatua, eta, euskarazko izendapenaz gainera, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere ematen dira.

Berriak eta Omenaldiak

2022ko albisteen kronika

Euskaltzaindiak sortu dituen edo erakundea ardatz izan duten berri garrantzitsuenak bildu ditugu atal honetan. Ugari eta askotarikoak dira Akademiak antolatzen dituen ekitaldiak; hargatik, hautaketa bat egin behar izan dugu. Hautatzea ez da erraza, eta beti dakar zerbait albo batera uztea. Beraz, esanguratsuak iruditu zaizkigunak izateaz gain, irizpide nagusitzat hartu dugu agerkari honetako atalen batean jada argitaratu ez izana –Sarrera hitzaldiak, Jardunaldiak, Arauak, Hilberri-txosteenak eta abar- edo argitalpenen batean jaso ez izana.

URTARRILA

Euskararen geroa irudikatzen Arantzazutik

Euskaltzaindiak azken 50 urteetan euskararen normatibizazioaren arloan egingako lana biltzen duen liburua plazaratu du, Iberoamericana Vervuert argitaletxearekin batera: *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018*. Hain zuzen ere, 2018an, Akademiaren mendeurrenaren baitan egin zen biltzarrean jasotakoak bildu dira argitalpen berrian: guztira, jatorri askotariko 49 adituk hausnartu eta esandakoak. Besteak beste, Irene Arrarats, Ainhoa Arregi, Bernardo Atxaga, Miren Azkarate, Battittu Coyos, Jeroen Darquennes, Maddi Etxebarria Joxerra Garzia, Manuel González, Eric Hoekstra, Ander Irizar, Xabier Isasi, Asier Larrinaga, Joan Martí, Elixabete Piñol eta Miriam Urkiaren gogoetak jasota daude argitalpenean.

Mendeurrena ospatzeko, Euskaltzaindiak biltzar berezia antolatu zuen 2018ko urrian, Arantzazun: bertan, euskararen estandarizazio prozesuan eginiko aurrerapenak azaldu ziren, eta, horrekin batera, etorkizunean egin beharreko ahaleginak plazaratu. Hori dena biltzen du *Arantzazutik mundu zabalera* liburua, baina ez hori bakarrik. Liburu honek corpusari buruzko gogoeta sakona dakar, hots, Euskaltzain-

diak hiztegegintzan, gramatikan, onomastikan, ahoskeraren alorrean... eginiko aurrerapenak azaltzen eta finkatzen ditu. Ildo beretik, gure hizkuntza administrazio publikoan, hezkuntzan edo itzulpengintzan baliatzeko tresna fina izan dela frogatzen duten argudioak irakur daitezke bertan.

Liburua sei ataletan banatu da, eta azken 50 urteotako ahaleginen lagin interesgarria eskaintzen du, ondorio ugari azpimarratuz. Azken atala "Euskara Batuaren Adierazpena" da, bertan berresten baitira Euskaltzaindiaren helburu nagusiak, oraindik ere bizi-bizi dirautenak. Adierazpen hori Joan Mari Torrealldai euskaltzainak irakurri zuen.

Arauen Datutegi Onomastikoa (ADO): Euskaltzaindiaren arauetako datu onomastikoak kontsultatzeko tresna berria

Euskaltzaindiak emandako arauetan jasotzen diren pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak aspalditik ikus daitezke EODAREN bitartez, baina honako bilaketa-tresna berri honetan, aldiz, onomastikari dagozkion arau horietan guztietan dauden erregistro guztiak bila daitezke, haietan agertzen diren datuekin. Guztira, 8.500 erregistro jasotzen ditu corpus horrek, eta datuen bilaketarako bide ohikoak ez ezik, arau-zenbaki, izaera nahiz kokalekuaren bitartez ere jo daiteke datuetara.

Adibidez, EODAN *Gartzia* izena eta *Naiara* exotoponimoa aurki daitezkeen bezala, orain, ADOren bitartez, erregistro horiei arau-maila ematen dien *Gartzia Naiarakoa* errege-izena ere kontsulta daiteke. Era berean bila daitezke onomastika-arauetan eman diren leku-izen historikoak, pertsonaia historiko zein mitologikoak, artelanak eta halakoak ere.

Euskaltzaindiak 692 testu gehitu dizkio "*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz*" egitasmoari

2007tik, egitasmoaren hirugarren argitalpena da oraingoa, eta bereizgarri nagusiak hedadura geografikoari, edukiari, denbora-eremuari, antolaketari eta testuen kopuruari dagozkie. Gotzon Lobera legegile eta euskaltzain urgazleak koordinatu du argitaraldi hau, hiru formatutan eskaintzen dena: argitalpen digitala, ePub formatua eta PDF formatua.

OTSAILA

Miren Agur Meabe idazle eta itzultzaile bizkaitarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak

Euskararen Akademiak euskaltzain berria izendatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian egin den Osoko Bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Xabier Kintana emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta Miren Agur Meabek erdietsi du Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengoa.

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962). Irakasle-ikasketak eta Euskal Filologia ikasi, eta irakaskuntzan eta testu-liburugintzan aritu zen urte askoan. Gaur egun, helduentzat nahiz haur eta gazteentzat idazten du, bai prosa bai poesia.

Kritikaren saria jaso zuen 2001ean eta 2011n, *Azalaren kodea* eta *Bitsa eskuetan* poema-liburuengatik; eta Euskadi saria hiru aldiz erdietsi du, *Itsaslabarrekotxexa* (2002), *Urtebete itsasargian* (2006) eta *Errepidea* (2011) gazte-nobelei esker. *Mila magnolia-lore* albuma 2012ko IBBYren Ohorezko Zerrendan ageri da, eta 2021ean Espainiako Poesia Saria irabazi zuen, *Nola gorde errautsa kolkoan* lanagatik.

Baina literatur itzulpengintzan ere aritzen da tarteka. Besteak beste, Forugh Farrokhzad poeta irandarraren eta Scholastique Mukasonga ruandarraren obrak ekarri ditu euskarara.

Ohorezko aitortzen artean, Lauaxeta saria (2007), Rosalía de Castro saria (2012) eta Deia Hemendik saria (2015) aipatu behar dira. Era berean, haren testuetako batzuk hainbat hizkuntzatara eta brailera ere itzuli dituzte.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2006an, ibilbide oparo horren esker onez.

***Euskaltzaindiaren Adierazpenak* lanaren 4. argitaraldia**

Urteetan zehar egindako adierazpenen bilduma paperean kaleratu zen lehenbizi, 2006. urtean; 32 adierazpen. Bigarren argitalpena digitala izan zen, eta Euskaltzaindiaren mendeurrenarekin batera ikusi zuen argia, 2018an, 56 adierazpenekin. Mendeurrenaren harira, Sustapen batzordeak erabaki zuen, adierazpen berriak izan ahala, bilduma eguneratua ematea Akademiaren webgunean urte bakoitzaren amaieran. Hala egin zen 2019an, eta orain dator laugarren argitaraldia, zeinetan biltzen diren 2021. urtean egindako 58., 59., 60. eta 61. adierazpenak.

Hurrenkera kronologikoan zenbakituak aurkeztu dira. Denak izaera berekoak ez direnez gero, testu bakoitzaren hasieran txertatu den fitxan zehazten dira bakoitzaren ezaugarriak, hala nola arloa, gaia, testu-mota, testuaren emailea eta hartzailea, data eta hizkuntza.

Argitaraldi hau hiru formatutan prestatu da: argitalpen digitala, ePub formatua eta PDF formatua (bi azkenekoetan argitalpen osoa eskura daiteke).

Andoaingo Aita Larramendi ikastolako 53 ikaslek parte hartu dute "Euskararen Herria Ehuntzen" erronkan

Euskaltzaindiak mendeurrenaren baitan abiarazi zuen hezkuntza-egitasmoari gogotsu heldu diote Andoaingo Aita Larramendi ikastolan. Orotara 53 ikaslek parte hartu dute erronkan, bi gelatan banatuta. Batxilergoko 1. mailakoak dira guztiak, alegia, 16-17 urtekoak. Otsailaren 2an egin dute lehen saioa, eta sei orduz jardun zeregin horretan. Tarte horretan, "Euskararen Herria Ehuntzen" erronkak zehazten dituen jarduera nagusien segida bat osatu dute (ezagutzak eskuratu eta abar), eta saioaren amaieran bidea eman zaio azken proiektu gisa egin beharko duten ikus-entzunezkoaren plangintza egiten hasteari.

Horrela, Andoaingo euskararen historia soziala aztertzea izango dute helburu ikasleek, hainbat arlori erreparatuz: hedabideak, kulturgintza, musika, literatura...

Otsailean webguneko eredu bat aztertzen, gidoia lantzen, elkarrizketak prestatzen eta ikertzen jardun dute, eta martxoan, berriz, editatze-lana egin dute.

Azken saioa apirilaren lehen egunean egin dute, eta egun horretan landutako ikus-entzunezkoak aurkeztu dituzte.

Nafarroako toponimiaren datu basetik 86.000 puntu kartografikoren koordenatuak jaso ditu Euskaltzaindiak bere datutegi toponimikorako

Euskaltzaindiaren webgunea kontsultatzen duenak klik batekin ikusi ahal izango du orain leku-erregistro bakoitza non dagoen, mapa eta airetiko argazkien bidez, Onomastika atalean (Leku-izenak).

Nafarroako toponimia ofizialaren datutegian 96.000 leku-izen inguru daude. Leku-izen horiek kartografia ofiziala hornitzen dute, eta bakoitzaren kokalekua zehaztasun handiz dago jasota, koordenatu geografikoen bitartez. Euskaltzaindiak

ere badauka leku-izenen datutegi handi bat, *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) izenekoa eta, neurri batean, Akademiaren webgunean kontsulta daitekeena, hemen, hain zuzen: *Euskaltzaindiaren Onomastikaren Datutegian* (EODA). Orain, koordena-tu haiek ekarri ditugu Euskaltzaindiaren datutegira.

Euskaltzaindiaren *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) datu baseak leku-izenok euskaraz nola idatzi eta nola jokatu behar diren iradokitzea du helburu. Nafarroako Gobernuaren bisorean, aldiz, agerikoagoa da alderdi geografikoa, toponimoak hainbat eskala eta itxuratako kartografietan erakusten baititu. Hala ere, bisorean toponimoen gaineko informazioa ere biltzen da, eta, hori kontuan hartuta, onuragarriak dira honelako urratsak, datu base bien arteko informazio trukea erraztu dezaketenak, aukera interesgarriak ireki baititzakete aurrerantzean.

Lautan Hiru antzerki-jaialdiaren laugarren edizioa

Guztira 11 emanaldi eskaini dira; umeentzako txotxongilo tailer bat ere bai. Bilboko Udalak babesten du jaialdia, eta, urtero lez, Euskaltzaindiak elkarlanean antolatatu du egitaraua, Cafe Bar Bilbao, 7Katu gaztetxea eta BIRA Kultura eragileekin batera.

Aurten, laugarren aldia bete du Euskaltzaindiaren mendeurrenaren ospakizunen baitan jaio zen Lautan Hiru antzerki-jaialdiak. Gainera, indarberrituta etorri da jaialdia, berrikuntzaz josita: Ikusle kluba, haurrentzako tartea...

Aurten, otsailaren 3an, 10ean, 17an eta 24an egin da Lautan Hiru, eta lau ostegunetz jarraian antzerkiz blaitu dira Bilboko Zazpikaleak.

Gehienbat, formatu txikiko lanak antzeztu dira Lautan Hiru jaialdian, hala iraupenari nola muntaketari dagokionez (oro har, 15-40 minutuko piezak izan dira), eta lau agertokitan antzeztu dira: Euskaltzaindiaren egoitzan (Plaza Barria, 15), BIRA Kulturaren (Erronda kalea, 2); Cafe Bar Bilbaon (Plaza Barria, 6); eta 7Katu gaztetxean (Solokoetxeko eskailerak).

Lautan Hiruren helburu nagusiak ez dira aldatu azken urteotan: euskarazko antzerkia hauspotu nahi da (antzezlari guztiak euskaraz eman dira); antzezlariak erakusteko guneak eskaini nahi zaizkie sortzaileei; eta Bilboko Zazpikaleetako giroan eragin nahi da, kultura aukerak zabalduta.

Honako lan hauek antzeztu dira:

Susanaren iraultza / Esther Carrizo

Lakoste / Eneritz Artetxe

Zure sotoko ardoa / XIX. Cafe Bar Bilbao saria - Irakurketa dramatizatu

Ogiak hizketan baleki / Mamiak kolektiboa - Josune V. Mendizabal

Noiz utziko dio euria egiteari / Pizifaktoria Ideien Laborategia

Ipuin-kontalaria / Maite Arrese

Artistak eta kazetariak 1.0 / Kaitin Allende

Tribis – baserri galdue / Jon Ander Urresti

Udaberria heldu da / Les Bobe Bobe

Tatxan magia ikuskizuna / Imanol Ituño + Yogurinha Borova

Euskararen Lekukoak bildumak berriazko atala du Euskaltzaindiaren webgunean

Euskaltzaindiaren bilduma garrantzitsu bat da Euskararen Lekukoak, euskal idazle klasikoen edizio kritikoak biltzen dituena. Besteak beste, honako hauek: Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiæ* eta Ioannes Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotioneꝛcoa* (Patxi Altunak paratutakoak), Jose Mari Satrustegiren *Euskal testu zaharrak*, Resurrección María Azkueren *Latsibi* eleberria (Mirari Alberdik prestatutako edizioa), edo *Refranes y sentencias* (Joseba Lakarrak paratua).

Orain, lan zaharrenen birdigitalizazioa burutu du Euskaltzaindiak. Horrela, lan esanguratsu hauen datuak osatu dira eta obra guztiak daude ikusgai (liburu bakoitzak bere fitxa osoa du); gainera, aurkibidean klik egin daiteke, kontsulta azkartzeko. Liburu guztiak PDF formatuan jaitsi daitezke.

Euskararen Lekukoak bilduma Koldo Mitxelenaren proposamenez sortu zen. Ondoren, Luis Villasantek txosten bat aurkeztu zuen Osoko Bilkura batean, eta onartua izan zen.

***Klima-aldaketaren oinarrizko lexikoa* plazaratu du Euskaltzaindiak**

Klima-aldaketaren inguruko esamolde ugari ari dira txertatzen eguneroko hizkeran, baita euskaraz ere, eta Euskaltzaindiak eta UZEIk horien hautaketa bat egin eta *Klima-aldaketaren oinarrizko lexikoa* argitaratzeko beharra antzeman dute, oinarrizko kontzeptu batzuk argitu eta euskarazko terminoak finkatzen laguntze aldera.

Urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran onetsi zuen Euskaltzaindiak aipaturiko lexikoa. Bertan, 25 kontzeptu bildu dira, hala nola *deskarbonizazio*, *karbono-aztarna* eta *klima-larrialdi*.

Euskaltzaindiak eta bere erakunde atxikia den UZEIk elkarlanean argitaratu dituzten beste lexikoetan bezala, oinarriztat hartu dira Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailea eta Euskalterm terminologia-banku publikoa, bai eta inguruko beste hizkuntzetako terminologia-banku nagusiak ere. Era berean, lan honetan oso kontuan hartu da klima-aldaketari buruzko euskarazko erabilera ere, bereziki, hedabideetakoa.

MARTXOA

Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu du Eneko Andueza PSE-EEko idazkari nagusi berriak

Otsailaren 23an, Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu du Eneko Andueza PSE-EEko idazkari nagusi berriak. Liburutegia eta Batzar-gela bisitatu ostean, Akademiaren Ohorezko Liburuan sinatu du.

APIRILA

Euskaltzaindiak Donostiako Gros auzoan hartu du Korrikaren lekukoa

Martxoaren 31n abiatu zen 22. Korrika, eta Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, apirilaren 10ean amaitu da, Donostian. Euskaltzaindiak berriro ere bat egin du Korrikarekin, eta Miren Azkarate eta Miriam Urkia euskaltzainek eraman dute lekukoa, Gros auzoko Ategorrieta hiribidean zehar, jende andana atzean zutela. Korrikak hauspoa ematen dio euskarari, eta herri baten nahia erakusten du.

Euskaltzaindiak bi antologia aurkeztu ditu 39. Sarako Idazleen Biltzarrean

1984an antolatu zen Sarako Idazleen Biltzarra estreinakoz, eta ordutik urtero izan da bertan Euskaltzaindia. Aurten ere erakusmahaia jarri du Akademiak Sarako kiroldegian, eta, horrekin batera, hiru liburu aurkeztu ditu, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntza izan dutenak.

Batetik, Txomin Peillen idazle eta euskaltzain emerituaren antologia poetikoa agertu du Akademiak Saran. Bertan, azken 70 urteetan idatzitako bertso eta poemak bildu ditu Peillenek. Gai anitz jorratu ditu idazle zuberotarrak *Ene bertsoen bilduma / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. 1951-2021* liburu mardul eta bitxi honetan, hiru hizkuntza erabili ditu horretarako: euskara, gaztelania eta frantsesa. Euskal kultura, Ekialdeko kulturak, gai mitologikoak, zahartzaroari buruzkoak... poema desberdinak daude liburuan, baita Zuberoari eskainitako olerki luze bat ere.

Bestetik, Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzain emeritu zuberotarrak *Nafarroako Blanca Trajeria*-ri buruzko edizio bitxi bat ondu du. Pastoralak egiteko erabiltzen den testua da trajeria, baina, oraingo honetan, sarrera sakon bat egin nahi izan dio Davantek jatorrizko testuari. Honela, trajeriaren pertsonaia nagusiaren garaia, hots, Blanca I.aren erreginaldia (1425-1441) bere denborako giroan kokatu du. Garai horretan hasi ziren bereziki agaramontarren eta beaumontarren arteko gerla zibilak, Nafarroako Erresuma zinez ahuldurik utzi zutenak Gaztelako eta Frantziako errege gosetien aurrean.

Azkenik Jabier Kaltzakortak *Zerbitzariren idazlan hautatuak* antologia-lana paratu du. Jean Elizalde “Zerbitzari” (1883-1961) Azkainen jaio zen apaiz, euskaltzain eta idazlea izan zen, eta liburu honetan, Kaltzakortak zertzelada sakonak eskaintzen ditu beraren bizitzaz, eta, halaber, Elizalderen idazkien hautaketa bat egiten du. Lanen antologia gai eta garai jakin batzuen arabera egituratu du: ‘Gerla Handia (1914-1918)’, ‘Bidaia-kronikak’, ‘Étienne Pellot itsas-pirata’, ‘Erlijio lanak eta Théophile Venard’ eta ‘Euskal pilota’.

MAIATZA

Zibersegurtasunaren oinarritzko lexikoa

Zibersegurtasuna gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari delako, Euskaltzaindiak eta bere erakunde atxikia den UZEIk *Zibersegurtasunaren oinarritzko lexikoa* plazaratzeko beharra ikusi dute. Lexikoak helburu bikoitza du: alde batetik, oinarritzko kontzeptuak argitzea, eta, bestetik, euskarazko terminoak finkatzen laguntzea.

Gero eta gehiagotan izan dugu hizpide zibersegurtasuna, eta, beste albiste askoren artean, kezka-iturri izan dira gailu elektronikoen bidezko zenbait iruzur, gaizkileek enpresa baten edo besteren bezeroen datu pertsonalak lapurtu izanak edo erakunde publikoen aurka egindako zibererasoak.

Guztira, 27 kontzeptu jaso dira lexikoan; horietako batzuk lehendik ere *Euskaltzaindiaren Hiztegian* araututa zeuden *-hacker, spyware, suebaki-*, baina, zibersegurtasunarekin lotuta dauden neurrian, lexikoan sartzea erabaki da.

Hiztegi arauemaileaz gain, kontuan hartu dira bai terminologia-bankuak (Euskalterm eta inguruko hizkuntzetako terminologia-banku nagusiak) eta bai euskarazko erabilera (hedabideena zein zibersegurtasunaren arloko eragileena).

Azkenik, Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak onetsi ditu lexikoa osatzen duten sarrerek eta definizioak.

Maitasunari, heriotzari eta mitologiari erreparatu diote idazle gazteek 2021eko Azkue Literatura sarietan

Guztira 526 partaide aurkeztu dira lehiaketan, iazko kopurua aise gaindituz, eta epaimahaikideek azpimarratu dutenez, “gai sakonak” jorratu dira idatzietan, eta “ikuspuntu originalak” proposatu. Bizitzaren ertz guztiak “sakon aztertze gogo” sumatu dute partaideengan.

Sariak emateko ekitaldian, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Koldo Bilbao BBKren Kultura arloko arduradunak hartu dute parte.

Ekitaldiaren hasieran, Andres Urrutiak irabazleak zoriondu ditu. Literaturaren bidetik jarraitzeko eskatu die euskaltzainburuak, euskal kulturaren eta euskararen mesedetan, eta agindu die beste horrenbeste egingo duela Akademiak, gure hizkuntza eta gure literatura babestuz eta sustatuz. BBKko Koldo Bilbaok ere izan ditu animozko hitzak sarituentzat.

Akademiak eta BBKk 1991tik antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi. Bi genero saritzen dira Azkue sarietan: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat); eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatutakoak. Hauexek izan dira aurtengo epaimahaiakideak:

A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

A mailako sariak:

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *I can't breathe*. Egilea: Karla Loinaz

Bigarren saria: *Jaizkibel*. Egilea: Maddi Mitxelena

Hirugarren saria: *Arrantzalea eta sirena*. Egilea: Larraitz Olazabal

Aipamen berezia: *Zisnearen hegaldia*. Egilea: Maria Ruiz

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Ezinegona*. Egilea: Nerea Cestona

Bigarren saria: *Gauaren atsedean ilunean*. Egilea: Hegoa Aizpuru

Hirugarren saria: *Itsasoak soilik daki*. Egilea: Aner Elorza

Aipamen berezia: *Testuinguruan bakarraraziz*. Egilea: Irati Oskoz

B mailako sariak:

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *OpoIpiApaRTZUpuN*. Egilea: Malen Sarasola

Bigarren saria: *Kaleko urdanga*. Egilea: Peio Enbeita

Hirugarren saria: *Zentzumenen memoria*. Egilea: Oihane Retegi

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Argiak itzaltzen diren tokia*. Egilea: Sara Uribe-Etxeberria

Bigarren saria: *Larrazkeneko gau epela*. Egilea: Esteban Borromée

Hirugarren saria: *Oda bizitzari*. Egilea: Alvaro Diez

"Hitzak Lege" euskaraz sorturiko testu juridiko esanguratsuen erakusketa ibiltaria

Eusko Legebiltzarrean estreinatu da maiatzak 27an. Irudi eta grafikoen bitartez garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak erakutsiko dira, izan arlo pribatukoak izan publikokoak.

Euskaltzaindiak Eusko Legebiltzarrarekin, Nafarroako Parlamentuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ganbera legegileekin elkarlanean antolatu duen erakusketa ibiltariaren helburua eremu juridikoan urteetan egin den ekarria gizartratzea eta erakustea da. Aspaldikoa da, baina, erakundeon arteko harreman hori, euskararen eremuko bost ganbera legegileek eta Euskaltzaindiak Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa ere elkarlanean ondu baitzuten 2017an.

Erakusketak badu helburu nagusi bat, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko ganbera legegileek (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusiek), Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Parlamentuak eta Akitania Berriko eskualdeak gordetzen dituzten euskarazko testu juridiko esanguratsuak erakustea modu erakargarri, ulergarri eta interaktiboan.

Horretarako, 25 panel fisiko jarri dira dokumentuen informazioarekin, hiru ataletan banatuta: aldean arteko harreman juridikoak, eragin kolektiboko testu juridikoak, eta testu parajuridikoak. Horrez gain, badira hiru panel elkarreragile, hiru panel argiztatu eta bi bitrina (dokumentu originalak erakusteko). Edonola ere, "Hitzak Lege"k lekuan lekuko egitura du, egokitutako espazioetara moldatu dena.

Honela, irudi eta grafikoen bitartez garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak erakutsi dira. Baita edukiaren aldetik (hizkuntzaren edota herrita-

rren bizimodua eta erakundeen ibilbidea baldintzatzearen ikuspegitik) pisua edo garrantzia izan duten testuak ere. Horrez gain, zailtasuna duten herritarrek testu esanguratsuen pasarteak entzuteko aukera izan dute.

Nafarroako Parlamentuan, aldiz, azaroan ezarri da "*Hitzak Lege*" erakusketa ibiltaria, 2022ko azaroaren 14tik eta 2023ko urtarrilaren 15era arte.

Ibiltariak diren edukiez gain, Nafarroan bertan ekoiztako beste 25 bat idatzizko dokumentu erakutsi dira, bai eta foru parlamentari zein Nafarroako lehendakariaren audioak ere. Hona hemen arasetan ikusgai izan diren adibide batzuk:

Leireko kartularioa (1059), non Aiesako toponimoak ageri diren latinezko testu batean.

Aralarko pergaminoa (1167)

Nafarroako Foru Orokorra (1240)

Murillo el Frutoko petxak (1400), non toponimoak euskaraz ageri diren.

Pirinioetako larren gaineko negoziazioak (1616)

Berako olagizonak, Juan Bautista Iturriak, Juantxo Bereauri prozesu judizialean igorritako gutunak (1674 eta 1676).

Euskararen aldeko saila sortzeko erabakia (Foru Diputazioaren erabakia, 1956-11-28).

EKAINA

Joseba Sarrionandiak euskaltzain urgazle diploma jaso du

Iurretako idazlea Euskaltzaindiaren egoitzan izan da, eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik jaso du diploma. Egoitzako Bilkuren aretoa bisitatu ostean, liburu-sorta bat oparitu dio Urrutiak. Euskaltzaindiak 1991ko urtarrilaren 31n izendatu zuen urgazle Sarrionandia, eta orain arte ez du diploma jasotzeko modurik izan.

Euskaltzaindiaren liburuak, Bilboko eta Ziburuko azoketan

Euskaltzaindiak erakusmahaiak jarri ditu Bilboko Liburu Azokan eta Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Bertan, azken nobedadeez gain, Akademiaren katalogoko lan esanguratsuenak egon dira. Bilbokoa ekainaren 2tik 12ra izan da Areatzako ingurunean. Ziburukoa, berriz, ekainaren 4an izan da, herriko Pilota plazan.

Pantxoa Etchegoin Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindiaren ordezkariorde izendatua

Jean-Baptiste Coyos ordezkariari laguntzeko, bai eta Baionako ordezkari itza bizkortzeko eta indarberritzeko ere, Pantxoa Etchegoin-Elissagaray (Jatsu, Nafarroa Beherea, 1960) euskaltzain urgazlea Ipar Euskal Herriko ordezkariorde izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak. Pantxoa Ipar Euskal Herriko idazle, antzerkilari eta kultura-eragile ezaguna da. Euskal Kultur Erakundearen zuzendaria izan da 1996tik 2021era arte.

Hainbat testu, itzulpen eta grabazio egin ditu Euskal Herriko turismo bulegoarentzat hala nola Donibane Lohizuneko Musée Grevinentzat. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 2021eko azaroaren 26an eginiko Osoko Bilkuran.

***Orotariko Euskal Hiztegia* eguneratu du Euskaltzaindiak**

10. argitaraldi honetan 172 sarrera berri, 517 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) delako testu-kodeketaren arabera egituraturako 10.336 adibide berri agertzen dira. Halaber, Agurtzane Azpeitia azpeitiar irakaslearen *Zestoarren Erretolika* hiztegiko gaiak ere gehitu dira.

Gainera, *Textos arcaicos vascos, Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* eta *Euskal testu zaharrak* direlako liburuetan agertzen den testu zahar bakoitzari laburdura berezi bana ezarri zaio. Honi esker, garai eta euskalkiaren arabeko bilaketan behar bezala sailkaturik agertzen dira testu hauek.

Alkizako Udalak eta Euskaltzaindiak gogora ekarri dituzte Juan Irazustaren lana eta haren garaia

Juan Irazusta. Pertsona, garaia eta idazlana liburuaren aurkezpena egin da San Martin Tourseko elizan, eta, horren aurretik, Irazustari eta bere garaiari buruzko

erakusketa inauguratu da Fagus-Alkiza Interpretazio-zentroan. Aurkezpenean Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hitz egin dute, eta, hitzaurreen ostean, Olatz Leturiagak (liburuaren egilea) argitalpen berriari buruzko azalpenak eman ditu.

Juan Irazusta Alkizalete (Alkiza, Gipuzkoa, 1688-1772) Alkizako eta Hernialdeko erretorea eta euskal idazlea izan zen. Idazlan bakarra publikatu zuen: 1739an, Gaspar Astete josulagunaren doktrina euskarara itzulita. *Doctrina Cristiana Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz compondua ipiñi zuan Eusqueraz D. Juan de Irazusta Erretore Hernialdecoac...* izenburuarekin argitaratu zen aipatu lana. Bi mendetan zehar, Gipuzkoako milaka haurrek memoriaz ikasi behar izan zuten dotrina hori. Aldekoak eta kontrakoak izan bazituen ere, haren itzala gaur egunera arte iritsi da.

IRAILA

Castillo Suárez idazle altsasuarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak

Euskararen Akademiak euskaltzain berria izendatu du Nafarroako Parlamentuan egin den Osoko Bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Patxi Zabaleta emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta Castillo Suárezek erdietsi du Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengo osoa. Beste hautagaiak, Paula Kasaresek, uko egin dio hautagaitzari bozketa izan aurretik.

Castillo Suárez García (Altsasu, Nafarroa, 1976) Euskal Filologian lizentziaduna da, eta toki-administrazioeko euskara teknikaria ogibidez. Bere literatura lanari gogozkiola, berriz, poesia lanak idatzi ditu batik bat: orain arteko bildumarik osatue-nak *Souvenir* (2008, Elkar), *Urtebetetze festa* (2012, Elkar), *Irautera* (2019, Elkar) eta *Elurra elurraren gainean* (2022) izan dira. Bestalde, hainbat hedabidetako kolaboratzailea da. Azkenaldian, haur literaturan ere utzi ditu zenbait ale, horien artean, *Ebelina Mandarin*a (Erein, 2010). Literaturari buruzko blog bat dauka: *Iparraldeko neska*. Hainbat literatura sari eskuratu ditu eta bere testuetako batzuk zenbait hizkuntzatarara (gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, katalana, galegoa...) itzuli dituzte. Euskaltzain urgazlea da 2016tik eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kidea 2021etik.

Euskaltzaindiak jarraipena emango dio Mintzola egitasmoari, batez ere, eguneroko hizkera langai hartuta

Mintzola Fundazioa 2021ean azkendu ondoren, Mintzola egitasmoa hizkeraren lantegia izango da aurrerantzean. Horretarako, Euskaltzaindiak bere lan eremua, lehentasunezko lan ildoak eta jarduerak finkatu ditu. Ohi duen lez, horiek guztiak ahozkoaren inguruan lan egiten duten eragileekiko lankidetzan landu nahi ditu Euskaltzaindiak.

Honela, ikerketan, ezagutzaren transferentzian, formazioan eta sustapenean jardungo du Mintzolak aurrerantzean. Horren haritik, ikerketa sustatzeko bi deialdi egingo ditu Euskararen Akademiak: bata, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu amaierako bost lan saritzeko; eta bestea, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko ikerketa edota master-amaierako bost lan saritzeko.

Era berean, lehentasunez, honako gai hauen inguruko beste ikerketa batzuk ere bultzatuko ditu:

Eguneroko hizkera: ezaugarriak.

Eguneroko hizkera euskal komunitatean: corpusaren osaketa, mapak eta diagnostikoa.

Gaztelania eta frantsesarekiko desoreka euskal gazteen eguneroko hizkerarako adierazkortasunean. Faktore horren eragina hizkuntza-hautuan.

Hezkuntza araututik eta arautu gabeko hezkuntza edo aisialdi antolatutik eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak sustatzeko bideak eta tresnak.

Hedabideetatik eguneroko hizkerarako baliabideak sustatzeko bideak eta tresnak.

Euskalkiak eta estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: jardunbideen azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.

Hitanoaren diagnostikoa eta hikako moldearen erabilera sustatzeko bideak eta tresnak.

***Ahostegunak eta Ahots Baten* sormen egonaldiak**

Esandakoaz gain, aspalditik datozen beste bi egitasmo ere bultzatuko ditu Euskaltzaindiak, Mintzola egitasmoaren bidez. Proiektu hauekin, eta erakundeen arte-

ko elkarlana oinarri hartuta, gazteek euskaraz egiten diren hainbat ahozko adierazpide ezagutzeko edota euskarazko hizkera informala lantzeko aukera bultzatu nahi da, ahozko kultura-sorkuntzaz gozatzeko aukera emanda.

Ahostegunak: 18 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzenduta, antzerkian, bertsolaritzan, kantuan eta literaturan murgiltzeko, gozatzeko eta sakontzeko saioak.

Ahots Baten sormen egonaldiak: euskarazko ahozko sorkuntzan dabilzan gazteak elkartzeko, berean artean harreman sareak egiteko eta adierazpide ezberdinak esperimentatzeko helburuz sortutako egonaldia.

Zer da Mintzola?

Mintzola Ahozko Lantegia 2008an sortu zen. Bertsolaritzatik abiatuta, ahozko tradizioaren gaineko hausnarketari eta ahozkotasanari loturiko diziplinen arteko elkarrenergina bultzatzea izan du helburu azken urte hauetan.

2021eko uztailean, Mintzola Fundazioaren ibilbidea amaitutzat ematea erabaki zuten, aho batez, patronatuko kideek. Bertsogintzaz harago, ahozko gainerako diziplinetan gehiago sakondu eta eragiteko beharrak bultzatuta hartu zuten erabakia. Orduan, Euskaltzaindiari eskaini zioten Mintzolaren jardunarekin jarraitzea. Euskararen Akademiak baiezkoa eman zion proposamenari eta inplikaturako eragileek prozesu berri bat bultzatu dute ordutik, euskarazko ahozko jardunaren ikerketari eta dibulgazioari jarraipena emateko helburuari eutsiz.

Allande Socarros (1957-2021) Euskal idazlan eta lekukotasun liburua aurkeztu dute Sü Azia elkarteak eta Euskaltzaindiak

Liburu honen bidez, Euskaltzaindiak eta Sü Azia elkarteak iragan urteko abenduaren 9an zendu zen Allande Socarros zuberotar euskaltzain urgazle jakintsua nahi izan dute ohoratu. Liburua bi zati nagusitan antolatu da: alde batetik, Allandek berrogei bat urtez idatzi zituen artikulua eta liburuetako idatz-zati hautatu zenbait biltzen ditu eta, bestetik, Allande ontsa ezagutu zuten hamabi pertsonaren lekukotasunak eskaintzen ditu. Hamabi lagunek argibide anitz eman dituzte Allanderen lanez, kolaborazionez eta egitatez. Horrez gain, Allanderen nortasuna eta ikusmoldeak deskubrituko ditugu. Hots, gizon libre bat ageri zaigu, euskarari, euskal kulturari eta Euskal Herriari bizitza osoa eman diena.

Allande Socarros Etxebarren (Zuberoa) sortu zen 1957ko uztailearen 12an, eta Maulen (Zuberoa) hil, 2021eko abenduaren 9an. Euskaltzain urgazle izendatu zu-

ten 2018ko uztailaren 20an. Euskaltzaindiaren lau batzordetan lan egin zuen: Euskalkien lantaldean (2013-2021), Euskara Batuaren Eskuliburua batzordean (2017-2021), Euskara Eskuz Esku egitasmoan (2018-2020) eta Onomastika batzordean (2019-2021).

Animalien ongizatea eta beganismoa: oinarritzko lexikoa

Euskaltzaindiak UZEIrekin lankidetzan argitaratu duen lexiko honetan, guztira, 32 kontzeptu bildu dira, besteak beste, *animalista*, *antiespezismo*, *makroetxalde*...

Animalien eskubideen aldeko mugimenduak indar hartu du azken urteotan, eta horrekin batera eguneroko hizketagai bihurtu dira beste hainbat gai: abeltzaintza intentsiboko zenbait eredu, animalien ongizatea bermatzeko legeak, animalia-jatorriko elikagaiak zenbateraino diren beharrezkoak...

Lexikoan jasotako forma batzuk dagoeneko araututakoak dira (hala nola *animalista*, *barazkijale*, *beganismo*), baina badira Akademiaren hiztegiak oraindik jaso ez dituen formak ere: *makroetxalde*, *izaki sentitzaile*, *flexitariano*...

Hiztegi arauemaileko formak eta definizioak ez ezik, lan honetarako kontuan hartu dira terminologia-bankuak (bereziki, *Euskalterm* eta inguruko hizkuntzetako terminologia-banku nagusiak) eta euskarazko erabilera (besteak beste, hedabideetakoak).

Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak onetsi ditu lexikoa osatzen duten sarrerak eta definizioak.

Euskaltzaindiak webgunearen orri nagusia eguneratu du

Sakelako telefonoetarako hobeto egokituta eta erabilgarritasunaren mesedetan egin dira azken aldaketak. Gainera, atal eta baliabide linguistiko erabilienetan sartzeko sarbide zuzenak jarri dira. Azken lau urte hauetako ibilbideari eutsiz, etengabeko berrikuntza prozesua egin da Akademiaren webgunean. Izan ere, eduki eta baliabide berriak sortu eta lehendik martxan dauden baliabideak osatu eta hobetu dira.

2018ko urrian, mendeurrenaren kariatara, Euskaltzaindiak webgunea erabat berritu zuen. Berrikuntza haren ostean, eguneraketa asko egin dira; baliabide berriak online jarri dira eta lehendik zeuden baliabideak eta edukiak eguneratu, etengabeko berrikuntza prozesu bati jarraituz.

Baina aurrerantzean, Euskaltzaindiak webgunearen berrikuntza progresibo sako-
nagoa egingo du. Orain aurkeztu den orri nagusiaren eguneraketa berrikuntza ho-
rren lehen urratsa baino ez da. Hurrengo hilabeteetan, webgunearen beste atal eta
baliabide batzuetan aplikatuko da eguneraketa (bilaketa orokorra, webgune osoa
mugikorretarako optimizatzea...).

Honela, eta azken lau urte hauetako ibilbideari eutsiz, etengabeko berrikuntza
prozesuarekin jarraituko da: eduki eta baliabide berriak sortu dira, alde batetik, eta
lehendik martxan dauden baliabideak osatu eta hobetu dira, bestetik.

2018an egin zen eguneraketarekin batera, webgunearen erabilera asko igo zen,
progresiboki % 40ko igoerara iritsi arte. 2019an egonkortu egin zen erabiltzaileen
kopurua, eta 2020an, COVIDaren pandemiak mundua astindu zuenean, gora
egin zuen berriz erabiltzaileen kopuruak, % 25 inguru.

2022ko hasieratik ia beste horrenbeste igo da erabiltzaileen kopurua (% 20),
Berbaxerka eta *Wordle* jolasen ondorioz, batez ere, jolas hauek *Euskaltzaindiaren*
Hiztegia erabiltzen baitute oinarri gisa.

Tafallako Garcés de los Fayos ikastolan izan da Euskaltzaindia

Nafarroako ikastolen aldeko jaiarekin (Nafarroa Oinez) bat egin du Euskaltzain-
diak, eta Tafallara hurbildu dira Akademiaren Zuzendaritzako kideak, bertako
ikastola eta ikasleak ezagutzeko asmoz.

Irailaren 23an, Tafallako udaletxean egin du bilera Euskaltzaindiaren Zuzenda-
ritzak. Ondoren, Jesus Arrizubieta alkateak hartu ditu euskaltzainak. Arrizubieta-
rekin batera izan dira Pedro Leralta Kultura zinegotzia eta Marta Gomez Euskara
zinegotzia.

Azkenik, ikastolako eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariekin batera
(Paula Arregi zuzendaria, Aritz Azcarate lehendakaria, Marta Igoa eta Haizea Lizar-
be Nafarroa Oinez-eko koordinatzaileak), Garcés de los Fayos ikastolara hurbildu
dira euskaltzainak; bertan, ikasleei Akademiaren historia eta jarduna sakonago
azaltzeko aukera izan dute.

URRIA

"Euskaraz ahoskatzen ikasi eta irakatsi" ikastaroa Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkartzan

Saio teoriko-praktikoa kazetari, irakasle eta, oro har, jendaurrean hitz egiten trebatu nahi duen ororentzat antolatu da. Ikastaro horretan, ahozko euskararen inguruko lanketa berezia egin da, eta, euskaltzainen ekarpen teorikoaz gain, praktikari ere tokia eman zaio. Oroitz Jauregi Nazabal eta Lourdes Oñederra Olaizola Ahoskera batzordeko kideak arduratu dira alderdi teorikoaz eta Julia Marin Arteaga komunikazio tekniken irakaslea lan-saio praktikoaz.

Jabier Kaltzakorta eta Mikel Gorrotxategiren hitzaldiak Ondarearen Europako Jardunaldietan

Urriaren 19an, "Ozaze Jaurgainean balada: nork, noiz, nola" hitzaldia eman du Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak, eta urriaren 26an Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazlea eta Onomastika batzordeko kideak toponimiak tradizioa transmititzeko duen gaitasunari buruz jardun du.

Ahozko eta idatzizko tradizioaren iraupena eta transmisioa oso garrantzitsuak izan dira (eta dira) euskal kulturaren. Euskaltzaindiak kontu honi erreparatu nahi izan dio aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldietan eta bi hitzaldi antolatu ditu Bilboko egoitzan. Batetik, balada tradizional baten adibidea hautatu du, eta bestetik, toponimia tradizioaren transmisiorako tresna gisa aztertu nahi izan du.

Euskaltzaindiak abian jarri du "Ahostegunak" egitasmoa: bertsoaz, literaturaz, kantuaz eta antzerkiaz gozatzeko hiru saio

Hamazortzi eta hogeita bi urte bitarteko gazteei zuzendutako doako egitasmoa den *Ahostegunak* antzerkian, bertsolaritzan, kantuan eta literaturan murgiltzeko, gozatzeko eta sakontzeko saioak proposatzen ditu. Bertan, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariek parte hartu dute, eta baita Merina Gris taldeak eta Marina Suarez antzerkilariak ere.

Euskaltzaindiak Mintzola egitasmoaren bitartez bultzatu du ekimen hau. Mintzola Fundazioa 2021ean azkendu ondoren, hizkeraren lantegia izango da aurrerantzean.

Horretarako, Euskaltzaindiak bere lan eremua, lehentasunezko lan ildoak eta jarduerak finkatu ditu. Ohi duen lez, horiek guztiak ahozkoaren inguruan lan egiten duten eragileekiko lankidetzan landu nahi ditu Euskaltzaindiak.

Proiektu honekin gazteek euskaraz egiten diren hainbat ahozko adierazpide eza-gutzeko edota euskarazko hizkera informala lantzeko aukera izan dute, ahozko kultura-sorkuntzaz gozatzeko aukera emanda.

Iker bildumaren 44. zenbakia aurkeztu da Britainiako Carhaix herriko liburu-azokan

Herve Le Bihan Rennes-2 Unibertsitateko katedradunak eta Aurelia Arkotxa euskaltzain oso eta Bordeleko Montaigne Unibertsitateko katedradun emerituak koordinatu dute ikerlana. Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren karira antolatu zen literatura jardunaldiaren emaitzetako bat da. Ikerlana Rennes-2 Unibertsitatearekin elkarlanean plazaratu du Euskararen Akademiak.

Besteak beste, argitalpenak aditu hauen artikulua biltzen ditu: Ur Apalategi, Latry Guy, Aiora Jaka, Aritz Galarraga, Lourdes Otaegi, Frederik Verbeke, Jean-François Courouau, Eugène Gherardi, Joseba Lakarra eta Koldo Ulibarri, Hervé Le Bihan, Eneko Zuloaga eta Dorota Krajewska, Iñaki Aldekoa, Audrey Debibakas, Christian Manso eta Dolores Thion Soriano-Mollà, Ronan Le Coadic, Mikaela Kerdraon, Évelyne Mourguy...

Azterketa andana hauen bitartez ez da zehaztasuna bilatzen, ezpada literatura- eta hizkuntza-eremu ezberdinen markatzeko borondatea, estatuen historia ofizialaren konbentzio harroetarik haratago bidaiatzea posible izan dadin.

"Ahots Baten" sormen-egitasmoaren eskutik, ahozkotasuna landu dute 27 gaztek Amaiurren, lau egunez

Euskal Herri osotik hurbildu diren 15 eta 22 urte bitarteko 27 gaztek ezagutu duten esperientzia "oso berezia" izan dela diote begiraleek. "Askok aurreko urteetatik ezagutzen zuten, beste askorentzat, aldiz, lehen aldia izan da; asko bertsozale elkarreak sortua duen aisialdi-saretik etorritako gazteak izan dira. Hala ere, baziren bertsoaz kanpoko beste arte-esparru batzuetatik zetozen gazteak. Denak gogoz zeu-

den zazpi ahalak egiteko, eta gonbidatuekin izan duten gertutasuna nabarmentzeko da”, azpimarratu du Eider Perezek.

Amaia Castorene gai-jartzailearekin hasi zen aurtengo egonaldia. Lehen egunean, Bertsolari Txapelketa Nagusiko Donibane Garaziko saioa ikustera joan zen taldea, eta, horren aurretik, Castorenek Garaziko txokorik esanguratsuenak erakutsi zizkien, bere jardunaz eta sorkuntza munduaz hitz egiten zien bitartean. Ondoko hiru egunetan, Amaiurko aterpetxeak hartu zuen gazte-taldea, eta Iñigo Astiz idazlearen bisita izan zuten lehendabizi. Ondoren, Ainhoa Artetxe aktorea ezagutzeko parada izan zuten gazteek. Umorezko eszenak antzetzu zituzten elkarrekin, elkarrizketa bitxiak egin, eta aktore bizkaitarraren ibilbidea ezagutzeko aukera ere izan zuten partaideek. Eta azken egunean, Paxkal Irigoyen eta Maia Hiribarne abeslariak hurbildu ziren Amaiurrera. Eider Perezek denak “liluratuta” utzi zituztela nabarmendu du: “Haien kantuen eta ibilbidearen gainean solastatu ginen eta, arratsaldean, *Bañolet* filmaren soinu-bandaren erakustaldi bat egin ziguten zuzenean, primerako saioa”.

Aurtengo egonaldiak asebate ditu gazte eta begiraleak. Egonaldiaren helburu nagusietako bat gazteekin aisialdi-eremuan ahozketasuna lantzea da, eta helburu hori betetzeko zeharkako tresna dira sormena eta arte-diziplina ezberdinak, hots, literatura, antzerkigintza, kantugintza eta bertsolaritza. Euskal kultura eta sorkuntzara hurbiltzea eta gonbidatuak gertutik ezagutzea ere badira aipatu beharreko beste bi jomuga. Eta, bukatzeko, gazteen arteko sarea sortzea da azken helburua.

AZAROA

Itxaro Borda idazlea eta Andres Alberdi hizkuntzalaria euskaltzain oso izendatu ditu Euskaltzaindiak

Euskararen Akademiak euskaltzain berriak izendatu ditu Donostiako udaletxean egin den Osoko Bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Xarles Videgain eta Andoni Sagarna emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsuneak betetzeko, eta Itxaro Bordak eta Andres Alberdik erdietsi dute Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengo osoa.

Bi euskaltzain oso berrien profil laburrak:

Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria, 1950). Filosofian lizentziaduna. Irakaskuntzan aritua 38 urtean. Lehenengo, Elgoibarko Ikastolan; ondoren, Elgoibarko Institutuan, eta bertan, Euskara eta Literaturako katedraduna 1982tik, harik eta 2011n erretiroa hartu zuen arte.

Bakarka zein elkarlanean, 1986tik, DBHko eta Batxilergoko Euskara eta Literaturako hogeitik gora ikasliburu eta gramatikaren egilea da. 1986-1990 bitartean, EGAKo aztertzaile-taldeko kide, eta, 1988-1990 urteetan, Azterketa Batzorde Ofizialeko zuzendaritza-kidea, Gipuzkoako arduradun akademiko gisa. 1991-92 ikas-turteetik 2011ra arte, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko EIMA Programan aritua.

2007tik, Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeko partaide da. 2014tik, Euskaltzaindiaren *Euskara Batuaren Eskuliburu*ko batzordeburu, eta batzorde horrek 2018an paraturiko *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* (2018) prestatzaile eta egilea. 2022tik, Morfosintaxiaren Estandarizazioko batzorde ahaldunduko idazkaria da. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 2018an. *Euskara Batuaren Eskuliburuaz* gain, bestelako lan batzuk ere ondu ditu Alberdik. Tartean, *Bidegileak* bildumako bi kaiera (Manuel Larramendi eta Agustin P. Iturriagaren jardun eta bizitzari eskainitakoak), *Oinarrizko gramatika* (2008, Donostia: Elkar) eta *Ahoskera* (2014, Gasteiz: EIMA. Eusko Jaurlaritza).

Itxaro Borda (Baiona, 1959). Oragarrekoa da familia. Historiako goi-mailako ikasketak egin zituen eta gaur egun postari ogibidetik erretiratu da. Idazlea da, poeta, artikulugilea eta zenbait abestiren testu-egilea Euskal Herriko hainbat musikarientzat. Gazte-gazterik hasi zen izkiriartzen *Herria* astekarian, eta ordutik ez da gelditu. Euskadi Literatura saria irabazi zuen 2002an % 100 *Basque* lanari esker –frantsesez argitaratu zen 2004an eta gaztelaniaz 2012an–. Mugarriak finkatu dituzten nobelak eta olerki bildumak plazaratu ditu Maiatz, Susa, Alberdania eta Elkar argitaletxeetan, bereziki Amaia Ezpeldoiz detektibe lesbianarekikoak. Hondar mende erdiko euskal gizartearen bilakaeraz idazten du, ikuspuntu periferiko batetik, hots, Ipar Euskal Herritik, historizitatetik eta feminismotik. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 2021eko azaroaren 26an.

Euskararen Gogoetagunea aurkeztu du Euskaltzaindiak

Euskaraldiaren hirugarren aldia abiatu da gaur, eta, egun seinalatuarekin batera, Euskaltzaindiak *Euskararen Gogoetagunea* aurkeztu du jendaurrean. Jagon Sailaren barruan kokatzen da egitasmoa, eta proiektu berriaren gogo-nahiak ondo azaldu ditu Jon Sarasua irakasle, ikertzaile eta *Gogoetagunearen* koordinatzaileak: “XXI. mendeak galdegai berriak ekarri dizkio euskararen bideari, eta une honetan norabide-krisi baten zantzuak bizi ditu. Abagune honetan, euskararen inguruko iritzi argitaratuak dibergentzia handi samarra agertzen du egoerari buruzko balorazioan, analisi eta planteamenduetan. Egoera honen erdian, elementu baten falta sumatzen da: bisio edo etorkizun-ikuspegia, eta horretara norabideratutako arnas luzeko estrategia nagusien marrazkia. Neurri batean, horretara dator egitasmo hau, arnas luzeko estrategiak marraztera, etorkizun-ikuspegiarekin”.

Gogoetagune berriak badu koordinatzailea (Jon Sarasua bera), badu idazkari teknikoa (Ibon Usarralde) eta badu hamar lagunez osatutako kontraste-taldea ere. Eta, nola ez, etorkizunerako asmoak ere badira: “Hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak arragoa batera bildu nahi ditu guneak, ikuspegi desberdinak elkarriketan jartzeko moduko sinesgarritasunez”, esan du Sarasuak. “Zeregin horretarako altzo egokia da Euskaltzaindiaren Jagon Saila, berezkoa baitu eztabaidarako eta gogoetarako joera. Orduan, bai, erakunde publiko, gizarte-erakunde eta gainerako eragileei dagokie haiek politikak erabakitzea, baina guk norabideak ikusten lagunduko diegu, *Gogoetagunearen* emaitzak beraien eskura jarritz, gizartearen eskura jarritz”, gaineratu du ikertzaile gipuzkoarrak.

Praktikotasun horri eutsiz, *Euskararen Gogoetagunearen* lehen emaitza agertu du Jon Sarasuak jendaurrean, hain zuzen, “*Euskararen biziberritze prozesuaren etorkizun ikuspegia*” ponentzia. Bigarren ponentzia bat ere ondu dute gunearen kontraste-taldean, hain zuzen, “*Euskararen egoeraren diagnostikoaren sintesia*”, Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak paratuta. “Datorren urteari begira, beste 5 ponentzia mahairatuko ditugu, eta aurrerago beste sei-zazpi. Ondoren, kontraste-taldean aztertu, hobetu eta onartuko dira, eta ondoren plazaratu egingo ditugu, eztabaida publikorako baliagarri izan daitezen”, adierazi du Jon Sarasuak.

ABENDUA

Euskaltzaindiak bi argitalpen aurkeztu ditu Durangoko Azokan

Luis Mari Zalduaren *Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak* eta Eneko Zuloagaren *Mendebaleko euskara zaharra* (UPV/EHUrekin elkarlanean) liburuak aurkeztu dira Landakon.

Aurtengo Durangoko Azoka abenduaren 7tik 11ra arte egin da, eta Euskaltzaindiak urtero lez –badira 57 edizio–, saltokia izan du bertan.

Luis Mari Zalduaren ikerlan berrian, erromatar garaiko euskal mintzaira aztertzen da, jainko-jainkosen izenen argitan, hau da, antzinateko harrietan lekukotzen diren jainko-jainkosen izenen eskutik. Euskal Herriko Antzinaroko jainko-jainkosen izenen gainean esan dena eta esan daitekeena biltzen du liburuak, neurri batean. Eneko Zuloagarenak bestelako kontuak dakartza: hain zuzen, lana dialektologia historikoaren esparruari dagokio eta mendebaleko euskara zaharra du aztergai; zehazki, Erdi Aroan Euskal Herriko mendebalean zeuden ezaugarri eta zatiketa dialektal nagusiak ditu aztergai, Lakarrak (2014 [2011]) «Mendebaleko Euskara Zahar» deitutako unitate linguistikoaren nondik norakoak.

Beste nobedade bi ere Azokan izan dira. Batetik, *Faktoriako geziak* (EiTBrekin elkarlanean), hain zuzen, azken lau urteotan Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Adolfo Arejita euskaltzain osoak emandako orientabideak jasotzen dituen liburua. Hedabideek egunean eguneko eta presa biziko zeregin bati aurre egin behar izaten diote: euskaraz nola aditzera eman, gaztelaniaz, ingelesez edo beste hizkuntza batzuetan garatzen doazen kontzeptu eta adierazte-premia berriak. Horixe da Adolfo Arejitak egin duena, berak komenigarritzat jotzen dituen konponbideak proposatuz. Bestetik, 2021eko edizioan, Resurreccion Maria Azkue haur eta gazteentzako literatura sarietan saridun izan diren idazle gazteen narrazioak eta olerkiak biltzen dituen liburuxka ere saltokian izan da. Horretaz aparte, Akademiak aurtengo nobedadeak eta bere katalogoko argitalpen esanguratsuenak eraman ditu.

Euskaltzaindiak hainbat erakunde eta elkarteekin hitzarmenak sinatu ditu 2022an

Maiatzean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu zuten Espainiako Senatuak eta Euskaltzaindiak. Goi ganberako presidente Ander Gilek eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute akordioa, eta bertan jasotzen dira elkarlanean egin beharreko zenbait egitasmo: argitalpenak argitaratzea, lege-testuak itzultzen laguntzea edo Espainiako Estatuko hizkuntza-ondareari buruzko erakusketa bateratua antolatzea.

Ekainean honako bi lankidetzahitzarmen hauek sinatu ziren: Hiriburuan euskara sustatzeko Euskaltzaindiak eta Bilboko Udalak sinaturikoa. Hitzarmenean, hizkuntza arloko aholkularitza, eta hizkuntza suspertzeko eta euskal kulturaren hedapena eragiteko kultura-jarduerak eta hitzaldiak jaso dira; halaber, Blas de Otero. *Una letra impagada. Ordaindu gabeko letra bat* lana argitaratuko da.

Euskaltzaindia eta Sü Azia elkarteak sinaturikoa. Zubererazko lanak euskal gizartearen esku jartzea da lehen aldiz sinatu den hitzarmen honen helburu nagusia. Jean Mixel Bedaxagar Sü Azia elkarteko presidentea eta Jean-Baptiste Coyos Euskaltzaindiaren buruorde eta Ipar Euskal Herriko ordezkaria elkartu ziren Maulen, bi erakundeen arteko lankidetzasmooa hezurmamitzeko. Sü Azia elkarteak 1979an sortu zen Zuberoaz eta zubereraz agertu edo eginik izan diren lanak biltzeko eta ezagutarazteko. Elkarte horrek Zuberoan egiten duen lana bat dator Euskaltzaindiak lurralde guztietan euskararen alde garatzen duen lanarekin.

Irailean, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzahitzarmena sinatu zuten. 2022. urtean bi proiektu nabarmendu daitezke: alde batetik, Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketaren emaitzak Mendaurre bilduman argitaratzea, Nafarroako Gobernuak azken urteotan finantzatu duen ikerketa-lan zabalari amaiera emateko; bestetik, Euskaltzaindiaren parte-hartzea eta aholkularitza Etxauribarko etxeen izenak biltzeko proiektuan.

Azaroan, azkenik, beste bi lan-hitzarmen hauek sinatu ziren:

Euskaltzaindiak eta Iruñeko Udalak sinaturikoa. Hitzarmenak 2022. urte osoko jarduerak hartzen ditu. Ekitaldian Enrique Maya Iruñeko alkateak, María García Barberena zinegotziak, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Erramun Osa Euskaltzain-

diko idazkariordeak, eta Sagrario Aleman eta Andres Iñigo euskaltzain nafarrek parte hartu dute.

Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioak eta Euskaltzaindiak sinaturikoa. Horren xedea Pertsona Gorren Elkarteen Federazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren egonkorra sendotzea da, hizkuntzaren ikuspegitik, euskal herritar gorrak eta horien inguruko pertsonak ikusarazteko hainbat ekimen gauzatu. Hitzar-menak hiru urteko iraupena izango du.

***Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ohiko bi eguneraketak izan ditu 2022an, eta horrez gain, hainbat hobekuntza egin zaizkio hizkuntza-baliabideari berari**

2022ko lehen seihilekoan, Euskaltzaindiak 431 forma berri jaso ditu, eta moldaketa zein berrikuntza guztiak hiztegiari erantsi dizkio. Hain zuzen ere, 29 sarrera eta 402 azpisarrera izan dira. Era berean, 1.322 forma moldatu edo findu ditu: 1.158 sarrera eta 174 azpisarrera. Euskararen Akademiak etengabe osatzen eta berrikusten du hiztegia, eta urtean bitan sareratzen ditu berrikuntzak. 2016an bigarren argitalpena paperean atera zenetik, urtean bitan eguneratzen du, eta 2022ko lehen urte-erdian eginiko lanaren emaitzak jaso dira aurrean lehenik. Honako hauek dira gehitu diren sarrera eta azpisarrera batzuk: buruloka, deliberatu, mastektomia, superni, arteria koronario, euskal etxe, kafe huts, plater zapal, plazebo-efektua, zaharren egoitza. Urtearen bukaeran, aldiz, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hizkuntza-baliabidea eguneratu da: batetik, bilatzaile berria garatu da, funtzionalagoa, bilaketa-aukera berriak eskainita; bestetik, hitzak aurkitzeko bide gehiago ematen ditu orain eta, beraz, zehatzagoa da.

Horrez gain, 2022ko uztailetik abendura egindako lana ere txertatu da: moldaturiko 1.959 formak, eta gehituriko 404 forma berriak (176 sarrera eta 228 azpisarrera).

Forma berriei gagozkiela, batez ere, gaurko corpusetan maiz ageri direnak, egunerokoak, gehitu dira (*bioeraikuntza, erresilientzia, gentrifikazio, administrazio(-)isiltasun, argazkia atera, asto(-)lan, demaseko, gizarte(-)langile, langile(-)mugimendu, zuntz(-)haustura...*). Gainera, estatu bateko hiriburu ez diren hirietako herritarren izenak ere landu dira (*bartzelonar, mallorcar, newyorktar...*), horiek guztiak Exonomastika

batzordearekin batera. Bai eta udalerrri ez diren herritarren izenak ere (*itziartar, igeldoar, urrestildar*). Onomastika batzordearekin batera landu da atal hori.

Azken eguneraketan, bereziki, hiztegi barruan jasota zeuden esapide asko bistartzeko lana egin da, adibideen artean galduta antzean zeudenak, eta maiz azalpena ere eskatzen dutenak: *astoa saldu eta mandoa erosi* ('nola-halako egoera batetik beste txarrago batera igaro'), *begi txarra ez izan, odolean eraman, onddoak bezala, perretxikoen moduan, soka luzea ekarri, txapela kentzeko moduko, urre(-)bitsetan bizi, zakutik edo zorrotik* (*Ipar*. 'moduren batean'), *zapi zikinak eguzkitara atera...*

Horrez gain, adibidetegia berrikusi da: hornitu dira adibiderik gabe zeuden adierak, bai eta adibide zaharkituak berriez ordeztu ere. 1.517 adibide gehitu/kendu/moldatu dira aipaturiko epean.

Guztira 48.305 forma ditu orain hiztegiak (38.222 sarrera eta 10.083 azpisarrera), eta 67.722 adiera.

Euskaltzaindiak eta UZEIk 2022ko hitza aukeratu dute: *zorioneko*

Irulegiko Eskua dela eta, berba horrek hedabideetan eta sarean izan duen erabile-ran oinarrituta hautatu dute urteko hitz.

Arangurengo (Nafarroa) Irulegi mendiko aztarnategian aurkitutako brontzezko eskuan, «orain arte baskoieraz ezagutzen den testu zahar eta zabalena» dago idatzita, Aranzadi Zientzia Elkarteak aurtan ezagutzera eman duenez.

Aurkikuntza arkeologiko horren begi-bistako garrantzia dela eta, albisteak oihartzun handia izan du, eta nazioarteko komunikabide handi batzuek ere horren berri eman zuten azaroan. Ezbairik gabe, zientzialariek *Irulegiko Eskuaren* idazkuna osatuko luketen hitzetako bat *sorioneku* gisa transkribatu izanak zeresan handia eman zuen ondorengo egun eta asteetan. Orduz geroztik, *zorioneko* hitza ardatz duten mezu eta lelo ugari hedatu dira euskararen inguruan, eta horren adibide dira Euskaraldiaren eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira zenbait erabiltzailek eta erakundek esandakoak.

Itxura guztien arabera, oraindik ere emango du zeresana Irulegiko Eskuak, diziplinarteko ikerketa egin beharko baita; beraz, arkeologoek, hizkuntzalariek eta gainerako zientzialariek esaten dutenaren zain geratu beharko dugu oraingoz.

UZEIk egunero egiten du lexikoaren jarraipena, nagusiki komunikabideak arakatzuz, besteak beste hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritutako tresnak garatzeko eta mantentzeko. Jarraipen horretan oinarrituta hautatzen dute Euskaltzaindiak eta UZEIk urteko hitza.

Aurten, inflazioak, Ukrainako gerrak eta hizpide izan diren beste gai nagusi batzuei itzal egiteko adinako hedadura izan du *Irulegiko Eskuak*. Horren adibide da, esaterako, gertakari horren inguruko oihartzunak *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n utzi duen nolabaiteko arrastoa, *zorioneko* formak azaroko aste bakarrean izan baitzuen hiztegi digital horretako sarrera bakoitzak aurten batez beste izandako kontsulta-kopuru bera.

2022an, Euskaltzaindiaren webguneko erabiltzaileen kopurua ia % 15 igo da

2021eko datuekin alderatuz, 2022an Euskaltzaindiaren webguneak gora egin du adierazle nagusi guztietan.

Honela, 2022an, 772.037 erabiltzaile izan ditu Akademiaren webguneak (+ % 14,23), saioak 2.639.551 izan dira (+ % 82,11), eta 9.331.815 orrialde bisitatu dituzte erabiltzaileek (iaz baino + % 57,13 gehiago). Orain arte, EODA zen baliabiderik kontsultatuena, baina 2022an, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* bihurtu da tresna erabiliena.

2022an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Idazkaria Bilboko ‘Ospetsu’ izendatu dute

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak ezagutzera eman ditu Bilboko 2022ko *Ospetsuak*: Daniel Innerarity filosofoa, Iraia Iturregi futbolari-ohia, Adolfo Arejita euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko idazkaria, eta Susana Rodriguez irakasle eta ekonomialaria.

Aburtok adierazi du, Adolfo Arejita “euskararen alde eta euskararen defentsan egindako ibilbide eta lan akademiko, literario eta dibulgatzaileagatik” izendatu dutela Bilboko ospetsu. Aintzatespenak emateko ekitaldia abenduaren 15ean egin da Udaletxeko Arabiar aretoan.

Txomin Peilleni 2022ko Eusko Ikaskuntza - Baiona Hiria Ohorezko saria eman diote

Jean-Baptiste Coyos Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkariak jaso du haren orde, euskaltzain emeritua abenduaren 9an zendu baitzen, 90 urte zituela.

2000 urtetik, Eusko Ikaskuntza - Baiona Hiria Ohorezko Saria ematen da, Iparraldean euskal kulturaren edo zientziaren aldeko jardueragatik bereziki nabarmendu diren pertsonak ohoratzeko xedean.

Jardunaldiak

2022an Euskaltzaindiak antolatu dituen edo parte hartu duen jardunaldien kronika

Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak gogora ekarri dute Juan San Martin euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena (1922-2022)

Euskararen Akademiak Eibarko udaletxean egin du ekaineko Osoko Bilkura, eta ondoren, Luis Alberto Aranberri *Amatiño* ohorezko euskaltzainak eta Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak San Martin euskaltzainaren biografia aletu dute, Ageriko Bilkuran.

Juan San Martin euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrenaren kariaz, Eibarko Udalak gorazarre egin nahi izan dio herriko euskaltzaleari. Horretarako, Euskaltzaindiari eskatu zion ohiko Osoko Bilkura Eibarren egin zezala, ekainean, hizkuntzaren aldeko lan etengabearen aritu baitzen eibartarra akademiaren magalean, euskarak haizea alde ez zuen urterik zailenetan.

Horiek horrela, Euskaltzaindia idazlearen sorterrian bildu da goizez, eta eguerdiko 12etan, Ageriko Bilkuran, Luis Alberto Aranberri *Amatiño* kazetaria eta ohorezko euskaltzaina eta Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa aritu dira hizlari, aurrenak *Sorlekutik sorlekura* eta hurrenak *Juan San Martinen gaztetako lanak: Zirikadak eta Eztenkadak* berbagai hartuta. *Amatiñok* San Martinen izaeraz hitz egin du gaurko berbaldian, eta 1965etik 1975era bitarteko urteetan euskaltzaleak eginiko lanak eta ahaleginak azaldu ditu. Aipatu du, hala berean, kazetari-sasoian bera zela gazte askoren “informazio-iturria”, Internet bako garai haietan. Bestetik, Kaltzakortak Juan San Martinen lehen sorkuntza lanak aztertu ditu, *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965) liburuak hain zuzen. “Antzerako izenburuko bi lanak herri-ipuinen kontakizun laburren bildumak dira, Eibar eta *Plaentxia* inguruan ahoz kontaktzen ziren ipuin barregarriak, Eibarko euskaraz idatzi eta argitaratutakoak”, argitu du euskaltzainak. “Herri-umore eta euskara biziaren altxor apartak” direla azpimarratu du ikertzaile markinarrak.

Azkenik, euskaltzain eibartarraren izena daraman udal liburutegian ezarri da haren jaiotzaren ehungarren urteurrenaren xafla, eta Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak San Martinen jarauntsia oroitu digu bertsoan.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen Juan San Martin 1958an, eta 1964an, euskaltzain oso. 1967-1978ko aldian, Euskaltzaindiko idazkaria izan zen eta 1988. urtean, euskaltzainburuorde. Arantzazuko 1968ko bileran, euskara batuaren aldeko apustu sendoa egin zuen, ezbairik gabekoa; eta hilabete batzuk lehenago, haren ekimenez, idazle-talde batek *Ermuko Zina* deritzon dokumentua izenpetu zuen, hizkuntzaren batasuna eskatzeaz gain, herri-hizkeren garrantziaz ere ohartarazteko: “Euskararen enborretiko adarrak dira euskalkiak, eta adarrak sano izango baditu, enbor sendoa eta osasuntsua behar du. Euskara Batuaren sendotasunak hobeto gordeko ditu euskalkiak ere”.

Jaioterrian, San Martinek lan handia egin zuen hainbat arlotan: Klub Deportivoan arrastoa utzi zuen mendizaletasunean, espeleologian eta eskaladan; eta, Deportiboko Kultura saila sortzeaz gain, kirol-ekintzen osagarri, hango liburutegia garatu zuen, hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta erakusketa antolatuz. Bera izan zen, Euskaltzaindiak antolatuta, Eibarko Amaya antzokian 1962ko azaroaren 11n egin zen Gipuzkoako Bertso Txapelketaren finalaurrekoaren bihotza eta arima, non Lazkao Txikik irabazi zuen Eibarko Udalaren kopa.

Ekintzaile eta sustatzaile nekaezina

Eusko Legebiltzarrak 1989. urtean ararteko izendatu zuen eta Arartekoaren erakunde sortu berria osatu eta egituratu egin behar izan zuen, ezerezetik abiatuta, helburuak finkatuz eta lana erruz eginez. Apaltasunez eta jakin-minez jardun zuen karguan; independentziaz, askatasunaren eta justiziaren alde eginez. Egiteko gazi-gozo hartan, Arartekoaren historiarako geratu dira ziegei buruz edo psikiatrikoei buruz egin zituen txosten sendoak. 1994an, Europako arartekoen buru izendatu zuten.

Eragile eta sustatzaile, haren ekimenari esker sortu ziren Euskal Idazleen Elkartea eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea; *Egan* aldizkaria eta beste hainbat asmo. Idazle eta artezale porrokatua izan genuen San Martin, hamaika argitalpen dago haren luma zorrotz eta gai askotarikoaren adierazgarri.

2030. urteko euskaldun eleaniztuna irudikatzeko mintegia

Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak 2030. urteko Euskaldun Eleaniztuna irudikatzeko Mintegia antolatu dute uztailaren 22an Bilbon. Horrela, SAFen egoitzak lau hitzaldi bere barnean hartu ditu goiz partean.

Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentea egin die harrera hizlari eta entzuleei, eta mintegiaren lerro nagusiak azaldu ditu, galderen bitartez: “Zer egin beharko genuke aurrera begira euskararen iraupena ziurtatzeko, eraldaketaz beteriko garai hauetan?, nolakoak irudikatzen ditugu 2030eko euskaldunak, zelakoa etorkizuneko euskal hiztunen komunitatea?”. **Andres Urrutia** euskaltzainburuak Euskaltzaindiak ehun urtetik gora dituela gogorarazi du, baina Akademia aurrera begira dagoela beti, eta “etorkizuneko orientabideei buruz hausnartzeko, jarraibideak bilatzeko” prest dagoela azpimarratu du. “Gure etorkizuna eleanitza izango da, eta eleaniztasun horren barruan kokatu behar dugu euskara”, gaineratu du euskaltzainburuak.

Xabier Barandiaran Soziologiako doktore eta unibertsitateko irakasleak estreinatu du mintegia. Barandiaranek Euskal Herrian gertatzen ari diren eraldaketa ekonomiko, sozial eta politikoek euskal hiztunengan eta euskararengan duten eraginari buruzko hausnarketa egin du lehenik, hori guztia globalizazioarekin estekatuz: “Espazio ekonomikoak zabaldu egin dira eta Euskal Herria joko zelai horretan lehiakorra izatera behartuta dago; teknologiak errealitatea eraikitzeke harreman sistema berriak sortu ditu eta komunitate-eredu berriak egituratzeko aukera eskaini du; globalizazioak balio sistema eraldatu du; gizarteratze publikoaren espazioak biderkatu egin dira; agenda politiko berri bat dago: klima-aldaketa, desberdinkeriak, digitalizazioa, energia iturriak bereganatzeko estatu indartsuenen arteko lehia,...”. Bada, esparru askotariko eta konplexu horren barruan, nola jokatu behar du euskarak? Barandiaranen esanetan, euskararen etorkizuna, neurri batean, Euskal herriak komunitate politikoaren izaerari eusteko duen gaitasunarekin uztartuta dago: “Baina horretarako herrigintzarako estrategia eta gobernantza eredu berria behar dugu. Barne-estrategian oinarritutako estrategia bat behar da, batez ere, alderdi abertzaleen artean. Horrek adostasun zabalak eskatzen ditu. Euskara mundu berri horrekin lotu behar dugu, eta epe luzerako estrategiak behar dira, baina oraindik ere epe motzean gabiltza”.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-erronka nagusiak aletu ditu. Bidaia bat irudikatu du, 2030 urteko mundura eginiko bidaia bat, eta ibilbide horretan indartu eta gogoan hartu beharreko lerro batzuk zehaztu ditu. Testuinguru europarrari begira jarri da lehenik sailburua: “Sumatzen denez, gure hizkuntza frankoa ingelesa izango da, eta horrek etxeko lan bat egitea eskatzen digu: euskararen presentzia indartu behar dugu mundu berri horretan, toki hori bilatuz etengabe”. Eta Zupiriaren hitzetan, estatu espainiarrak ez die asko lagunduko hizkuntza gutxituei: “Estatu espainiarrak ez du inongo kezkarik eleaniztasunean, ez dauka beste hizkuntzekiko errespeturik; bere zerbitzuetan ez du ahaleginik egiten beste hizkuntzak sustatzeko. Gaztelania dute gogoan bakarrik. Horregatik, euskararen onspena bilatu eta Estatu espainiarreko administrazioan euskararen presentzia ziurtatzeko pausoak eman beharko ditugu”. Zentzu horretan, euskararen estatusa bermatuko duten arauak onartzen jarraitu behar dela ere gaineratu du.

Euskal Herri elebiduna -edo eleaniztuna- irudikatu du Zupiriak 2030. urterako, eta horregatik, “lortu behar dugu gure artean jaio eta heziko diren haurrak elebidunak izan daitezen gure bi hizkuntza ofizialetan, eta bi hizkuntzak erabiltzeko aukerak sortu behar ditugu. Hizkuntza gaitasuna landu behar dugu”. “Gainera, gazteen buruan jarri beharko dugu, azterketak egin beharko ditugu eta hor azpian dagoen pentsamendua aztertu eta ondorioak atera”.

Azkenik, euskal alderdi politikoei zuzendutako hitzak esan ditu sailburuak: “Hizkuntzaren egoeraz hitz egiten dugunean diskurtsoak adostu egin beharko genituzke, hitz errealistak erabili, egoeraren berri errealak eman, baina diskurtso *derrotistak* edo ezkorrak baztertuz. Aurrera jarraitzeko akordio berriak beharko ditugu, baita desberdin pentsatzen dutenekin egindakoak ere”.

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak hizkuntza-proiektu sendoen beharra aldarrikatu du. Hezkuntzan ateratzen ari diren datu positiboak azalduz hasi du berbaldia. Hala: “Datuek diote gure gazteak ondo prestatuak daudela, beren sasoian guk genekiena baino askozaz gehiago dakitela. Beraz, belaunaldi berriak gu baino hobeto prestatuta daude. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko familiek D erduaren aldeko apustu garbia egin dute (...)”. “Egia da jaiotze-tasaren jaitsiera nabarmena dela EAEn, baina errealitate hori baliatu behar dugu gure hezkuntzaren kalitatea areagotzeko. Gainera, joera hori 2036.enean aldatuko da, urte horretarako

ikasle-kopurua % 7 igoko baita, etorkinen seme-alabekin, hain zuzen (...). Eta azken datu positiboa azaleratu du, euskarazko hezkuntzaren inguruan gizarteak duen pertzepzioa ona, hartan ere: “jendeak biziki eskertzen du erakundeetatik egindako esfortzua, eta hori inportantea dela iruditzen zaigu”.

Datu positiboen ostean, etorkizunean heldu beharreko erronkei erreparatu die Bildarratzek: “Laster, ikasle askorentzat euskara bigarren edo hirugarren hizkuntza izango da, baita irakasle askorentzat ere. Horrela, irakasleriaren printzipio pedagogikoak birpentsatu behar dira, formula metodologiko berriak martxan jarri, eta horretan gabilta, ikastetxeetan egiten ari diren eraldaketa pedagogikoak izugarriak baitira”.

Apirilaren 7an, Eusko Legebiltzarrean etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarriak adostu eta ezarri ziren, eta adostasun horren onurak aipatu ditu Bildarratzek: “Etorkizunean, ikastetxe bakoitzak errealitate ezberdin bati erantzun beharko dio, Gasteizko auzo batean egon edo Ataunen egon, hizkuntza egoera ezberdina delako. Denak izan daitezke D eredukoak, baina egoera ezberdin bati erantzun beharko dio ikastetxe bakoitzak. Eta lege berriak lagunduko du zeregin horretan, hots, ikastetxe ahaldundu batek bere inguruarekin izan beharreko harremanetan”. “Hizkuntza-proiektu sendoak behar ditugu -jarraitu du Bildarratzek-, irakasleen kompetentziak indartu behar ditugu, bai linguistikoak bai pedagogikoak, ele- eta kultura-aniztasuna erdigunera ekarriz. Eta ez daukat zalantzarik erronka hauei guztiei erantzuten jakingo dugula”.

Elixabete Larrinaga Politika eta Administrazio Zientzietako doktore eta unibertsitateko irakasleak mintegiari amaiera eman dio. Bere hitzaldian gizarte-ekintza euskaldunaren lehentasunak azertu ditu. Gogorarazi du Euskararen Legeak 40 urte beteko dituela aurten, baina 1982tik gaur arte, euskal gizartean eraldaketa sakona izan dela esan du, eta, horrekin batera, “euskal hiztunen profilak, erronkak eta premiak” ere aldatu egin direla aitortu. Ondoren, etorkizunari begira jarri da: “Jakina da gizarte-ekintza euskaldunak lan eskerga egin duela hizkuntza biziberritzeko ahaleginean, baina orain, eraginkortasunez ekiten jarraitzeko, gizarte-ekintza euskaldunak testuinguru berriaren baldintza eta ezaugarrietara egokitu eta lehentasunak ezarri behar ditu”. Premiazko zeregina dela esan du Larrinaga irakasleak, eta lehentasunen artean bi nabarmendu nahi izan ditu: “batetik, diskurtsoa berritzea, ideia positibogoak erabiliz; eta, bestetik, lekukoa hartzeko prest dagoen eta gai den erreleboa ziurtatzea”.

Euskararen eta Galizieraren I. Lexikografia jardunaldietan parte hartu du Euskaltzaindiak

Galizieraren Errege Akademiak (*Real Academia Galega*), Galizieraren Institutuak (*Instituto da Lingua Galega*) eta Santiago de Compostelako Unibertsitateak (USC) antolatu dute mintegia Santiago de Compostelan, irailaren 12an eta 13an. Manuel Gonzalez Galizieraren Akademiaren kidearen gonbidapena jaso eta Euskaltzaindiaren ordezkaritza zabala bertaratu da ondoren.

Santiago de Compostelako Unibertsitateko Filologia Fakultatean bilduta. Jaber Kaltzakorta, Miriam Urkia eta Adolfo Arejita euskaltzain osoek eta Amaia Jauregizar Akademiaren teknikariak parte hartu dute jardunaldietan. J. Kaltzakortak *esaera atmosferikoen egituraz* hitz egin du; M. Urkiak *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren etorkizuneko erronkak* aletu ditu; A. Arejita *ahozkotasunaren garrantziaz* mintzatu da bere berbaldian, eta A. Jauregizarrek *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arteko loturak* jorratu ditu.

Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoaren artean: egoera eta aukera berriak

Jardunaldia irailaren 28an izan da, goizez, Kondestablearen Jauregiko hitzaldi aretoan.

8 urtetik 12 urtera arteko Nafarroako gaztetxo askok euskara bereganatzen dute familiaren edota hezkuntza-sistemaren bidez. Urteak bete ahala, ordea, badirudi, erdarek gero eta toki handiagoa hartzen dutela gaztetxo horien ahozko harreman formaletan nahiz informaletan. Noiz gertatzen da aldaketa hori? Zergatik? Nolakoa da gaztetxo horien euskarazko ahozko jarduna? Zein hutsune daude arlo horretan? Zein baliabide ditugu euskarazko ahozko jarduna hobetzeko ikasgeletan? Eta zeintzuk ikasgelatik kanpo, hots, aisialdi antolatuan, kirol-jardueretan...?

Gai horiek guztiak jorratu dira irailaren 28an, Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen ekimenez antolatu den mintegian. Egitasmo horren bidez, zenbait iritzi eta ikuspegi biltzen dituen bilgunea eskaini da, hausnartzeko, esperientziak trukatzeko eta elkarlanean aritzeko; baita 8-12 urteko gaztetxoaren euskarazko ahozko jarduna hobetzeko, eta, bide batez, etorkizunean abian jar daitezkeen ekimenak taxutzeko.

Honako hauek hartu dute parte mintegian: Yolanda Olasagarrek (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko irakaslea, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalean); Helena Baraibarrek (Ikastolen Elkarte); Yolanda Arrietak (idazlea, irakaslea); Roberto Gomez Zorrillak (Ardoi Pilota Eskola); Esther Lakastak (Dindaia Fundazioa); Leire Barberenak (Nafarroako Bertsozale Elkarte); Ander Barandiaranek (Topagunea); eta Iturrama Institutuko ikasleek. Halaber, Sagrario Alemanek, Euskaltzaindiko Jagon saileko Sustapen batzordeko buruak, eta, Enrike Diez de Ulzurrune, Iruñeko Komunikabideak Fundazioko lehendakariak aurkeztu dute mintegia.

Sagrario Alemanen ustez, “Euskal Herri osoan badago kezka handia; eskolak bakarrik euskal hiztunak sortzen ote dituen. Oinez, ibiliz ikasten da eta euskal hiztunak eremu guztietan euskaraz arituz lortzen dira”. **Enrike Diez de Ulzurrune**k gazteei entzuteko asmoa dutela adierazi du: “Jakin nahi dugu 10, 11, 12 urte zituztenean nola bizi izan zuten euskararekiko harremana”. Biek ala biek haur-gazteen euskarazko erabilera areagotzeko baliabideak eskaintzea lehenasuna dela azpimarratu dute hasiera-ekitaldian.

Euskarabideako zuzendari den **Mikel Arregik** euskararen ezagutzaren inguruko datuak gogorarazi ditu sarrera-hitzaldian. Izan ere, azken urteotan ezagutzak nabarmen egin du gora Nafarroan eta lau gaztetik bat euskalduna da, baina euskaraz komunikatzeko erraztasuna lehen handiagoa zen orain baino. Bere esanetan, “gaitasun erlatiboan aldaketak izaten ari dira, haien profila aldatu baita, gehienek euskara ez dutelako etxean jasotzen, baizik eta eskolan”.

Helena Baraibar Ikastolen Elkarteko ordezkariak D eredia indartu beharra dagoela nabarmendu du. Bere iritzian, “indartzea hizkuntzen trataera integrala ematea da; eta ez da hizkuntza guztiei trataera bera ematea”. Baraibarrek gaineratu duenez, “euskararekiko sentikortasuna indartu behar da ikastetxeetan, euskara erdigunean duen ekosistema koherentea sortuz eta elikatuz”. Ildo horretatik, **Yolanda Olasagarre** Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara teknikaria ikastetxearen hizkuntza-plangintza lantzearen alde azaldu da: “Ikasle askok barne-gatazka sentitzen dute; nahi dute euskaraz egin, baina ezin dute. Ahalduzko baliabideak eman behar dizkiegu”.

Horregatik ahozkotasuna lantzea eta programaziotan txertatzea beharrezkotzat jotzen du. "Ahozkoa modu sistematikoan landu behar da, eta horretarako irakasleek baliabideak eta prestakuntza behar dituzte. Ikasleen ahozkotasuna lantzeko, irakasleen prestakuntza eskaintzen ari gara. Motibazioa lantzeko baliabideak ere sortzen ari gara".

Ondoren, gazteak entzuteko aukera izan da Kondestable Jauregian Iruñeko Iturrama Institutuko ikasleen ahotik. Hartara, **Xabier Olanok**, **Amagoia Nuinek** eta **Uxune Camposek** eguneroko bizimoduan dituzten hizkuntz-oztopo, -ezin eta -aukerak ezagutzera eman dituzte.

Yolanda Arrieta idazle eta sortzaileak euskara ahora eramateko dekalogoia aurkeztu du mintegian. Horretarako, haurren afektibitatean jarri du arreta, batik bat, bere iritziz hari afektiboak eten egin baitira gure gizartean. Hari horiek berriz ere ehuntzeko, paradigma berria sortzeko proposamena egin du: "Hutsuneak antzeman eta hortik hasi behar da umeen "ni"-a euskaraz lantzeko, harremanak beti ardatz".

Azpimarratu du, besteak beste, gaztetxoengandik inguruan mugitzen diren bitartekari helduek (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak...) beharrezkoa dutela prestakuntza berezia: "Heldu horiek nor diren antzeman, prestatu eta ahaldundu egin behar dira, eredu izan daitezten. Umeari *zerbait* sentiaraziko dion heldua behar dugu eskolan, auzoan, aisialdian, parkean...".

Hari afektiboko euskaraz blaitzeaz gain, euskaradun harremanak elikatu, oroitzapenak erein eta atxikipen berriak egitea proposatu du Arrietak: "Beste era batera egin behar ditugu gauzak eta beste gauza batzuei garrantzia eman. Hutsuneetara joan behar dugu, eta hutsune horietan, *guk tilin* egin behar dugu". Bide horretan emozioak sortzea ezinbestekoa dela nabarmendu du sortzaile bizkaitarrak.

Azkeneko atalean, aisialdian eta kirol-jardueretan gazteekin aritzen diren taldeen esperientziak ezagutzeko parada izan da. Zizur Nagusiko Ardoi Pilota Eskolan entrenamenduak euskara hutsean egiteko erabakia hartu zuten duela urte batzuk; es-

perientzia hori zer nolakoa izaten ari den azaldu du **Roberto Gomezek**. Ondoren, Dindaia Fundazioak martxan jarritako *Euskaraz Klika* egitasmoaz aritu da **Esther Lakasta**: pandemia-garaian, elkarrizketak online egiteko aukera ematen duen gunea sortu zuten eta Nafarroa osoko D ereduko gazteei eskaintzen zaie.

Bestetik, **Leire Barberenak** Bertsolaritza Ikastetxeetan proiektuaren nondik norakoak aurkeztu ditu. Bukatzeko, *Larunblai* Atarrabiako aisialdiko programa izan du hizpide Topaguneko **Ander Barandiaran** teknikariak.

Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko 43. jardunaldia Donostian egin da

2022ko urriaren 4tik 7ra, Euskaltzaindiko Luis Villasante Ikerketa Zentroan izan da Hizkuntzalaritza Funtzionalaren 43. jardunaldia. Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko Elkartearen (*Soci t  Internationale de Linguistique Fonctionnelle*, SILF) eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren emaitza da jardunaldi hau. Ezin aipatu gabe utzi, erakunde horiek elkarrekin lan egiten hasteko funtsezkoa izan zen Andr  Martinet hizkuntzalari ospetsua.

Hain zuzen, “Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko Elkartearen (SILF) ideia 1974an sortu zen, hizkuntzalaritza funtzionalari buruzko nazioarteko lehen jardunaldian, Groningan Don Graham Stuart irakasleak antolatuta, eta Andr  Martinet-ekin bat etorritz, hizkuntzen funtzionamendua aztertzeo ikuskera bera zuten hizkuntzalarien arteko truke erregularrak errazteko” (www.silf-la-linguistique.org/presentation.htm). “Gainera, Andr  Martinetek 1965ean Presses Universitaires de France-n kaleratu zuen *La linguistique* aldizkaria, hizkuntzalari-elkarte honen tribuna gisa erabiltzea erabaki zen” (*ibid.*). Hamar urte geroago, 1984an, Euskaltzaindiak Andr  Martinet ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

43. Jardunaldi hori Andr e Tabouret-Keller ikertzaileari omenaldia egiteko aukera izan da, denbora gutxi baita zendu zela, 2020ko irailaren 20an, hain zuzen ere. Nazioartean ezaguna den hizkuntzalari zen Andr e Tabouret-Keller eta Frantziako soziolinguistikaren aitzindarietako bat zen. SILFko lehendakaria ere izan zen.

Jardunaldia, osasun-egoera eta horren eraginez izan diren ezin bertaratzeak gorabehera, mami ederrez horniturik egin da. inaugurazio-hitzaldia, hogeita bat ekarpen (zortzi euskaraz, hamaika frantsesez, bat ingelesez eta bestea gaztelaniaz),

SILFren biltzar nagusia eta SILFren etorkizunari buruzko hausnarketa-tailerra.

Hiru berbaldirekin ireki da jardunaldia: Jean-Baptiste Coyos Euskaltzaindiko buruordearenak, ezin etorri izan den Andres Urrutia euskaltzainburuaren izenean, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariarenak eta Christos Clairis SILFko lehendakariordeak eginiko hitzaldia, Henriette Walter presidentearen izenean, horrek ere ezin etorria adieraziz. Hala ere, atsekabez aitortu behar dugu gure lanetan parte hartu nahi zuten eta komunikazio-proposamenak bidali zituzten lagun batzuk falta izan direla: txinatarrak Covid 19ren aurkako borrokarengatik ezin izan dira Txinatik atera, bisarik lortu ez duten errusiarrak eta afrikarrak, etab.

Hiru gai landu dira mintzaldietan eta honako ekarpen hauek izan dira: Maryvonne Akamatsuk irakurritako Henriette Walterren inaugurazio-hitzaldia, *Des mots pour dire le monde* (Hitzak mundua errateko), Christos Clairisek irakurri duen Henriette Walterrek Andrée Tabouret-Kellerri egindako omenaldia, Françoise Guérin SILFen idazkari nagusiak idatzitako SILFren urteko bilera-agiria eta SILFren geroari buruzko mintegiaren agiria.

1. gaia: Digitalizazioaren eta teknologia berrien erronka hizkuntzentzat, bereziki hizkuntza gutxituentzat

Digitalizazioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gai garrantzitsu bihurtu dira hizkuntzentzat, bereziki hizkuntza gutxituentzat. Hizkuntza bat zaintzea oso lotua dago etengabe aldatzen ari den ingurune digitalean funtzionatzeko eta erabilgarria izateko gaitasunari. Tresna linguistiko digitalizatuek, hizkuntzen prozesamendu automatikoak, urrutiko komunikazioek, sare sozialek eta laguntzaile adimendunek aldatu egiten dituzte pertsonen arteko eta komunitateen arteko harremanak. Muga fisikoak zein muga linguistikoak gainditzeko aukera eman dute.

Hitzaldiak gai soziolinguistiko horri buruzkoak izan dira, esperientzia zehatzak aurkeztuz adibidez edo ikerketa teorikoagoak azalduz.

2. gaia: Genero gramatikala eta haren adierazpenak hizkuntzetan idazketa inklusiboa aztergai:

Bereizketa hori —hizkuntza guztietan ez dagoen arren— hainbat modutan ageri

da, idatziz nahiz ahoz, hizkuntza desberdinetan. Forma ezberdinok eta haien bilakaera aztertu dituzte bigarren gai hau jorratzean.

Frantsesez, lanbideen izenen feminizazioaren gaia planteatu da, kasurako, zer gertatzen da alor horretan beste hizkuntza batzuetan?

Aspaldian gizartean dabilen generoaren eta sexuaren nahaste urriak ondorio larriak ekarri ditu, batzuek onartu eta beste batzuek eztabaidatzen duten idazketa inklusiboaren eraginez.

3. gaia: **Ordenaren irizpidea sintaxian**

Diskurtsoaren elementuen ordena garrantzitsua edo garrantzirik gabea izan daiteke. Ordena egokia denean, erlazio sintaktikoa markatzen du eta berorren analisiak sintaxian aurkitzen du tokia. Ordena garrantzirik gabea, askea edo finkoa denean, morfologikoa da, ostera.

Badirudi rolen banaketa hizkuntzen tipologiari atxikita dagoela; ohartuko da, adibidez, hizkuntza isolatzaileetan elementuen kokapena dela, batzuetan, menderakuntza edo zehaztapena adierazteko irizpide bakarra. Bestalde, hizkuntza jakin batean ordena tratatzeak ezaugarri tipologikoak erakutsiko ditu.

Interesgarria da, halaber, diskurtso- edota informazio-egituren ikuspegitik ordena aztertzea, hala nola, tema (mintzagaia, *topic*) eta (galdegaia, *comment*) kontzeptu-oposizioaren bidez.

Ordena sintagmatikoari edo esaldikoari buruzko azterketari dagokionez, erabilgarria da nozio horrek maila guztietan (sintaktikoan, morfologikoan edo enuntziatio-mailan) duen garrantzia azaltzea.

Azkenik, hainbat kidek **banakako komunikazioak** aurkeztu dituzte.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Euskaltzaindiaren zerbitzuei, jardunaldia gauzatzeko azpiegitura-antolaketagatik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, emandako babaes finantzarioagatik.

Datorren urtean, 2023an, Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko 44. Jardunaldia Kalamatan (Grezia) iraganen da. Dimitra Delli gure lankideak, Peloponesoko Unibertsitateko Filologia Saileko kideak, antolatuko du.

Henrike Knörr jaio zeneko 75. urteurrena

Henrike Knörr jaio zeneko 75. urteurrena aintzat hartuz, Euskaltzaindiak arabar euskaltzaina omendu nahi izan du azaroaren 7an. Goiz beteko mintegia izan da, eta Onomastika ardatz izan du, hain zuzen Henrike Knörrek bere jarduera akademikoan bereziki gogokoa izan zuen eremua.

Omenaldian familia izan da, eta Knörren idazlan hautatuekin osatu den liburua aurkeztu da.

Omenaldiak denetarik izan du. Batetik, euskaltzain arabarrari eginiko gorazarrea bera, non hainbatek parte hartu duten: Henrike Knörren familiak, Gorka Urtaran Gasteizko alkateak, Ramiro González Arabako diputatu nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Bestetik, onomastika gaiak ardatz hartuta, mintegi labur eta trinkoa antolatu du Akademiak. Jardunaldi horretan, ondoko hauek parte hartu dute: Ana Boullón *Toponomasticon Hispaniae* egitasmoaren koordinatzaileak, Patxi Salaberri euskaltzain oso eta egitasmo horren Euskal Herriko lantaldearen ikertzai-leak, eta Roberto González de Viñaspre Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak.

Horrez gain, euskaltzainaren 67 idazlan “ez hain ezagunak” biltzen dituen liburua aurkeztu da ekitaldiaren barruan. *Henrike Knörr (1948-2008) Idazlan hautatuak. Textos escogidos* argitalpena Roberto González de Viñasprek paratu du, Gariquito Knörren laguntzaz. “Idazlanen hautapenean erabilitako irizpide nagusia izan da albo batean uztea Internet bidez aise eskura daitezkeenak. Horien ordez, urteetan aldizkari eta egunkari askotxotan eta, oro har, zabalkunde laburreko argitalpenetan, Henrike Knörrek idatzitako artikuluak jaso dira. Era honetan, mamitsuak eta interesgarriak diren idazlanak errazago jarri dira egungo irakurleen eskura, egilearen ekarriaren ikuspegi osatuagoa izan dadin”, adierazi du Roberto González de Viñaspre euskaltzain osoak. Artikuluetan gai ugari jorratu da, baina, batez ere, Onomastika kontuak, euskararen historia eta euskarazko testu zaharren azalpenak. Liburuaren osagarri, Knörr-Santiago familiak utzitako hainbat argazki ere bildu dira.

Azkenik, UPV/EHUK 2021eko Henrike Knörr Bekaren emaitzak agertu ditu, eta, bide batez, 2022ko deialdia ere egin da.

Euskaltzaindiak *Euskararen Gogoetagunea* aurkeztu du Akademiaren XXVII Jagon jardunaldietan

Euskaltzaindiaren Jagon saila arduratu da egitasmoaz, eta Jon Sarasua koordinatzailearen esanetan hizkuntza-komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak arragoa batera bildu nahi ditu, ikuspegi desberdinak elkarrizketan jartzeko moduko sinesgarritasunez. “Norabideak ikusten laguntzeko ekarpena izan nahi luke egitasmo honen emaitzak”, gaineratuz laburbildu du *Euskararen Gogoetagunearen* koordinatzaileak egitasmoaren helburua. Andres Urrutia euskaltzainburuak, ostera, zera adierazi du: “Euskaltzaindiaren zereginetako bat da euskara jagotea eta aitzinatzea, eta *Euskararen Gogoetagunea*-n euskarak bizi duen egoera aztertu nahi dugu, gero hausnarketa horiek gizarteari bueltatzeko”.

Euskaraldiaren hirugarren aldia abiatu da gaur, eta, egun seinalatuarekin batera, Euskaltzaindiak *Euskararen Gogoetagunea* aurkeztu du jendaurrean. Jagon sailaren barruan kokatua dago egitasmoa, eta proiektu berriaren gogo-nahiak ondo azaldu ditu Jon Sarasua irakasle, ikertzaile eta *Gogoetagunea*-ren koordinatzaileak: “XXI. mendeak galdegai berriak ekarri dizkio euskararen bidetari, eta une honetan norabide-krisi baten zantzuak bizi ditu. Abagune honetan, euskararen inguruko iritzi argitaratuak dibergentzia handi samarra agertzen du egoerari buruzko balorazioan, analisi eta planteamenduetan. Egoera honen erdian, elementu baten falta sumatzen da: bisio edo etorkizun-ikuspegia, eta horretara norabidetutako arnas luzeko estrategia nagusien marrazkia. Neurri batean, horretara dator egitasmo hau, arnas luzeko estrategiak marraztera, etorkizun-ikuspegiarekin”.

Gogoetagune berriak badu koordinatzailea (Jon Sarasua bera), badu idazkari teknikoa (Ibon Usarralde) eta badu hamar lagunez osatutako kontraste-taldea ere bai. Eta, nola ez, etorkizunerako asmoak ere badira Sarasuaren arestian aipatutako hitzak berriz ekarriko ditugu hona: “Hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak arrago batera bildu nahi ditu guneak, ikuspegi desberdinak elkarrizketan jartzeko moduko sinesgarritasunez”, “Zeregin horretarako altzo egokia da Euskaltzaindiaren Jagon saila, berezkoa baitu eztabaidarako eta gogoetarako joera. Orduan, bai, erakunde publiko, gizarte-erakunde eta gainerako eragileei dagokie haiek politikak erabakitzea, baina guk norabideak ikusten lagunduko diegu, *Gogoetagunearen* emaitzak beraien eskura jarritz, gizartearen eskura jarritz”, gaineratu du ikertzaile gipuzkoarrak.

Praktikotasun horri eutsiz, *Euskararen Gogoetagunea*-ren lehen emaitza agertu du Jon Sarasuak jendaurrean, *Euskararen biziberritze prozesuaren etorkizun-ikuspegia* izeneko ponentzia hain zuzen ere. Bigarren ponentzia bat ere ondu dute gunearen kontraste-taldean, *Euskararen egoeraren diagnostikoaren sintesia*, hain justu Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak atondua. “Datorren urteari begira, beste 5 ponentzia mahairatuko ditugu, eta aurrerago beste sei-zazpi. Gero, kontraste-taldean aztertu, hobetu eta onartuko dira, eta ondoren plazaratu egingo ditugu, eztabaida publiko-rako baliagarri izan daitezen”, adierazi du Jon Sarasuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea onartu zela 40 urte

Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak orain dela 40 urte onartu zen Euskararen Legearen inguruan gogoeta egiteko mintegia antolatu dute Bilbon.

Azaroaren 24an, 40 urte bete ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zela. Azken lau hamarkadotan, Euskararen Legea giltzarria izan da euskarari bidea zabaldu eta aukera berriak eskaintzeko orduan, eremu publikoan zein pribatuan. Honela, jardunaldian legeak ekarritakoez eta irekitako bideez gogoeta egin da, bai eta euskarak ofizialtasun murriztua edo ofizialtasunik ez daukan lurraldeen oraingo egoera zein den azaldu ere.

Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentek ongiatorria egin die gonbidatu eta entzuleei, eta mintegiaren garrantzia azpimarratu du, “Legearen ekarriari euskararen lurralde guztietako begietatik begiratu zaielako”.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak ireki du berbaldien txanda, eta Euskararen Legearen azterketa egin du, baina herritarren ikuspegitik. Legearen babesean, herritarrok zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukerak izugarri zabaldu direla aipatu du Zupiriak, baina ez hori bakarrik, “Legearen edukiek garapen handia izan baitute ondoko xedapen eta arauen bitartez. Hari horri jarraituz, euskararen estatusa modu nabarmenean indartu dela esan du “Udal Legearen eta hainbat arlotan onartutako dekretu eta aginduen bitartez”. Eta Euskararen Legearekin batera, hizkuntza estandarraren finkatze eta hedatzeak ere normalizazioan

lagundu duela adierazi du: “Euskal eredu estandarra biribildu da, euskararen normalizazioak aurrerapauso nabarmena eman baitu 40 urteotan hiztegi, gramatika, onomastika eta abarretan. Horrek guztiak ere lagundu du, jakina”. Zupiriak gogorazi du administrazioan eta Hezkuntzan 1982tik hona eginiko aurrerapenak itzelak direla, baina haxe ere ohartarazi du: “Euskararen Legea tresna bat da, ez helburua”.

Andres Urrutia euskaltzainburuak Legeak euskararen normalizazioan ekarri dituen ondorioak aletu ditu, eta zehaztu du hizkuntza zuzenbidearen eta hizkera juridikoan izugarria izan dela garapena. Dena den, Legeak ematen dituen aukerak alor guztietan ezarri behar direla esan du Urrutiak, “eguneroko jardunean, geure bizitzako une guztietan, etxean, lanean, kalean”.

Juanjo Alvarez legelari eta UPV/EHUko irakasleak ideia nagusi bat jorratu du, hain zuzen, Europako Zuzenbideak (*Lisboako Tratatua*) indar handia ematen diola Europar Batasunaren kultura- eta hizkuntza-ondarea bere alderdi guztietan babesteko eta sustatzeko helburuari, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipioetako bat baita, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 22. artikuluan jasota dagoelako («Batasunak kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu»).

“Europako hizkuntza guztiak berdinak dira balioari eta duintasunari dagokiez -jarraitu du Alvarezek, beren kultura eta zibilizazioen parte dira eta gizateria aberasten laguntzen dute. Izan ere, hizkuntza-aniztasuna herritarren eskubidetzat hartzen da, eta horrek esan nahi du hizkuntza baten eskusibotasuna ezartzen saiatzeak Batasunaren funtsezko balioak murriztea eta urratzea dakarrela. Hizkuntza gutxituak Europako kultura-ondarearen zatitzat hartu behar dira”. Legelariak gogorazi du Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunaren kontzeptuak “hizkuntza ofizialak ez ezik, estatu kideetan ofizialki onartzen ez diren hizkuntza koofizialak, eskualdeetako hizkuntzak” ere biltzen dituela. Baina aitortu du, bestalde, Europar Batasunak kontraesan ugari duela hizkuntza gutxituen esparruan, sarritan bere lege propioak betetzeko zailtasunak dituelako.

Elixabete Piñol abokatu eta euskaltzain urgazleak Legearen hastapenak garatu ditu, erabilera juridikorako gune berriak ireki zituela aitortuz: “1982an, euskal herritarrek hizkuntza arloan zituzten eskubideak lege-antolamenduan jasotze-ari ekin behar zitzaion eta Euskararen Legea onartu zen”. Ondoren, esan du 40 urte pasatu direla baina euskararen erabilera ez dela normalizatu: “Gaur egun gure

hizkuntza gutxitua da”. Jarraian, abokatu batek euskaraz jarduteko gaintitu behar dituen oztupoak salatu ditu: “Eskuragarri ditugun tresnak ez ditugu ezagutzen; eta Espainiako Gorteen eta Europar Batasunak onartutako etengabeko lege-aldaketek ez dute laguntzen; hiztegi juridikoaren zailtasunak ere ez du laguntzen; eta, jakina, Justizia Administrazioan euskararen presentzia eskasak eta euskararen kontrako azken epaiak ere ez”.

“Nola ireki genezake erabilera juridikorako guneak?”, galdera egin du Piñolek; eta segidan erantzuna eman: “Hiztegi juridikoa gorpuzten jarraituz; epaitegietan euskararen erabilera sustatzeko ekimen eta proiektuekin jarraituz; eskuragarri dagoen *corpusa* zabalduz; legeria eguneratuz; eta eragile sozial eta gizarte osoaren laguntzaz.

Gotzon Lobera legelari eta euskaltzain urgazleak hitzaldi jostagarri bezain zorrotza eman du. Lehenik, Euskararen Legeak legegintzari “babes juridikoa” eman diola azpimarratu du, “Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatzeko gizarte-arlo guztietan”. Eta ideia hori hauxe esanez indartu du: “10/1982 Legea izan ez balitz, ezinezkoa zatekeen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza-eskubideak babestea euren eguneroko bizitzaren arlo guztietan”. Kezkatuta ere azaldu da, errealitateak erakusten duelako oraindik badirela aldapak eta zailtasunak; baina, zentzu horretan, erakundeek egin dezaketenez gain, euskaldunok egin dezakegunaz jardun du: “Kalean ere lehenengo berba euskaraz egitea oso garrantzitsua da, beraz, lotsa barik egin dezagun euskaraz, eskubide osoa dugulako”.

Eba Gaminde Zuzenbidean doktore eta euskaltzain urgazleak arlo sozioekonomikoari erreparatu dio, hots, Euskararen Legeak arlo sozioekonomikoan, eta zehatzago esanda, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen esparruan zer nolako eragina izan duen analizatu du eta ondoko atal hauek jorratu ditu: lehenik euskal hiztunek jaso zuten babesa, hots, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen arauak; bigarrenik, diagnostikoa: hau da, arauketa horren betetze-maila zein den aztertu du; eta, azkenik, etorkizunari begira jarri da, bihar-etziko erronkak identifikatu nahi izan dituelako, erabilerearen benetako normalizazioa erdietsi nahi izanez gero kontsumitzaileen alorrean egin behar diren aurrerapausoak zehatzuz. Hala bada, zera adierazi du: “Erronken artean, nik bi azpimarratuko nituzke: batetik, arauketa betetze-maila areagotzeko eta, beraz, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak benetan bermatzeko gakoa aurkitzea, eta bestetik, aktibazioa erdiestea, bai enpresari eta zerbitzu-eskaintzaileena, baita kontsumitzaileena eurena ere”.

Unai Hualde abokatu eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Nafarroako Euskararen Foru Legea azertu du bere hitzaldian. Hualdek Legearen izena bera aipatu du lehendabizi: “Orain dela 36 urte onartu zen, Ley Foral del Vasconce izenarekin, eta duela bost urte aldatu zitzaion izena, Ley Foral del Euskera ezarri. Kontu honek berak nahiko ondo adierazten du Nafarroan euskarak bizi izan duen eta bizi duen egoera”. Gogoratu behar da, Lege horrek dioela gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta, bide batez, euskarak ere hizkuntza ofizialaren izaera izango duela lurraldeko eremu euskaldunetan; hortxik dator zonifikazioa, hau da, Nafarroaren banaketa linguistikoa: eremu euskalduna, mistoa eta erdaldu-na, bakoitza bere arau eta ajeekin.

Hualdek onartu du, Nafarroan beti daudela euskararen inguruan adostasunak bilatzeko arazoak, eta, azken urteotan, 1986ko Legeak izandako aldaketa guztiak, 2017koa barne bihitu ditu. Azken aldaketa horretan euskarari bestelako aitortza egin zitzaion, Nafarroako hizkuntza berezia dela esanez, bertakoa, eta horren berreskurapena sustatu behar dela aitortuz. Baina era berean, Hualdek salatu du Euskararen Foru Legearen aplikazioan “zonifikazioaren interpretazio murriztaila” egin dela. “Iruñean daude Administrazioaren zerbitzu gehienak, eta nahiz eta Legea garatzen duen araudian eremu euskalduneko herritarrei eskubidea aitortzen zaien Foru Administrazioari zerbitzu zentraletan (ospitaleak, ogasuna eta abar), praktikan eta interpretazio judizialean eremu mistoko administrazioaren irizpideak nagusitzen dira”. Eta gaineratu du, 1986ko hizkuntza-zonifikazioa ez datorrela bat Nafarroako errealitate eta bilakaera soziolinguistikoarekin: “Sortu zenean ere ez zen egon inoiz azaldutako irizpide zientifiko edo soziolinguistiko batean oinarrituta”.

Segurtasun juridikoa emango lukeen marko juridiko egokia onartu bitartean, Hualdek aldarrikatu du garrantzi handikoa dela “hizkuntza politika egokiak eta adostuak garatea”, eta horretarako, beharrezkoa dela “Hizkuntza politika planifikatua”. Azkenik, etorkizuneko erronka batzuk zirriboratu nahi izan ditu: “Ezberdinen arteko adostasunak ehuntzen jarraitu behar dugu, hori baita bidea euskara gatazka alderdikoitik ateratzeko; herritar guztien eskubideak bermatzeko norabidean jarraitu behar dugu; euskararen sustapena eta balio positiboak gizarteratu behar ditugu, herritarren hautatze-eskubidea eta borondatezkotasuna kontuan hartuz; eta, azkenik, denok diskurtso eta jarreraren berrikuspen sakon bat egin beharko genuke Nafarroan, batez ere eremu ez-euskalduna deritzon horretan”.

Eneritz Zabaleta Zuzenbidean doktore eta irakasleak eman du mintegiaren azken hitzaldia. Zabaletak gogorarazi du euskarak Ipar Euskal Herrian duen lege estatusa zuzenbidearen eta borondate zibil eta politikoaren arteko talkaren isla dela: “Euskarak frantsesaren nagusitasuna babesteko helburuz osatu den estatus juridiko bati aurre egin behar dio. Ofizialtasunik ez du eta eremu publikoan bazterreko lekura kondenatzen dute Konstituzioak eta legediak. Hala ere, azken urteetan, euskal gizarte zibilaren lanari esker, haren biziberritzearen aldeko mugimendu sendo bat sortu da. Mugimendu horren jarraipena, euskararen alde aplikatzen diren politika publikoek eman dute. Bi logika desberdin horien arteko etengabeko talkan biziraun behar du euskarak: legearen zurruna, eta haren aldeko hauspoaren indarra. Bi indar horien artean igeri egiten ikastea ezinbestekoa izanen du, etorkizunean arnasberritu nahi badu”.